


Tx:K:



LORETEGI
BERÍA

PRANTZISKO ELIZONDAÑA
A. KAPUT X'INOA

M. 25231
R. 14279

ATN. 2226
20

LORETEGI BERIA

“LORETEGI BERIA”

*AITA KAPUTXINO
PRANTZISKO ELIZONDAK
EGIÑA*

Nere jabearena naiz.
Legeak eskatzen duana egin du.
Eskubideak beretzat.

*IRUÑAN
KAPUTXINOEN ETXEAN
1932.*

LICENTIA ORDINIS

Nihil obstat

Fr. Thomas ab Elduayen

O. M. CAP.

IMPRIMATUR.

Fr. Carmelus ab Iturgoyen

Min. Prov. Cap.

LICENTIA ORDINARII

Nihil obstat

Dr. Blasius Fagoaga

CENSOR.

PAMPILONE, 17 FEBRUARII 1932

IMPRIMATUR

† **Thomas**, Episcopus Pampilonensis

Excemi. ac Revmi.

Dni. mei Episcopi mandato

Dr. Aloisius Goñi

Magister-Scholae, Scrius.

EUSKALTZAINDIAKO BURUAREN ITZAURĒA

Saŕi askotan liburu bati itzaurĒa yartzea gauza zaila izaten da. Batzuetan egilea nolabaitekoa dalako, eta beste askotan liburuak berak mamin gutxitxo duelako.

Begien aurĒan daukadan onenaz ezta ori gertatzen. Izen polita, egokia ezarĒi dio: LORETEGI BERĒIA. Izen politagorik ĩzein? Baina izana ezta atzera gelditzen. Azala edo estalkia eztakit nolakoa yarĒiko dion; mamina, baĒena, edeĒa du beintzat.

Izkera eĒaza eta garbia darabil. Gutxitan ikusten dana ĩezta egia, irakurle? Erdalitzik ezta agiri, bear beaĒekoren bat izan ezik. Euskera garbi ta txukunean idatzia dago, eta gainera ulertetezean.

Loretegi beĒi oni usain edeĒa dario. Izanak eztu izena gezurtatzen. Gai asko darabiltzki, yakingarĒi eta onurakoĒak geienak, eta bakoitza ederki azaldu ondoren, amaitzat, irakaspn egoki bat ateratzen du.

EdergarĒiz yantzia dator. Nolakoak diran yakiteko, beren egilea nor dan esatea aski da. Geienak «Txiki» narazlari ezagunarenak dira.

Norbaitek esan dezake: loretegi oni usain onik darrion eztakit, baina itzaurlariak liburu egilea goratu nai duela ageri du beintzat. Olakorik balitz, ona zer erantzungo nioken. Akats bat edo beste ĩnun ezta arkitzen? Gizonen egintza guztietan. Beraz emen ere bat edo bestetxo izan bear, baina ainbeste egokitasun eta edertasun artean akats txiki oriek ezkutatuak gelditzen dira. Egia diodan ala ez yakiteko, erosi ta irakur zazu. Etzaizula damutuko uste dut.

R. M. AZKUE.

NIK ERE ITZ BI

Baŕen bafendikan eskeŕak, Azkue jauna. Nik eskatu bañon askoz geyago eman dirazu.

Euskerazko gauzak irakurtzea zaila dala euskaldun askok esaten dute, ta oiei lauso ori kentzeko argibidea nai nuan. ¿Zer egin? Zuk zerbait esan-da ori iritxiko nuala gogoraturik, asmo ori erakutsi nizun, eta nik uste bañon obetoko lana egin dirazu.

Euskera garbia, txukuna ta ulertereza ipiñi deta-la «**Euskaltzaindiak**» Buru duanak esatea bañon geyago ¿zer? Zuk ori esan ezkerro, liburutxo au baztar guztietara joango da, ta guztietan ondo artuko dute; ta euskaldun guztiok, batez ere nik, ori beti zorko dizugu. Guztien izenean, ba, eskeŕak.

¡Euskaldun maitea! Nork bere izkuntzako gauzak irakurtzen ez jakitea, edo oiturik ez izatea, lotsagafia da, ta ortan oso eŕudun generala aitortu bear degu.

Erdaldunak Euskaleŕian irakurgai asko ateratzen dituzte, ta maiz ez oso onak; eta euskaldunak, erderaz ondo ez jakin aŕen, erosi ta irakurtzen dituzte.

Zuk ori egin ez dezazun, **Loretegi** au eskuetan ipintzen dizut. ¿Nolakoa da?

Gaiak. Auek beintzat, txafak ezin izan. ¿Aita Kaputxino batek pozoirik eman bear al dizu? ¡Ez orixe! Gañera, bear diran baimenak baditu.

¿Izkuntza? EUSKALTZAINDIA'ko Buruak euskera garbi, txukuna ta ulerterezta ipiñi detala dio: goian ikusi dezu. Geiago ¿zer?

¿Edergarriak? Auek ere obeak ezin izan. Euskaldun guztiak «Txiki» nafazlaria (Juan Zabalo jauna) ezagutzen dute. Ori bezelako gutxi.

¿Gañerakoa? Gure etxean egiña da, ta gure langileai gauz abetan aomen aundia ematen diete.

¿Nolakoentzat? Zar eta gazte, giz-emakumeentzat, era ta mota guztietakoentzat. Estalkiari, azalari begiratu, ta ori antxe ikusiko dezu.

Guztira begiratu ta, ba, gauza polita ta ona ematen dizudala uste det. Geyago nai badezu, nik ezin eman. Barkatu.

Egileak.

Donostian:

Aingeru Zaindariaren egunean—(1-III-1932.)

JAKINBEARAK

Lengo	rr	jartzeko	orain	í	jartzen da.
»	v	»	»	b	»
»	ll	»	»	ĩ	»
»	ch	»	»	tx	»
»	gue, gui	»	»	ge, gi	»
»	c	»	»	z edo k	»
»	que, qui	»	»	ke, ki	»

(Erderazko izen batzuek erderaz bezela ipiñi ditut, euskerazko gauzetan ari aŕen: *Eva, Oviedo, Guadalquivir, Cristobal Colón, Sancho*, ta abar.)

AÑETAZ OARTU

Liburu ontako gauzak, guztiak berdiñak ez dira. Batzuek Jaungoikoaren itzak dira. Bere Irakurgaietan (erderaz *Sagradas Escrituras*) daudenak; eta nastu ez ditzatzun emen ipintzen dizkitzut.

(6-garen orian) **Jaungoikoak guztia egitea...**
(Genesis-I)

(8-9 garenean) **Lenengo Gurasoen obena...**
(Genesis-III)

(11-12 garenean) **Cain gaiztoa ta Ujola.....**
(Genesis IV eta VII)

(14-15 garenean) **Jesus'en bizi ta eriotza.....**
(Lau Evangeliotan)

(17-garenean) **Aurak Beragana ekartzea.....**
(Math. XIX)

(45-48 garenean) **Seme ondatzailea**
(Luc. XV)

(77-79 garenean) **Joseren kondaira.....**
(Genesis XXXVII).

(132-133) **Moisesen kondaira.....**
(Exod. II)

(210-211 garenean) **Salomonen erabakia.....**
(III Reg. III)

(253 garenean) **Lenengo tokietan ez jartzea.....**
(Luc. XIV)

(258-260 garenean) **David eta Goliath.....**
(I Reg. XVII).



AGUR, JAUNAK.



Bat edo bat besteengana joaten danean, gauzen bat besteai erakusten zayenean, argibideren bat bear izaten da, dakazkian asmoak nolerebait azaldu bear ditu. Ori guztientzat ala bada ¿zergatik ez neretzat? Itz batzuek esan bear dizkitzut, ba.

¿Zergatik eta zertarako egiten dira irakurgayak?
¿Zergatik nator ni gaur zuregana?

Gure oroimena txikia da, txit argala, ta gauzak oso eraz aztutzen zaizkigu. Au nolerebait antolatzeke, edo zuzentzeke, gizonak gauza batzuek asmatu ditu, ta oietako bat irakurgayak egitea da. Orela, zer edo zer bear degunean, ezari-ta baldin badaukagu, au ikustea, oni begiratzea naikoa izango da. Urte asko igaro aren, irakurgayak edozer gauza bereala gogora ekariko digute. Ta naiz guk, edo beste edozeñek bear duala, guztientzat berdintxo izango da. Oregatikan irakurtzen ikasten degu, ta onek on aundiak ekartzen dizkigu. Eztabaidaren bat aspaldiko gauzetan sortzen bada ¿nola uratu, edo erabaki? Irakurgairik gabe, ezin; auen bidez, bereala ta oso eraz.

Soro ta mendietan mugariak eta esiak oso garbi itzegiten dute, ta guztiak badakite, edo igari egiten dio-

te beintzat, ura ipiñi duanak adirazi asmo duana. Oribera emen. Aramazka batzuek besterik ez dirudite, baina irakurtzen dakitenak esan nai dan ura ikasten dute, ta irakurtzen ez dakitenak ere, zer edo zer esan nai dala ezagutzen dute.

Gauza beara da, ba. Batek dakiana besteai esaten die. Jaungoikoak lurbira, ta ontan dauden gauzak egin zituala, ta nola, onen bidez ikasi ditugu, ta noiz nai irakuri dezakegu;(1) ta arezkeroko gauzak (guztiak ez, baina baliyo aundikoak bai) ikasi ditugu. Geroz gizon jakintsuak utzi dizkigutenak, baita ere. Oraingo gauza beriak gure ondorengoak eraz jakingo dituzte, ta orain ere baztar guztietan bereala jakiten dira. O-gi bidetakoak. lan-tegietakoak, saldu-erosian gertatzen diranak, egin bear dana ta utzi bear dana, urutikoai zerbait esan nai diegunean edo ayengandikan zer edo zer jakin nai degunean... Ortarako ta beste gauz askotarako egokiak dira irakurgayak, bearak askotan. Oyen bidez oroimena askoz gutxiago nekatzen da, adimena argitzen da, gauzetarako bide beriak ikasten dira, ta bestela jakingo ez genituzken gauza asko ikasten ditugu. Baina beste gauza bat ere badago.

Irakurgayak gure lagunak dira. Esandakoaz gañera, astun gaudenean arintzen gaituzte, jakin-miña degunean argitzen gaituzte, lanerako ez gaudenean gogaitasuna kentzeko egokiak dira, alperkeriari tokirikan ez emateko ere bai, eztabaidetan ez ibiltzeko ez gutxiago, gogo txararak burutikan kentzeko ere ezin ukatu... Gauz asko ta askotarako, ezin zenbatu diranak.

Baina lagunak ez dira guztiak berdiñak eta bear bezelakoak izaten, eta ementxe daukazu nere gogo ta asmoa.

(1) Génesis-lenengo ta bigarren buruan.

Mutil au, neska ura, gizon sasoiko asko lengo bide-tikan baztartzen asi zirala, gero okeragoak egin zirala, baita sekulako kaikukeri ta astakeriak esaten ikasi zutela, azkenean bide onatik irten eta txarean gogortu egin dirala entzuten degu. Beren etxeetakoak eta aide-adiskideak naigabea artzen dute; baña berak, ajolagabeak egin-da, egiak erantzun bearean ostikoak ematen besterik ez dakite, ta beren gogortasunean gelditzen dira. ¿Nork egin du aldaketa ori? Lagun batek. Eta ¿nolako laguna izan da ori? ¡Irakurgayak, liburuak, albistariak! ¿Ain txarak al dira, ba, oyek? Entzun.

«Etsai txikirik ez dago», dio esan zarak. Egia da. Etsai txikiak aldi batean kalte aundirik ezin egingo du; baña bein ta beriz, ekin eta ekin, azkenean zauri aundiak egiten ditu, baita eriotza ekari ere. Ur tanto bat gauza txikia da; bañan itutiak maiz etxea uratzen du. Igurtzi txiki bati aretarik ematen etzayo; bañan askotan egiten bada, soiñekoa, gurdia, burnia ta abar metu ta ondatzen dira. Ikasten aritzen diranak pozik egoten dira; bañan askotan ikusten degu burua nekatzen zayela, urdaila ere bai, ta osasunik gabe erabat gelditzen dirala, ta beñere sendatu ez. Orelako etsayak egindako txarkeri asko ikusten degu, ta ¡amaika lagun galdu dituztela ere bai! Irakurgayak gaitzgabeak dirala usteko dezu askotan; baña pozoitsuak izan ezkeru, goiz edo berandu pozoituko zaitute, ta pozoia leun-leun datorrelako, zuk uste gabe ondaturko zaitute.

«Nolako gauzak irakurtzen dituzun esan zadazu, ta nolakoa zeran esango dizut nik», da beste esan zar bat. Au ere ala da. Ta beste bat oraindik esango dizut, onen antzekoa, ta oni indar aundia ematen diona. Emen daukazu: «Egunero irakurtzen dezun albistariak, bere gisakoa jarriko zaitu». Egi aundiak dira abek. Ori ala dala maiz eta maiz ikusten degu.

Beraz; Irakurgai txarak orelako kalteak egiten ba-

dituzte ¿ez al dute onak on aundia egingo? Ementxe naukazu, ba, irakurle maitea Au da nere tokia.

Adiskide on batek, gutxi beze!ako apaiz bikain eta sotilak (guztiak aintzakotzat dauzkadala ere) alaitu ninduan, eta irakurgai abek on aundi-aundia egingo zutela esan ziran, eta len bai len ateratzeko. Bere izena lenago esan dizut. Nere gauzetan bildurtia naiz, eta ez nuan ortarako biotzikan; bañan ori entzun ezkerro bañenak kezka ematen ziran, on ori nere bilduragatik etoriko etzalako, ta oñela indartu-ta, ateratzea erabaki nuan. Nere biotza bertan arkituko dezu, Jaungoikoaren ordezeko baten biotza. Guztia zu Beragana eramateko ipiñi det. Berari ala nai dakiola.

AGUR.



Jaungoikoak guztia egin du



ZERU-luñako gauzak Jaungoikoak egin ez dituala esaten dutenak badaude. Ez dakit ori ala usteko duten; esan beintzat, bai. Baña guk, oñelako txaxu-ezjakin-año oyei esan dezayekegu: Jaungoikoak egin ez ba ditu ;nork egin ditu, ba? Zerbait egin bear duanak, lenbizi berak izan bear du. Ez izan ezkerro, ezin ezer egin.

Ezertxo ere etzan. Jaungoikoa bakara da betikoa, ta oñengatikan Berak bakarik Zerua,

luña, ta oyetan dauden gauzak egin zitzakean, eta ala egin zituan. Besterik esan gabe, Bere irakurgaietako au ikusi.

Jaungoikoak Zerua ta luña egin arte, inon ere ezer etzan, eta egin ondoan ere, Lurbira ilunpean zegoan, ust-utsik; gañera, ura ta luña nasirik. Orduan Jaungoikoak bere lana osotu zuan, eta ori sei egunean egin zuan.

Lenengo egunean argia egin zuan, esanaz: **argia egin bedi.** Argia gauza ona zala ikusirik, argia ta iluntasuna alkaréngandikan berezi zituan. Argiari **eguna** izena jarri zion, ilunari beriz **gaua.**

Bigarren egunean izartegia egin zuan, esanaz: *izartegia egin bedi.* Ala gertatu zan, eta oni **zerua** izena eman zion.

Irugarrenean urak bildu zituan, legoña agirian geratzen zala: bildutako urai **itxasoa** izena ipiñi zion, eta legoñari luña. Orduan esan zuan: *Luñak atera bitza belar, landare ta zuaitza guztiak azidunak.*

Laugarrenean eguzkia egin zuan, egunari argia emateko: gaberako beriz *ilargia ta izañak.*

Boskarrenean itxasoko arai eta aizetegiko egazteak egin zituan; eta bedeinkaturik, esan zien: azi ta geitu zaitezte, itxaso-legoña beteaz.


Seigarrenean abere guztiak, aundi-txikiak egin zituan, baita piztiak eta zomoñoak ere. Azkenean esan zuan: *Gizona egin dezagun, gure antz eta itxurakoa, ta bere mendean egon bitez itxasoko*

añai, aizetegiko egazte, ta luñako abere guztiak.

Zazpigarénean lanetik gelditu zan, bere bu-ruari atsedena emateko.

Gauz abetan gure bikaintasuna ederki ikus-ten da; gauza guztien buru ta jabe egin ginduan-eta. Gañera, beste guztiak egiteko «**Egin bedi, egin bitez**» esan zuan; baña gizona egiteko «**Egin dezagun**» esan zuan, Irutasun osoak itzegiñaz be- zela.

Gauza abek Jaungoikoak esanak dira, ta nai ta naiez sinistu bear ditugu: ¿Zertarako izango di- ra sinistu nai ez dituztenenak?



Beste izaki guztiak baño geyagokoak geran ez- kero, guztiak baño geyago zor diogu Jaungoikoari, ta oregatikan, Berak agintzen digun guztia zintzo ta ondo egiten sayatu bear degu.

Gogoan artu, ba, ta bear bezelakoa izan.

¿Nola erantzun diogu?

Berealako batean gauzak egiten diranean, betaz eta zearo ikusi gabe, askotan erokeri aundiak agertzen dira. Gero negar egiten da, ba-ñan alperik; gaizki egiñak ezin ufatu. Aretaz eta ondo begiratu ezkerro egiten diranean beriz, uste izateko da bear bezela gertatuko dirala. Ala ere, ala ere, batzuetan naiko lana; baña geyago ezin egin. Al duan guztia egiten duanari ¿zer geyago

*eskatuko zayo? Gauzak arintxo egiten dituzte-
nak Adan eta Evari gertatua irakufi bezate.*

Jaungoikoak, gauza guztiak egin ondoan, guztiak gizonari eman zizkan. Baratz-loretegi eder batean ipiñirik, ango zuaitzak ematen zutena jan zezakeala esan zion, erdian zegoan batenak, ordea, ezetz; eta jaten bazuan ilko zala esan zion.

Adanek bere antzekorik etzualako, Jaungoikoak esan zuan: *Gizona lagunik gabe ondo ez dago; bere antzeko laguna egin dezayogun, eta ala egin zion.* Oretarako, Adan lo zegoala, Jaungoikoak sayets-ezur bat kendu zion, ezur ura aragiz inguratu zuan, eta ofela lenengo emakumea egin zuan, lenengo gizasemeari emazte eman ziona. Gizonari izena ipiñi zion **Adan**; emazteari be-
fiz **Eva**.

Ainbesterañoko aberastasun, eskubide, aukera, doai eta agintaritza Jaungoikoagandik artu ezkerro, edozeñek esango zuan Bere mendean zintzo-zuzen beti ibiliko zala; bañan etzan ala izan. ¿Nork sinistu?

Baratz-loretegi eder artako zuaitzak ematen zutena jan zezakeala esan zion Jaungoikoak, erdian zegoanetakordea ezetz; eta jaten bazuan ilko zala. ¿Ta zer egin zuan **Adanek**? Ikusi.

Etsayak, suge itxuran, **Evari** itzegin zion eta gezurtaratu ere bai. ¿Zergatik, esan zion, debekatu dizue Jaungoikoak zuaitz guztiak emandakoa jaten?

—Jaten degu, erantzun zion **Evak**; erdian da-
goan orena bakarik debekatua degu; ikutu ere ezin
egin degu, ilko gera-ta. Ala agindu digu Jaun-
goikoak.

—Ez alakorikan sinistu, esan zion sugeak;
etzerate ilko. Badaki Jaungoikoak ori jaten bade-
zute ezaguera ohea izango dezutela; ta on-gaitza
berezitzeko argitasuna izango dezutela, Bera be-
zelakoak izanik.

Eva gajoak sinistu zion, zuaitz artakoa jan
zuan, senari eman ere bai, eta onek ere jan zuan.
¡Gizajoak! Begiak idiki zitzaizkien, bai; banan ez
berak uste bezela, ta sugeak esan bezela, on eta
gaitza jakiteko, egindako erokeria ezagutzeko
baizik.

Ikusirikan Jaungoikoak **Adan - Evaren** es-
kergabekeria ta sugearen (deabruaren) maltzur-
keria, zigorada aundi bana eman zien, iruai bere-
ziki. **Sugeari** lenbizi esan zion: Ori egin dezulako,
beti madarikatua izango zera, arastaka ibiliko zera,
zu ta emakumea asaribidean ipiñiko zaituet, eta
azkenean onek burua zapalduko dizu. Gero **Evari**
esan zion neke, oñaze ta eramankizun asko ta
aundiak izango zituala, ta gizonaren mendean bi-
ziko zala. Azkenean **Adani** esan zion: Luía ma-
darikatua izango zaizu lanegin arén: jana nekez
aterako diozu zure bizi osoan: arantza ta laiak
emango dizkitzu, ta luíako belaña jango dezu: jan
bear dezun ogia zure izerdiz irabaziko dezu.

Gañera, baratz eder artatikan bota zituan; eta

befiz sartu etzitezzen, Aingeru bat atean ipiñi zuan.

Ori izan zan gure lenengo gurasoen erokeri ta eskergabekeria, berealako batean egiña, bañan ikaragafizko ondorenak, berai bezela guri ere, ekañi dizkiguna.



Neke-oñaze edo naigabe = eramankizunen bat izaten degunean, orain esan degunaz oroitu bear degu. Adanen umeak gera, Adan eta Eva gure lenengo gurasoak izan ziran, eta oregatikan akats eta ezbear oyek jatoriz datozkigu.

Jesusen jayotza

Itxua izatea gauza negargaría da, baita erukigaría ere; bañan itxua ta esker txarëkoa batera izatea, gauza goñotagaría da, ta iñork ere ondo ikusten ez duana.

Itxuak, ikusten ez dualako, bear ez dana askotan egiten du, bere kaltean bada ere; ta oñez gañera pozoya ta biotz txarëkoa bada, bere onerako egiten zayona ere, añokeriak menderatuta gaizki artzen du, ta bere burua ondatzen du. Zentzu ta biotz onako gizonak alare laguntzen diote, esker onik ikusiko ez dutela jakin añen. ¿Itxu ori ezagutu nai al dezu? Irakurñi.

Adan eta Evak, Jaungoikoaren esana autsi zutenean, beren gaitzgabetasuna ondatu zuten, eta istilu-lafitasun galantak artu bear izan zituzten.

Bitartean, gauza guztiak beren mendean egoten ziran, berak ere Jaungoikoarenean egoten ziralako; bañan andikan aufera, guztiak arotu zitzaizkien, berak ere Jaungoikoari ori egin ziotelako. Beren griñak, bitartean leun-gozoak, oker-biurfiak jafi ziran, eta lan izugafia ematen zieten, bide onean iraungo bazuten.- Seme-alabak izan zituzten, eta abek, gurasoak bezela, berak ere beti nekepean eta gaitzerontz griñatuak egon bear izan zuten.- Kainek bere anai Abel il zuan, eta lenengo gaiztakeri zital onek, beren eta besteen zoritxar eta bizikera galgafia nolakoa izango zan argi ta garbi erakusten digu.

Ori guztia, aundia izanik ere, ezer izango etzan, ondo damuturikan bide zuzenean sartu ta artan iraun izan balute. Jaungoikoak asko maite zituan eta guztia barkatuko zien. Bañan etzan ala izan. Geroago ta gaiztoagoak egin ziran beren ondorengoak, eta alkañen leyan bezela ibiltzen ziran berak eta Jaungoikoa; Onek ayen okerkeriak barkatzen, eta era askotara laguntzen, eta ayek asmatu al guztian zatarkeri ta nazkagarikeritan begietaraño sartzan zirala. Damutu zitzayola, dio Jaungoikoak bere irakurgayetan, gizona egin izana. ¡Nolakoak izango ziran gizonen biurikeri ta nazkagarikeriak!

Ordu arteko zikinkeriak garbitzeko, ta gizona zuzentzen beartzeko, gauza bat erabaki zuan Jaungoikoak. «**Kenduko det gizona**» esan zuan, eta ortarako, zortzi lagun bakarik gelditurik, ga-

ñerako guztiak kendu zituan. **Noé** ta bere iru seme **Sem**, **Cam** eta **Jafet**, eta lau oyen emazteak bakar bakara gelditu zituan. ¿Nola egin zua ori?

Kutxa aundi bat egiteko Noeri esan zion, eta artan zortzi lagun oyek eta mota guztietako abere, egazte, zomofo, ta araiak biñaka, sartzeko; ta ori egiñik, euriari eman zion, eta berogei egunean, gau ta egun, etzan gelditu, mendirik goyenak ere estaltzeko eran, eta giz-emakume guztiak ito ziran, alerik ere geratu gabe. Ori ofela geratu ezkerro, obeak izango zirala uste izateko da: ¿ezta ala?

Azi ta geitu ziran beriz ere kutxatik irten ezkerro, baña zuzendu ez. Jaungoikoa ta Bere agindu guztiak alde batera utzi, ta ondu bearean, izugarizko arokeriak itxutu-ta, len bezelakoak jafi ziran. Orduko Kondairak ala esaten digu, ta artan gauza negargañiak guztiok ikasi ditugu.

Asare zegoan Joaungoikoa ainbesterañoko eskergabekeriak ikusi-ta. ¿Iñor arituko al zan, ba, beriz ere zigofada aundiren bat eman izan balie? Beren biotza askotan ikutu zuan, era askotako deyak egin zizkien, beriz ere zigofada aundiak eman zizkien; baña guztia alpeñik. Geroago ta geyago erukiturik, gizona zeatu bearean aren biotza irabazi nai izan zuan, iñork asmatuko etzuana egiñaz. ¿Zer, ba?

Jaungoikoa Bera ikusi-ta bide zuzenean sartu ta artan zintzo ibili zitezen, Irutasuneko bigañen Lagun Jainkozkoak Andre Mariaren sabel guztiz

garbian gure aragia artu zuan, Belengo estalpe zar batean jayo, seaskaren orde z ganbel zatar batean egon, ilezko oe biguñaren lekuan lasto gogoren gañean etzan... itz batean, beartasunik es-tuenean etofi ta bizitu zan, gu bide zuzenean ipintzeko.

Geyago ere badago Jaungoikoaren eta gure izakera ikusteko. Bereala irakuñiko dezu.

|||||

Oná emen zure itxutasuna. Ezeri ere begiratu gabe, griña txarai barkatu ta jañaitzen diezu ¿ta gero? Batatik bestera, amilka ta añastaka bezela, ondameneraño. Bañendikan asmo txar-biuriren bat etortzen zaizunean, ontaz eroitu.

Egizko maitetasuna

Besteak esaten digutena eñaz sinisten bade-gu gauza aundi, eder, bikañak non nai ikusiko ditugu; baña gerok gure begiz gauz oyek berak ikusten baditugu, aunditasun, edertasun eta bikaintasun oyek iñon ere agertuko ez dira. Mingaña eñaz erabiltzen da, ta zintzoezak ez diote egiari begiratzen, berak gogo dutenari baizik. Oregatikan, gure alde zerbait esaten digutenean ez degu bereala sinistu bear. Egia ote dan jakiteko, gure alde egiten dutenari begiratu.

Jesusen bizi-eriotzari ondo begiratzen dio-

nak, gure onerako asko ikusi zuala nai ta nai ez ezagutu bear du.

Jayo ta laster, ufutira joan bear izan zuan. ¿Zergatik? Ikasi zuanean **Herodes**'ek Juduen Eregia Belen'en jayo zala, ura iltzeko asmoa artu zuan; agintaritza kenduko ziola bildur zandak. Ori iristeko, bi urtetikan berako mutiltxo guztiak, bere mendekoen bidez, il erazi zituan; bañan alpefik. Aingeru batek, Jangoikoaren izenean, José Doatsuri esan zion Jesús-Auíra ta María **Ejipto**'ra eramán zitzala, ta antxe euki zitzala atzera etortzeko mandatua artu arte. Jaungoikoaren esana Josek egin zuan, eta **Herodes** il zanean, Aingeruak beriz esan zion Jesus eta María Israelgo barutira eramateko, ta ala egin zuan. Ezin esan alakoak dira Jesus-Auíaren neke-lanak bide artan eta Ijitoaren artean egon zanean.

Nazaret'en ogeitamar urteak arte bakartasunean egon zan, José ta Mariaren mendean, ayen esanak zintzo-zintzo egiten zituala; ta adin ortan Bere Erlijioa eñiz-eñi zabaltzen asi zan. Iztun bikaña zan, itzaldi edeñak egiten zituan, baita gauza arigariak ere. Itxu, gor, mutu, eñen, elbañiak, guztiak sendatzen zituan; beste gaitzen batek joak bazeuden, kentzen zien; ildakoak piztu erazi ere bai: itz batean, gorputz gauzetan on aundia egiten zien, zerurakotan beriz arako bidea erakutsi, ta ura iristeko bear zuten guztia eman.

Baztar guztietan asko maiteko zutela, ta aren itzatic zinzilika bezela guztiak egongo zitala, ta

ayen Jaun eta Jabe izango zala edozeñek usteko du. ¿Ez al da ala? Guzti-guztia Berari zor ziotenda... Oñelako asko bazeuden, bai, batez ere eñian; bañan ezin ikusi zutenak ere bazeuden, geyen geyena agintariak eta nai zutena egiten oitu-ta zeudenak. Auek ezin eraman zuten berak baño geyagokoa izatea, ta Jesusek egiten zituan gauza añañiak berak ezin egitea. **Jesusek** irakasten zituan gauzak berai indaña kentzen zieten, eta eñiak ayen gezurak eta maltzurkeriak argi ta garbi ikusten zituan. Eñiak **Jesús** txaloka non nai artzen zuten, gorak eta gorak eñuz esaten zizkaten, aren atzetikan ibiltzen ziran, eta gauza auek ezin ikusi aundia ematen zieten. Erabaki zuten, ba, Juduak bizia kentzea **Jesusi**. ¿Ta nola egin zuten?

Guztiak Aren alde jañiko ziralako bildurak, gabaz arapatzeko asmoa artu zuten, eta egin ere bai. Judas madarikatuak lan zital onetan lagunduzien, eta lapur prestuez bat izan balitz bezela, sokaz loturikan Agintarien gana eraman zuten. Itzeko erabakia atera nayeana, gezur eta txarkeri asko **Jesús**'en kaltean **Anás** eta **Kaifás**'en etxetan esan zituzten; eta ura iritxi ezkerro Pilatoren gana eraman zuten, gurutzean josirikan il erazitzea oñuz eta mañuz bezela eskatuaz.

Pilatos'ek etzion eñurik arapatzen, bein baño geyagotan esan zien ori Juduai, berak il zezatela ere bai; bañan ayek ori leyaka eskatu zioten, eta azkenean ala erabaki zuan. Bereala Jerusalendik atera zuten, gurutzea muño gain batera bizkañean

gabeko indar eta sendotasuna ematen dio, eta ofegatikan Aren esanak gureak bañon askoz begiragañiakoak dira. Entzun, ba.



Bein batean, **Jesús** ona emen bizi zanean, aur asko ekañi zizkaten, bedeinkatzeko. Jesusekin lagun asko zegoan, bai Apostoluak, eta bai bes-telakoak ere. Umeak, txiki ta koskortuak, asko ziran eta ibiltzeko traba egiten zuten. Apostoluak gogaitu ziran nonbait, eta umeak atzera bialtzen asi ziran; baña **Jesusek**, ori ikusi zuanean, kontuak artu zizkien, esanaz: *Umeak Nigana etortzen utzi, ori ez galerazi; Zerua oyentzat da-ta. Egigitan esaten dizuet, aurak bezelakoak egiten ez bazerate, Zeruan sartuko etzeratela.* ¿Geyago esan al diteke? Eztet uste. Ta ori guztia ¿zergatik? Gaitzgabeak diralako. ¿Nolakoak diran ikusi nai al dezu?

Umetxoak ez dira bein ere egitan asafetzen; alkañen artean zer edo zer izaten badute ere, be-

reala aztutzen zaye, ta jostatzen, len bezela, irauten dute; gofotoak beren biotzetan tokirikan arapatzen ez du; asafetu bezin laster adiskide daude, ta asafetutakoan amoru zerbait gelditu zayela badirudi ere, jan gauzen bat, edo jostatzeko tresnaren bat eman ezker, beñere bañon adiskidetasun aundiagoan geratzen dira. Biotz oyek gaitzik ez dute, ofetarako gauza ez dira-ta; ta ofelakoak diralako, guztientzat oso maitagariak izaten dira. Ofegatikan esaten da umeen gauzak biotza samurtzen dutela, eta aspaldiko gofotoak ere, oien bizidetz kentzen dirala. Maltzurkeriak ori guztia ondartzen du, ta ortan ikusten da gaitzgabetasunaren bikaintasuna.

Ama batek bere umetxoari sekulako keñu ta txolinkeriak egiten dizka. Magalean artzen du, arpegia garbitu; ilea ofazatu ta bekoki erdiraño datorkiola ipiñi; soñeko befi bat, edo befia ez bada ere, garbi-zuria beintzat jantzi-ta, txukun-apain jartzen duanean... jura gauza edefa! jura zorame-na amarena! Aua ez dirudi, Zerutikan eroritako Aingerua baizik. Begi alai-alayak, argia ematen dute; ile kiskur, ifi-bafe gozo-samur; masail zuri-gofi; arpegi boronbil-mardul; ama ganako zaletasunak..... au zoratzen dute. Laztan eta musuka, beñere ase gabe, bere afaarekin egoten da; jan bear duala dirudi; umea bañon umeago egiten da; bere afaari txatxukeriak efuz esaten dizka, ta berez itxusia ta txotxoloa bada ere, amarentzat lurbira osoan aren berdiñik izango ezta.

Gure izakera

Aurtasunean guztiok berdiñak izaten gera, ta azitzen geranean oso berdiñezak. Zergatik ala? Aurtasunean ezaguerik ez degulako, ta gñera, aurtasunean griñak indar txikia izaten dutelako; bañan azitzen geranean, sasoikoak egiten geranean, gauzak bestela etortzen zaizkigulako, ta guk ere bestela artzen ditugulako. Oregatikan gauza egokia da gaitzgabetasuna ta maltzurkeria al dan ondoen ezagutzea; auñak giz-emakume egiten diranean, biak ondo ezagutu, ta txarñ utzirikan, ona dana artu dezaten. Goazen, ba.

Gaitzgabetasunak biotz guztiak bereganatzen ditu, ta ura ikusten duana, zer dala ta jakin gabe, lotu ta menderaturik bezela geratzen da. **Maltzurkeria** beriz iñork ere maite eztu, ta maltzuñak, besteen biotzak bereganatu beañean, aldegin erazitzen die.

Gaitzgabetasuna maitagañia ta zoragañia da. **Maltzurkeria** oso nazkagañi ta bildurgañia.

Gaitzgabetasunak, duana-ganako uste aundia besteai artu erazitzen die; ura geroago ta ge-yago ezaguturik, besteen ustea ere neuñi ortan geitzen da; azkenean uste ori oso-osoa egiten da.

Maltzurkeriak ordea, guztientzat bañendikan berez datorkigun uste-aizea ere kentzen digu.

Gaitzgabeak esaten duan guztia, bereala ta itxu-itxuan sinisten degu. **Maltzurari** ezertxo ere sinisten etzayo, ta asnasa ere gezurá duala esaten da.

Gaitzgabeak bere asmo guztiak arpegian daramazki, ta nolakoa dan bereala ezagutzen zayo. **Maltzurak** ez: onen arpegiak gauza bat erakusten du, baña bañenean beste batzuek, eta oso bestelakoak izango ditu.

Gaitzgabea, oregatikan, edozeñek laguntzat artzen du, noiz nai eta non nai, ta besteai ori bera egiteko esan ere bai. Baña **maltzurarentzat** iñon ere adiskiderik eztago, egiazkorik beintzat; ta uste gabe artzen badegu, ezagutzean utzitzea onena. Bestela damutuko zaigu, ta bear bada, berandu.

Gauza abek begien aurrean obeto jartzeko, guztiok dakizkigun ezaguera gabeko bi abere txikiak begiratzea naikoa da: auek **bildotxa** ta **azeria** dira.

Bildotx bat ¿nork ikusi ez du? ¡Ori gauza polita! Belar-soroan edo basoan, amaren ondoan alai-alai ikusiko dezute, txit polita, izugarri liraña, ile kizkor, zuri-zuria bezela beltz-belxa danean ere guztien begiak bereganatzen ditu, triskan eta zilipurdika, beti jostailu; ta polita ezezik, guztiz maitagarria ere. ¿Zergatik ote? Arpegian, bere izate osoan, **gaitzgabetasuna** agiri dalako. Guztien biotzak onetxek bereganatzen ditu. ¿Nola ez?

¿Ta **azeria**? Gorputzean txakurtxo baten aun-

ditasuna du, ta alare bera bañon aundiagoai bildu-
fa ematen die. Bere begiak su-txinpartak dirudite,
bañengo gaiztakeria arpegian darama, egunaz sa-
si tartean egoten da, beti zelatan, besteen asmoak
ezagutu nayeon, izugarri fiakaitza. Ez dezute bein
ere, bildotxa bezela, txiskan, jostailu, an-emen,
zilipurdika, ikusiko; beti zoko ta sasietan; gabaz;
oilategien inguruan; iñork uste ez duala, oyetako-
ren bateansartu-ta, tximixta baño biziago, egaz-
teren bat arapatu ta eramateko asmotan; beti lapu-
ferian; beti gaiztakeriak egiten. Iñork ere maite ez
du, gofotagaña da, iñondik al badute ura iltzen
sayatzen dira. Ta ori ¿zergatik? **Bildotxak gaitz-
gabetasuna** bezela, **azeriak maltzurkeria** bere
izate oso ta oitura guztietan daramalako. Orega-
tikan guztiak beregandik ayenatzen ditu, guztiak
bilduñ diote, baita gofotoa ere.

¿Gauza auek esan nai dutenaaditzenal dezu?

|||||

**Gure izakera ofelakoa da. Batzuek maltzuñak
izaten dira, ta iñork ere maite ez ditu; besteak gaitz-
gabeak, eta guztiak ayen lagun eta adiskideak izan
nai dute.**

**Aukera degu: gaitzgabeak izaten bagera, one-
rako ondo, ta geroko obe.**



Aziera ona

Arobitikan airen bat ekartzen danean, zer izan bear duan jakitea eiaz ez da. Batzuetan, ondo zeatu-ta, bideetara botatzen da, azpia indartzeko; besteetan, zerbait landu-ta, beste gauza batzuek egiteko, naiz ormak, etxeak, elizak eta abar; askotan, langile bikain batek ari txar bat artu ta Aingeru polit baten itxura ematen dio, ta nolanaiko langileari ari eder bat ematen bazayo, itxura politako gauza atera beafean, aña ondatu besterikan egiten ez du. Ora azierak egiten duana.

Umetxo batzuek izugañi biuñiak izaten dira txikitan. Gogoratzen zayen guztia egin bear, iñoren mendean egon nai ez, kasketa artu-ta aña baño gogoñagoak jañi, mutuñ añañoaren mokoak baño luze ta itxusiagoa... itz batean, oso gaiztoak. Beste batzuek beñiz, guztirako samur eta leunak. Besteek esanak, batez ere gurasoenak, bereala ta ederki egiten dituzte; edozer gauzarako gogo ona erakusten dute; guztia bere garayean egiten dute; griña txarñak zapaltzen eta menderatzen sayatzen dira... itz batean. zintzoak eta bear bezelakoak. ¿Zergatik izango da ori? Batzuek jatofiz onak izaten dira; beste batzuek beñiz, ari-matatza baño biuñiagoak.

Urte batzuek igaro ta, oraiko aur oyek orduko neska-mutilak egin izango dira, ta baliteke ikustea oraingo aur zintzo, gozo, zuzenak, izugarri biurriak eta gaiztoak egin dirala; ta len biuri, oker, trake-tsak ziranak gero prestu, etxekoi, sotilak, beren etxeari izen ona ta bikaña ematen diotenak. Orelako aldaketa ¿nondik dator? ¿Nork egin erazi die? Azierak, beste inork ez; bai batzuei eta bai besteai.—Azierak egiten du txertoak egiten duana.

Mutil koskor bat, zortzi-bederatzi urtekoa, bere aitarekin bein batean basora joan zan. Bereztat beñiak ziran gauzak ikusten zituanean aritu-ta gelditzen zan, eta ikasteko gogoia aitari bereala erakusten zion. Lenbizi zizak ikusi zituan; gero garoa, mañubiak, oroldioa, lore mota asko, arkaitzak, afobiak, epeñak, usoak, beleak, basurde aundi bat ere bai, eta beste gauza asko.

Orelako gauzen bat ikustean, aitari esaten zion: Aitatxo ¿ori zer da?—¿ofek zer du izen?—beste ayek ¿zertarako dira?—Egun osoan etzan mutila geratu; beti galdezka.

Basetxe bateko baratzan masti aundi bat ikusi zuten, eta artan mats-ondo eder bat besteak ez bezelakoa ere bai. Urte artan mats-mordo bat besterik eman etzuan, bañan ura edeña. ¡Ikusgarria! Ikusi zuten guztiak aritu-ta geratu ziran, eta ura bezelakorikan etzutela inon ere ikusi esaten zuten. ¿Nola ikusi bear zuten? Gauz oyek ez dira egunero ikusten, ez eta gutxiago ere. Astuntxoa zan... ¿Sinistuko dezu? Iya bederatzi libera bazituan be-

rak bakarik (4 kilo t'erdi) ¡Ura mats-mordoa! ¿No-
ia atera zuten ain edera? Txertoz.

Beste toki batean aran-ondo kaskar bat ikusi
zuan, eta lufean arana ale batzuek, txiki ta zimu-
rak. Ayetako bat artu ta jaten asi zanean, aotikan
bereala bota zuan, eta aitari ala galdetu zion:
Aitatxo, auek ¿zer dira?

—¿Oyek? Aranak, erantzun zion.

—¿Aranak abek? ¡Bai zera! Mingotxak, bai;
mikatx-mikatxak, eta ondo gaziak. Bañan ¿aranak?

—Bai, bai, aranak dituk; bañan ez dituk guz-
tiak berdiñak izaten.

—Ez orixe; dagoeneko ederaagoak egon bear
zuten ¡bestelakoak dira gure baratzakoak! ¡Ayek,
ayek aranak! ¡Ené! erdi-gofi ta erdi-oriak, galan-
tak eta gozoak.

—Bai; gureak, ordea, txertokoak dituk...

—¿Txertokoak? ¿Eta ori zer da?


—¿Ez al dakik? Begira zak. Zuaitzari ebaki
bat, labanaz, egiten zayok; ohea dan beste zuaitz
bati, txotxak kentzen zaizkak, eta kontuz meturik,
lengoaren ebakian txotx bat aretaz sartzen dek;
gero, ondo lotu ta, orela uzten dek, eta laster biak
bat egiten dituk, zuaitza ta txotxa. Auferakoan,
txotxa azitzen dek, adar aundia egiten dek, eta
zuaitz-ondo txaragoan egon aren, ekañi obeak iza-
ten dizkik, bere zuztañean balegokek bezela. Ori
dek txertoa.

—¡Ené! ¡Ori da gauza, e? Aitatxo, berofek
asko daki...

—¿Bai? Ikasi, ikasi, ba, ik ere. Umeari ori bera gertatzen zayok. Balitekek umea berez gaiztoa izatea, griña txafetakoa; bañan irakasten bazayok gurasoen esanak ondo egiten, Irakasleenak, Apaizenak eta lagun onenak, jatorizko izakera biuria zapaldu-ta, bear bezelakoa izango dek. Gogoan artu ¿e?

—Bai, Aitatxo, bai; etzait nolana aztuko.....
Jauna.

Etzan aztutzekoa ere.



Txertoari begiratu dezayogun guk ere, arobiko ariari ere bai, langilea ta bere lana aztu gabe. Ori aziera da. Ta ortan sayatu gabez gauzak gaizki gertatzen badira, ez iñori aitzakia eman; gurea izango da-ta.

Bat ona, bestea ohea

Bi eratako doai-aberastasunak daude; lenengoak emengo gauzai begiratzen diete, bigarrenak beriz gerokoai. ¿Zein dira obeak? Emengoak txarrik dirala ezin esan, ondo erabili ezkeron aundia egiten digute-ta; baña bigarrenekoak askoz bikañagoak dirala ezin ukatu, on aundiagoa egiten digutelako. ¿Nolakoak dira, ba, on oyek? Lenengoak osasuna, ondasunak, atsegiñak, eroso-


*tasuua... noizpait azkena izaten dutenak. Bigarē-
nak Zeruko zoriontasuna ematen digute, azkenga-
bea. Baña gauza polit bat ikusten da emen; biga-
rēn motako abek, zoriontasunaz gañera emengo
erosotasuna ere, bidez, ekartzen digute. Irakuri
ta ikusiko dezu.*

Jaungoikoak giz-emakumeai buruko argitasu-
na eman die; beste izenez, ezaguera. Abereak,
egazteak, arayak, eguzkiak, itxasoak, itz batean,
beste izaki guztiak, nork bere doayak Jaungoikoa-
gandik artu dituzte, egin bear dutena egiteko oso
egokiak; ezaguerarikan ordea, ez. ¿Eta guk?

Onen bidez guk ikasten degu besteak irakas-
ten digutena, gauza berriak asmatzen ditugu, as-
matutakoak besteai irakatsi ere bai. ¡Argi eder,
doai aundi, berezgarri egiaz bikaña Jaungoikoak
eman diguna! ¡Beste inork ez, guk bakarik degu-
na! Bañan alakoa izan arēn, utsa izango litzake,
beste argi bat, ori bañon askoz edeñagoa, Jaun-
goikoak eman izan ezpaligu.

Lenengoak, emengo gauzak ezagutzeko gai
egiten gaitu; bigarēnak, Jaungoikoari dagozkanak.
Lenengoari, adimena esaten zayo; bigarēnari, si-
nismena. Lenengoak, gaitzerako bidea askotan
ematen digu; bigarēnak, prestutasun eta Zerurako
zuzen-zuzena. Azkeneko oni dagozkanak **Dotri-
ñak** irakasten dizkigu, ta gauza guztietan beañena
da. Bear bezelako giz-emakumeak onetxek egiten
ditu. Onelako batzuek ikusten dituzunean, ba, **Do-**

triña-zaleak dirala gogoratu; biñri-gaiztoaz beñiz, edo **Dotriña** ikasi gabeak, edo aurtasunean ikasi añen, añeta txikiz aztu egin zayenak dirala esan dezakezu.



Uri aundi batean gizon jakintsu bat bizi zan. Lege-gizona zan, Epailari, auziak erabakitzekeo ta gaizkiegileai kontuak artzekeo jañia. Elizkizun eta Mezetara etzan beñere joaten, Pazkozkoa egitera ere ez; eta ala ere, jai ta igande guztietan, batean ere utsegin gabe, elizara joaten zan, eta umeai **Dotriña** irakasten Apaizai laguntzen aritzen zan.

Uria aundia izan añen, bat edo bat konturatu zan, eta egun batean ala esan zion: Jauna, gauza batek añiturik nauka, ta nola dan galdetu bear dizut (Ausardia barkatu). Zuk eztezu jai ta igandietan Meza entzuten; Pazkozkoa egiten ere ez; eliz-

kizunetara joaten etzerala zer esanik ez dago; ta ala ere **Dotriña** irakastera joan gabe jai edo iganderik utzitzen eztezu. ¿Nola da ori?

Entzun bezin laster erantzun zion: ¿Oreek afitzen al zaitu? ¿Ez al dakizu, ba, Epailari naizela? Begira: gaizki egileren bat nere gana ekartzen dutenean, egin duana jakiteko gauza batzuek galde-tu bear izaten dizkat, eta bereala ikusten det orelakoak aurtasunean **Dotriñik** ikasi etzutela, edo ikasi bazuten ez diotela aietarikan ematen, bazter-tu-ta daukatela. Orain, ba; lan gutxiago izan-da obeto ta erosoago bizitzeko, **Dotriña** irakasten det, ori ikasten duanak lan txikiagoa emango du-alako.

Gizona, **Dotriñik** gabe, abere baten antzekoa dala badakit, eta abereetan gaiztoena, gañera. Oek ezaguerik eta borondaterikan ez dute, ta oregatikan berezko griñak eta okertasunak dakartzkietena besterik izaten ez dute, ta oyek nolakoak diran badakigu, ta ortikan irteten ez dirala ere bai. Guk ordea, griña txar asko ta aundiak, baita asmo biurri-zatañak ere izaten ditugu; ta ori, ez ala edo onela, beti berdin, aukerik gabe, abereak bezela, baizik ezagueraz, borondatez, maltzurkeriz, batzuetan era batera besteetan bestera, nai degun ura iristeko egokia dana artu ta kalte egingo ligukena utziaz. Ta oyek ezi ta zuzentzeko ¿**Dotriña** bezelakorikan bai al dago? Nik beintzat eztet arkitzen.

Ni nere alde nabil. Orain **Dotriña** irakastean lan zerbait artzen det, baña lan txiki ta eñaza; or-

tan sayatzen ez banaiz, gaizkiegile geyago ta biu-
fiagoak izango dira, ta neretzat lan aundiago ta
txafagoa. Ora, ba; jakin nai zenduana ikasi dezu.

Afitu-ta geratu zan gure gizona, orientzun-da.
Alde batera jakintsu aren iritzia ondo zeizkion;
baña buruan ezin sartu zitzayon ori jakitea ta esa-
tea, ta alare **Dotriñak** irakasten duana ez egitea,
elizara ez joatea, ta abar. Geyago galdetzeko au-
sardirik etzuan ordea izan, ta ortan gelditu zan.

HOHOHOHOHOHOHOHO

Elizan eta Ikastetxean ezezik, etxean ere Dotri-
ña irakatsi bear da. Umeak, ikasteko; ta ume ez di-
ranai, ez aztutzeko; indar aundiko gauza da ta.
Neguko aratsetan batez ere, gauero gauero ori
egitea...

¡Egizko euskaldunen oitura edera!

Losentxariak

Egia esatea bezelakorik ez dago. Gauza bat
zuria bada, zuria dala esan bear da; beltza
bada beriz, beltza. Ori beti egingo balitz, nolako,
ak geran jakingo genduke, gure akatxak ezagutu-
ta kentzen sayatu ezkerro, obeak izango giñake.
Askotan ordea, ezta ori egiten.

Ez dira gutxi losentxak siñisten dituztenak,
berai esaten zaizkienean, ta aizez beterikan bezela
jartzen dira; baña beste batzuek ez dute amua ain
eraz iresten, eta gauza politikak ikusten dira.

Losentxariak kalte aundiak egiten dituzte. Egia nekez esaten dute, eta egia esan beaŕean, ura ez-kutatzeke alegiñak egiten dituzte. Besteak berenganatu nai izaten dituzte, ta ortarako bide egokia losentxa dala ezaguturik, ori laguntzat artzen dute.

Gauza onak egiten baditugu, gure auŕean esaten dituzte, gauza oyek goratuaz eta dan baño geyago esanaz: ori pozik entzuten degula badakite-ta. Txararak beŕiz egiten baditugu, edo txararak ez izan aŕen, zerbait egiten ez dakigulako oker gertatzen bazaigu, ez digute esango, itz leunetan eta eŕukiturik, zertan utsegin degun, uŕengotan obeto egiteko; orduan ere goratuko gaitute, ta guk sinistu ezkerro, guztia gure kaltean. Ez ori bakaŕik; gu ez gauden tokian laŕua puskaka kenduko digute, ta gure auŕean losentxak esan eta oŕela paŕagaŕi jartzen gaituzte. Ta ori izer dala ta?

Esan zaŕak dio egia gauza zoŕotza dala, ta kakoduna gañera, amuaren antzekoa. Amua aŕayaren baŕenean sartzen da, ta gero ezin atera miñik eman gabe, ta berak aŕapatzen duan guztia berarekin ekaŕi gabe. Egiak ori bera egiten du; oŕegatikan askok ez dute entzun nai izaten. Losentxa beŕiz aizearen antzekoa da. Aizeak zagiak aŕotzen ditu, eder-edeŕak dirala dirudite; bañan aizea kentzen zayenean utsik geratzen dira, ta len bezela, zimurtuak. Losentxak ere berdin berdin. Gizona aŕotzen du; aizez beterik balego bezela, zerbait badala dirudi; baña losentxak mami-

rik ez du, gezur utsa da, ta iduripen oyek urázen diranean ezufetan bezela geratzen da. Ala ere, edertasun itxura ori nai izaten da.

Aberats, agintari ta asko dezaketenai batez ere losentxa aundiak egiten zaizkie. ¿Zergatik ala? Ez duanak, duanagandikan zer edo zer atera nai izatan du: ofetarako adiskidetasunak asko laguntzen du, ta askotan gauza beaía izaten da: adiskidetasunean sartzeko, biderik eíazenetako bat losentxa da: losentxak artzeko beíiz bide zabalzabala gure buruaganako zalekeria. Ta au¿nolakoa da? Txaía, izugaíi aundia, ta guzti-guztiok ezufetaraño sartu-ta daukagun gauza.

Gure buruaganako zalekeria gure etsairik aundiena da. Egia ezagutzen utzitzen ez digu: gauza gozoak nai izaten ditu, samíñak beñere ez; egia askotan mintxoa da, ta ofegatikan losentxa naya-go. Gure alde esaten diranak oso eíaz sinisten ditugu; goiberatzen gaituztenak ezergatikan ere ez. Edozeñek paíregingo luke ayek entzun-da; guk ez, guri oso egokiak deizkigu, gure aldekoak diralako.

Goikoak bear bezelakoak balira, beren buruaganako zalekeria ezagutzen eta menderatzen sayatuko balira, losentxak indar txikia izango luke; baña bekoak zintzo ta egi-zaleak izan ezkerro, goikoak ere ez lirake diran bezin txatxu ta losentxa-zaleak izango. Batzuek eta besteak eíudun. Egia beti ezin esan izaten da; baña losentxa ezta beñere esan bear. Orduan ixilik egotea, onena.

Losentxariak lagun eta laguntz aundiak izaten

dituzte: ezta gauza gozoa baita, ba. Egia esaten dutenak beñiz, bildurgafiak dira, ta zoñotzak dirala esaten da. Baña losentxariak ere ostiko edeñak batzuetan artzen dituzte. Oyetako bat irakufi: gertatu zala urte gutxi da.

Aundizkietako bat, Uritikan eñira etoñi-ta, bere maistar, adiskide ta lagun batzuekin basauntzeizara joan zan, sail aundi bat egin-da. Gora ta be-
ra, ezkeñera ta eskubira, antxe ibili ziran, eta basauntz asko il zituzten; larogei. Gelditu ziranean, asi ziran, oi bezela, gertatu zitzaikienak esaten, batzuek aundiak, besteak aundiagoak, nor bere tokian beste iñor gabe egoten diralako, alkañengandik uruti, ta iñork ere besteena ikusten ez du-
alako.

Guztiak bere buruaren alde ari ziran, baña batez ere Nagusi Jaunarenak goratzen. Batek, nagusi jaunak begi ona zuala esaten zuan; besteak, aldapa ta eñekaetan tranko aundiak, artzayak bezela, egiten zituala; onek, laster-alditan mutil gazte bat zirudiala; ark, eizaren gora-bera guztiak ederki zekizkiala; eskubikoak, eiza alerik ere etzala aren aurfetikan igaroko, antxe ankaz gora gelditu bearke lukealako; ezkeñekoak, basauntzak bilduñ ziotela zirudiala, urutitikan baztarzen ziralako... guztiak zein baño zein losentxariagoak.

Alako batean, zeuden tokian beste bat sartu zan, eta basauntz ilak ekañi zituztela esanaz, guztiak sarobera eraman zituan.

Sartu ziranean, Nagusi jaunari esan zion: Gaurko eiza emen dago, Jauna. Geyena berofek

egiña da, Jauna. Larogei buru badaude, ta berorék irurogei bota ditu, Jauna. Nik ondo gogoan artu ditut, Jauna.

Losentxari gizarajo ark Nagusiak aza aundi ori beingoz iretsiko zuala uste zuan, eta pozik geratu zan; bañan otz-otza jañi zuan Nagusiak, erantzutean: ¿Nola izan diteke ori? Ogeitamabost besterikan etoñi etzaizkit-eta...

¡Ziri edeña ziñez! ¡Ederki egin zitzayon!

|||||

Egia beti esaten badezu, edozer tokira arpegi garbiz joan zaitezke; losentxaria izaten bazera beriz, gezurtia zerala esango dute, ta bide garbiz ezin iritxi dezuna, losentxaka arapatu nai dezula... ¡Ta ezin ukatu!




¿Egazteak ere bai?

Esker-onakoa izatea gauza ederra da, gure biotzak ori berezkoa du, barendikan datorkion gauza da. Inork laguntzen badigu, bereala eskerak ematen dizkagu, biotza lotu-ta bezela gelditzen zaigu, ta ura gero bearean ikusten badegu, gu ere bere alde alegiñean sayatzen gera. Orelakoa izatea ta ori egitea guztiak ondo ikusten dute; ta ez egitea, guztien iritzirako gauza itxusi ta txarra da.

Negu gogofeko egun latz batean, elur gañean txofi bat zegoan, goseak erkitua ta otzak ondautua. Migeliko basetxean bizi zan, eta txoria leyotikan ikusi zuan. Poliki-poliki alderatu zan, eta erdi ila zegoan txoria eiaz arapatu zuan. Su ondoan lenbizi, esku tartean gero, azkenean kolkoan sartu zuan. Bero-bero egin-da, jaten eman zion eta bere gisa utzi zuan. Txoria poz-pozik joan zan, kantari ta jostailu; bañan etzan ufuti joan, eta beti basetxe aren inguruan ibiltzen zan.

Migeliko etxetikan irten bezin laster, txoritxo antxe zegoan; ikastetxera joatean, txoria efi baztañeraño aren atzetik; goizean goiz, argitu orduko, Migelikoren gelako leyoan jañi-ta, zekian eta etze-

kian guztia eztañi gozo-leun ark antxe botatzen zuan. ¡Esker-onak nolako gauzak egin erazitzen dituan! Beñi ori baztar guztietan laster zabaldu zan, eta gauza oyek ikusteko urutitik ere etortzen ziran. Bañan oyek guztiak bañon ariñariago beste bat ere gertatu zan, eta oraintxe esan bear dizut.



Udaberiko aratsalde batean, Migeliko soroan beizai zegoan, luñean eseri-ta, edo etzan-da, ta eguzkiaren indañez lo geratu zan. Ala zegoala, su-ge aundi bat alderatu zitzayon eta mutiltxoaren lepoa poliki-poliki inguratzen asi zan. Txoria, sasi batean jañirikan, kantari ta kantari zegoan, Migeliko esnatu nayeant: bañan alpeñik; lo-zoñoak menderaturik, ezergatik ere esnatzen etzan. Belañi ondoraño egaldi batez etoñi zitzayon, eta txiu—

txauka ta kañaxika, eten gabe, antxe ari zan, lertzeko eran; bañan ala ere, Migeliko lotan.

Azkenean, alpeñikan zebilela ezaguturikan, gañera igo zitzayon, su egiñik sugeari eraso zion, buruan ekin-aldi zofotz eta biziak mokoz egin zizkan, eta ilik utzi zuan. Sugea, crdea, pozoitsua zan, txoritxoari ozka egin zion, eta au ere ilik gelditu zan.

Sasiak aundiak ziralako soroan garaiz ezin sartuz zebileen artzaitxo batek ori guztia ikusi zuan, sartu zanean Migeliko esnatu erazi zuan, lepotikan suge ila kendu zion, eta txoriak egiñiko guztia esan zion.

Gauz oyek entzutean Migelikori biotza samurtu zitzayon, eta txoria il zala jakitean naigabe aundia artu zuan. Gero txoriaz oroitzen zan guztietan negar ta guzti egiten zuan, eta txoriak egiña guztiai esaten zien.

¡Etzedukan nonbait txoriak aztu-ta elur egunean gertatu zitzayona! Ofegatikan bere ongileagatik bizia galdu zuan.

Ofelakoak izan bear degu guk ere. Zer edo zertan laguntzen digutenai, maitasun berezi ta bafengo esker-ona zor diegu. Ta Jaungoikoari askoz aundiagoa; guztia Ark emana degu-ta. Alaere, Jaungoikorik ez balego bezela bizi gera.

Txori onek, ezaguerik gabe, esker-on aundi ta biotz edera erakusten digu. Ez txikiagoak izan, ba.

¿Aizpa berdiñak? ¡Bai zera!

Beñere ibili ez geran tokietan nai ta ez sartu bear badegu, ta batez ere bide ori gabaz egin bear badegu, argi egingo digunen bat bear degu; ta gañera bideak dakizkiena. Ori izan ezkerro galtzeko ariskurikan izango ez degu, ez eta bestelako okerik ere. Baña bidea erakutsi bear digunari aretarik ematen ezpadiogu, ta oraindikan geyago, berak zerbait esan eta guk atzekoz-aurreko bideari jarraitzen badiogu, gauz onik izango ez degu, ta azkenean ate gabeko lezeren batera eroriko gera.

lñork ere ez daki, bere buruz, zer egin bear duan eta nolako gauzak utzi bear dituan: ofegatik guztiok besteengandik ikasi bear izaten degu. Jakintsuai ere ori bera gertatzen zaye. Ofelakoak izateko, besteak irakasten dutena gogoan artu bear izaten dute; ta jakintsu egiten diranean ere, zer edo zertan jakintsu izan litezke, baña beste gauz askotan, berak adiña edo berak-baño jakintsuago edozein.

Jaungoikoak gure bear oni ederki begiratu dio, ta ofetarako gurasoak eman dizkigu, jakin bear deguna aurtasunean oyengandikan ikasteko.

Auek seme-alabak ondo azitzen beartzen ditu; ta seme-alabak gurasoen mendean ipintzen ditu, egin bear dutena ta utzi bear dutena gurasoengandik ikasteko. Umeak, ba, onak izango dira gurasoen esanak ondo egiten badituzte; egiten ez badituzte, gaiztoak.

Ona emen bi aizpa, Joxepa ta Baxili, oso berdiñezak. Zařena Joxepa zan, eta amaren esanak beti zintzo-zintzo egiten zituan. Amak zerbait esan bezin laster, gañerako guztia alde batera utzi-ta, amarena bereala egiten zuan. Baxilik beřiz, beti aitzakiak ateratzen zituan, eta alakorik arkitzen ez bazuan, laster joango zala esaten zion; egiten ari zana egin-da, lanerako tresnak bildu-ta, lana erdizka ezin geratu zala, ta abar; baña nekez joaten zan eta gogo txarřez. Itz batean, gogoak ematen zionean, besterik ez.

Aldi batean, amak egun osorako lanera joan bear izan zuan, eta aur txikiari ondo begiratzeko bi alabatxoai esan zien. Ori ondo egiteko, Joxepak bere aizpari esan zion, goizean lagunetara joan nai bazuan joan zitekela, ta bera aurzai geratuko zala; arřatsaldean beřiz, bera lagunetara joango zala, ta ark lan laburtxoa izango zuala, ama laster etořiko zalako. ta ama etoři ondoan ere jostatzerara joan zitekelako.

Poz-pozik joan zan gure Baxili lagunetara, ta goiz osoan antxe egon zan, aspertu gabe. Joxepa seaskaren ondoan egon zan, eltzeak eta gañerako lanak beartzen etzuten guztian, eta aurfā ederki

egon zan. Bañan arátsaldean, ama goiz etortze-koa bazan ere, aúra iñor gabe utzi, ta lagunetara beñiz joan zan Baxili.

Aúra negáñez eta kañasika zegoala auzokoak sumatu-ta, zerote zan ikusteko etxean sartu ziran. ¡Aur gajoa! Luñean arkitu zuten, seaskatikan eroria. Guztiak neskarimokoka aundiak egin zizkaten, baña beñiz alakorik egingo etzuala negáñez esan zien, eta barkatu zioten. Ori ortan geratu zan, amari esan gabe; baña lengoa ber-bera izan zan gero ere.

Beste bein batean, beste eñi bateko osaba-izebak bazkaltzera etoñi zitzaizkien, eta amak bi aizpak mandatura bialdu zituan. Nork bere saskian gauzak jañi-ta, biak etxerontz abiatu ziran, bañan etziran bi saskiak etxera berdin etoñi. Bidean zetozela, lagunak ikusi ta Baxili ayekin gelditu nai zuan. Joxepak ezetz esan zion, ezin geratu zirala, amak gauza ayek bear zituala-ta. Biak matrakan aritu ziran, eta azkenean Baxilik aizpari esan zion nai zuana egiteko, baña berak lagunakin gelditu bear zuala, ta ala egin zuan. Etzuan, ordea, uste gertatu zitzayona etoñiko zala.

Lagunakin jostatzekeo saskia baztar batean utzi zuan, konturatu gabe urutitxo joan ziran, ta txefi batek, mutuía saskian sartu-ta, guztia luñara bota zion, bai saskia ta bai artan zeramazkianak ere. Arkume laurden bat, gazta eder bat, ardo zarák bonbilak autsi-ta, gaztanbera, udareak eta abar, jan zitezkenak jan eta gañerakoak lardazka-

turik bezela, txerñak lan polita egin zuan. Ama etxean suak artu-ta zegoan, eta Baxili agertzen etzalako aren bila irten zan, eta gertatu zitzayona ikusi zuanean, etxera eraman eta gela ilun batean iru egunean euki zuan, egindakoa gogoan ondo erabiltzeko ta asmo on-beñak artzeko; eta andik auñera, luzaroan etzion maitasunik erakutsi, neskak bere gaiztakeria aitortu ta ondo damutu zitzayola erakutsi arte.

¿Berdiñak al ziran bi aizpak? ¡Bai zera! Joxepa ona zan, esangilea zalako; Baxili beñiz gaiztoa, aña zan-da.




Jaungoikoari begiratu-ta gurasoak zerbait agintzen digutenean, bereala ta zintzo egin bear degu. Aurtasunean bezela, gero ere ori gogoan euki ta egin.

Euskaldunen aziera

Ez dira toki guztiak otz-beroan berdiñak. Batzuek oso otzak: **Siberia** (*Asia'n*), **Canadá** (*Ameriketan*), **Polonia** (*Europan*) eta abar. Beste batzuek beñiz oso beroak: **Filipinas** (*Oceaniako ugarteak*), **Cuba**, **Africa**, ta beste leku asko. Oyetako batzuetan euria maiz izaten dute; besteetan beñik oso nekez, eta euriaren ordezt legorte ikaragarriak, luñak emango lukena ere uratzen dutenak.

Erlijio ta oituretan ori bera gertatzen da. Toki batzuek negargariak dira, Erlijioko gauzetan jakituntasun aundia dute, ta oiturak ere nolapaitekoak; beste batzuek beriz pozgariak, gauza onak indar aundia dutelako. Auetako bat gure Euskaleri maitea da.



Gaur egunean toki askotan gauza negargari bat ikusten da. Mutil sendo-mardul-eder eta neskatx garbi-langile-etxekoyak izan bear lutekenak, alakoak ez izatea. Gorputzean agertzen da ori, baña zaña bañuan dago. Oraiko gazteria arin, biurri, aro, lotsagabea, zikiña da, usteldu-ta dago. Begietan, izketa aro-zikiñetan, jantzi-soiñekotan, oituretan, beren itxura ta izate osoan ezagutzen da. Alde batera nazka, bestera beriz erukia ematen du.

Gure lur bedeinkatuan, Euskalefian, ezta ori

beste tokietan adiña ikusten. ¿Zergatik izango da? Euskaldunak beren aurrekoengandik oitura onak artu, ta aziera onaren bidez oiei eusten dietelako.

Euskaldunak beti elizkoyak izan dira, ta orain ere ofelakoak izan ezkeru, lengo bideari jafaituko diote. «**Zer ikusi, ura ikasi,**» esan zafak dionez; eta ori ala da. Seme-alabak gurasoen antzekoak geyenean izaten dira: ta guraso onak ¿nolakoak izaten dira seme-alabentzat?

Len-lenbizi, beste gauzak bañon afeta aundiagoz, kristau-gauzak aurtasunean irakasten dizkiete: **Gurutze Santuaren... Aitaren... Aita gurea... Jaungoikoaren Legeko Aginduak...** goiz-afatseko otoitzak... otordu-afean eta otordu-ondoan esaten diranak, **Agur-saila** (Erosarioa) gauero-gauero esaten, eta abar.

Koskortzen diranean, elizarako bidea irakasten diete, berak joatean beren ondora eramanez, eta afetaz egoten beartuaz. Geroago, beren utsegiñak aitortzen irakasten diete, lenego Aitorpen eta Jaun-artzerako ondo prestatzen dituztela, ta ori egin ezkeru maiz bialtzen dituztela.

Zerbait geroago, Eliz-Alkartasunen batean sartzeko bidea ematen diete, ta oyetan, geroago ta obeak izaten ikasten dute. Oyetan ondo iraun ezkeru, gurasoen esanak zintzo egiteko esango diete, efiko edo bestelako agintariak erabakitzen dutena ondo artzeko, langile ta paketsuak izateko, geyegi ez edateko, gabaz ez ibiltzeko, lagun txarengandik aldegiteko, bileretara ez joateko, nes-

ka-mutilak alkarékin ez ibiltzeko; ta gañera, ilero-ko Aitorpen eta Jaun-artzea ez utzitzeko. Gauza oyetan ondo dabiltzan edo ez, Alkartasunetako buruak kontuak artuko dizkiete, ta oñela ondo ibiltzen oitu egiten dira. Alkartasun oyek, batzuek neskatxentzat, besteak mutilentzat, besteak beñiz edozeñentzat izaten dira.

Bide ortan jañirikan, Meza nagusira joaten dira; aratsaldeko elizkizunera ere bai; gero lagunetara ilunabara arte, batzuek ala, besteak onela, nor bere zaletasunaren araberan jostatzen egoten dira. Bañan ontan ere, gauza eder bat ikusten da. Egizko-euskaldunak ez dira dantza lotu zikiñean aritzen. Euskal-dantza garbi-edeña, besterikan ez. Ilunabaréan, ezkiak jotzean, soiñua geratzen da, guztiak *Agur Mariak* esaten dituzte (mutilak txapela erantzi-ta), ta berandu ibili gabe, bereala etxera.

Atzerikoak onelako gauzak ikusten dituztenean aritzen dira, ta gero beren erietakoai esaten dizkiete.

Auek, eta onelako gauzak gure aziera ona erakusten dute, ta oregatikan toki guztietan ondo artzen gaituzte.

¿Artzen gaituztela esan det? ¿Euskaldunen aziera au dala ere bai? Orain artekoa izan dala, ta oregatikan non nai txaloka artu izan gaituztela esan bear nuan... Birao beltza gure artean asko zabaldu da; euskaldunak erdera euskera baño maitiago dute; dantza lotu zikiñak Euskalerian bere

eskatu zion, eta onek, gogo txafez bazan ere, eman bear izan zion. Seme ori, ba, afo-afo egin da, etxetikan ufutira joan zan. Aita gizarajoak, ori ikusi zuanean biotzean min aundia artu zuan, nairgabe izugafiak menderatu-ta geratzen zala.

Gazte ark uste zuan, orduan artzen zituan ondasunak beti iraun bear zutela, ta erokeriari eman zion. ¿Nola ordea? Lagun txafakin asi zan, eta auek nolakoak izango ziran jakiña dago.

¡Ufa, motel! i aiz au, i aiz ura, i bezelakorik etzegok... losentxaz bete zuten, eta miurak zuaitzari bezela, zuan guztia jan egin zioten. Gure mutilak beñiz, guztia bere gain artu, ta iturria agortzen zala ez gogoratu. **¡Dagonean bon-bon!** Arinker, jan-edankeri, loikeri ta nazkagarikeritan ase gabe ibili zan, berea ta besteena ordainduaz, eta era ortan laster txanponik gabe geratu zan, eta orduan lagunak iñor gabe utzi zuten.

Bere burua ofela ikustean ¿zer egingo du gure mutilak? Lengo afokeria ¿nora joan da? ¿Non daude txaloak egiten zizkaten adiskideak? Lena-go non nai artzen zuten, baña txanponik gabe geratu zanean, guztiak igeska. Burua makurtu bear izan zuan gizarajoak; eta jango bazuan, ogibidea artu. Baña ¿non? ¿nolakoa? ¿arkituko ote du?

Gosete ikaragafia inguru ayetan gertatu zan, eta bere burua oso gaizki ikusi zuan. Lana egin nai, baña lanik ez; an edo emen pozik sartuko zan, ogi puska bat irabazteko, bañan ori ere ez. Azkenean, goseak ilko ez bazuan, toki txafia zala ezagutu afen, etxe batean mofoi sartu zan.

Nekez iristen dan gauza ezta nola nai utzitzen. Oregatikan, nagusia gogor eta zofotza bazan ere, antxe egoten zan etxealde onako mutil ura. Nagusiak txerizai jari zuan; eta goseak erkitua zegoala, txerizai ematen zieten bazkatik pozik jango zuan: banan ura ere artzerik ez.

Bere burua ofela ikusi zuanean, bere etxeko ondasun eder eta ugaritasunak gogoratu zitzaizkan, eta bere artean ala esan zuan: ¿Zenbat lagun dago nere aitaren etxean, mofoi eta maistar, ogi ona jaten dutenak, eta ni, etxeko semea, emen nago, goseak ila? ¡Ez geyago! Nere Aitagana joango naiz, eta barkazioa eskatuko diot...

Erabaki bezela, egin ere: bere etxerontz bat-batean abiatu zan.

Semea etxetikan irten ezker, Aitak etzuan egun onik izan; banan etzuan oregatik ura ikusteko ustea galtzen, eta bidera maiz irteten zan, ura etortzen ote zan. Alperk ordea.

Egun batean, semearen itxura urutitik nabaritu zuan, eta bazetofela sumatu zuanean, pozak zorutzen bidera irten zitzayon, laztan estu ta musu beroak ugari eman zizkan, eta bere etxean befiz artu zuan.

Semeak barkazioa eskatu zion, eta etxean, mofoi bezela, bizitzeko lekua. Artu zuan Aitak; ez ordea mofoitzan, semea bezela baizik. Soñeko, oiñetako, eraztun eta gañerako gauzak, guztiak beñiak eman zizkan. Zekor aundi bat il erazi, ta jateketa bikaña egiteko agindu zuan, esanaz:

Seme au il-ta zegoan, baña piztu da; galdu zan, bañan arkitu degu.

Etxekoa afokeriz utzi-ta aldegiten duanak, joan ondoan gertatzen dana ikusi beza. Afokeria eñaz artzen da, burua berotzen digutenai sinisten diegu. Baña ¿gero? Gero gerokoak.

Guk Jaungoikoari ta Jaungoikoak guri, biok alkañi egiten dioguna, ipui ontan ederki ikusten da. Guk Jaungoikoari iges egiten diogu, naigabe aundia emanaz, eta Jaungoikoak guztia barkatzen digu, damutasunez ori eskatzen badiogu.

Beren gurasoai naigabeak eman-da, etxetikan joan diranak, beste ainbeste egin, eta gurasoak pozik barkazioa emango diete.

|||||

Zer edo zer toki guztietan eraman bear izaten da. Etxeko zokoa bezelakorik, iñon ere ez. ¡Amai-ka etoñiko lirake atzera, al izan ezkeru..!

Onegia zan...

Gauza guztiak, onak izateko, neuñi jakiñekoak izan bear dute. Geyegikeria, naiz aunditasunean eta naiz txikitasunean, beti txarra izaten da. Edozer gauzetan garbi ikusten da.

Soiñeko aundiegia ta zabalegia jazten duana, ezin ibiliko da, eñaz eroriko da, ta min aun-

*dia artzea ere baliteke. Estuegia artzen duanari beñiz, sartzean autsiko zayo, ta kito. Erekako alde batetik bestera igarotzeko ari batzuek jañ-
ta badaude, tranko aundiegia egiten duana ure-
ra eroriko da; txikiegia egiten badu, beste ain-
beste; ta ¿nork daki zer gertatuko zayon? Gogo
gauzetan beste ainbeste gertatzen da, ta oregat-
tikan asko dira galtzen diranak.*

*¿Ta ez al zayo ontasunari berari ori ere
gertatuko? Irakurri*

Onegia izatea ezta ona izatea. Ona danak gauza guztiak ondo egiten ditu, ta bere mende-koai egin erazi ere bai; onegiak beñiz, ez bata ta ez bestea.

Besteai kontuak artzeko jañ-ta daudenak, ori egin gabez askotan utsegiten dute, ta batzue-
tan neñirikan gabe: oregatikan ez dira oyek onak
izaten, onegiak baizik. Guraso ta agintariak, one-
giak izaten badira, beren seme-alaba ta mende-
koai kalte izugaria egiten diete. ¿Nola? Oso eñaz.
Guztia barkatzen diete, abek nai dutena egiten oi-
tu egiten dira, ta gero ezin galerazi. Ondoren txar-
rak ikusten dira, baña zuzentzeko berandu. Oker
oyek uñatzea oso zaila izaten da, ta askotan ezi-
ñezkoa ere bai.

Oñelako bat zan, izengoitiz **Petrála** esaten
zioten neskatx baten ama. Ona gertatu zitzayona.

Ama txaldanak neskak eskatzen zion guztia
ematen zion aurtasunean asi-ta. Batean, josta-

tzeko gayak bear zituala; bestean, goxoak erosi bear zituala; orain, soiñeko befia; gero, uñezko pitxiak; gaur, lagun baten eguna zala; biar, egun osoko txangoa egin bear zutela... Beti zer edo zer izaten zuan, gauza oyetarako txanponak amari eskatu, ta ergel onek beti ematen zion.

lñoiz edo beste ama kezkatzen zan, eta gauzen batean gogor egiten zion, baita eskatzen ziona ukatu ere; baña negarez eta zalapartaka astitzen zan au bereala, ta ofela ez ikusteagatik ama samurtzen zan, eta alabak nai zuana ateratzen zion. *Bakara da ta... Besterik ez degu ta... Berdin guk deguna beretzat izan bear du ta... Ez ditu gauza txarrik eskatzen ta... Eman-da ixilduko al da...* Onelako aitzakiak, onelako kaikeriak ateratzen zituan ama zabar eta onegi onek. ¡Zoritxarreakoa! Neskaren ondamenari bidea ematen zion, eta etofi zan.

Emeretzi urte zituanean gure **Petral** ori, miñez jafi zan. Gaitz ura Sendatzaile jaunak bereala ezagutu zuan; eta ama nolakoa zan ezaguturikan, esan zion: Zure alabak gaitz txara du; baña sendatu diteke. Nik agintzen dizudana egiten badezu, aterako detala ziur nago, Jainkoak lagunduta. Bañan areta aundia bear da; ta zabartzen bazera, ez degu gauz onik egingo: alabarikan gabe geratuko zera. Zure eskuan dago, ba.

Alegiñean sayatu zan aldi artan ama, sukarrak alde egin zion, eta neska oso poliki jafi zan. Baña jai afatsaldean lagunak etofi zitzaizkan,

ikustaldia ematen. Poz-pozik artu zituan eta trukean aritu bear zutela gogoan jañi zitzayon, bera ere sartzen zala. Gauza txaña izango zala amari gogoratu zitzayon; bañan alabak gogotik nai zuan, eta amak gogor egiteko biotzik etzuan izan. Buruko batzuek jañi zizkaten, eseri-ta bezela egoteko, ta antxe aritu ziran añatsalde osoan trukean ederki.

Sendatzailea ilunabañean etoñi zan, eta zer egin ote zuten galdetu zien, goizean sukar antzik ez, eta orduan beñiz aunditxoa añapatzen ziolako. Ama-alabak, bildurturikan, beren burua nola edo ala garbitu zuten, gezur galantak asmatu-ta, ta añatsalde artakoa gorde ere bai. Ori ortan gelditu zan.

Alegiñean sayatu-ta, Sendatzaileak sukaña erabat beñiz kendu zion, eta neska oso ondo jañi zuan.

Jaten asi zanean, gauza batzuek agindu, beste batzuek beñiz debekatu zizkan, eta ardura aundiz ibiltzeko esan zien: etzuten ordea ala egin. Gau batean Sendatzaile bila lasterka etoñi ziran, **Petrala** beñiz oso gaizki zegoala esanaz. Bereala joan zan, bañan alpeñik: sukaña izañetaraño igoa, erabat gailendua, ta onurik ez. Etsia eman bear izan zien.

Erotu-ta bezela zebilen Sendatzaile gizajoa, ikusten zuana ezin sinistuz. Ama txatxu ark beñiz ere astakeriren bat egingo zuala burutikan ezin kendu zuan, eta gauza bat oso egokia gogoratu zitzayon. Ederki gertatu ere.

Neska ain gaizki jañi zala auzoan entzun zutenean, emakume sail aundi bat etofñi zan, zer edo zertan laguntzeko asmoan. Guztiak gela batera Sendatzaileak eraman erazi zituan, ta **Petralaren** ama ere bai, eta era ontan itzegin zien: Andre agurgafiak; emen gertatu dana ikusi dezute. Neska oso ondo neraman nik, sendatu-ta bezela nendukan, eta orain bat batean beriz oso gaizki jañi da, ta onurik eztu. Neska oni pozoiñ bat nonbait eman diote; bañengo ustelkeriak ori adierazten duta. Nik nere burua garbitu bear det, eta ortarako emen gertatu dana salatu bear det. Legeak bear-tzen nau. Neska laster ilko da, ta aldameneko Sendatzaile batzuek ekañi-ta, gorputza legez idikiko dute, emen gertatu dana jakiteko. Epailaria etortzen danean, emen ikusi dezutena garbi esan, eta egia ofela agertuko da. Nik naigabea artuko det, bañan ez det beste biderikan arkitzen. Ori egiten ezpadet, nere izen ona galduko det, eta ori gabe ezer ez naiz. Ainbeste egingo dezutela uste det.

Sendatzaile jaunaren asmoa, guztiak ontzat eman zuten, zentzuzkoa zala esanik.

Petralaren ama izutu zan, eta negañez bere efua aitortu zuan. Jauna, añen eta añen, ez alakorikan egin; efua nere da. Ona emen gertatu dana. Sagar batzuek baseñitikan ekañi erazi nituan, berofek esan bezela efeta neskari emateko; ta ikusi bezin laster, añenka asi zitzatan, emateko ta emateko. Nik ez nion eman nai; baña negañez asi zan, eta

maite ez nuala esaten ziran, eta etzula beste ezertxo ere jango, ta oñelako gauza batzuek esan zizkiran; eta azkenean eñukitu nintzan eta eman nion.

—Ez, esan zuan Sendatzaileak; sagar batek ez dio oñelako gaitzik egin. Beste zerbait ere egin, edo eman diozu.

—Ez jauna, ez; ezertxo ere geyago ez. Edan bai; ura eskatu ziran, eta eman egin nion.

—¿Sagarñen ondoan ura? ¿Epela emango ziozun, ba?

—Ez Jauna; otza, ta sagarña ere gordiña.

—¿Sagar gordiña ta ur otza? ¿Zer geyago naitzenduan, ba, alaba iltzeko? ¡Jesús, María ta Jóse! ¡Alde, alde, alde..!

Sendatzaileak etzuan itzik ere geyago esan; bañan emakume ayek, guztiak batera, eun eta bere aldikoak ama txatxu ari esan zizkaten. Guztia, ordea, alpeñikan... Neska gau artan berean, miñaren miñez il zan...

Orain galdetzen det nik: ¿Ez al da neuri gauza guztietan beañ? Neuriari ez begiratu ezkerro ¿zer gertatzen da?



Onegia izatea, ezta ona izatea. Ontasunari berari ori gertatzen bazayo ¿zer esango degu beste gauzaz?



Aita txatxua

Gorputzari geyegi barkatzen bazayo, ta ego-
kia eztan gauza eskatzen duanean ařetari-
kan gabe ematen bazayo, pitin-pitinka osasuna
ondatuko da, ta gero antolabiderik ez. Izerditu-
ta ur otza artzen bada; toki bero-berotikan as-
koz otzago dan beste batera bereala joaten ba-
da; lan gogořa egin ondoan bařengo berotasu-
nari begiratu beařean, alkandora askatu-ta ařo-
keriz ibiltzen bada; itz batean, gaitzari bidea
ematen bazayo, gaitza etořiko da, ta bere lana
egingo du. Eztul txara sortzen danean eraso nai
izaten zayo; bařan orduko... birikak erdi ustel-
duak daude, ta gero ta geyago... Azkenean, il
arte eztulka. Beste gauza batzuetan ere ori bera
gertatzen ote dan ikusi.

Zenon zan mutil bat, ari-matatza bařo biuřia-
goa. Dendariak gauzai ondo begiratzen ez bazie-
ten, ařapatu ta lasterka eramaten zituan. Bera ba-
řo txikiagoak ziran mutiltxoak asko jotzen zituan,
zauritu ta odoldu ere bai. Kaioletan zeuden txori-
ai ařika ematen zien. Leyoak zabalik egoten zira-
nean, ařiak bařena bota ta guztia ondatzen zuan.
Itz batean, mutiltxo guztietan gaiztoena zan.

Bein batean, auzokoen oiřo eder bat, cso eřu-

lea, il zuan. Oiño jabeak naigabe aundia artu zuan, eta mutilaren aitak ordainduko zualakoan, eskatzea erabaki zuan. Etxekoandrea **Zenonen** aitagana joan zan, bere semeak egin zuana esan zion, zetorkien kaltea ere bai, berak bezelakoentzat ofelako oiño bat galtzea kalte aundia zala, ta ordañez beste oiño bat eskatzen zion. Mutilaren aita aberatsa zan, bañan emakume ura bereala bialdu zuan, esanaz: *Aurak dira, emakumea; ¿zer egitea nai dezute?*

Urango aldian gizaseme bat etofi zitzayon, eta esan zion: Jauna, baratzen udare eder batzuek baditugu; zure semea, ikastetxera joan beañean, ayetara joan da, zuaitzera igo, udareak ařapatu, zuaitzari adařak ondatu, ofen azpiko landareak ere bai, eta ofela kalte aundia egin dit. Neronek ikusi det, berak ikusten ez ninduala baratzen sartu naiz, eta atzetik, ziplo, ařapatu det; eta zuregana nekařela iges egin dit. Mutilaren aitak bereala erantzun zion: *Aurak dira, gizona; ¿zer egitea nai dezu?* Gizon ura eřian asko zezakena zan, eta beste gizajoak indařik ez, eta ofela utzi bear.

Beřiz ere etofi zitzayon, eta esan zion: Jauna, basoko bide baztařean mintegia det; badakizu. An ere udare ondo batzuek baditut, eta len etxeko baratzen bezela, orain beste toki ortan ere zure semea sartu zait, eta kalte aundia egin dit. Kalte ofen ordañez zerbait emango dirazulako ustean nator. **Zenonen** aitak otz-otzean erantzun


zion: ¡Gizona, gizona! Éraz asáretzen zera; ófeko
lako gauzak noiz nai, eta non nai, gertatzen dira.
Auñak dira; ¿zer egitea nai dezu?

Eliz aúretxoan bizi zan **Zenon**, eta Mezetara
baseítik egunoro etortzen zan amona zar bati,
izengabeko tzarkeria egin zion. Érekatxo bat ba-
zan, amonak nai ta ez igaro bear zuana; erdi-
erdian ari bat jaíri zuten, artan oin bat ipiñi-ta, bes-
teaz legoía aápatzeko. ¿Zer egin zuan, ba, gure
deabrutxoak? Aña uíutiago ipiñi, ta gañera kolo-
ka zegoala, nai ta nai ez erori bear. Mutilak uste
bezela, gertatu ere. Amona elizara etoíri zanean,
¡gajoa! érekan erori, min artu, ta doi-doi irten zan;
eta gañera, euritakoa autsi. Bereala etxerontz
abiatu zan, eta bidean euri-jasa aundi batek aá-
patu zuan. Euritakoa zabaldu nai izan zuan, ba-
ñan ondatu-ta geratu zitzayolako, ezin. Ófela
etxera blai-blai egin-da iritxi zan.

Apaiz jaun batek amona erortzen ikusi zuan;
eta laguntzera joan zanean, aldameneko batzuek
mutilaren gaiztakeria esan zioten, eta bere aitari
esatea erabaki zuan. Uste zuan, eta besteak ere
bai, berari aáeta emango ziola: gure érietan Apaiz
jauna gizon agurgafia da, ta begirapen aundia
ekartzen zayona. Joan zan, ba, ta gertatu zana
esan ondoan, erantzun zion: *Jauna, auñak dira,*
¿zer egitea nai du? Ori ere ortan gelditu zan.

Itz batzuek esaten ikasten duten egazti oye-
tako bat gizon ark bazuan, eta itz oyek ainbeste
aldiz entzuten zizkan, azkenean egaztiak ere ika-

si zituan, eta maiz esaten aritzen zan. *Auñak dira; ¿zer egitea nai dezu?* *Auñak dira ¿zer egitea nai dezu?*



Urte batzuek joan ziran. **Zenón** trakets ura mutil aundi ta sendoa egin zan, eta etzion aitari bilduñik ekartzen; begirapenik ere ez.

Egun batean, semeak egindako gauza izugarri txar eta zikiña aitak ikasi zuan, eta lots aundia artu zuan. Etxera joan zanean, semeari kontuak artu zizkan, eta gaitz egiña arpegian eman zion.

Onek era txarëan erantzun zion, eta zezio ikaragaña izan zuten. Bero-aldi artan aitak eskua jaso zuan, semea beeratuko zalako ustean..... ¡Bai zera! Año-año egin-da, beeratu beaëan, berak aitari eraso zion, makil bat artu, ta ederki astindu zuan, luñara bota, ostikoka zapaldu, ta zapi zatar bat bezela erabili zuan; eta aspertu zanean, aita luñean utzi-ta lagunetara joan zan.

Aita gizarajoa negaëez geratu zan, zutitzeko gauza etzala, ta biotza naigabez urturikan. Negarmalkoen artean itz batzuek esaten zituan: ¡Seme-seme, neretzat ain maitea! ¿Zer egin dirazu? Nik beti guztia barkatu izan dizut... ¿Onela ordaintzen dirazu nik beti egin izan dizudana?

Oso indargabeturik, azkenean ixildu zan, eta gauza polit-ikaragaña gertatu zan.


Kalamatrika ta zalapart artan egaztea lañi zegoan, dardaraz eta bildurturikan; eta etxeko-semea joan zanean, kantari asi zan, oi bezela: *Auñak dira, ¿zer egitea nai dezute? Auñak dira, ¿zer egitea nai dezute?*

Biotzak zasztada zoñotz bat egin zion, eta de-adarka asi zan: ¡Egia, egia! Nere lana da, iñori aitzakirik ezin eman, nere txatxukeria aitortzen det, semeari geyegi barkatu diot... Orain berandu da...

|||||

Semeari geyegi barkatu... Auñak dira... Ogi puska bat zan aita ¿nola ez?... Gaitzak indaña artu... Jipoyak lausoa begietatik kendu... Orain berandu da... Añapazak orain.

LEGE ZOŖOTZA TA MINGAIN BIKANĀ

ndo ibili nai ez dutenak, beti aitzakiak ateratzen dituzte; bañan alpeñik. Utsegin eta obenak aitortzea gauza beara da; ořetarako, ordea, burua makurtu bear da, ta ařokeriak min artzen du. Ořegatikan batzuek esaten dute (beste kaikukeri asko ere bai) Barkalariai esaten zaizkien utsegin eta obenak jakingo dirala, oyeke besteai esan-da.

Oyei erantzuten jakiteko, gai au irakuñi. Ořela bi gauza ikasiko dituzu: lenbizi, Barkalariak aitortegian ikasten dutena iñori ez esateko legea nolako zořotza dan; gero, Jaungoikoak Barkalariai nolako saria ematen dien. Goazen, ba.

Bohemia'ko Eřege Wenceslao, otz eta gaiztoa, gogor eta fiakaitza, pozoitsu ta gořoto zalea zan; bere emaztea beřiz, gozo ta maitagařia, zintzo ta elizkoya. Bere utsegin eta obenak aitortzera maiz joaten zan Eřegiña, ta beti batengana, Eliz-nagusiko apaiz on eta jakintsu batengana. Eřegea etzegoan pozik. Bere emaztea bear bezelakoa etzala buruan jaři zitzayon; eta ori jakin nayan, Apaiz jaun ura beregana eraman erazi zuan. Joan zan au, ta Eřegeak bere asmoa erakutsi

zion; bañan Apaiz jaunak erantzun zion ezertxo ere ezin esango ziola, ori egitea lege zořotzak eragozten ziolako, ta ortan geratu zan.

Beste egun batean beřiz otsegin zion, beste-la ezin zuana losentxen bidez iristeko ustean: alpeřik ordea. Asko goratuko zuala esan zion; toki eder, maila aundikoa ta asko irabazteko erakoa emango ziola ere bai; zer edo zer nai zuanean, bereala emango zitzayola, ta Eřegea bera bere laguntzailerik aundiena izango zuala; bañan Eřegegiñaren utsegin eta obenak esan bear zizkala. Apaiz jaunak ezetzko zořotz bat egin zion, ezin zala esanaz, eta alpeřikan zebilela.

Ori entzutean ĩnola jaři zan Eřegea? ĩlkustekoa izango zan! Suak artu-ta, Apaiz jaunari zořotz-zořotz esan zion: *Onean nai ez badezu, txarean atera bear ko dezu nik jakin nai detana. Nolakoa naizen oraindikan ez dakizu; ta nere esanera jartzen ez bazera, istilũ beltzak ikusi bear ko dituzu. Aukera ematen dizut, erabaki.*

Apaiz jaunak esan ziona jakiña dago. Gauz oyetan, aldeak eta kalteak berdiñak izaten dira. Legeak agintzen duana egin ta kito; besterikan ez. Ořegatikan Apaiz jaunak erantzun zion: *Eřege jauna, nai duana egin beza, itzik ere neregandik eztu aterako.*

Begietatikan sua zeriola jaři zan Eřegea, ta bere mendekoai esan zien: *Esku-oiñak lotu-ta, ibayera gabaz bota ezazute, iñork ere jakin gabe.* Ala egin zuten; baña ĩzer gertatu zan?

Ibayean gauero-gauero argi distiatzaile bat ikusten zan, eta beti toki berean. Lenbizi ikusi zutenak besteai esan zieten, eta ori egia ote zan ikusteagatik, lagun asko ara joaten zan. Guztiak afitu-ta geratzen ziran, ori zerk egiten zuan etzekitelako; baña toki ura zearo-zearo bilatu zuten, eta Apaiz jaunaren gorputza antxe arkitu zuten. Orduan Eliz-nagusiko Apaiz jaunak beren lagunaren gorputza artu, ta Eliz-nagusian bertan lurperatu zuten.

Añigafia dirudi ori, ta ala da; bañan añigafigoak gertatu ziran geroago, Apaiz jaun ark egin zuana Jaungoikoak ontzat emateko. Bi bakafikan esango dizut, galantak biak, zein baño zein mirafafigoak. **Lenengoa**; gorputz ura irureun urtean lurpean egon ezkerro, **mingaña** ezertxo ere ondatu gabe arkitzea, bizirik dagoan batena balitz bezela. **Bigafena**; il ondoan sei urte igaro-ta, Aita Santuaren izenean mingain ura ikusi bear zuten Epailariai erakustean, mingaña bat-batean befitu zan, eta bitartean ilun-antza zuan mingañak, gofi-antza artu zuan.



Apaiz jaun onek betiko zoriontasuna iritxi zuan: bere jayoteriak *Nepomuk* izena du, ta oregatikan *Juan Santu Nepomukara* (erderaz *Nepomuceno*) deitzen zayo. Bere eguna Oñilaren 16-ean du.



¡Ura eiztaria..!

Iñauterietako egunetan era askotako jostakizunak asmatzen dira. Batean, mutil gazte batek zar-itxura artuko du, ta ura bezela ibiltzen sayatuko da; bestean, eren-egingo du, berez arin eta liraña dana; onek, konkoñ-antza artzeko zapi batzuek bizkar aldean soiñekoen azpian jafiko ditu; ark, soiñu tresna artu-ta, soiñua ederkí jotzen baleki bezela keñu asko egingo ditu. Abek guztiak ori jostatzeke egingo dute, ta alakorikan ez dagoala jakiñik. Baña badaude beste asko, urte osoa ta beren bizia osoa ere, iñauteria dutenak, eta ez jostatzeke, egi-egitan artu-ta besteai sinistu erazitzeke asmotan baizik. ¡Txatxuergelak! ¡Ondo pañagañi geratzen dira! Ikusi.

Eñian eta inguru ayetan **Añotxo** esaten zioten. ¡Añoa zan mutiña ziñez! Beti bere burua besteak baño geyago egin bear izaten zuan: batez ere iñork ikusten edo jakiten etzuan gauzetan ¡galantak botatzen zituan!

Txikiak ziranean, ikastetxean ura bezelakorik ez. Apaiz jaunak eliz-mutil jafi zuanean, ark esan baño lenago guztia egiten zuan. Ogei urte zituanean Madril'a zaldizkotako eraman zuten, eta zaldia berak ezi zuan, izketan ere iya-iya irakatsi

ziola. Lan eta indar gauzetan zer esanik eztago; bere aurrean gutxi jariko ziran. Itz batean, beti ta toki guztietan lenengoa edo lenengotako bat. Aundiak esan zitzaiz bestiak zirikatzen zuten, eta orelakoren bat esandakoan paretgiten zioten; baña berak etzuan ezagutzen. Orain esatera noana gertatu zitzaizonean, sekulako paretak egin zitzaizten.

Egun batean eizara joan zan, urutiko landatarra, eperetara. Oiñetako lodi, lañuzko zango-zoño, soiñeko me-zuriantz, iskiño beñi, lasto-txapel, zakur edeña, ... guztia oso egokia zeraman. Bakarrikan burua utsik.

Erian nekazari bat bazan, oso eiztari ona; itxurña txiki, bañan egazte asko. Oregatikan guztiak **Sagu** esaten zioten. ¡Ura, bai, eiztaria!

Arotxo landara zijoala, **Sagu** etxe aldera zetoñen, eta topo egitean, eiza gauzetan asi ziran, onela:

Arotxok.—¿Eper asko al dago, **Sagu**?

Saguk.—Ez, mutil; gutxi, ta ondo betizuak. Bat edo bat emen ibili izan bear dik, eta ederki izutu dizkik.

—Beraz ¿eztezu ezer arapatu?

—Bai; gutxi hada ere, zerbait egin diat; bañan asko ibili ta, leñ-egiteko eran.

—¿Zenbat arapatu dituzu, ba?

—Iru, besterik ez.

—¿Aundiak, ala txikiak?

—Emen dituk; onatx. (Zorotik eperak atera zituan, eta **Arotxori** erakutsi zitzaizkan).

—Edeñak dira, gizona.

—Txar-txañak ere ez dituk.

—¿Saldu nai al dituzu?

—Oñetarako zauzkiat, ba; ondo ordaindu ezkerro, iretzat izango dituk.

—Bai, gizona; txanpon batzuek gora-bera antolatuko al gera.

Epeñak **Añotxorentzat** gelditu ziran, ba; ta agur egiñik, nor bere bidean biak joan ziran.

Geyago ere añapatzen sayatu zan gure **Año-xo**, bañan alpeñik. ¡Arentzat zeuden epeñak! Tresnetan itxura, bai; baña besterik ezer ere etzuan gizarajoak. Oñegatik guztiak pañegiten zioten.

Sagu bere etxera joan zan, eta bidean ikusi zutenak, iskiñoa zeramala oartu-ta, zer egin otezuan galde egin zioten, eta orain esan deguna, garbi-garbi esan zien, eta eñian bereala zabaldu zan.

Ilunabañean agertu zan **Añotxo** ere, ta nolakoa zan jakin ezkerro, bereala txuliatzen asi zitzaizkan.

—Kaixo, mutil; landa oyetan ¿zerbait bai al zegok?

—Bai, izerdi ta egañia, ta ugariak alaere.

—¿Ez al dek ezer añapatu?

Ezer gabe ez natoñek; ori lotsagañia izango ukek.

—¿Zenbat eper dakazkik, ba?

—Utsa; egun osoan euzkitan egon nauk, eta iru besterik bota ez.

—¿Edefak ala? Ikusi, ikusi...

—Bai, edefak dituk, bañan ez inolanaí a rapa-
tuak. ¡Zitalak! Ederki txuliatu natxeotek, bañan
azkenean erori dituk. ¡Zikin alaenak!

Izerdi-patsetan zegoala, ta alkandora aldatu
bear zuala esan-da, gure mutila joan zan. ¡Eta es-
kefak! Pañari ezin eutsiz bezela zeuden, ta **Aro-
txok** nai ta ez konturatu bear zuan. **Saguk** esan
zuana erian guztiak baizekiten, ba... ¡Ura ito-
beafa!

OH OH OH OH OH OH OH OH OH OH

Bere bidetik irteten danari, dan baño geyago
izan nai duanari, ori askotan gertatzen zayo. ¡Beti
pañagafi! ¿Ez al da naikoa iru egunetako inauteriak?

Atsoaren Sendagaya

Gure burua ondo ezagutzeko urte asko, gure
bizitz osoa bear izaten degu, ta alaere nai-
ko lana; baña besteen gauzak oso eraz eta laster
erabakitzen ditugu. Ontan ikusten diran gauzak,
ikusi gabe ezin sinistuko lirake.

Bat edo batek zerbait egiten duanean, akatxak
ateratzen edozein asiko da. Aurtasuna ezkeror-
tan ari izango da, trebe-trebea dala jakintsuak ai-
tortuko dute. Alaere, zer edo zer ondo ateratzen ez
badu ¡artaz esaten diranak entzun bear dira! Ta ez-

jakiñak geyen-geyena, gutxien dakitenak. Besteentzat lan egin bear dutenak batez ere, ontan asko ikusi bear izaten dute...

Mutil sendo-mardul bat miñez jañi zan. Oean iru edo lau egun egin ezkerro, Sendatzailea ekañi erazi zuten, eta onek urdailako miña zuala, ta nolako miña zan ere, laster ezagutu zuan. Oregatik kan edari bat aginduko ziola esan zuan.

Sendatzaile jauna etxean ikusi ezkerro, beste anaya ere erakutsi nai izan zioten, aspaldian lañumiña zuala ta, atza bezelako gaitz bat sortu zitza-yola ta, kenduko al ziola ta... Sendatzaile jaunak bigañen min ori ere bereala ezagutu zuan, eta ortarako ur bizi bat aginduko ziola esan zuan, zakar artako zomoñoak eñe-ta lañu beña sortzeko.

Bi sendagayak bereala ekañi zituzten; baña ¿zer gertatu zan? Bi bonbiletan jañi zizkieten, biak berdin-berdiñak; eta lañua igurtzitzeko ur bizia, bigañen mutilarentzat agindua, zomoñoak iltzekoa, urdail-miña zuan mutilari ustegabea eman zioten, eta bañen osoa eñe zion.

Negar eta kañaxi aundiak egiten zituan mutil gizarajoak. ¿Nola ez? Auzoan ere aditzen ziran mutilaren ojuak, eta aldi oyetan oi dan bezela, aldameneko basetxetako guztiak antxe bildu ziran.

Zer edo zertan lagundu nayeñan, mutilaz erukitu-ta, egokiena zerizkiena esaten ari ziran.

Gauza asko entzun ezkerro, aiton erdi mos-

kor batek esan zuan: Mañutelako Pantxika Éramunak au sendatuko lukeala uste det nik, ba. Gauza auetan izugafia da emakume ura; aundiak egiten ditu. Ark sendatzen ez badu, alderdi txafia; bañan ark ikusi gabe ez nuke nik utziko...

Etxekoak etzuten besterik entzun nai. Datořela, datořela bereala, esan zuten; bear duana emango zayo.

Atso **jakintsu** ura etoři zan, ba. Belar batzuek bere etxetik ekaři zituan; olio, irin eta ozpiña eskatu zituan; belafak txiki-txiki egin-da, guztia padera aundi batean ipiñi, ta su gañean luzarotxoan euki zuan; eta erdi irakiten zegoala, zapi aunditxo batean zabaldu, ta guztia urdailaren gañean jaři zion. Len bañon askoz okeřago jaři zan mutila, iraulka zebilen gizarajoa, geroago ta oiñaze aundiagoak zituala.

Etxekoak izutu ziran; eta Sendatzaile jaunak gaitz ura nonbait ondo ezagutu etzuala gogoratu bazitzayen ere, berari beřiz otsegitea erabaki zuten. Bereala etoři zan, eta ařiturik geratu zan. Berak agindu ziona eman ote zioten galdetu zuan, eta bayetz esan ziotenean, bonbila ekaři erazi zien, ondo ipiñi ote zioten ikusteko.

—¿Au besterik ez al dezute ekaři? esan zien.

—Bai, jauna; bestea ere bai, eta ura anayari ipiñi diogu, Jauna.

—¿Bestea anayari ipiñi diozutela?

—Bai, jauna; berořek esan bezela..., Jauna.

—¿Nik esan bezela? *!Aitaren eta Semearen.*

¿Ta oni au eman al diozute? ¡Edeña egin dezute!
¿Oñazeak izango ez ditu, ba? ¡Báren osoa ére egin
diozute-ta... Au anayarentzat zan, eta bestea onen-
tzat; bonbilak trukatu dituzute-ta... Sendatzerik
ez dago. Bereala Elizakoak egin ditzala; urdaila
ondatu diozute. ¡Ené, ené! Belar eta zaboña oyek
guztiak bereala kendu ¿oyek zer egin bear diote?
Sendatu ez, eta min aundiagoa eman; besteri-
kan ez.

Sendatzaileak naigabe aundia artu zuan, ofe-
lako gauza zirzila gatik mutil gazte ura galtzen za-
lako; ta ezer ezin egin bazion ere, ura il arte an-
txe egon zan. Ofegatikan etzan iñor ere ara alde-
ratu, ta Pantxika Eramuna askoz gutxiago. Baka-
ríkan Apaiz jauna ta etxekoak. Bere gauzak ondo
eginta, il zan mutila.

Bitartean, emakume sail bat sukaldean ze-
goan, eta Pantxika Eramunak, bere burua gora-
tuaz, ala esaten zuan: Jaun ofek nai duana esango
du; baña nik mutil ori aterako nuan. Oyek izen
berri batzuek esan, eta iluntzen gaituztela uste iza-
ten dute; baña nik non nai gogor egingo nioke,
bai ori ta bai beste edozeñi ere. Oyek utzitakoak
sendatu izan ditut nik, bat baño geyago ere; ta
ordu ontan mutil ori bizirik zegoan, ni nere gisa
utzi izan banindute.

Guztiak Aingeru bati bezela begiratzen eta
entzuten zioten; bañan alako batean, zentzu ona-
ko batek, izengoitiz **Andre argia** esaten zioten
batek, arpegia eman zion, esanaz: ¿Zer esaten de-

zun bai al dakizu? Jakinduri ori ¿nondik aterako dezu zuk? Jaun oyek urtietan, e'la urtietan, eta urtietan, ikasten aritu dira besteak lenen-lenengotik ikusi ta ikasi, ta ondorengoak ikasteko irakurgayetan ipiñi zutena; gero miñez daudenen artean beti dabilta; ta zuk ¿nola jakin bear dezu oyek baño geyago? Eltze bat egosteko naiko lana; ta Sendatzaile jaunak goiberatzen? Mutil gizarajoa askoz oke'ago jafi dezu, ta ikaragañizko oñazeak eman ere bai, onurik etzegoala gañera, ¿ta oñela itzegiteko ausardia nondik ateratzen dezu?



Ez det nik esango, Sendatzaile guztiak berdiñak izan bear dutela. Jaungoikoak oñelakoak egin ez baditu ezin izan dira; ta beste lanetan bezela,

ontan ere batzuek besteak bañon argiagoak izango dirala ezin ukatu.

Ez det nik esango, Sendatzaileak gaitz guztiak sendatu bear dituztela. Orduan eriotzak ez luke lanik izango, ta ez litzake gertatuko ere Jaungoikoak erabaki-ta daukana.

Ez det nik esango, Sendatzaile jaunak ez dutela utsegiten. ¿Bai al dago iñor ere utsegiten ez duanik? Jaungoikoak ez, gañerako guztiok utsegiten degu, ta utsegingo ere. Ezta afitzeko, ba, oyek batzuetan utsegitea.

Ez det nik esango, ikasten ari bear lutekena jostatzen eta ikastetxera joan gabe ibiltzen diran gazteak, besteak adiña ikasiko dutela. Sayatu gabe eztu iñork ere ikasten.

Ez det nik esango, gaitz au edo ura dutenai begiratzeko aitzakian, an-emen, eñiz-eñi, soiñua jotzen ibiltzen diran gazte-ikaslariak, gero asko jakingo dutela. Ori aur txikiak ere ezagutzen dute.

Ez det nik esango, ezur-konpontzaile batzuek (guztiak ez) gauza aundi ta edeñak egiten ez dituztela. Egunean-egunean ikusten degun gauza da ¿nola ukatu? Jaungoikoak berarizko doai bat oyen beatzetan jañi du, ta oñen bidez ezufetako okeñak ezagutzen dituzte.—Gañera, Sendatzaile jaunengandikan ere ikasten sayatzen dira.—Ez ori bakañik: min artzen dutenak geyenean oyen gana joaten dira, ta oyek sendatzen sayatzean asko ikasten dute. Ariaz, ariaz, ikasten baita ba...


Bañan auek guztiak ala izan ta ere, Sendatzaile

le jaunak gutxi dakitela oregatik esan bear al degu? ¿ez ez dakitela, giz-emakume afo batzuek esaten dutenez? Baldin Sendatzaile jaunak gutxi badakite, zuk diozunez, nik esaten dizut zuk uts-utsa ere ez dakizula. Ta lotsa pitin bat izan ezkerro, itzik ere atera bear etzendukela, ta jaun oyen esanak belauniko entzun eta areta osoz egin bear zenituzkela...

Eun eta bere aldikoak guztien aurrean bota zizkan, lotsa-lotsa egin-da gelditzeko eran; eta sukaldean zeudenak, alerikan ere geratu gabe, aren alde jañi ziran, eta alkañi esaten zioten: ¡Ez-ta makala! Iztun bikaña emakumea; ta gañera, asko dakiana ¡Zerbaitengatik esaten diote Andre argia!

|||||

Besteen aunditasun edo txikitasunak etzaitue txikiagoa edo bikañagoa egingo. Zure burua eza-gutzen sayatu, ta luñara obeto begiratu gora baño.



Aundinaikeria

Izar guztiak berdiñak ezin izan, ez aunditasu-
nean, ez eta dirdaiean ere. Ori iristen asiko
balira, naspila aundia izango litzake; ta gañera
ezertxo ere atera ez.

Toki ta gauza guztietan mailak badaude, ta
nork bereari begiratu bear dio. Aberats eta aun-
diak bezin prestu ta bikañak, beartsu ta txikiak
izan ditezke, ta izaten dira; beren mailari da-
gokion eran ordeagauzak egin-da. Baña; neuña
galdu ezkeru? Emendikan datozen kalteak eta
beste ondoren txarñak ¿nork zenbatu?

Zeledoniren gurasota etxeakoak bear-beartsu-
ak ziran. Aita erdi elbaña, ta lanerako gauza ez;
ama befiz oso nekatua ta eztul txar-txarñak men-
deratua; senideak txikiak oraindik, irabazteko oso
gazteak. Oregatikan, guztientzat zer edo zer ira-
bazi zezan, gurasoak **Zeledoni** Uri aundi batera,
neskame, bialdu zuten, amazapi urte bete ta las-
ter.

Irabazten zuana etxera bialduko zuala uste
zuten, gurasoak eta senideak nola gelditu ziran
ondo zekialako, ta berak ere gose aundiak ikusi

zitualako; bañan jori zuan gogoan gure neskak! Irabazten zuan guztia beretzat bear izaten zuan: eta beste ainbeste ere garbituko zuan, izan ezkerro. Etxekoandreak, soldataz gañera, gauz asko ematen zizkan, eta nai izan ezkerro, jazteko oso gutxi bearko zuan, eta soldata osoa bialduko zien; bañan aundinaikeria bañu-bañuan sartu zitzayon, eta ezer ere bete ez.

Etxeko-alabai beren amak soiñeko ontxoren bat erosten bazien, berak ere ura bezelako beste bat egin bear; eta ura bezin ona ezin egin bazuan, aren antzekoa beintzat bai. Elizara, mandatura, lagunetara, nora nai joatean, denda-leyotan gelditu gabe ezin igaro, eta an salgai ikusten zitan pitxiak liluratu-ta bezela jartzen zuten, eta ara joaten ziran askotan, ilabete osoko izerdiz irabazitako txanponak.

Bere lagunak, erukiturikan, maiz esaten zioten: neska, ¿ez al den ikusten oyek bezela jazteko ta apaintzeko irabazten ez diñagula? ¿Erotu al aiz?

—¿Zergatik?, erantzuten zien; nik irabazia nerea den, eta ¿nik ori egin nai ba diñat?

Ori ikusi-ta artaz erukiturikan egoten ziran, eta bere etxekoak nola arkitzen ziran zekitenak, askoz geyayo; bañan ainbesterañoko pañagañikeriak egiten zituala, eta berak esaten ziotenari arietarik ematen etziola ikusirikan, aspertu egin ziran. Andik auñera pañez aitatzen zuten, eta izengoitia ere atera zioten: len **Zeledoni**, gero **Kirixkak**. ¿Zer-dala-ta jakin nai al dezu? Irakuñi.

Aundinaikeria ezufetaraño sartua zedukala esan degu, ta onek ondatu zuan. Oná emen geratu zitzayona.

Etxeko-alabaren oiñetakoak, ibiltzean soiñu aundia ateratzen zuten, **kiñix-kañax, kiñix-kañax...** baña bereak eta bere lagunena ez. Etxeko-alaba baño gutxiago ez izateagatik, eta lagunena artean zerbait nabari izateko, aren oiñetakoren antzekoak nai zituan, eta ori iritsi arte etzan geratu. ¿Nola moldatuko naiz ni, bere artean esaten zuan, oñelako oiñetakoak izateko? Buruari lan ez txikia eman ondoan, nolerebait gogoratu zitzayon. Etxekoandreak oiñetakoak non erosten dituan ikasi, ta kito. Gogoratu bezela, egin ere.

Ori iritxi zuanean, tarte batean ara joan zan. Langile-buru egiten zuanari bere asmoa erakutsi zion, ura erabat gogaitu arte. Añetik onela, atzetik ala; gañean au, azpian ura; orpokoia ta muturakoá; oso idikiak edo itxi samar; lokañiz estutzekoak edo ual politak ipiñi-ta... Jaungoikoak bakarik daki gure neskak oiñetako egileari esan zizkan zitzilkeriak eta ergelkeriak, zearo-zearo, langilea aspertu ta nazkatu arte. Lana eñuz sartzen zitzayen, ta neska arekin astia galtzeak min aundia ematen zion. Oñegatikan aspertu-ta zegoan gizon gizarajoa.

Noizpait irten zan neska lantegitikan, eta etxerontz abiatu zan; baña geyen-geyena nai zuana aztu zitzayola bidean gogoraturik, beriz atzera etoñi zan, eta uñutik samaretik oju egin zion,

Ezin ikusi aundia

Ezin-ikusia gaitz bat oso txarra da. Ori duanak eztu beñere lasatunik izaten. Aren bařena suzko leze baten antzekoa da, ta bere burua ezerik, besteak ere eřetzen ditu.

Bere burua eřetzea ta kiskaltzea ařitzeko ezta; eřukitzeko ere ez. Izaten duanak, nai dualako izaten du. Bařa ĉbesteak?

Bat edo bati gauzen bat ondo gertatzen bazayo, ezin-ikusia duanari biotza samintzen zayo, ta goibel-goibel egoten da; kalteren bat izaten badu beřiz, atsegiņa artzen du, bařan atsegin bat pozoiduna, gozotasunik ematen ez duana. Ez ori bakarrik: ontan edo aitan, bera bařo geyago diranai kalteak opa dizkie, ta al badu, egiten ere bai. Bere bařenean asmo ori eramango du, ta nai duan ura egiten ez badu, ezin izan dualako izango da.

Emen esango dizudanak, ori begien aũean ederki jařiko dizu. Ezta gauza beřia. Guztiok aurtasunean ikastetxean eta elizan ikasi genduan; bařa gauz onak beti onak izaten dira, ta oyek gogoratzean poza artzen da, ta ikasi ere, asko egiten da. Bestela, aspaldiko gauzak oso eřaz aztutzen dira.

Jacob aitor bat zan. Onen seme-gazteenaren aurrekoa beriz **José**. Aitak au asko maite zuan, beste senide guztiai baño geyago nai zion, eta ayenak ez bezelako soñeko bat egin zion. Oregatikan senideak gofoto aundia zioten, ezin-ikusi aundia ere bai, eta etzuten ezer maite.

Bi amets egin zituan, eta oyetan, bere senideak baño bikañagoa izango zala Jaungoikoak aditzera eman zion; eta bigarrenean, baita gurasoak ere ura goratuko zutela.

Gauz abek senideai su aundia eman zieten. Aitak ere etzuan ori ondo ikusi, ta kutun-kutuna bazan ere, zorotz esan zion: *Mutil, amets oyek zer esan nai ditek? Nik, ire amak eta senideak, guztiok ire mendekoak izan bear al diagu?*

Aitaren gogokoak berezgarri abek ez baziran ere, entzun bear izan zituan eta bildurtu zan; bñan etzuan geyago egin.

Beste semeak basoan, artaldeak zaitzen, zeuden batean, aitak seme gaztetxo ori **José** ara bialdu zuan, bere anayak eta artaldeak nola zeuden ikusten. Ayek, anai txikia ufutitikan ikusi zutenean, alkarri esan zioten: *Ameslaria bazetoren; goazen; il zagun, eta leze zar batera bota: ta esango diagu; pizti ikaragarri batek ondatu du; ta orduan ikusiko da bere amets oyek zertako zizkiaken.*

Ruben, anai zarfenak, ori burutik kendu nai zien, gero aitagana beriz bialtzeko; ta an bertan zegoan leze zatar batean sartzea, ta an utzitzea,

egokiena izango zala esan zien. Ori erabaki zuten, eta aitak emandako soñeko polita erantzirik, Josetxo leze artan utzi zuten.

Zerbait jaten asi ziran, eseri-ta. Ala zeudela, atzeñitar mandazai batzuek ikusi zituzten, eta senidetan zañenetakoa zan batek besteai esan zien —**¿Zer irabazten diagu anaya il-ta, bere odola ezkututzen badiagu? Obe izango uke Ismaeldarai saltzea, gure eskuak zikindu gabe: gure anaya, ta gure aragia diagu-ta.**

Guztiak ortara jañi ziran, eta atzeñitar ayei, ogei txanponen truke, beren anai Josetxo eman zieten.

Aitari zer edo zer esan bear zioten..... ¿Eta zer gogoratu zitzayen? Soñekoa labanaz ufatu, antxume bat il, onen odolaz soñekoa zikindu, ta aitari eraman, esanaz: **Au arkitu degu: beoren semearen soñekoa ote dan edo ez ikusi beza.**

Soñekoa ikusi bezin laster, **Jacob** gizarajoak bere semearena zala ezagutu zuan, eta negañez urturikan esan zuan: **Nere semearen soñekoa da; pizti odoltzale batek jan du; alakoak Joxé ondatu du.**

Beste semeak aitaren naigabea arindu nai zuten; bañan onek etzuan poztu nai izan: Ez, ez, ez; nik eztiat luñean atsegiñik izango. **Nere semeagana negañez jetxiko naiz.**

Gero Jaungoikoak asko goratu zuan **José** ta anayak aren mendeko jañi zituan, multiltxoak ametsetan ikusi bezela. Bañan orduan beintzat

¡Oyek sinismenak!


Diran bezin txarrik eta kaltegarriak ezpalira, oso politak eta paregiteko egokiak izango lirake eri batzuetan egiten diran ergelkeri ta astakeriak. Bana kristau-sinismena askotan ondatzen dute, ta oregatikan txit gorotagarriak dira, izugari galgarriak diralako. Oyek entzutean nazkatu egin bear degu, ta sinisten dituztenai begiak idiki; ta oyek sinisteko itxutu-ta ikusten baditugu, beren sinismen txarra arpegian eman, guztiak gauza txarrik dirala jakin dezaten. Ona emen toki batzuetan egiten dan gauza bat. (Egi-egia gero, ¿e?)

Gaitz mota batek txerriak miñez jartzen ditu, ta askotan il ere bai. Bira-biraka asitzen dira, zorabioak nasturik bezela; gero iraulka; janak nazka ematen die; lufara erortzen dira; azkenean il ere bai.

Zenbait aldiz ardiak ere min ori izaten dute; bana geyenean txerriak. ¿Ta nola sendatzen dala uste dezute? (Batzuek uste dutela obeto esango det; zuek ain kaiku ta kristau txarrik izango etzerate ta...)

Eri batzuetan bat edo bat izaten da, gauza oyetan trebea, egin bear dana ondo dakiena. ¡Zoritxarrekkoa bera, ta orobat ori sinisten dutenak!

Gauza oyek ondo-ondo, ezertan ere utsegin gabe, egin bear omen dira; gañerakoan sendatzerik ez dagoala esaten dute. Lan ortan aritzen danari **Ziñatzaile** esaten diote, ta egiten diran gauzai **ziñatu** edo **ziñatzea**.



Txeñi-jabea ta **Ziñatzailea** txeñitegian sartzen dira, beste iñor gabe ta ilunpean. Au bear-beaía omen da; bestela sendatzerikan ez. Ofetarako leyo-ateak ondo itxi-ta eukitzen dituzte, bat bakaía erdi idikia gelditzen dala...

Ziñatzaileak argia piztutzen du (argizaikoa), txeñia bere tokitik ateratzen dute, nola erortzen eta zutitzen dan ikusten dute, ta bira-birak zer aldetara egiten dituan ere bai. Ori ikusi-ta, **Ziñatzaileak** erabakitzen du: **Txañokia** du. Bereala esaten dute:

—**Ziñatzaileak.**—Gauza onak.

—**Txeñi-jabeak.**—Gaitzik ez.

Ziñatzaileak len esandako argia artzen du, ta eskuan duala, belaunikaturikan, **Aita gurearen** gisako otoitz bat esaten du, ta Txeñi-jabeak era berean erantzuten dio. Orduan onek txeñiari eltzen dio, ta Ziñatzaileak amaika argizai-tanto (ez bat geyago, ez eta gutxiago ere) txeñiari gañera botatzen dio, mutuñatik asi-ta isatsaraño, tanto oyek burua ta bizkaña arapatzen dizkatela. Katilu bate-tik ura artzen du, ta gañera botatzen dio. Befiz ere belaunikatzen dira, ta len bezelako otoitza, batak esan eta besteak erantzunaz, egiten dute.

Ori egin ondoan, **Ziñatzaileak** txeñiari, birabirak egiten zituan aldeko belañitikan, zatitxo bat labanaz kentzen dio, txeñijabeari ematen dio, ta onek beste aldeko eskuaz artzen dio. Era berean, isatsatikan beste zatitxo bat kentzen dio, ta txeñi-jabeak, utsik geratu zayon eskuaz, artzen dio. Orduan **Ziñatzaileak** argia ezkeñean duala, eskubiaz txeria igurtzitzen du, belañian egin dion ebakitik asi-ta, isatsako ebakiraño, esanaz:

Ziñatzaileak. Gaitzik gabe.

—**Txeñi-jabeak. Zuzen ari.**

Bereala txeñitegitik irteten da au, ta begiak idiki baño lenago, eskuan zituan bi zatitxoak, txeñiari kendutakoak, alik ufutien botatzen ditu, bata eskubira ta bestea ezkeñera, non erortzen diran ikusi gabe.

Au da, beren ustean, sendagai bakaña.

Txeŕia sendatzen bada, **Ziñatzaileak** egin du. Sendatzen ez bada, sendatzerik etzegoala sinistu bear. Eziñezkoa zan-da. Baña **Ziñatzaileak** eztu oŕegatikan ezer galtzen. **Sendatzen bada edo ez bada, aldi oietan oi dana beti ematen zayo.** (Ementxe dago mamia).

Au irakuŕi-ta, algarak itotzeko bezela geratuko zera. ¿Ez al da ala? Bai. Ortan geldituko balitz, nonbait-or. Baña siñu abek, sorginkeriak eta oien antzeko ergelkeriak, gure sinismenari ostiko aundia ematen diote, ta oso galgafi ta kaltegaŕiak dira. ¡Ta gauza abek gure Euskaleŕi zoragaŕian ikustea! ¡Au, bai, negargaŕia!

Batzuek uste izaten dute oŕelako gauza egin aŕen, edo oiek sinistu-ta, on-ona izan ditekela. Ala esaten dute, beintzat. ¿Sinistu? Eztet uste... Nolanai izan dedila, uste ori, berentzat nai badute; baña beren baŕena ikusi nai nuke nik. Oŕelako gauzak txafak dirala ondo ta geyegi dakite berak ere, aitortu nai ez izan aŕen. ¡Ez dute, ez, ori zenbait tokietan esango..! ¿Zer esan nai du oŕek?

Egunen batean aitortu bearako dute; baña berandu... ¡Ura argitasuna, ta ayek istiluak!

HOHOHOHOHOHOHOHOHOHO

Txeŕi-jabea, Ziñatzailea, ta txeŕia. Aldi oyetan txeŕitegian arkitzen diran lagunak auetxek dira. ¡Ondo dago! ¡Alkartasun edeŕa! ¿Zer deizkiozu? Neri, iruetan gaitzgabeena txeŕia.



Oni ondo begiratu

Egizko ospatasuna ta zoriontasuna uste bafion askoz erazago iristen dira. Batzuek uste izaten dute bizi latz eta garatza beara dala (otoitz aundiak, barauak, burnizko kateak, zurdatzak eta abar), ta beti negarti ibiltzen dira, etsia artu-ta bezela. ¿Zergatik? Ori iritxi duten batzuek orelako gauza zorotzak egin izan dituztelako. Ezta, alaere, ainbeste bear. Zintzotasuna ta iraupena, bai; lenengoa Jaungoikoak agintzen duana egiteko; ta bigarena, azken arte bide ortan irauteko. Esandako garaztasunak egiten badira, obe; baña gauza beariak bezela, ez. Bi eratakoak oraintxe ikusiko dituzu.

Gauza beñiak asmatzea oso zaila da. Buru ona bear da; lanari ařetaz eta iraupenez ekin bear zayo, naiz astuna izan, eta ez gure gogokoa; ta askoi gertatzen zaye, orelako gauzetan geyegi sayatu-ta osasuna galtzea, urte askoan onurik gabe alegiñean sayatu ezkerro. Ta au guztia emengo ospatasun edo omen pitin batengatikan.

Askoz gutxiago eskatzen digu Jaungoikoak, emengo guztia baño neuri gabe ederagoa dan Zoriontasuna iristeko; ta gañera, betikoa. Eztu gauza beñirik eskatzen, beste askok egin dutena

baizik; eta gañera, auek egin zutena begien aurrean ipintzen digu, era ortan alaitzeko. Guztiontzat, baña batez ere gazteentzat, Gonzaga'tar Luis Santuaren oroipena gogora ekartzea oso egokia izango da.

Aberats eta aundizkietakoen etxekoa zan. Jatofiz oso ona, ta gero nolakoa izango zan aurtasunean igari zioten: oregatikan Aingerua esaten zioten. Guda gauzak gogo-gogokoak zituan, eta onek aita asko poztutzen zuan. Gudari ta moioingana, zaletasun ofengatik, maiz joaten zan, eta itz txar batzuek esaten ayengandik ikasi zuan. Etzitian askotan esan; txafak zirala ikasi arte bakarik. Ala ere, iaren damutasuna! jayek negafak! jbere buruaganako zofoztasun eta gofotoa! Utsegin ayek gutxi ta txikiak izan ziran; bañan il arte etzizaizkan aztu, ta il arte ere laztasun eta gafaztasunetan iraun zuan, bere burua menderatzeko, ta Jaungoikoari bere damutasuna nolerebait erakusteko.

Jaun aundia lenengo aldiz artu zuan egunean ¿nolako su-labea izan zan aren biotza? Bañen artan gertatu zana ¿nola adierazi? Negafez urturikan eta arpegia gofi-gofi egin-da, Jaungoikoari eskafak ematen zizkan eta barkazioa eskatzen zion, egun artan egiten zuana ederki zekiala. Gero, bere buruaren etsai amofatua balitz bezela, jipoyez eta burnizko kate meaz bere gorputza zeatzen zuan, askotan odola zeriola. Astean iru egunean barautzen zan, eta askotan ogi-ur utsaz. Lo txikia

egiten zuan; eta ori ere, maiz luñean etzan-da. Bañan ori guztia gutxi zala zeizkion, eta geyago egi-teagatik Jesusen Lagundian sartu zan, ortarako egokiagoa izango zala gogoratu-ta. ¡Etzuan, or-dea, uste bezin éraz, eta nai bezin laster iritxi!

Bere etxekoak iñondik ere nai etzuten (izen-bat aldiz ikusten dira oñelako gauzak! Guraso onak ere ez dute ori entzun nai izaten. Onak... onak...), eta gogor egin zioten. Asmo ori buruti-kan kentzeko, traba aundiak eta asko ipiñi zizka-ten; bañan alpeñik. Uñutira bialdu zuten, Érege batzuen etxera; bañan itzali beañean, su ta gar ayek indar aundiagoa artzen zuten. Toki oyetako bizikera ta oiturak nazka ematen zioten. Gauz abek ikusirikan, etxekoak etsi zuten, eta joateko baimena eman zioten. ¡Aren poza! Besterik nai etzuan-da.

Etxean oñelakoa izan ezkerro, Jesuitetan sar-tu-ta nolakoa izango zan azaltzea, gauza zaila, eziñezkoa izan bear du, nai ta ez. Naikoa da esa-tea, guzti-guztiak añitu-ta utzi zituala, ta ogeitairu urteetan il zala, Aingeru bat egiña.



Oñen antzekoa izan nai badezu, ispilua ortxe dezu.

Ainbesterako indañik ezpadezu, ona izaten sa-yatu beintzat.

Birao, añokeri, bilera, berandu etxeratze, zikin-keriak utzi.

Jaungoikoaren Legeko Aginduak ala esaten dizute.

Biotz on bat


Biotz txar eta gogoñak izaten dira. Berak ondo egon ezkerro, besteen nekeak biotza beratzen ez diete. Bereko, zikoitz eta zekenak izaten dira, ta besteen laritasunaz ajolik ez. Doilorak izatez, besteak goseak daudela, ta bear aundietan ikusten dituztela ere, begiratzen ez diete, ta lagundu gutxiago oraindik. Orelakoai zeñez begiratzen zaye, ta guztiak goiberatzen dituzte, biotzaren lekuan ari bat edo burni bat dutela dirudialako...

Jaungoikoari eskerak, biotz on eta zabalak badaude ere; ta ori pozgarria da. Ta geyenak orelakoak dirala goratzeak biotza asetzen du. Besteak bearean ikusi-ta biotza samurtzen zaye, ta al duten eran laguntzen diete. Gauz asko inork ere jakin gabe egiten dituzte, ta oregatikan ezin konta al estutasun agertu gabe geratzen dira. ¡Jaungoikoak ikusiko ditu!

Alaere, ori egiten ez dutela batzuetan ikusten da. ¿Zergatik izango da? Beren burua estutasun oyetan beñere ikusi ez dutelako, ez dute besteak orela arkitzen dirala uste izaten. ¡Amaika aldiz gauzak ondatzen utzitzen dira, besteen estutasunak nolakoak dira jakin gabez!

Orain esango degun bederatzi urteko neska Nikolasari galdetu.

Egun batean, ikastetxetik irten-da etxera joan zan. Amak, oi bezela, aratsaldeko edeña eman zion, ogi-zeña aundi ta samur bat, eta bi udare, ta lagunetara jetxi zan. Jateko gogo aundirik etzuan, eta ogia zakur bati bota zion. Ogia **tañanta** (1) baten azpira eror zan, eta aren otsaz zakurfa zerbait atzeratu añen, beñiz ogia artzeko etofñi zan; bañan amonatxo bat bitartean beste aldetikan etofñi zan, tañanta azpitik ogia makilaz atera, eskuaz artu, muñegin, eta saskitxo batean sartu zuan, arpegi alaiako iñi-bañe atsegintsu bat egiñaz.



Nikolasak, ori guztia ikusirikan, zer egin etzekian. Alde batetikan lotsa zetorkion; bestetikan, jakin-miña. Lotsa, amonatxok, nai gabe ta uste gabe, ogia luñatik artzean, arpegian eman ziolako; jakin-miña beñiz, ogi ura zertako naiko ote zuan ikasi nai zualako. Bere etxean gauzak ugari izaten ziran, eta amonaren beartasuna ezagutzen ez. Lotsa jakin-miñak menderatu zuan, eta nes-

(1) **Tañanta**-itz beña-automovil esateko.

kak, amona gana joan-da, onela galdetu zion:

—Amona, barkatu. ¿Oilo asko al dituzte beroyek?

—¿Oiloak guk? Ezta alerik ere: ¿zergatik, ba?

—Ogi ori oiloentzat izango zuala uste nuan nik... Oregatik esan diot...

—¿Oiloentzat? Ez, neska, ez; ez diñat nik ogia oiloentzat biltzen.

—¿Zertako du, ba, ogi ori? ¿txeñentzat ala..?

—¿Txeñentzat? Ezta ere: geyago maite diñagu guk ogia... Gerok jateko; oía zertako nai diñaten. Bazeuden gure etxean ogi au pozik jango dutenak, bai: zazpi lagun bagaitun, eta goseak ez egoteko asko bear diñagu. Gure umeak etzioten arpegi txaña jañiko gaur ogi oni, ez. Bost biloba bazetiñat, eta egunero bidera etortzen zaizkidan, zer edo zer eramango dietalako ustean.

—¿Goseak egoten dira, beraz?

—Bai, ta ez gutxi. Gaur ere, ogi eder au ikusi-ta, txalo galantak egin bear dizkiten, bai...

—Oíela egoten badira, saskia bidean garbituko diote...

—Utzi ezkerro, laster egingo liteken; baña nik etziotenat uzten.

—¡Gizarajoak! ¿zergatik ez, ba?

—Ez, neska, ez; gu beartsu gaitun, baña kristau onak, Jaungoikoari eskeñak; eta geren umeai gauza guztiak nondik etortzen diran irakasten zizkienagu.

—¿Oi..? Ta ori ¿nola?

—¿Nola? Etxean sartu ta bereala sukaldera joango gaitun, eta antxe, guztiak nere inguruan belaunikaturikan, eman digunagatik Jaungoikoari eskeñak emateko, **Aita gure** bat esango diñagu; ta gero beste bat, guzaz erukitu-ta laguntzen diguten'en alde, aientzat Jaungoikoari osasuna ta ondasunak eskatzen dizkagula.

Busti zitzaizkan Nikolasari begiak, biotza samurtu ere bai, eta itzegin nai izan aŕen, ezin zuan. Egiñalak egin-da, laŕitasuna ito zuan eta amonari esan zion: Beroŕen etxean oŕelako estutasun eta gosea, ¿eta nik ogia zakufari ematen nion..? !Aunaigabea! ¡Nik ori lenago jakin izan banu..! Etzait nolanai aztuko... Emendik auŕera, nere aŕatsaldekoa beroŕentzat izango da. Nik aŕatsean ondo afalduko det, eta berori inguru auetan ibiltzen bada, neri amatxok ematen ditana egunean-egunean ekañiko diot. Etxeraño ere pozik eramango nioke, baña berori uŕuti biziko da, ta nik ikastetxetik irten, aŕatsaldekoa artu, ta soñua jotzen ikastera bereala joan bear izaten det. Gaur ez, jai degulako, baña gañerakotan bai, eta araño joaterik ez tet.

—Eskeñak biotzez, neska maitea ¡Etzaitute gure umeak gutxi maiteko..!

—Nik ere, ez ezagutu aŕen, asko maiteko ditut, ba. ¡Gizajoak! ¡Beti goseak! Egunen batean ere, amatxori zerbait geyago eskatu-ta, eraman bear diet, beroŕekin joan-da.

—Bai, neska, bai; nai denanean joango gaitun. ¡Eztien egun txaña emango..!

Andik aufera, aldameneko etxeetakoak egu-
nero gauza eder bat ikusten zuten. Amona ordu
jakiñean zintzo-zintzo etortzen zan. Nikolasa ere
bai, eta onek bere aratsaldekoa, oso-osoa, amo-
nari ekartzen zion. Eta ez ori bakarik. Ogia ema-
tean, lenbizi aratsaldekoari ta gero amonaren es-
kuari muñ egiten zien. ¡Ura biotz edera!



**Kristabak p̄zik jango lutekena abereai ematea,
izen gabeko aberekeria da.**

**Beartsuai ematen zayena Jaungoikoak artzen
du, ta ordaña ematen ere bai.**

¿SINISGABEAK EZ? Mandoak bai

Kristauak gaizki ibiltzen diranean, etsaiari ja-
raitu-ta ibiltzen dira, ta onek bidea ematen
die. Bañan ondo ibili nai badute, Jaungoikoak ez
ditu beñere utzitzen, eta aldi askotan gauza ariga-
riak gure alde egiten ditu.

Jaungoikoa altsu-altsua da, ta Berak nai duan
gauzen bat egiteko besteren batek bidea eragozten
badio, au kendu-ta egin nai zuana egiten du. Beste
aldi batzuetan beriz, bear litzakena ez badago, ipi-
ñi ta kito. Orain esan bear dizudan ontan ikusiko
dezu, gizon jakintsu batek bañon ezaguera ohea ta

argiagoa mando batek izan zuala. Jaungoikoak ala nai izan zuan eta ala gertatu zan.

Paduatar Antonio Zorionekoa nolakoa izan zan badakizu; egunean-egunean otoitz egiten diozula ziur nago, ta amaika lañitasun kendu izango dizula uste det. Zuk asko zor diozu, ta asko maitte dezu; nik ere bai. Gañera, gurea da, Prantziskotaña; ta aren bikaintasuna gogoratzean biok poztuko gera. Orain irakuriko dezun gertaldi afigafi au, aren bidez egiña da, ba.

Emen luñean bizi zanean, kristauen alde lan aundia egiten zuan. Iztun bikaña zan, eta elize-tan itzaldi edeñak egiten zituan; eta sinisgabeko edo sinistxañeko gizonen batekin egokitu ezkerro, zezio izugafiak non nai izaten zituan.

Sinistxar auetako batek bein batean esaten zion, Jesukristo **Hostian** etzegoala, ori gezuñ zala, ta etzitekela sinistu. Antoniok argi-bide asko ta edeñak esan zizkan, eta gizon gaizto ark zer erantzun etzekian; baña burua makurtu ere nai ez. Azkenean esan zion, berak eskatuko zion gauza bat egiten bazuan sinistuko zuala.

—Egingo det, ba, erantzun zion Antoniok. ¿Zer egitea naidez? Esan...

—Nere mandoa goseak eukiko det, eta gero zuregana ekañiko det. Zuk **Hostia** erakustean, nere mandoa, jana utzi-ta, bere auñean makurtzen bada, zuk diozun ori egia dala sinistu ta aitortuko det.

¡Irakurle maitea! Otzikarak dardaraz nauka.

Ori eskatzeko, ausardia ta biotz deabrutatza bear da. ¿Zer esango zuten ori entzun edo ikasi zutenak? Gero ikusi bear zutena ikusi arte ¿nolako lafitasuna izango zuten? ¡Ené!

—Ondo dago, esan zion Antoniok. Ori egizu, ta mandoa nai dezunean ekañi.

Beñi ori Uri artan bereala zabaldu zan jezta añitzeko! eta guztiak egunaren zai zeuden. Bartzuek Antonioren alde jañi ziran, Jaungoikoak lagundu-ta gauz añañiak egiten zitualako; besteak beñiz, biuñi ta gaiztoak, Antonioren kalte, gauz ezin esan alako ori egingo etzuala uste zutelako, ta ofela pañagañi geratuko zalako.

Eguna berezi zuten, eta talde aundia bildu zan, bai kristabak eta bai kristau etziranak.

Bonibillo etoñi zan (gizon gaizto aren izena da au), ta mandoa iru egunean ezertxo ere jan gabe euki-ta, ekañi zuan.

Antioniok, Meza eman-da, **Hostia** ekañi zuan, kristau askok begirapen aundiz laguntzen ziotela. Toki jakiñera iritxi zanean, mandoari onela itze gin zion: *Ni utsa banaiz ere, nere eskuetan detan Jaungoiko onen izenean agintzen dizut, Beragana alderatu zaiteala, zu egin zinduana goratzeko; onela, sinistu nai ez dutenak lotsatu-nasturikan gelditu ditezen, eta sinisten dutenak, egi oni begirapen aundiagoaz begiratu dezayoten.*

Antioniok itz auek esateko garai berean, mando-jabeak zaldale bikain-edeña begien añañean bere abereari ipintzen dio... ¡Alpeñik! Mandoa be-

launikatzen da, ta **Hostia** bere aufetikan kendu arte ofela irauten du, zaldaleari begiratu ere egiten ez diola.

Au ikusi-ta, guztiak ikaraturikan gelditu ziran; **Bonibillo** ta bera bezelako asko bide zuzenean sartu ziran; eta kristabak atsegin-poz aundia izan zuten, geroko ere ederki indarturik geratzen zirala.

¿Aur gaitzgabeak Jaungoikoa goratzen dutela esaten da, kristau azitakoak ori egiten ez dutenean? ¡Bai abereak ere....!



Mandoak egin zuana guk ere egin bear degu, ta zerbait geyago ere bai. ¡Zerbaiterako gera kristauak! Jaun-aundia maiz artu, ba; ta ortarako bear dan guztia ondo egiten dezula.

Jaungoikoaren saria

Gauza guztiak ez dira era berdiñean ikasten. Batzuek irakurgaietan; beste batzuek besteai entzun-da; beste batzuek begien bidez; beste batzuek beriz beste edozer gisa. Baña berez barendikan etortzen zaizkigun beste batzuek ere badaude. Auen gañean, ba, besteak ipintzen baditugu, lan osoa izango degu.

Beste askoen artean bat badago, guztiok biotzean ezari-ta izan bear deguna. Au zarzaroan

daudenai begirapena ekartzea da. Gutxi bezelako bikaña.

Bat edo bat zarzarora etori ezkerro gutxi begiratzen zayo, edo ezer ez. Goiberatzen degu; ez diogu aretarik ematen. Beartsua bada, arekin ibiltzen lotsatzen gera, geldi-geldi ibiltzen dala, ta kontu zarak besterik esaten ez dituala, edo bere gaztetasunean gauzak obeto egiten zirala orain baño, edo orelako gauzak beti esaten aritzen dala esanaz. Oyek aitzakiak izaten dira; bestelakoa balitz, ez genituzke oyek esango... Iltzen danean, guri ajolik ez, inork ere naigaberik ez, inoiz poza artzen ere...

Barengo ezaguerak, berezko gauza bezela eskatzen digu zarenenganako begirapena. Jaungoikoak ere bai. Lotsa pitin bat izan ezkerro, zaren aurrean beeratu bear genduke... Zartzaroari beti ta toki guztietan begirapen ori ekari izan zayo. ¿Zergatik?

Gure aurrekoak dira; gure alde lanegiñaz indarrik galdu dituzte; guk dakiguna berak irakatsia da; guk ditugunak, berak irabazi ta emanak. Gauza guztiak oyen oroipena ekartzen digute. Elizak, etxeak, bideak, iturriak, zubiak, soroak, erriak eta abar, geyenak gu jayo baño lenagokoak dira. ¿Nork egin ditu?

Gañera, dezakenak ez dezakenari gogor egitea zitalkeri aundia da, guztiak nazkatzen dituana.

*¡Doilor eta koldara, egiaz, ori egiten duana!
¡Bikain eta goragarria, zarentzat gozo ta begiratsu izaten dana!*

Beste gauza bat. Jaungoikoak ere ala nai du,

*ta zenbait aldiz Bere gogoa garbi erakusten du.
Ori ipui ontan ikusiko dezu.*

Eri bateko aiton zar bat eskean ibiltzen zan. Baldar-baldaña zan, txit utzia, oso gaizki jantzia. Soiñeko zikiñak eta zoldaz beteak jazten zituan. Gañera traketsa, giza-txar bat... Oregatikan neska-mutiltxo guztiak paregiten zioten.

Bazuan, alaere, gauz on bat, oso edeña; esker-onakoa izatea, ta on egiten ziotenen alde Jaungoikoari maiz otoitz egitea. Oregatik, akats guztiak alde batera utzirik, askotxo ziran erian, erukitu-ta, ondo begiratzten ziotenak.

Erámuntxok asko laguntzen zion. Batean etxera bidean, bestean eskean uruti ibili bear zuanean, edo ilunabaréan oso gutxi ikusten zualako, baita gurdi-arin eta tafantak gelditu gabe ibiltzen ziran tokietan. Noiz nai alkarékin egoten ziran. Aiton gizarajoak poz aundia artzen zuan eta mutiltxoaren soiñ gañean eskua ipiñirik, oso ederki ibiltzen zan. Erámuntxok, lagunduaz gañera, txanpon batzuek eta ogi puska edeñak ematen zizkan, gurasoak beretzat ematen zizkatenean. Auek aberatsak ziran, eta mutiltxoak txanponak ugari izaten zituan.

Gauz abekikusi-ta, aitonari biyotza biguintzen zitzayon, eta oso samurturikan, mutiltxoaren esaten zion Jaungoikoari aren alde otoitz biziak egiten zizkala, ta il arte egingo zizkala.

Egun batean aitona etzan etxetikan irten, eta miñez zegoala eñian laster zabaldu zan. Eñamuntxok ori ikasi zuanean, gurasoai zerbait eskatu ta eraman zion. Gurasoak mutiltxoaren biotz ona pozik ikusten zuten, eta aitona zañak ezereen beañik il arte ikusi etzuan. Eñamuntxok guzti-guztia eramaten zion, gurasoak eman-da.

Osasunean bezela, miñez zegoala ere bere lagunik onena Eñamuntxo izan zan. Egunero ikustalditxo bat egiten zion, eta aitona bear zuana oñela ikusten eta ikasten zuan. Sendakin jaunak aitona oso gaizki zegoala esan zuanean, Elizakoak egiteko ta guztia Eñamuntxok esan zion, eta ura il arte antxe ibili zan.

Aitonaren azkeneko itzak Eñamuntxorentzat izan ziran. ¡Sari edeña! Biotz osoz eskeñak eman zizkan, eta berari egindakoak Jaungoikoak gogoan izango zituala esan zion. Indañak aitzen zitzaizkalla ezagutu zuanean, azkeneko aldiz **Agur** esan zion eta il zan. Eñamuntxok negar ta guzi egin zuan; baña nolerebait poztu ere bai, azken arte alegiñean lagundu ziolako.

Uñengo gabea, ametsetan, ikuskizun gozogoza bat izan zuan. Jaungoikoaren aũean auspezturikan, Eñamuntxo beretzat nolakoa izan zan aitona zañak zeruan Jaungoikoari esaten zion. Zartzaroan asko laguntzen ziola esaten zion, eta ondoezean ere beste iñork baño geyago. Beragatikan, arentzat bedeinkapen eta doai ugariak gauza guztietan eskatzen zizkala. Eta Jaungoikoak, iñi-

bañe gozo bat egin-da, bayezkoa eman zion.

Eramuntxo urte askoan bizitu zan, eta gauza guztiak beti oso ondo gertatu zitzaikan. Nonbait Jaungoikoak aitonaren otoitza entzun, eta eskatzen ziona ematen zion.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Zartzaroa begiragarria da.

Zarak ondoen-ondoen gazteen babesean.

Gazteen bikaintasuna, zaraen mendean egotea.

Guztiak irakaslari

Jaungoikoak egindako izaki guztiak, nolakoak izan bear degun irakasten digute. Ayek Jaungoikoak agindua zearo ta zintzo egiten dute; guk ez. Eguzkiak, bear degun bero ta argia ematen digu: itxasoa, ezta bere lanean beñere gelditzen: aizeak, bera bañon ariñagoak diran gauzak ekarieraman egiten ditu: ariak, eragozpenik ez arkitu ezkerro luña bilatzen du. Egazte, abere, arai, zomorro, izaki ale guztiak beren egitekoak badakizkitez, ta oyetan, eten gabe, aritzen dira. ¿Au guztia ikasi nai al dezu? Martxelinari galdetu.

Goiz batean ikastetxera zijoala, Martxelinak bidean erle bat ikusi zuan. Etzan au iñon ere geditzen. Etxe batzuetan, atze-auñean baratz-loretegiak bazeuden. Leyo batzuetan lore-ontziak ere bai. Antxe zebileen gajoa batetik bestera, loreen inguruan eta lore bañenean, aldizka, beti lanean. Martxelinak esan zion:

—¿Nai al dezu nerekin jostatu? Ikastetxera joateko gogorik ez det, beti ikasten ari beñak burua nekatzen dit, esku-lanak aspertu-ta naukate, gure kontu-artzailea zofotza da... ¿Ta Irakaslaria? ¡Uraxe, bai, zapelatza, gauz bat ondo egiten ez badegu! ¡Zalaparta ta kalamatrika edeñak entzun bear izaten ditugu!

Erleak etzion begiratu ere; baña neskak ori bera bigañen aldiz esan zion, eta orduan erleak erantzun zion:

—Ez, ez naiteke gelditu. Eztia egin bear det, eta ortako eztigayak bear ditut. Oyek lore bañenean egoten dira, ta oregatik emen nabi!, oyen bila. Barkatu.

Auñera joan zan, eta bereala txori bat, erdi goñi ta erdi oria, izugañi polita, loretegi batetik irten, eta esi-gañean alai-alai gelditu zan, moko mutuñean lastotxo bat zeramala. Betarik ezpalu bezela, onuntz-aruntz, gora ta bera laster asi zan, alde guztietara begiratu-ta, bilduñá erakusten zuala. Azkenean sasi bañenean sartu zan.

Martxelina alderatu zitzayon, eta gozo-gozo esan zion: ¿Nai al dezu nerekin jostatu? Ikaste-

txean jostatzerik ez dago, ta ni an gogaitu egiten naiz.

Txoriak erantzun zion: ¿Eta nere kabia? Jostatzen asitzen banaiz ¿kabia nork egingo dit? Ez; ez. Alperkeria nai badezu, lagun alperak bilatu; nik lana egin bear det.

Neska zerbait lotsatu zan, bere alperkeriagatik txoriak arpegian eman ziolako, ta bere bideari jarraitu zion.


Zerbait aufferago, txakurtxo bat, besteak ez bezelakoa, soto batean ikusi zuan; eta txoraturik bezela onela asi zitzayon: **kuxo... ñabaño... moñoño...** ¿nai al dezu nerekin jostatu? Nik ogia ta goxoak baditut, zuk eta biok jango ditugu, ta jostatzen ederki ariko gera. ¿Nai al dezu?

—Ez legoke gaizki, erantzun zion txakurak; baña ¿lapurak etxean edo baratzan sartzen badira? Biak zaitu bear ditut. Inor sartzen asitzen bada, lenbizi saunka egin bear diot, etxeakoak etofi ditzeten; eta gelditzen ez bada, ozka ere bai. Ortako jarri naute emen, eta ori egin bear det. Alde, alde ortikan, ba.

Martxelinak lotsa-lotsa egin-da, bere buruari erdi negahez esan zion: Beraz ¿lana egin bear dutelako, inortxo ere nerekin ezin egon, nerekin jostatu nai ez? Guztiak lanean ¿eta ni alperkerian? Ez, ez. Ez geyago sasi-eskolik, ez geyago sasi-eskolik, ez geyago pipefik; eta bertatik ikastetxerako abiatu zan.

Asmo ori beti gogoan izaten zuan, eta andik auffera langile bikaña izan zan.

Erleak, txoriak eta txakurtxoak Martxelinari bezela, guri ere lan egin bear degula esaten digute. Aberats eta beartsu, txiki-aundi, aul-bizkor, giz-emakume, guzti-guztiok lana egin bear degu.



Alperkeriak gauz onik ez dakar: era guztietako kalteak, bai.

Lanerako tresnak, egonean erdoitu egiten dira. Nai ta ez lan egin bear duanak, besteak alperkerian ikustean min artzen du.

Txorien kabiak

U*meai eñaz ezagutzen zaye nolakoak izan bear duten.*

Azierak asko egiten duala esan degu, ta alada; bañan azierak zaña kentzen ez du. Berez gaiztoak izango lirakenak azieraz zuzentzen dira, ta on-onak egiten ere bai; bañan il arte beren griña txarrik menderatzen ibili bear izaten dute, onak izango badira. Azierak ontzen du; zañak atera ez.

Biotz onako umeak badaude, Jaungoikoari eskerrik; baña ¡bai gogorakoak ere! Aurtasunean, ezaguerak oraindik argitasun txikia ematen duanean, aunditu arte ume gaitzgabeak, maltzurkeria ezagutu gabe, beren bañena garbi erakusten

dute, ta berez nolakoak diran orduntxe ondoen ezagutzen da. Ori da umeak azitzeko garaya; gero berandu izatea baliteke.

Orain esango degun onetan, auien biotza nolakoa dan asko ezagutzen da.

¡Bai biotz gogorakoak ume batzuek! ¡Odol-zaleak benetan! Ori gauz askotan agertzen da. Lagunakin dabilzanean, bat edo batek min artzen badu, poztutzen dira; zer edo zer alkarékin izaten ba dute ¡zaila barkazioa! asáretu ezkerro, luzaroan gofotoan; beti arpegi iluna; bafenean ezin ikusi aundia.

Lagunentzat ofelakoak badira ¿nolakoak izango dira abere, egazte ta beste izakientzat? Oiloai, zakufai, txoriai eta abar, beti arika, beren etsayak balira bezela. Batez ere txorikume ta kabiak nola erabiltzen dituzten ikusi bear da.

Txorikumeak jayo badira, kabia ta guzti artu ta etxera edo lagunetara eramaten dituzte, eskuetan artu, alkarí eman, ankatik eldu, zinzilik jafi, luñean utzi, ibili erazteko bultz egin, katuari erakutsi, anka batean lokañitxo bat ipiñi... Azkenean, oiñazpian .ustegabea arapatu, edo katuak jan, oraindik bizirik daudela.

Txorikumeak jayo ez badira, afautzak kabitik ateratzen dituzte, eskuetan erabili, oztutzen utzi, goñingo ta zuringorik ote dituzten ikusteko autsi, tolortak dauden edo txorikumeak itxura artu

ote dituzten jakiteko luñara bota... itz batean, añautzak erabat ondatu.

Kabia utsik ba dago, egin beña, añautzik gabe, berak jostatzeko artzen dituzte, ta bereala uñatu. ¡Ori lan polita! ¡Pizti odolzale alaenak!

Oñelako gauzak egitea astakeri aundia da. Jaungoikoak txoriai esan zien: Aunditu zaitezte, geitu zaitezte, ta lurbira bete ezazute. Egazteak, Jaungoikoaren esan oñi begiratu-ta, beren kabiak egiten dituzte, añautzak ere bai, eta umeak jayotzen diranean maitetasun aundiz azitzen dituzte, berak gero beste ainbeste egin dezaten, lurbira betetzeko. Orain, ba; Jaungoikoaren aginduari eragozpenak jartzea ¿ez al da erokeri ta astakeri aundia izango? Iñork ezin ukatu.

Gañera ¿kalte egiten al digute txoriak? Ez; guztiz bestera, on aundiak. Kayoletan daudela, etxeak alaitzen dituzte, ta askotan burutik gogo txarñak kendu ere bai. Miñez daudenen bakartasun eta goibeltasuna arindu, ta oñela sendatzen lagundu. Soro-landa-zelai-basotako langileai ori bera egiten diete, bakartasun artan luzaro egon bear izaten dutenean. Aizean dabilzan euli txar eta eltxo pozoitsu, askotan ozka egiten dutenak, txoriak jaten dituzte. Landare ta zuaitz ostoetan ibiltzen diran añaak, berak kentzen dituzte. Nekazarien lan luze-gogoñak ondatzen dituzten zomoñoak, asko ta asko geitu ta zabalduko lirakenak, txori batzuentzat jan bikain eta gozoa dira. Oña nolako onurak dakartzkiguten txoriak.

Osasunerako ere on aundia egiten digute txoriak. Udetan, beroak lagundu ezkerro batez ere, eltxoak eta zomofoak toki batzuetan eruz izaten dira, gau ta egun ito-bear aundian jartzen gaituztela, ta gaitz kutsukofoak ere ekartzen dituztela. Txoriak oyek jango ezpaltuzteke ¿biziko al ginañake gu?

Egiari beti begiratu bear zayolako, txorien etsayak esaten dutena ere entzun bear degu, ta gure iritzia begien auran ipiñiko diegu. Orduan norberak ikusiko du zer aldetara gelditu.

Azi ta landareak soro ta baratzetan txoriak ondatzen dituztela esaten da, ta ofegatikan kaltegañiak dirala... Esaten dan adiña ez bada ere, batzuetan ori egiten dutela aitortu bear da; baña kalte ta onurak zearo ikusi-ta ¿ez al dira onurak kalteak bañon askoz aundiagoak, eta neufirikan gabe ederañoak? Itxuak ere ori garbi-garbi ikusten dute. Esan deguna gogoratzea naikoa da berdiñeztasun aundia txorien alde ikusteko.

¡Azi ta landareak ondatzen dituztela! Txoriak jaten dituzten zomofo, euli, eltxo, mamufu, arma-arma, añak eta abar biziko balira ¿azi ta landareak non egongo lirake?

Txorikume, añautz eta kabiak ondatzen ditugunean, ba, gure kaltean gabiltza.

Baña beste gauza bat gogoan artu bear da, orain arte esan ditugunak bañon askoz geyago baliyo duana. Txorikumeak ondatzean kaskar eta koldafak gerala erakusten degu. Etsai sendoren

Odolzalekeria, bai...

Mutiltxoak (eta askotan mutiltxo aspaldi izan ziranak ere bai) txorikume, arautz eta kabiak ondutzen dituztela esatean, odolzalekeria aitatu degu; bañan aitatu bakarik. ¿Zergatik esaten det au? Odolzalekeria gauza ikaragarria da; ta ezin esan zayo inori odolzalea dala, alako ez bada. Gai oni, ba, begiralditxo bat eman bear diogu, gauzak zearoago azalduaz, eta oñela guztia ondo ulertzeko eran jariko degu.

Samurtasuna ta doilorkeria berdiñak ez dira, ta batentzat ondo esana dagoana bestearentzat ezin. Ikusi dezagun.

Ume batzuek txorizaleak izaten dira, ta txorikume-kabiak arapatzen dituztenean, ezta oyek ondartzeko izaten: guztiz bestera, txorikumeak maite dituzte, ta oyek eskuetan eukitzea beren pozik aundiena izaten da. Ori bereala ezagutzen zaye.

Ibili ta ibili, estu-estu eskuetan euki iges egin ez degien, azkenerako txoria ondatzen dutela egia da; bañan ez dute asmo txarez egiten, biotz gogorrez, maitetasunaz baizik. Geyegi nai diete, ta oñegatik geyegi estutzen dituzte.

Oñelakoak txoriren bata arapatzen badute, ardu-

raz artu ta miñik eman gabe etxera eramaten dute, zapi batzuek berotu, ayetan bildu, ta su ondoan jartzen dute. Ura, esne, ogi-mami edo auen antzeko gauzen bat ematen diote; ta indartzen bada, pozak zorutzen egoten dira. Beroago eukitzeagatik, eltzeak atzeratu ta otorduko janak ondatu ere zenbait aldiz egiten dituzte, sukak-zaya amonatu-ta ipintzen dutela.

Goizean goiz, jaiki ta lenengo gauza txoria ikustea izaten da; otorduan, onen-onena txoritxoarentzat; aora jaten ematen diote, eskuetan daukabela ta maiean dagoan guztia zikintzen dutela; gero kayolan sartu, leyora atera... beste gauzik gogoan ez.

Txikiak izaten dira, gogortu gabeak, eta geyenean iltzen zaizkie ¿ta orduan? ¡Ayen naigabea! Negar ta guzi egiten dute zenbait alditan. ¿Odol-zalekeria al da au? ¿Ume oyek doiloak dirala esango al degu? Zentzugabeak egiten ez bagera, ez.

Baña ¿Beste batzuek? ¡Ayen biotza ikusi bear da! Edozeñek esango luke biotzean pozoya daramatela, edo piztiak dirala, edo oñelako beste gauza txarñen bat: txoriari min ematen poza artzen dutela dirudi-ta.

Alegiñak egin-da beren kabia moldatzen dutenean, txoriak añautzak egiten dituzte, ta egun batzuen buruan txorikumeak jayotzen dira. Antxe ikusiko dituzue gurasozorioneko ayek, umeak zaitzen eta bazkatzen nola sayatzen diran. Bata bazka bila joaten danean, bestea umeen gañean egon-

go da, zaitzen eta berotzen dituala; ta ura etortzen danean, kabian egon dana egurastutzera joango da, jatera, ta bidez umeentzat jana ekartzera. ¡Gizajoak! ¡Bai bear ere! Kabian egoten diranean, ardua aundiaz egoten dira umeai miñik ez emateko, ayek berotzeko gañean jartzen diranean; geldigeldirik, ařeta biziaz alde guztietara begiratzen dutela, iñor etoři ez dedin, ezertako indařik ez duteta. Txandaka ořela ibiltzen dira, umeai aotik aora jaten ematen dietela, ta ořela txorikumeak eder-edeřak egiten dira. Oyek ala ikustean, beren gurasoak atsegin eta pozaz betetzen dira.

Usterik gutxienean, mutiltxo trakets-biurfi bat agertzen da, txori ayek non sartzen diran ikusten du, poliki-poliki alderatzen da, sasian buru ta besoak sartzen ditu...¡ kabian zegoan txoria, kařasika, izutu-ta joaten da! Zer gertatzen zayon ez daki; beste sasi batean, gertu, al dan gertuen, gelditzen da; beti kařaxika, ixildu gabe beti, umeai alegiñean lagundu naiean eta ezintasunean, mutiltxoaren lana ikusi nai du... onek kabia bařarama ta txorikumeak ere bai.....

Kařaxi ayek entzutean laguna etortzen zayo, ta gertatua oni esaten dio. Biren kařaxiak bategin da, aita-amak, eroturik bezela, egaka mutilaren atzetikan dijoaz, biotza naigabez lerturik beren umetxoak eskatzen dizkate. Bañan¡ alpeřik! ¡Ortarako dago mutiřa! ¡Ura naigabea txori gizarajoena! ¡Biotz gabeko mutiřa!

Ez ori bakařik. Kabitikan atera-ta, txorikume-

ak eskuetan artzen ditu; oraindikan samurtxoak diralako, eskuak estutzean min aundia ematen die; luñean utzi-ta, oztutzen dira; bi egal muturetatik eldu-ta, nolako luzeak diran ikusteko zintzilik eukitzen ditu; egan ote dakiten ezagutzeko, goigora botatzen ditu, ta oraindik txikiak diralako luñara erortzen dira; iges egingo diotelako bildurak, ari batez anka lotu-ta eukitzen ditu; lumak zañetik ateratzen kafasi-adiak egiten ote dituzten ikusteagatik, batzuei luma guztiak banan-banan kentzen dizkie...

Txorikume ayen aita-amak ori ikusi-ta, naigabez ezin egon dira; mutiltxoaren inguruan txiutxauka dabiltz; lañitasuna gero ta aundiagoa da; umeaz efukiturik, ayen alde zernai egingo luteke, baña lagundu ezin...

Ori guztia gutxi balitz bezela, mutiltxoa etxera joaten da; katua eiztari ona dan edo ez jakiteko beste txorikumeren bat aren añean luñean utzirik, bera ezkutatu-ta gelditzen da, ta ura alderatzen danean, lokañiaren bidez txorikumea beregana añastaka ekartzen du. Ori bein eta beñiz egiten du; bañan alako batean katuak tranko aundi bat egiten du, txorikumea añapatu ta iretsi ere bai. Oñela deabrutxo oñek txorikume guztiak ondatzen ditu.

¿Ez al da ori odolzalea izatea? ¿Zer geyago egingo luteke piztiak? ¡Bai biotz gogoña! Oñelako umea azitzen danean ¿nolakoa izango da? Bere kidekoak ezin barkatuko diote, ta bera baño zaña-

Jaiegunak Jaungoikoarentzat

Zuzen edo zeatez, ditugun guztiak Jaungoikoak emanak dira. Baldin bizi bagera, osasunak laguntzen badigu, lanerako indarrik izaten ba ditugu, gauzak asmatzeko buruko argitasuna, gañerako guztiak ere, ¿nondik datokizu?

Beste gauzetan ere, berdin. Jan-edanak lufari kentzen dizkagu; abere, egazteak eta abar, lufak ere ematen dizkigu; añayak ura dute beren bizitegia, ta guk andik artzen ditugu... Baña ¿nola? ¿Jaungoikoak ezer egin gabe? ¿Ez al ditu Jaungoikoak gauza guztiak zuzentzen eta erabakitzen? Bai; Jaungoikoak bere aginduak gauza guztiai ipintzen dizkie, ta abek zintzo-zintzo Aren esanari begiratzen diote. Oregatikan, guzti-guztia Jaungoikoari zor diogu, ta izaki guztiak aitortzen dute guretzat egiñak dirala.

Ori ala izan ezkeru, Berak agintzen diguna guk ere aitzakirikan gabe egin bear degu. Bañan ¿egiten al degu? Ez; ez degu egiten. Egia aitortzea gauza beara da. Askotan utsegiten degu; ta neuria betetzen danean, Jaungoikoak bere asarea erakusten digu, esnatu gaitezen, zuzendu gaitezen. Beti ez digu ori egiten; baña zen-

bait aldiz... itxua izan bear da Jaungoikoaren eskua ez ikusteko...

Zoritxar eta naigabe, neke-lafitasuna besterik ikusten ez dala, askotan esaten degu. Oñelako gauzak ¿beti gertatu al dira era ortan? Bayetz esango dirazu, ta ezin ukatu: negañezko tokian bizi baigera, ba. Bañan ¿orain adiña beti? Ori ere ez, noski. ¿Zeri emango diogu, ba, aitzakia? Beste gauza batzuek ere izango dira, zer esanik ez dago: etxe bat ezta ufutzen iltze bat edo beste erdoitzen, usteltzen, edo askatzen danean. Baña bi gauza badaude zein baño zein zitalago ta kaltegarriagoak; **birao madarikatua**, ta **jaiegunetako lana**. Auen bidez Jaungoikoari naigabe aundia ematen zayo, ta gero gertatzen dira maiz ikusten ditugunak. Zitalkeri aundiak dira, eskergabekeri itxusia erakusten dutenak, eta Jaungoikoak artzen duan naigabeak nondik edo andik lertu bear du, ondoren ikaragarriak askotan ekartzen dituala. Gai onetan zabarkeri ez txikia erakusten degu, batez ere eñi aundietan, eta oñentzat Jaungoikoak bere zigoñadak baditu. **Biraokoa** gero esango degu. Jai-egunetakoa orain irakufi.

Jaungoikoak agintzen digu zazpian bein egun bat Beretzat utzitzea, ta egun ortan lan egitea debekatzen digu: ori igandea da. Gañera, gure Ama Elizak beste jaiegun batzuek jañiak dauzka, ta oietan ere lanik ezin egin degu. Ori guztia agindu-ta daukagu; bañan ez degu egiten.

Jai-igandeetan lan egiten dutenak aitzakiak ateratzen dituzte, bañan alpeñik: aitzaki utsak dirala beste inork bañon obeto berak dakite. ¿Nola? Bañenak kezkaen bidez esan-da...

Bear-beaña bakarik egiten dutela esaten dute; bañan ori askotan egiñaz oitu egiten da, ta gero jaiak eta astegunak berdindu ere bai. Baña ¡bear-beñak! Ori, nai duanak sinistu dezala: ala ez dala garbi ikusten da ta... Berak ere ez dute sinisten ¿eta besteok sinistu bear al dizkiegu? Ona aitzaki oietako batzuek.

Batean, abereentzat belar beña bear dutela; bestean, urango egunean saltzeko eraman bear dituzten baratzeak. Orain, sukalderako eguña; gero, gurdiak duan autsi txiki bat. Gaur, etxea ondartu; biar, oial batzuek bederik garbitu. Gauz oiek, eta oien antzeko beste batzuek ere, egiten dira... ¡jakiña..! jai goizean, eguerdi bitarte, eliz gauzak egiteko garayean, auek erdizka egiñaz, edo egin gabe geratzen dirala.

¿Bazkalondoan? ¡Ori ezta galdetzen ere! Bazkalondoan lo egin bear da. Gero, ondo jantzi ta gizasemeak egurastu bear dute, aizea artzera joan bear dute... ¿Non? Ostatuan, sagardotegian... ¡Aizea artzeko toki izugarri egokia! Lagunak ere ara joaten dira, ta ara joan gabe ezin egon. ¿Noiz arte? ¡Nork daki! Toki oietan ordua entzuten ez da ta... Gero, berandu bada ere, etxera joaten dira, **edo eramaten dituzte, berak gauza ez diralako**, ta ori izaten da gizaseme askoen jaieguna.

¿Emakumeak? Goizekoa gizasemeak bezela: aratsaldean beriz, lagun sail bat bildu-ta, zer edo zer egin bear dutela-ta, goiko edo beko atarietan **musean, trukean, briskan**, edo bestelako jokuren batean ari bear, geldirik egongo ez badira...

Bat edo batek galdetu lezake: ¿Gaizki al dago, ba, jai-aratsaldean orelako gauzetan aritzea, bai gizasemeak eta bai emakumeak?

Eztet nik ori beñere esango. Lanik ezin bada egin, Jaungoikoak ori debekatzen du Berak agintzen dizkigun gauzak egiteko (eliz-gauzak eta abar), eta gorputzari ere **bear duan atsedena** emateko.

Ondo dago, ba, eder-ederki, batzuek ala beste onela, jai-egunean jostatzea, gauzak onela egin ezkerro. Goizean, eliz aldia; otordu obetxoa, al bada; gero, kristauak generala ez aztu.

Bañan ori egin beaŕean ¿zer egiten dute askok? Len esan degu. Goizean ala, aratsalde-gabean ola, lan txikietan asi, aundiagotan oitu, gero zabartu, orela lotsa galdu, azkenean biotza gogortu... Ta oyen ondoan ¿zer? Orain ikusiko dezu.

Eri batean gizon bat bazan (guztiak **Jai-erdi** esaten zioten,) jai-igandeetan beti lanegiten zuana, eguerdi arte beintzat. Beti zer edo zer egun oyetako izaten zuan. Emazteak saŕitan arpegian ematen zion; auzokoak ere nolerebait itxusikeri ori maiz adierazten zioten. Lanean asi-ta, Mezak maiz samar iges egiten zion. Aratsean beriz, berandu arte sagardotegian edo ardotegian, patxara edeŕean.

Ériko Apaiz jaunak bein baño geyagotan esan izan zion ori gauza itxusi ta txaña zala, ta nola nai ote zuan Jaungoikoak bere etxe ta gauzak bedein-katzea, ta Jaungoikoaren laguntzik gabe nola ger-tatu bear zitzaizkan ondo, ta alako batean Aren-gandikan zigoñada aundiren bat artuko zuala.

Jai-erdik ajolakabekeriz erantzun zion: Jau-na... jan ere egin bear degu-ta... jan bear duanak beñiz, irabazi egin bear... lan egin gabe irabazirik eztago-ta...

—Besteak ere jan bearko dutela uste det nik, ba... erantzun zion Apaiz jaunak, eta ez dute jai-igandeetan lan egiten...

Zer erantzun jakin gabe geratu añen, ez Apaiz jaunaren, ez eta beste iñoren esanetera etzan jar-tzen. **Jai-erdik** beñere jai osorik ez.

Jai-egun batean, oi bezela, eguerdi arte la-nean aritu zan. Bazkal ondoan lotara joan zan, eta etxeko guztiak sagastira, andik elizara joan-go zirala esan-da. Elizako aldia egin ondoan etxe-ra zetozela, ke aundia sumatu zuten, eta lasterka zetoñen bati iñon surik ote zan galdetu zioten. Itobear aundiaz bayetz esan zien, eta beren etxe-an gañera. Etxe osoa iya-iya ere egin zan, eta mutila eñira zijoan, ezkiñ jo ta guztiak laguntzera joateko. Asnasa ezin artuz, etzien geyago esan, eta lasterka joan zan.

¡Ayen adiak, ayen kañaxiak, ayen negañak! Ezkiñak bereala asi ziran, auzo ta ufutitikan giza-
seme asko bildu ziran, ura ekartzen eta abar ale-

giñak egin zituzten, baña guztia alpeñik. Suak be-
reala indar aundia artu zuan, eta iñor konturatu
baño lenago guzti-guztia geldo egiña geratu zan.
Garai txafá baizan, ba...

¿Jai-erdi esnatuko zan eta irten? ¡Bai zera!
Txafena ori izan zan. Itobeafak nonbait esnatu
zuan, baña berandu, ta irtenbiderik ez; eta ofela
kiskaldu zan. Itxura, beintzat, alakoa zan.

¡Apaiz jaunak esaten zion zigoñada etofi zi-
tzayon! ¡Eta jai-egunean gañera!

|||||

Neke ta zoritxararak, kezka-biderik gabe datoze-
nean, eñaz eramaten dira: Jaungoikoaren itza dira-
la esaten degu...

Bañena lasa ez dagoanean zerbait gertatzen
bada, guztiak bildurtzen dira. ¿Zer dala ta? Norbe-
rak jakingo du...



Guztiak balekite...

Umeak askotan bizi ta biurriak dirala egia da, ta oyek geldirik egon erazitzea zaila, edo erdi eziñezkoa dala ere bai: bañan ezin da, ofegatik bakarrik, gaiztoak dirala esan. Arintasun ori urteak kentzen diete, ta jakiñeztasunak ere asko egiten du. Umeak, gauzik aundienak ere ajolik gabe ta nola nai egiten dituzte; baña ¿zergatik ala? Oyen bikaintasun edera ezagutzen ez dutelako. Orain esango degun gertaldiak ori begien aurrean garbi-garbi ipiñiko digu. Irakurri.

Eri batean bi mutil koskor baziran, oso zintzoak; Lorentxo ta Agustiñ. Batez ere elizan oso ondo egoten ziran. Beren lagunak, elizan basoan bezela ibiltzen ziran; baña berak geldi-geldirik, begirapen eta ařeta aundiaz. Urutitik ikusi ezkerro, zurezkoak zirala edozeñek esango zuan.

Igande batean, atzeriko gizon bat etofi zan, eta Meza nagusira joan zan. Bere aurretxoan mutiltxo ayek jaři ziran, eta gizon ura txit ařiturik utzi zuten. ¡Ain ederki egon ziran Meza osoan! Elizatikan irten ziranean, mutiltxo ayekin izketan

asi zan, eta Mezan ain ederki egon ziralako, goxoak erosteko txanpon batzuek eman zizkien.

Ori ikusi-ta, ume asko bildu ziran, baita umeak etziranak ere; ta gizon ark, esandako biai galdetu zien non ikasi zuten, edo nork irakatsi zien elizan ofela egoten. Orduan Lorentxok erantzun zion: Jauna, jai aratsalde batean, amak elizkizun batera ekañi ninduan. Aldare nagusia zerua zirudian. ¡Ain txukun eta apain zegoan! Tximist-argi ta lore-sortak; argi-ontzi ta ispiluak; usai gozoko belar lodi, ure ta zilafezko lore-ontzi ederetan. Bestelako apaingari batzuek ere bazeuden, urdin, gofi, ori, zuri, margo askotakoak. Guztiak txukun-politak, erabat distiatzaileak eta zoragariak.

Jaun-aundia agirian jafi-ta, Agur-saila esan zuten, eta soñu-eresi baten ondoan, Apaiz jaun batek itzaldi gozo-gozo bat egin zuan. ¡Ura iztun bikaiña! ¡Bai euskera garbia! Pozak zorutzen euki ninduan ni, beintzat. ¡Ark esan zituanak! ¿Nola esan nik? Batez ere, leuntasun eta samurtasuna. ¡Ari, bai, bafen-bafendikan sortzen zitzaizkala esaten zituanak! ¡Gure sinismen eta Erljioa bezelakorik ez dago! Bayetz esaten dutenak alpeñik dabiltz. Ez dute egitan esaten.

Jaun-aundia agirian zegoalako, gai oni dagozkanak azaldu bear zituala esan zuan. Gure Jesus maitea egunean-egunean gugana etortzen dala ta aldarean egoten dala, ederki aditzera eman zuan. Gañera, beste gauza bat ere, nik beññere entzun izan ez nuana, esan zuan. Au da, Apaiz jaunak ez

dutela Meza ematen. ¡Ayek dardarak nereak, ori entzun-da!

—(¡Enéeee! ¿Zer egiten dute, ba, aldarean egoten diranean?—esan zuten guztiak batera).

—Jesukristok ber-berak ematen omen du Meza, ta Apaiz jaunak Jesukristoren ordezkioak dirala esan zuan, eta ortarako Krisóstomo Doitsuaren itz batzuek, oso politak, ere bai. (1)

—(¡Ooooooi! ¡Orixe gauz edeña! esan zuten guztiak beñiz, oso añiturik!)

—Ez ori bakañik. Trentoko Eliz-Batzañeko gauz eder batzuek ere esan zizkigun, ayen bidez oso garbi aditzera emateko, Jesukristok Gurutzean egin zuana ta Mezan egiten duana, biak bat bakaña dirala. Gurutzean, odola ixuriaz, Bere Burua eman zuana ber-bera, orain Apaiz jaunen bidez, odola ixuri gabe, Bere Burua Mezan ematen duana dalako... (2)

(Au entzundakoan, biotzak samurtu ta begiak busti zitzaizkien eta, ilak bezela geratu ziran.)

Beste gauza batzuek ere, izugañi politak, esan zituan, eta Meza añetaz entzuteko asmo sendo sendoa orduntxe artu nuan; baita al detan guztietan Meza entzutera etortzeko ere.

Ama-ta etxerontz abiatu giñanean, Agustintxo bere amonarekin zijoala bereala ikusi nuan; eta ofek ere, nik bezela entzun eta nik bezela asmoa artu zuan. Gañera, añezkero lagun aundiak egin gera.

(1) 8 Hom. in Matth.

(2) Trid. sess. XXXII-c. 2.


Entzun zioten guztiak, ariturik, asmo ori bera artu zuten; eta gizon ark, orduan ikusi ta entzundakoa toki askotan esan du, ta beriz ere, askotan aitatuko duala uste izateko da.

|||||

Toki onak gauza onak ikasteko egokiak dira; txaretan beriz zatarkeriak besterik ikasten ez dira.

Aurtasunean ikusi ta ikasitakoak, umeai buruan eraz gelditzen zaizkie, ta betiko.

Beren gisa utzi bearean, gurasoak ontan sayatuko balira zenbat naigabe gutxiago, zenbat poz geyago, zenbat gizon on geyago izango lirakean!



Askotan ikusten degu...

Aur eta gazteai gauzak askotan esaten baizaizkie ere, berak ikusten ez dutena ez dute sinistu nai izaten.

Berak ariñak diralako, ta bide onatik eñaz irteten diralako, askotan kontuak artu bear izaten zaizkie, ta orduan min artzen dute; edozeñek gezurtaratzen ditu, ta ori gertatu ez dedin berak baño zaragoak zerbait irakatsi nai badiete, arotzen dira.

Eztabaidarik aundiena gurasoakin izaten dute, geyen-geyena auek kontuak artu bear izaten dizkietelako. Au guztia ¿zer dala ta?

Seme-alabak belaur bat geroagokoak dira, gurasoak baño, ta auentzat ariñak eta erdi eziñezkoak diran gauzak, beñiak diralako, beren umeentzat oso eñazak izaten dira, jayotzez bezela, ezagueran sartu baño lenago ere, ikusten dituztelako. Oregatikan, gauza guztietan ayek bañon askoz geyago dakitela uste izaten dute, baita berak ez dakiten gauzik ez dagoala ere.

Gauza batzuek irakurgai eta ikastetxetan ikasten dira; egia da. Baña beste asko, urteak irakasten dituzte, ta urteak igaro gabe oyek jakin nai izatea, alpeñikako gauza da; ta gañera, afo-


keri aundia. Emendik datoꝛ gauza negargafi asko. Ikusi.

Umeak aurtasunean oso onak izaten dira; urte batzuetan gaitzgabeak eta zintzoak: baña zer-bait azitzen diranean, laster okertzen dira. Aurtasunako oitura onak utzitzen dituzte; bide zuzenari iges egiten diote; biurkerietako lotsa galtzen dute; bide lizun-zikiñetan eñaz sartzen dira; azkenean, deabruaren antzekoak ikusten ditugu, berak gaizki ibili ezezik, beste guztiak ere oñelakoak jartzen sayatzen dirala. ¿Zerk uste dezute kalte ikaragafi ori egin diela? Aingeru ayen biotz edefak ¿nork ondatu ditu?

¡Lagun txarrek egiten duten kaltea! Ez inora begiratu: oyetakoren baten lana da ori. Lagun txar batek deabruak baño kalte aundiagoa egiten du. ¿Nola ori? Oso eñaz. Deabrua itxusia da, bildur-gaia da: oñegatikan alegiñean iges egiten diogu, ez degu arekin egon nai izaten. Lagunak beñiz, pozgafiak dira, gure kidekoak geyenean, gure antzekoak, askotan auzokoak, aideak, gañera losen-txariak... itz batean, gu aiekin ibiltzeko egokiak. Amua, ordea, bafenean daramate, ta berak ezagutu gabe. Gu baño zaragoak gauz abek ezaguztzen dituzte, bañan ez diegu sinisten; gurasoak otsegiten digute, ta ez diegu añetarikan ematen. ¿Zer gertatzen da gero? Laguna ta arekin ibiltzen diranak, guztiak berdiñak. Añetaz irakuñi.

Emili zan neska bat zintzo-polita oso. Bere

amak gauz on asko irakatsi zion; batez ere eliz-
gauzak; eta izanik neska argi ta biotz onakoa, or-
tara jañi zan.



Amazazpi urte bete-ta, auzoko neska lagun
artu zuan, bere kidekoa, bañan arin-txoraska.
Amak arekin ez ibiltzeko maiz esaten zion, baña
neskak gogokoa zuan, eta utzi nai ez. Amak, bil-
duña eman naiean, laguna bezelakoa jañiko zala
esaten zion, arekin ibiltzen bazan; bañan Emilik
ezetz, eta ezetz, esaten zion. Gauzak atzekoz-
aure gertatuko zirala uste zuan, berak laguna ona
jañiko zuala, eta amari ala esaten zion.

Eztabaida ortan sañitan egoten ziran, bañan
amak geroago ta garbiago ikusten zuan lagun ark
bere alabari kalte aundia egiten ziola. ¿Zer egin,
ba? ¿Nola ori buruan sartu neskari? Gauza bat oso
egokia burura etoñi zitzayon.

Sagar eder batzuek erosi-ta, etxera eramán zituán. Emili txit sagarzálea zan ta amari eskaka asi zitzayon. Amak, berariz, etzion eman nai izan, eta biak onelako alkar-izketa egin zuten.

—Amatxo, sagar batzuek nerentzat ¿e?

—Ez, maitea; oso edeñak ditun, urut-urutitik ekañiak, eta guztiz garesti zeuden. Andre Marietan osaba-izebak eta abar etortzekoak ditun, eta orduko bear zetiñagu.

—Ori bai; baña bi edo iru abek beintzat eman bearko dizkit, ezin iraungo dute, usteltzen asiak daude-ta...

—¡Bai, zera! Besteak onak izan ezkeró, ez ditun ustelduko. Bestelakoak balituzken, egingo ituzken; bañan ¿auek? Etzegon bilduñik.

—Bai ¿e? Eman nai ez ditelako aitzakia. Gero ikusiko du: oyek galduko dira, ta beren ondo-koak ere bai. ¿Nola ez, ba?

Ori ortan gelditu zan, eta amak sagar guztiak giltzapean sartu-ta euki zituan.

Egun batzuen buruan, zerbait bear zuala-ta, Emilik amari giltza eskatu zion, eta sagrañak zeduzkaten gelara joan zan. Ayek ikusi bezin laster, ara alderatu zan, eta guztiak erdi usteldurik ikusi zituanean, amari bereala oju egin zion: esanaz:

—¡Amatxo, amatxo..! ¿Ez nion nik esaten? Oñra sagrañak, guztiak usteldu-ta daude. Nik esan bezela, txañak kendu izan bagenitu, etzan ori gertatuko...

—Ez, enetxoa, ez; ezukenan gertatuko. Nik ere banekiñenan ori: ederki alaere.

—Etzuan, ba, lengo egunean ala esaten...

—Ez, ez niñenan ala esan. Adrede egin niñenan; bes telaetzunen sinistu naiko-ta... Erofok, ire begiz ikustea nai niñenan-eta. Ire onagatik egin diñat: entzun.

Begira, maitea. Sagar onai gertatu zayena, txafen ondoan egon ditunalako, iri ere gertatuko zain, lagun txoraska ofekin ibiltzen baaiz. Ori aditzera eman nai niñenan, eta ire begiz ikusten den. Ikasi, ba.

Amak ofela irakatsi nai izan ziona, Emilitxok gogoan ondo artu zuan. Lagun kaskariña bereala utzi zuan, bera bezelako beste bat artu zuan, eta beti neska zintzo-prestua izan zan.

|||||

**Zaragoen esana
Artzen ez badezu,
Zure burua laster
Ondatuko dezu.**



Berandutxo, berandutxo...

Begietan lausoa sortzen danean, gutxi ikusten da (dutenak, edo izan dutenak diotenez), eta gañera zuri-antzekoa. Biotza samurtu-ta, begiak malkoz bustitzen diranean, nekez ikusten da, ta ikusten dana ere, ezta dan bezelakoa agertzen. Zerbait ikusi naye an eguzki aldera begiratzen bada degu, aren dirdirak liluraturik jartzen gaituzte, ta obeto ikusi bearean, askotan okeñago ikusten degu.

Gure buruaganako zalekeriak ori guztia egiten digu: batzuetan gauzak aunditu, besteetan beriz gutxitu egiten dizkigu. Besteena, danik ederen eta bikañena bada ere, kaskaña balitz bezela goiberatzen degu; gurea beriz, guztien esanez paragarri ta zarpaila izan aren, izaretan ipiñiko degu. Itxuririk bezela geratzen gera, ta ez ditugu gauzak diran bezela ikusten. ¿Ez al da au gauza negargaria? ¿Nolako ondorenak, zenbateraño ko kalteak ekartzen dizkigu? Gizon bati gertatua irakuri.

Eri batean gizon bat bazan, bere gauzak beti asko goratzen zituana. Bera bezelako gutxi. Aurtasunean ikastetxean, jostatzean indar aun-

diak, besteak baño trebeagoa... Mutil egin zanean beste ainbeste... Ezkondu ezkerro zer esanik eztago...

Besteekin izketan zegoala umeak aitatzen bazituzten, lenengo tokian bereak; edo edertasunean, edo indafetan, edo ontasunean, edo sotiltasunean, edo era guztietako zintzotasunean. ¿Abere, egazte, lur eta soroak, idi-uztañi ta ipurukoak, gurdiak? Aren abere ta tresnak, erian onenak beintzat, eta inguru ayetan ere naiko lana obeak ateratzea... Eguraldiak asmatzen, azi ta landareak berezten, noiz erein, noiz aldatu, birlandatu, noiz jofatu, noiz bildu bear ziran eta nola, gañerako gora-beretan ere etziola iñork eramango, afo-afo esaten zuan. Itz batean, bera ta bere gauzak beti goi-goiean jañi bear izaten zituan; eta ala etzanean zer edo zertan gogor egiten bazioten, suak artu-ta zernai erantzuten zien.

Ofelakoa zalako, guztiak bere gisa utzitzen zuten, eta gauzak gaizki gertatuko zitzaizkala ezagutu añen, etzioten ezertxo ere esaten, eta kalte aundiak izaten zituan. Noizbait konturatu zan igertaldiak iztun bikañak dira-ta!; bañan orduko berandu zan. Ona emen argitasun edera eman zioten gauza batzuek.

Zakur eder bat bazuan, eta ura bezelakorik inguru ayetan alerik ere etzegoala beti esaten zuan. Zakuña edera zan, egia; bañan akats aundi bat bazuan: ardi-zalea zan. Ardi ta bildotx asko galtzen zitualako, lepotik eldu ta odola edanaz,

artzaiak gofoto aundia, bai zakufari ta bai bere jabeari, zieten. Zan bezelakoa izan ezpalitz, adiskidetasun onean ori esango zioten, eta antolabidieren bat artuko zuan, eta akats ori zakufari kendu ezkeru, ura bezelako gutxi inguru ayetan izango zala egia izango zan. Zakufa edera zan.

Lagun on batek, artaz efukiturikan, zakufaren akats ori aitatu zion, eta artzayen aenkurak ere bai. Gañera, akats ori kentzea zaila etzala esan zion, zakufa gaztea izan-da; bañan etzion aetarik eman. Badakit nik, erantzun zion, aenkura ori ta befitxukeri oyek nondik datozen, bai. Zakufa ain edera izatea ezin ikusi dute, ezin eraman: ori da guztia. Daudela, daudela; zakufa ortxe ikusi bearko dute egun batzuetan oraindik.

Eiztariak oso zakurzaleak izaten dira, auek onak izan ezkeru, ta oietako batek zakufaren truk bi ontzur emango zizkala esan zion. ¿Bi ontzur? ¡Bai zera!, erantzun zion; lau ere noiz nai emango dirate, bai... Ez dezu bi ontzufeian eramango...

Eiztariak asko eskeintzen ziola uste zuan, eta badaezpadan lagun batzuei gaidetu zien. Ayek erokeri aundia zala erantzun zioten; geyegi eskeñi ziola ta. Orduan eiztaria nazkatu egin zan, eta andik aufera etzion zakufari begiratu ere egin; ta ortan geratu zan. Geroz, zakufaren akats ori inguru ayetan ikasi zuten, eta ez eiztariak ez eta ala etziranak ere, etzuten zakufa erosteko asmorik ere izan, eta antxe gelditu zan gure gizona bi ontzuek gabe. Bañan etzan ortan geratu.

Egun batean, zakuía etzan etxera etoñi. Auzo-baztar guztietan galdezka asi zan, bañan etzioten iñon ere zakuíaren aztarnarik ematen. Bat edo bategen eramana izango zala, ostu-ta, bereala gogoratu zitzayon: ezin-ikusi aundia ziotela uste zuan-da. Gañera, artzayak zakuíari goñoto aundia artu ziotela ere esan zioten, eta artzayak iñla izango zala ere burura etoñi zitzayon. Bañan etzan alakorikan izan. ¿Zer, ba?

Basoan arkaitz aundi bat bazan, eta beko aldean bildotx eder bat eta gure zakuía, alkafen ondoan, biak iñlak, lertu-ta, agiri ziran. Orduan guztiak antza eman zioten gertatuari. Bildotxa añapatu naiean, aren atzetikan asi zan nonbait, eta erabat ikaraturik, ark lastefari eman zion, zer egiten zuan jakin gabe. Arkaitz mutufera iritxitakoan, itxutu-ta eta gelditu eziñik, amilka erori zan; eta zakuía, azkazalak arkaitzean iñistatu-ta, ezin gelditu izan zan, eta biak arkaitzatikan bera erori ziran, oso ondaturikan geratzen zirala.

Ortan gelditu ziran zakur-jabearen lau ontzurak. Bañan ori utsa izango zan, beste gauzik gertatu izan ezpalitzayo. Zakur bat galtzea, danik onena bada ere, zer dan badakigu; baña zakuía bañon askoz geyago da norbera, ta gizon ark gauza aundiagoak ikusi bear izan zituan. Entzun.

Seme-alabak año-añoak zituan; aitagandik ori besterik ikasi etzuten-da. Beti seme-alabak aitatzen, beti goratzen, beren alde itzegiten, besteak baño geyagokoak egiten... auek asko añotu ziran.

Emaztea oso ona zuan, eta onek itzal aundia egiten zien, bai seme-alabai, eta baita auzoko guztiai ere. Baña gajoa il zan, eta gure gizon afoak bere burua ezagutu bear izan zuan.

Auzokoak etzioten aftarikan ematen, eta bestela oitu-ta zegoalako, bafena kiskaldu egiten zitzayon. Seme-alabak ere, aitarekin ezin bizi ziran. Berak besteentzat ofelako aziera eman zien, eta auek gero aitari berari eraso. ¡Ezta afitzeko! Aspertu ziran arekin bizitzen, eta bakarik utzi zuten. Batzuek itxasoz joan ziran; besteak mofoineskame jafi ziran; batek lantegian irabazten zuana beretzat gelditzen zuan, auzoan ostatus jafi-ta; zafena ezkondu zan, bafian ez etxera, aitarekin bizitzeko, bere gisa baizik, aita alde batera utzi-ta ..

Guztiak nork bere bidea artu zuten, aita bazartu-ta utzirikan. ¿Nola gelditu zan au? Gizarajoak eskean asi bear izan zuan, eta goiz batean, estalpe batean gorputz arkitu zuten.

|||||

Begietan lausoa izan zuan, eta kendu nai ez, lo bezela egonik. Gero esnatu zan, lausoa kendu nai izan zuan, bafian eratu ezin. Onek, bai, esan zezakeala:

«Nik piztiak gizendu: gero berak gailendu».



Etorkizuna... ¿nork daki?

Guk alde batera begiratzen degunean Jaungoikoak bestera begiratzen badu, gure alegin guztiak alperikan galduko dira.

Gure asmo, gogo ta lanak aundiak ezin izan dira, gu txikiak geralako. Ori gauza askotan ikusten da. Oyetako bat etorkizuna da. Etorkizuna nolakoa izango dan ezin jakin degu. Jaungoikoaren asmo-erabakiak askoz gutxiago. Gauza oyek gure indarren gañetikakoak dira, ta guk ezin jakin.

Jaungoikoa ordea, bere gauza guztietan neurrigabea da; ta geroko gauzak, len igarotakoak bezela, beti begien aurrean dauzka. Ori egunean-egunean entzuten degu, ta aspaldiko Kondairak gauza oso politak gogora ekartzen dizkigu. Guri ezin gogoratuko zitzaizkigun, ezta igari ere; bañan ikusi ezker, Jaungoikoa an zebilela garbi-garbi ikusten da. Irakuri, irakuri.

Israeldar^{ak} **Faraonen** barutian belara bezela geitu-azi-ziran. Erege onek on aundiak artu zituan **José** ren bidez, bañan etzitan gogoan artzen, eta Israeldar^{ak} uratzen eta ondatzen sayatzen zan.

Asmo oni begiraturik, lege zorotz bat eman zuan; au da, mutiltxo guztiak, jayo bezin laster,

ilerazitzea. Etzuan, ordea, bere gogoa bete. Zenbait gurasok beren umeak ixilkan gorde zituzten, **Faraon**-en mirabeak etzituzten arapatu, ta bizirik geratu ziran. Oyetako bat **Moisés** izan zan. Jaungoikoak **Moisés** gauza aundietako zedukan, eta **Faraon**-en eskuetatik oso poliki atera zuan, etorkizunako gauzak gogoan dauzkala ederki ikusten degula. ¿Nola gertatu zan ori?

Moisés jayo zan. Bere amak, ama zalako ta gañera **Moisés** aur eder-edeña zala ikusirikan, gorde egin zuan. Iru ilabete igaro-ta bildurtu zan, lji toańak okertxo ori nondik edo andik ikasiko zutelako, ta ori ala izan ezkerro, ama-semek bizia galduko zutela ziur-ziur bazekian. Gañera, Agintariengana berak eramaten bazuan, bere burua salatzen zuan, jayo beña etzala bereala ezagutuko zutelako. ¿Zer egin, ba?

Auńa iizko saskitxo batean al zuan ondoen moldatu zuan; saskitxoa pike ta biskaz inguru osotan azaletik gantzutu, ta ibai baztańeko intsusetan utzi zuan, bere alabatxoa, amar-amaika urteko neska, gertu samar zelatan gelditzen zala. Ibai oni **Nilo** esaten zioten.

Eregearen alaba bere neskameekin ibaiera etońi zan, busti aldi bat egiteko asmoan. Saskitxoa intsusetan ikusi zuanean, zer ote zan ikusteko neskame bati saskitxoa ekańi erazi zion, eta idikirik, auńa ikusi bezin laster esan zuan: Au **Hebreo**'tańena da. Alaere, auńaz eńukitu zan, negańez zegoa-lako, ta etzuan ibaiera bota nai izan.

Neskak ori guztia ikusi zuan, eta alderaturikan, Éregearen alabari esan zion: ¿Nai al du nik emakumeren bat ekartzea, aur ori azitzeko?


—Bai, oa; erantzun zion ark.

Neska bere amagana joan zan, eta au etofizanean, **Faraon**'en alabak esan zion: Aur au artu ezazu, ta ondo azi: lan oñen saria nik emango dizut.

Pozik artu zuan amak bere semetxoa (berea zala esan gabe, ijakiña!), ta azi zuanean atzera eraman zuan. Éregearen alabak seme-ordekotzat artu zuan, eta **Moisés** izen eman zion. Izen onek «**Uratik atera nuan**» esan nai du.

Oná, ba, Jaungoikoak gauza bat egin nai duanean, nola egiten duan. **Faraón** Érege gaizto-beltzak Jaungoikoaren eña uñatu nai zuan, eta Jaungoikoak Érege onen beraren alaba artzen du, bere aitaren eskuetatik **Moisés** ateratzeko, izanik au Jaungoikoak berezitako gizona Bere aldekoai argitasuna emateko, ta egin bear zutena irakasteko. Ta gertaldi onetan politena da, zer eta nola etofiko zan iñork ere etzekiala, ez neskak, ez amak, ez eta beste iñork ere. Maitetasun utsak beartzen zituala egiten zutena egiten uste zuten; Jaungoikoak ordea, Berak nai zuan bidetik guztiak eraman zituan.

Lenago esan deguna. Gizonak alde batera begiratzen duanean Jaungoikoak bestera begiratzen badu, aren alegiñak auts utsa.



¿Itxuak bidean? Muturkatu, erori, burua autsi.
¿Ala ez danak? Afiskurik ez, okefik ere ez.

Etzuan berak ori uste...

Jakin-miñik ez duan giz-emakumerik ez dago. Gutxi edo geyago, guztiok zerbait badegu. Batzuek besteak bañon otzagoak gauzak jakin naiean ikusten ditugu, ta ezerk ere berotzen ez dituala esaten dute. Alakoak izatea baliteke: ezta kigun ura ¿nola ukatu bear diegu? Ala ere, ori sinistu ezin da, gauzak bestela itzegiten digutelako.

Baña sinisten badiegu ere ¿zenbat izango dira oiek bestelakoen aldean? ¡Oso gutxi! Utsa. ¡Ain bakan ikusten dira..! Bestera, guztia jakin nai dutenak asko dira; geyen-geyenak. Ontarako ere gertalditxo bat badet.

Ixabel zan neska bat guzti-guztia jakin bear izaten zuana. Ontarako zenbat eta nolako gauzak egiten zituan esatea, zaila da; obeto esateko, eziñezkoa. Onuntz-aruntz begiratu, ikusten zituan guztiai galdetu, joan, etori, emen sartu; an ere bai, etxean ezin egon, leyo batetikan bestera ibili, la-

na artu orduko utzi... Ofelakoa zan gajoa. Gura-soak askotan kontuak artzen zizkaten, mokoka egiten ere bai, baita zigoñadak eman ere... Guztia alpeñik.

Usterik gutxienean zuzen-bidea arkitu zuan. ¿Non? Oitura txar ori erleak kendu zioten. Oná nola.



Igande batean, aita Meza nagusira, oi lez, joan zan, eta etxerakoan, pardeltxo bat ekañi zuan, txit polita ta oso ondo bildua. Bazkal-ondoan lotara joan zan, eta ama auzora, mandatu batera. Umeak bitartean etxe inguruan geratu ziran.

Pardeltxo artan zer zegoan ikusi gabe etzegoan ondo Ixabel. ¿Zer egingo du, ba? ñork ikusi gabe, ixil-ixilik gela nagusira joan (pardeltxoa

an zegoan-da) eta au idikitzen asi zan. Gañeko estalkia éraz kendurikan, ontzi aunditxo bat agertu zan, zulo txiki asko zituana. Oni ere estalkia kendu bear zion; bañan ori egitean galdu zan neska. Poliki-poliki asi zan, bañan erleak igesi joan etzitezzen, estalkia estu-estu berariz ipiñia zegoan, eta idikitzeko indaía egitean, estalkia bere lekutik irten zan, baita erleak berenatik ere.

¡Ura ikara! Ontzia itxi nai zuan; estalkia ordea bere tokian ezin moldatu. Pardeltxoaren gañean zapi bat ipiñi zuan; bañan alpeñik: zifiturik txikienetatik ere erleak irteten ziran, eta ezin menderatu. Asko ziran, eta eunka inguratu zuten. Igeska asi zan; bañan erleak jañaitzen zioten, neska gajoa erotu-ta bezela jañirikan. Uxatu naiean esku biaz jotzen zituan, bañan orduan ta biziago erasotzen zioten, eta lan aundiagoa ematen.

Ozkak masailean, ozkak suduñean, ozkak ezpañetan, bekain, lepo, belañi, eskuetan..., Ixabel gajoa baztangak joa bezela jañi zuten, azi-azi egin-da. ¿Ta erleak? Alerik ere etzan geratu. Erabat sakabanaturik, tximista bezela igesi joan ziran.

Al izan ezkero, ori guztia ixilik gorde naiko zuan; baña ¿nola? Erleak ere izutu ziran, eta zurunbilo aundian etxe osoan zabaldu ziran, ots aundia atereaz. Orduan Ixabel negañez eta kañaxika asi zan, eta nai ta ez gertatu bear zuana gertatu zan. Aita esnatu ta jaiki zan; amak bere alabaren adiak auzotikan entzun eta bereala etoñi zan;

etxeakoak eta auzokoak guztiak bildu ziran, zer esan edo zer egin etzekitela.

Begietatik sua darie gurasoai, neskaren txaxukeria ta izango zuten naigabea gogoratu-ta; bañan ala ikusi ezkeru, erukitu egin bear. ¿Nola ez? Gañerakoak ere, oso kupiturikan esaten zuten: ¡Gajoa Ixabeltxo! Ori guztia bere eruz du, egia da; bañan ordaña ere, edera artu du.

Lotsa edera artu bear izan zituan, bada arpegia lenbizi arto-opil bat bezela jañi zioten, gero zaurietako onaze biziak egun txafak eman zizkaten, eta sendatu ondoan ere, sekulako aztarnak geratu zitzaizkan, baztangak joa balitz bezela, ta bere bizi osorako guztiz itxusia gelditzen zala. ¡Amaika aldiz negar egin zuan, bai, egun artakoagatik!

Bitartean, aitak beste gauza batzuek ere bazituan buruan. Beretzat naikoa du, zion: baña gurri ere ¡eztigu txafa egin! Eta ala zan.

Nagusi jauna aratsalde artan berean etortzekoa zan, erle gauzatan asko zekian beste jaun batekin, erletegi beñi bat jartzeko. Jaun ark lan aundia izaten zuan, eta ofegatik, gaberako etofi, urango goizean erletegia moldatu, ta beste eri batera nai ta naiez joan bearzuan; batzafea zuten-da.

Asmo oyek guztiak uratu-ta gelditzen zitzaizkien; eta nagusia oso zofotza zala gogoraturikan, bere artean esaten zuan gizonak: *Gaur gabean gure nagusiaren muturtxoa ere, ¡ikustekoa izango da!*

Zer ikusi, ura ikasi

Umeak txarkeriren bat egiten dutenean, efua bereala berai ematen diegu, bañan askotan ez dute berak izaten. ¿Zergatik ala? Bear bezela irakasten etzayelako. ¿Nola jakingo dute aurak gauza onak eta txarrik berezten? Ezaguera txikikoak izaten dira, ta berena bañon aundiagoa dutenengandik artu bear izaten dute. «Zer ikusi, ura ikasi» esaten da, ta ala da; ta ori bera beste itzetan esan diteke: «Zer irakatsi, ura ikasi»

Batez ere gurasoen lana da ori; bañan askotan ikusten da, guraso askok lan ori aztu-ta daukatela. Ta ez ori bakarrik: bat edo batek, naiz ume ta naiz gurasoai zer edo zer esaten badie, lotsagabekeriren bat egin-da gurasoak seme-alabaen alde jartzen dira, ta ofela ume oiek piztitxo batzuek egiten dira, ta azitzen diranean inork ere ezin menderatu.

Jaungoikoari eskerrik, ez dira guztiak ofelakoak izaten. Bear bezelako gurasoak ere izaten dira. Auek beren umeai gauzak bestela irakasten dizkiete, ta ikasi bezela egiten dituzte umeak. Eta abek gaiztakeriren bat egitea gertatzen bada bildur, aundiagoa izaten dute gurasoak ja-

kiteko, beste edozer gauzarako baño. Gurasoak nolakoak diran badakite, ta besteren batek zer edo zer esaten badiz, etxean arpegi iluna ta zer-bait geyago (ta ez gozo-gozoa) izango dutela ere bai, ta oregatikan arduraz ibiltzen dira, ta gurasoai bildura izaten diete.

Gauza abek egunean-egunean non nai ikusten dira, ta orduan gurasoaz txar-esaten da; bañan alpeñik. Umeui gauzak gaizki irakatsi bazaizkie, atzo bezela gaur, eta gaur bezela biar, egunero ikusten dira, ta ikusiko dira.

Gauza itxusia da, ta izugarizko ondorenak dakazkiana; baña begirapen aundiko tokietan askoz itxusiagoa, ta elizatan ofelakoren bat ikustea izenik ezuan gauza da.

¿Nola egoten dira ume batzuek elizan? Elizpean jostatzen ari dirala zer edo zer gertatzen bazaye, beste edozer tokian bezela elizan sartzen dira. Batean lagunen batek jo nai ditualako; beste batean, kuriketan ari dirala beren burua ezkutatu nai dutelako. Orain, kanikak edo beste josta-gai'en bat elizbañenean sartu zayelako. Gero, alki, makil, argi edo bestelako gauzen bat bear dutelako. Edozer aitzakia dala, antxe ibiliko dira nola nai, txapela erantzi gabe, izketan, ojuka, algaraz, enparantzan baleude bezela.

Eliza utsik dagoanean ofela ibiltzen oitutzen dira, ta gero, ala ez dagoanean ere, berdin. Mezetara joan bear dutenean, beren tokiraño erdi

lasterka joaten dira; ta irteteko ere, alkañen leyan bezela. Meza edo elizkizun baruan, ařetarikan gabe egoten dira, 'beti izketan, alde guztietara begiraka, ogia jaten, josta-gaiak alkañi erakusten... Itz batean, elizan ez baleude bezela. Ori guztia ¿zergatik? Arestian esan degu: etzaye irakasten eta ezin ikasi; ta ondo dabilzala edo gaiztakeriak egiten dituztela, gurasoak beti umeen alde... ¡Nola ikasi!

Ez dira ordea guztiak ořelakoak izaten, ez umeak ez eta gurasoak ere. Guraso onak beren seme-alabai gauza onak eta ondo irakasten dizkiete. Eliza Jaungoikoaren etxea dala, ta artan begirapen aundiaz egon bear dala. Aingeruak zeruan Jaungoikoaren ařean auspezturik egoten dirala, ta guk ori bera egin bear degula, batez ere elizan. Aur jayo-beñia elizan lenengo aldiz sartu baño lenago, Apaiz jaunak otoitz batzuek, luze-edeñak egiten dituala, ta gero ařa elizan batayatzan duala. Utsegiñak aitortu ta Jaun-aundia artu, elizan ere. Elizan, eliz-maiako kutxan, Jesukristo Ber-bera zeruan bezela dagoala, bizirik eta bere Gorputz, Odol, Arima ta Jainkotasuna Beragan dauzkala.

Ořela umeak ikasten dute, gauzik aundien eta bikañenak elizan egiten dirala, ta berentzat eliz-gauzak eta zeru-gauzak alkañen antzekoak izaten dira, berdiñak esango bagenduke bezela. Toki oyetan, ba, ařetaz, arduraz eta bear bezela egoten sayatzen dirala zer esanik ez dago.

Batzuek ala, besteak ola ¿zergatik ote? Len esan deguna ez aztu. Guraso batzuek zabafak dira, jakiñezak; beren seme-alabai gauza onik irakasten ez diete, batzuetan zabarkeriz, besteetan beñiz berak ez dakizkitelako; zer edo zer gaizki egiten badute, guztia barkatu, ta kontuak artu ez. Beste batzuek beñiz zintzoak, umeai ondo irakatsi, baña batez ere berak gauzak ondo egin-da: ofela indar aundia izaten dute, ta umeak bide onari oso eñaz jañaitzen diote. Ofela ibiltzen danak, besteai kontuak artzeko bidea idiki-ta izaten du. Oná gertaldi bat, oso egokia.

Egun batean, Beñardo ilunabafeko elizkizunara joan zan, eta umeak egoten ziran tokian jañi zan. Sartu bezin laster, lagunak izketan asi ziran, eta azken arte, eten gabe, ofela aritu ziran; baña Beñardo oso zintzo ta geldi-geldirik.

Eliz-zaindaria ixilik egoteko keñuak egiten zizkien; bañan alpeñik. Alako batean, bete-bete egin-da, ayengana abiatu zan, jotzeko edo ixilerazitzeko asmoz. Beñardoren lagunak lasterka iges egin zioten, elizan egon izan ezpalira bezela; berak ordea, gurasoak irakatsitakoa gogoan zedukan, eta bere tokian geratu zan. Ta ¿zer gertatu zan? Oraintxe ikusiko dezu.

Eliz-zaindaria erdi elbañia zan, eta eñen aundia egiten zuan. Etoñi zan, ba, txatxua; ta beste umeak lasterka igesi joan zitzaizkala ikusirikan, bera pañagañi ez gelditzeagatik, Beñardo arapatu ta ostiko batzuek eman zizkan.

Irten ziranean, Beñardo etxera joan zan patxaran-patxaran; ezer txarik egin etzuan-da. Baña bere aitak atarrietan itxedon zion, eta beso batetik eldurik, besteaz zigorada ederak eta ugari ematen asi zitzayon. Elizan zegoan aita ere, bañan urutitxo; ta zerbait ikusi aŕen, ez ordea ondo. Mutil gizarajoak oju ta karaxi aundiak ateratzen zituan, eta bereala giz-emakume batzuek bertan bildu ziran.

Beñardoren aitak esaten zituan gauzak entzun-da, elizatik etxera zijoan beste gizon bat geratu zan, eta ala esan zion:

—Aizu, adiskide; ¿zer egiten dezun bai al dakizu?

—¿Jakingo ez tet, ba? Umeai guztia barkatuta onak izaten dirala uste al dezu? Ikasi dezala, ikasi dezala urengorako.

—Bai; zuk uste bezela gauzak gertatu izan balira, ederki egongo litzake: eztira ordea ala gertatu. Zuk nonbait uste dezu zure semea elizan gaizki egon dala, ta ezta ala: ni bertan nengoan eta guztia ikusi det. Gizon txatxu ura etofi da, ta beste umeak, laster egin-da, iges egin diotelako, zure semea aŕapatu ta jo egin du; bañan etzuan jo bear, eta gañera sari on bat eman bear zion, elizan ondo egoteagatik iges egin ez diolako. Ez, ba, semea jo; eŕurik ez du-ta...

Iñork geren umeai ofelako gauzen bat egiten dienean, gurasoak ere gogor egitea ederki dago, umeak aŕotu ez ditezen, eta gurasoak edozer gauza barkatuko ez dietela jakin dezaten. Guztiok ori

¿Burua makurtu? Ezta...

Askok uste izaten dute emengo zoriontasuna ondasunak ematen dutela, ta ori ezta ala. Ondasunez inguraturikan egoten diran kristauak badaude, bañan oyen zoriontasuna iñon ere ikusten ezta. Ondasunik gabe beriz bizi bear izaten dutenak eruz ikusten ditugu, lanean gelditu gabe ta beti beartsu, ta alaere zeruan bezela egoten dira. ¿Zerk egingo du ori?

Kristau ona izateak, erantzungo dirazu. Bai; ori egia da, ori bezelakorik ez dago, orek gauza guztiak antolatzen ditu. Bañan oñeraño joan gabe ere, ortan asko laguntzen duan gauza bat badago, kristau ona izateko bear-beara ere. Au da, etxe bakoitzakoak alkar maitatzea, alkar ondo artzea, alkar barkatzea, alkar laguntzea. Au gabe, pakerik ez. Pakerik gabeko etxea, deabrutegi bat. Onekin beriz, zoriotasuna etxean, zoriontasuna auzoan, zoriontasuna toki guztietan.

Au al dan ondoen azaltzeko ere, gertaldi bat zuri esan beara badet, oso polita, bañan era berean oso negargarria. Orain esango dizkitzudan senide auek ezagutu nituala urte asko da, ta gertaldi au ere ordukoa da. Goazen, ba.

Etxe batean bi senide bizi ziran, anai-arebak. Zarak ezpaziran ere, bai urtietan sartuak. Onda-

sunak bazituzten, baña pakerikan ez. Zeruan bizi litezkela, beti eztabaida ta zezioan. Anaya, sotil eta gozoa zan; afeba befiz, gutxi bezelako setatia. Anaya, argi-argia ta gauzak ondo ezagutzen zituana; afeba ordea, gogo urikoa, gutxi zekiana. Anayak, etxea ondo ikusi nayeian, gauza guztiak biyen onerako egiten zituan; afebak beti uste izaten zuan, berak anayak bezin ondo gauzak ezagutzen etzitalako onek egia esaten etziola, ta gogoratzen zitzayon guztia egiten zuala ta beti bere alde.

Onela bizi ziran gizarajoak, beti zezioan, beti arpegi ilunak, eten gabeko muturkerian. Ondasunetan ondotoxo, baña lasatasunik eta pozik ez. Ondasunetan ere, bear bezela bizi ezkerro, askoz obeto egongo ziran; eñaz irabazi zitezkenak, askotan irabazi gabe geratzen ziralako. Anaia guztia ondo egiten sayatzen zan; eta alaere, afebak ezer ere ondo artu nai ez.

Egun batean, biak soroan lanean ari ziralta, alkañi itzik ere esan gabe, oi bezela, Apaiz jaun bat ikusi zuten, beste basetxe bateko mutil gazte bati Elizakoak zeramazkiona. Gaxo zegoan mutila afo-afoa izan zan, eta asafekoña gañera; ta nonbait ura ofela ikustean, iltzeko lañi, berai ere beren azkeneko ordua gogora etoñi zitzayen. Bañengo ezin egonak biotza samindu zien, kezketan jañi ziran, eta bat-batean alkañi begiratu zioten; baña, lotsatu-ta bezela, burua osterata makurtu zuten.

Pitin batean ixilik egon-ta, anayak esan zuan:

¿Beti onela egon bear al diñagu? Guri ere azke-
neko eguna etoñiko zaigun, eta bear bada usterik
gutxienean: betikoak ez gaitun-da. Ta orduan ¿zer
izango den guretzat? Ordu artako gauzak nere
iritzian indar txikia izan bear ditin; ezin bestean
egiten ditun-ta. Obe uken, ba, orain gauzak ondo
erabaki, ta asmo sendo bat artzea.

—Etzegok gaizki esana, erantzun zion afe-
bak; neri ere ori bera gogoratu zaidak.

—¿Nai al den, ba, Apaiz jaun ori atzera zeto-
fenean gure etxean geldi erazitzea, gure joan-e-
toñi guztiak al dan garbien azaltzea, ta gero, da-
na dala, biok bere erabakira jartzea, ezeren aitzak-
irikan gabe, oñek esaten diñana, naiz ik eta naiz
nik zintzo-zintzo egiten diñagula?

—Bai, pozik alare; ori bera gogoratu zaidak
neri ere. Beti ik nai bezela erabakitzea bañon ohea
izango dek neretzat noski.

—Beraz, esango zionagu, ¿e?

—Bai, bai, esan akiok; ni beintzat ortan na-
txeok.

—Apaiz jauna eñirontz zetoñela, gelditu erazi
zuten, eta iruak batzañetxo bat egin zuten. Beren
asmoa erakutsi ziotenean, Apaiz jaunak lan ori
pozik egingo zuala esan zien, eta bereala ortan
asi ziran.

Bizi ziran eran ezin egon zirala, ta gauzak bein
betiko nolerebait erabaki nai lituztekela esan-da,
anayak Apaizaren auean bere afebari esan zion:

—Biok izandako zezioeren bat esan zan, ik

nai denana, ire iritzian neretzat txafena ta iretzat onen-onena denana. Jaun oni azaldu akion, eta zein gaudenan oker, i edo ni, berak ikusi ta erabakiko diñ.

—Nik etzakiat ik bezela izketan, erantzun zion ařebak; esan akiok ik.

—Ondo zegon; esango zionat; bañan ik nai dekan zezio-gaya. Esan zan, ba.

Pitin batean ixilik egon ezkerro, ařebak esan zion: idi-beiko zezioa esan akiok.

Asi zan, ba gure mutil zaía, ta onela itzegin zuan. Jauna; neguko ilunabar batean sukaldean geundela, gauza bat erabakitzen asi giñan. Bi bei zar kendu giñuzen, eta oyen orde z zer edo nolakoak ekañi bear giñuzen erabaki nai genduan.

Batak, idiak ekartzea obe zala zion, soroan lan sendoago ta obea egiten zalako, ta ofelako lana egin-da, luñak ere askoz geyago ematen zualako.—Gañera, soroetan lanik etzanean, eguraldi txafetan eta abar, eñiko bideak antolatzeko aña ekañi zitekela, eñiak alogera edeñak ematen zituala, ta ofela, alde askotara irabazi zitekeala.

Besteak beñiz, bei gazteak nayago; biga edeñak baño gauz egokiagorik ez, bere ustean. Lan ariñagoa egiten bazuten ere, esnea ta umeak ematen zuten; ta auen aldean, gañerako irabaziak aiatatu ere ezin egin ziralako.

Gañera, etxeko soroak eta baso puskek nolakoak ziran azaldu zuan mutilak. Batzuek sendosamuñak, besteak me-gogofak; aldapak eta zela-

yak; zingira ta éretenak; buztin eta lafeak; afitu-
zekenak edo gozo-erazak. Guztia zearo-zearo ta
izugafi ondo esan zuan; baña zein zegoan alde ba-
tera ta zein bestera igaritzeko biderikan eman ga-
be. Orduan afebari esan zion:

—¿Ondo al zegon? Gora-bera guztiak ¿esan
al dizkiñat? Gutako bakoitzak nai zuana ¿Apaiz
jaun onek ezagutuko al din?

—Ondo zegok, erantzun zuan afebak; ez tik
ezer ere ezagutuko. Oraintxe ikusiko dek: nere
alde erabakiko dikala ziur natxeok.

Gauz abek guztiak Apaiz jaunak entzun ezke-
ro, beste batzuek ere bear zituala-ta galdetu zitu-
an, eta guzti-guztia gogoan artu-ta, bere iritzi-era-
bakia eman zuan. ¿Nolakoa ordea? ¿Noren alde?
¿Neska-zar gajoak galdu zuan! ¿Bere anaya ga-
railari! Ta ori guztia, zein zegoan alde batera ta
zein bestera jakin gabe. Beragatikan, bere burua
ezin garbitu.

Bein bakañik gertatzen dan gauzak indar aundi-
rik izaten ez du: urengoetan bestela gerta liteketa.
Oregatikan, bi senideak ala nai ta, beste iru edo
lau zezio-gai Apaiz jaunari esan zizkaten; eta ana-
yak afebari nai zuana esateko eskubidea emanda,
onek nai izan zituanak aitatu zituzten, eta bere
aldekoak ipiñiko zituala uste izateko da. ¡Noski!

Lenengo aldian bezela, orain ere anayak guz-
tia azaldu zuan; baña len bezela ere, bakoitzaren
iritzia ezertan ere agertzen etzala. Afebak ontzat
eman zuan anayak esandakoa, ta uste zuan Apaiz

Eztu iñork ere jakingo...

Emakumeak beritsuak dirala, ta dakitena esan gabe ezin egon izaten dirala askotan entzuten degu. ¿Egia ote da? Berak ere noiz nai esaten dute, ta berak esan ezkerro sinistu egin bearako... ¡Noski!

Emakumeak ordea, ez dute ori pozik artzen. Gauz'en bat jakiten danean, gizasemeak berai aitzakia ematen dietela esaten dute; bañan emakumeak beritsuak badira, gizasemeak ez dirala mutuak izaten, eta auen bidez ere gauzak ez gutxietan jakiten dirala. Ta au ¿egia ote da? ¡Noski! esan bearako degu orain ere. Batzuen sinistu ezkerro ¿zergatik ez besteena? ¡Zerbait entzun bearako genduke! Irakurri. Zerbait aterako degula uste det.

Egun batean, gizon bat, bere etxean, beste aldietan ez bezela, uzkur-goibel zebilen. Emazteak zer ote zuan galdetu zion, bañan etzion ezertxo ere erantzun. Zortzietan gosaria eman zion, oi bezela; bañan etzuala nai erantzun zion. Baratzan, oean, ganbaran, okuiluan ibili zan; bañan itzik ere esan ez. Bazkaltzeko garayan ere muker eta m... egon zan, eta jan ez. Jateko gogokoak

zituala andreak zekizkianak eskeintzen zizkan; bañan alpeñik. Ori guztia ikusi ta, emaztea ere goibel eta lañi jañi zan.

Alako batean, senañak esaten dio: Alpeñik zabilta: nik miñik eztet, lañitasuna baizik.

—¿Zer dezu, ba? ¿Iñorekin asañetu al zera?

—Ez, ezta ori ere. Orain esango dizut, bañan ezpañak josi egin bear dituzu. ¡Ará gero!

—¡Gizona, ez bildurtu! Nere bidez ezta ezer jakingo; esan, esan bereala.

—Lagun bat il det, eta oñen gorputza lurperatu arte ez naiz lasa egongo. Gabaz biyoen artean basoan lurperatu bear degu, ta oñela eztu iñork ere jakingo,

—¡Ené, bada! deadar egin zuan emazteak. ¡Ori lana egin dezu! ¿Zer ikusi bear degu? ¡*Jesús, María ta Jóse...*!

Senañak, emaztea oñela negañez ikustean, zoñotz gogor egin zion, begietatik sua zeriola; ta orduan emaztea, alde batetik ikaratu-ta, bestetik beñiz bañena zerbait lasaitzeko, auzora joan zan, senaña etxean utzi-ta. Ango etxekoandrea lagun aundia zuan, eta bakañik gelditu ziranean, bereala esan zion:

¡Eztakizu, Madalen, zertan gauden! ¡Au nai-gabea! ¡Madalen, Madalen... ¡gure zoritxaña! ¡Au itobeaña!

—¿Zer dezute, ba, emakumea?

—¿Zer degun? Gauza ikaragaña... bai, ikaragaña, Madalen... Galdu-ta gaudela uste det... Ja-

kiten bada, antolabiderikan eztago. Nere senařak beste gizon bat okuĩuan labanaz il omen du, ta beko gelan, iñork ikusi gabe sartu: ta gabaz laso-
ra eraman eta biyoen artean lurperatu bear omen degu.

¡Ařen eta ařen, iñori ez esan...! ¡Jesús maite gurutziltzatua! ¡Zeruko Ama atsekabetua!... Baña Madalen, Jaungoikoaren izenean iñortxori ere esan ez! ¡Orduan, bai, galdu-ta geundela!

—Ez, ez; patxaran lo egin dezakezute. Nere bidez beintzat ezta jakingo. ¡Bai, zera! ¡Zoro ona det nik gauzak nola nai irteten uzteko...! Jainkoari nai dakiola iñork ikusi gabe, ta jakin gabe, lan ori egitea... Lasa egon, ba, Madalen, neregatik beintzat ezta ezertxo ere jakingo...

Andre gajoa ezin egon zan iñon ere, ta Madalen utzirik, bere etxera joan zan.

¡Ezta jakingo! Etzan oraindikan bere etxera iritxi, ta Madalen bere artean esaten asi zan: Bai... nik au Leontxiri esaten ez badiot, nik banekiala ikasten duanean min artuko du ta arpegian eman-go dit; ziur nago. Alkařentzat kuřun-kuřunak bai-gera, ba... biyok bat lez... Iñori ez esateko esan dit; baña Leontxik eztu aterako; oso ixila da-ta...

Leontxiren etxerontz bertatikan abiatu zan, eta gertaldi ikaragařia oso-osorik eta zearo agertu zion. Iñori ezertxo ere esango etziolako itza kendu-ta; ori bai...

Onek nonbait beste ainbeste egin zuan... Onek ere bere kuřunak izango zituan-da... Iñori

ere ezerosango etziotenak... Mutuak bezelakoak...
¿Nola ez? ¡Jakiña! Guztiak ixil-ixilak izango zirala
¿nola ez sinistu? Berak ala esan zuten, eta ala e-
gingo zuten, zazpi giltzen azpian gorde-ta... Baña
nik ez dakit zer demontre gertatu zan. Iñork ere
esan gabe, gizon gizajo aren kondaira efi osoan
laster zabaldu zan.

Afatsaldean, Epailaria bere igurai eta beste
Agintarien mendeko batzuekin etxe artara joan
zan, eta atea sendo jo zuan; bañan etzitzayon iñor
ere etortzen. Etxekoandrea sukaldeko zoko ba-
tean negahez zegoan; senaía beñiz oean. Noizpait
au etofi zan, eta Epailariak esan zion: *Legearen
aginduz etxe au nere mendean artzen det.*

—Etxe au nere da, gizonak zoñotz erantzun
zion, eta nik nere etxean iñoren beañik ez det.
Bear detanean, neronek eskatuko det, Jauna.

—*Legearen izenean nere mendean artzen de-
tala esan det. Giltza guztiak bereala bear ditut.*

—¿Giltzak? ¿Zertarako bear ditu berofek? Ge-
yago bear ditut nik, Jauna.

—¿Zuk il dezunaren gorputza jasotzeko.
¿Non da?

—¿Zer esan du, Jauna? ¿Nik il detana, Jauna?

—*Bai, zuk il dezuna; ura bera. Ukatzen al-
peñikan zabilta: guzti-guztia zearo dakit-eta...*

—Jauna; nere izen ona gezuhez zikintzen iño-
ri ere barkatuko ez diot, Jauna. Baldin berori Epai-
lari bada, gorago daudenak badira, ta oyengana
joko det nik, Jauna.

— *Gizon au lotu*, esan zien bere mendekoai. Ori egin zutenean, Epailariak beñiz esan zuan: *Guztiak nerekin etofi.*

Epailariak, bere mendeko ta ustezko gaizkiegilea aurrean jaririkan, guztiak beko gelaraño eraman zituan, eta mendeko bati esan zion: *Legearen izenean ate au bota.*


Guztiak dardaraz gelditu ziran; gorputza an zegoala bai zekiten, ba. Baña Legeak agintzen zuan eta atea aizkoraz bota bear izan zuan.

Leioa idiki, esan zuan beñiz. Gela ilun zegoan, eta otzikara aundi batek guztiak ori-ori jarri zituan. Aizkora eskutik utzi gabe aufferatu zan, leyoa idiki, ta antxe agertu zan... *¡¡Zakur bat ila!!*

Epailariak bere burua oñela pañagañi ikusi-ta, gizon ari kontuak zoñotz artu zizkan, gezurtaratu zuala esanaz. Gizonak algaraz eta patxara edeñean erantzun zion: Jauna, ¿nik berofei ezer esan al diot? Berofek egin duana, berofek jakingo du; eztu nik esan-da ezertxo ere egin.

—¿Zergatik egin dezu, ba, ori?

—¿Zergatik egin detan? Jauna, emakumeak dakitena esan gabe ezin egon izaten dirala askotan entzun izan det, Jauna; eta neronek ikusi nainuan ori ala zan edo ez, Jauna. Oñegatikan zakur au il det, eta lagun bat il detala emazteari esan diot, eta gorputza emen nendukala gañera, baña zakurfa zala esan gabe; gauza larria zala uste zezan, eta beragatikan ixilik egon zedin. Berak nonbait esan du, ta ori da guztia.



— Gaizki egin dezu, ba.
¿Nik gaizki, Jauna? ¿Zergatik, ba, Jauna?
Gauza bat jakin nai nuan eta ikasi det. Pozik
nago, Jauna. Zer, ¿nere etxean ere nai detana ezin
egingo det, ba, Jauna? Onelako gauza ikaragarria
ordu batzuetan jakin bada, nere emazteak bakañik
zekiala ¿ez al det nik sinistuko emakumeak ezer-
txo ere esan gabe ezin euki dutela? Nik ori jakin

nai nuan, eta ederki jakin det. Nik ez diot iñori ezer ere egin, Jauna.

Epailariak zer erantzun etzekian, eta ori ortan gelditu zan.

Gauz abek erian zabaldu ziranean, guztiak ase arte para egiten zuten, eta maiz aitutzen zituzten. Gizasemeak emakumeak beti maxiatzen aritzen ziran, eta txulioan gauz asko esaten zizkieten. Ta egun batean, auetako batek, asper-asper egin-da, gizatalde bati esan zien: ¿Zer zabilzate beti txatxukeritan, gezuřetan, beti zirrikaka? ¿Gizon jakintsu aren erabakia ez al dezute oraindikan ikasi?

—¿Gizon jakintsu baten erabakia?

—Bai, jakintsua ta urte askoan an-emen eta atzeñian ere asko ibilia...

—Ez nik... nik ere ez... nik gutxiago... Ala erantzun zioten guztiak.

Orduan emakumeak esan zien: Giz-emakumeak erri batean beti matrakan egoten ziran, *mingain luze, beritxu*, ta ořelako beste itz mintsu batzuek alkañi esaten ziotela. Bertako gizon bat, uri aundi ta ikastetxe ospatsuetan izaten zana, noizean bein erira etortzen zan eta guztiak begirapen aundia zioten. Guztiak aren esanera jariko zirala alkañi itz eman-da, bere erabakia eskatu zioten, eta bereala erantzun zien. Ona bere itzak.

Gauza polita galdetzen dirazute, bañan erabakitzeko zailtxoa. Alaere, nere iritzia esango

Mutiltxo on-bizkora

Aspaldiko gauzen izenak maiz aitatzen ditugu; bañan askotan, esan nai dutena jakin gabe. Batez ere aurtasunean ikasi baditugu, bu-ruan oso eñaz geratzen zaizkigu, ta gauza ja-kiña bezela esaten ditugu, nolakoak diran edo adirazi nai dutena ezta kigula, ordea.

Au ez gertatzeko, bañenari, mamiari begi-
ratu bear zayo, ta orduan beren bikaintasuna
agertzen da. Kutxan edo zoñoan daramaguna
jakiteko, idiki egin bear izaten da; ta gauza o-
nak oyetan arkitu ezkeru, askoz geyago zale-
tzen gera.

¿Doni Belayo Euskaleñian entzun ez duanik
izango al da? Nekez. Alaere, zenbat izango dira
mutiltxo onen kondaira dakitenak? ¡Ezta, ba,
nolanaikoa dalako izango..! Au bezelakoak ba-
giña, egiten ditugun gauzak ez genituzke egin-
go... Ikusi dezagun, ba, aurtasunean Zerua ira-
bazi zuan mutiltxo onek egin zuana.

Mutiltxo onek **Pelayo** izena zuan. **Abde-
rrahmán**, Eñege beltzak, buñukaldi batean krista-
uak menderatu zituan. Talde aundia il zuan, eta
beste asko arapatu ere bai. Auetako bat **Hermo-
gio** izan zan, Gotzaia.

Onek giltzapetikan irten nai zuan, kristauai laguntzeko ta ikasi bear zutena irakasteko. Orta-ko, bere mendean zituan giz-emakume batzuek, Éregearen barutikoak, atzera emango zizkala Éregeari aditzera eman zion, bera utzitzen bazuan; eta ayek ekañi arte, berekin zuan ilobatxo bat emango ziola. Éregeak bayetz esan zion, eta mutiltxoa giltzapean artu zuten. Amar urte zituan, eta izena **Pelayo**.

Bere mendekoak Éregeari esan zicten, **Pelayo** ume izugañi polit eta argia zala, yayo-yayoa, eta Éregeak beregana ekañi erazi zuan. Apain-
apain jantzirikan, mutiltxoa Éregearen auñera ekañi zuten, eta au txoratu-ta bezela geratu zan.

Bereganatzeko asmozzerbait esaten asi zitzayon; baña **Pelayo** etzan samurtu, ta bereala erantzun zion: «*Zukeskaintzen dizkirazun gauzak gal-koñak dira, ta nere Jaun-laungoikoa iraunkoña, betikoa.*» Au esatean, soñeko eder ura ufatu zuan.

Beste gauza batzuek ere nai zituan Éregeak; baña **Pelayok** zofotz erantzun zion, ezeren bildurikan gabe. Orduan Éregea nonbait lotsatu zan, eta etzion geyago esan nai izan. Berak ezin egin izan zuana besteren batzuek egitea balitekela gogoratu zitzayon, eta lagun batzuek mutiltxoaren gana bialdu zituan, kristau-sinismena kendu, ta Éregeak nai bezela ibili erazitzeke; **Pelayok** ordea esan zien: **Éregeari esayozue, iltzen banau ere, emengo bizia bakañik galduko detala, betikoa ez, eta nik betikoa maite detala.**»

Au entzundakoan Elegea asafetu zan, ezer iritxiko etzuala ezagutu zuan, eta Pelayo izugarizko neke-oiñazetan jartzea agindu zuan. Burni, laban, kako ta bestelako tresna latz eta zofotzak gorputza ufatzeko egokiak, ekañi erazi zituan. Guztia alpeñik. Arpegi alaya erakutsiaz, gogo aundi ta sendotasun edeña agertzen zituan; eta ofela iru urte t'erdian giltzapean euki añen, mutiltxoak sendo iraun zuan.

Orduan **Aderrahmanek** agindu zuan gorputzako alderdi guztiak bana-banaka moztutzea, ta **Guadalquivir** ibayera botatzea. Lan ikaragañi ortan asi ziranean, **Pelayok** eskuak goratu zituan, gauz oyengatik Jaungoikoari eskeñak emateko, ta moñoi odolzale ayek, suak arturik, bereala moztu zizkaten. Gero gañerako alderdiak ere bai, eta azkenean burua. Ori egiñik, gorputza **Guadalquivir** ibayera bota zuten, Elegeak agindu bezela.

Kristauak gorputza bilatzen aritu ziran; eta arkitu zutenean, burua ta gorputza ango bi elizetan utzi zituzten. Geroz, gorputza **Oviedo**-ko eliz batera eramana da, ta antxe dago.

Euskaldunok esaten degun **Doni Belayo** auxen da. Erderaz **San Pelayo**, edo «**El niño Pelayo**» askotan esaten zaio. Bizia ofela Jaungoikoari eman zion 925-ko Garagañilaren 26-ean, eta Ama Elizak onen jaya urteoro egun ortan egiten du.

.

Besteena ezagutu: gurea ez

Jaungoikoak ez, gañerako guztiok akatsak badiugu. Gutxi edo geyago, onelakoak edo alakoak, agirian daramazkigunak edo gutxik ikusten dituztenak, badiugula beinik-bein egia da: baña txarrena izaten da gerok ez ezagutzea. Ezagutu ezkerro, kenduko genituzke, edo zuzendu, edo sayatu beintzat; bañan ortako ikusi egin bear dira, ta ez ditugu ikusten.

Besteen akatsak aitatzen ditugu, nolakoak diran eta nolakoak izan bear luteken, gauzak zeñek egiten dituzten ondo ta zeñek ez, nondik etortzen zaizkigun kalteak eta zeri eman bear zayon aitzakia, auek edo aiek biotz kaskara dutela, ezin barkatu zayela... Besteen akatsak ¡zearo ta ederki ezagutzen ditugu! ¿Gureak ordea? Gure buruari galdetzen badiogu, aingeru utsak generala usteko degu, ogi puska bat bezelakoak... ¡Bai, bai! Ta ori ¿zergatik?

Besteai arpegia ikusten diegu, ez ordea gero-kena; ta besteai ori bera gertatzen zaye, gurea ikusi ta berena ez. Oregatikan, guk besteen akatsak ikusten eta ezagutzen ditugu, baña gureak ez: besteak beriz, gureak bai, bañan ez berenak. Guztiok alkarrenak; iñork ere bereak ez. Ortarako kondaira polit bat esango dizut.

Bide batean egokitu-ta, azeri bat eta katu bat izketan asi ziran, eta askotan oi bezela, besteaz gaizki esaka. Azeriak ala zion: Eskeñak zuzentasunari: gañerakoan gaizki ibiliko giñukek. Onek beartzen gatxetik besteen gauzak ez artzen, baita iñori kalterik ez egiten ere.

—Bai; ori ondo esan dek, erantzun zion katuak. Bañan ondonaiak ere ortan asko laguntzen dik. Biak Jaungoikoak ipiñiak dituk, eta Ark ederki zekik zer egiten diken. ¡Zorionekoak oyei biai begiratzten ziotekenak!

Ori esan bezin laster, otso bat sarobe batean sartzen ikusten dute, ardi bati bere bereala ortzaz lepotik eltzen dio ta itotzeko zorian jartzen du. Ardiak dardaraz ařen eta ařen barkatzeko esaten dio; bañan otsoak erantzuten dio: ¿Barkatu? ¿Erukitu? Goseak negonela onelako gosaria ařapatu-ta ¿erukitzea nai den? Ezta ezergatikan ere. Ori esan da, ardia jan zuan.

Gaizki zegok ori, esan zuan azeriak. Goseak ba-zegokean ere, beste zerbait jan-da ase ziteken eta ez ardi gaxo ori ofela ondatu.

—Bai, esan zion katuak, ori ala dek; edozer gauza egitea merezi likek pizti madarikatu ofek...

Ofela zijoaztela, basetxe bat ikusi zuten, eta inguruko lařean oilo, oilanda, oilasko ta beste egazte batzuek, eder-edefak. Oilařak bi bidari ayek sumatu zituanean (Jaungoikoak emandako sumoaren bidez, beñere alkar ikusi ez ařen, bereala ezagutu) oju aundi bat egin zuan, eta egaz-

te guztiak, tximista baño biziago, okuiluan sartu ziran, batzuek zokoetan, besteak ganbelpean, auek txeritegian, ayek ganbel-sare gañan, zar batzuek sasi tartean, al zuten era ta tokietan; bañan azeri maltzuñak ayen oiturak bazekizkian, eta jañfaitu zien. Okuilutikan laster irten zan, mutufa odolez zikindurik zekafela, ta gañera ate eder bat ortzetan, kañaxika.

Katuak etzuan ori ondo artu, ta azeriari arpegian eman zion ori egiña; bañan onek etzion afetarik eman, eta artan gelditu zan.

Bero aundia zan, eta sasipe batean geritza. Eguzkiak indaña galdu arte, eseri-ta alditxo bat egin zuten. Usterik gutxienean, sagu bat sasi ondotik irten zan, eta bere bidean zijoala, katuak tranko bat egin-da bereala añapatu zuan. Iges ezin egin ziola ikusirikan, luñean utzi zuan, eta beñiz artu ta bota, artu ta bota, min eta ikara ematen ibili ezkerro, azkenean jan zuan.

Azeriak egazteak jan zitualako, berak arpegian eman zion: ¿eta orain? Berak saguari egin ziona ¿gauz ohea izan al zan? Berak etzuan ortan doilorkeririkan ikusi, berak egiten zualako; bañan ori gauza txaña zala ikusi zuana izan zan.

Armearma batek bere sarea sasi tartean egin zuan, eta ari baten gañean jañirikan, katuak egin-dako guztia ikusi zuan, eta bereala esan zion: ¿Zer egin dekan bai al dakik? Sagu gizarajo oñek ¿zer egin dik iri? ¡Zital alaena! Oñek baño geyago de-

zakekalako, besterik gabe, ¿ofela afotu? ¡Ondo zegok .!

Ortan zijoan armearma bere itzaldian, eta bat-batean ixiltzen da. Katuak gora begiratzeko du, berari zer edo zer egingo ziolako bildurak, eta lengo tokian armearmarik ez. Sasi-bařendik ots bat, mařoa bezelakoa, irteten da... Euli kařaxia dirudi... Zer ote dan ikusteko pitin bat baztartzen da, ta ikusten du... ¡Nork esan! Bere kontu-artzaileak ere utsegin du... Besteen akatsak ikusi-ta, gauza txarřak zirala esan zuanak, bereak ezagutzen ez... Eta ez txikiak diralako; euli gajo bat armearmaren sarean sartu da, ta onek lepotik eldu ta ito du. Katuak egiņa gauza txarřa zan; ¿eta bere odol-zalekeria?

Azeri, katu, otso ta armearmaz esan deguna ber-bera, gařerako abere, pizti, egazte, ařai eta izaki guztiaz, asi ezkerro, esan bearko genduke. Guztiak ofelakoak bai dira, ba. Bařan ezaguera gabekoak bakarřak balira, utsa izango litzake. Giz-emakume guztiok ere oyen antzekoak gera; ta gu orain bezela, gure aurfekoak lenago ofelakoak izan dira, ta gure atzetikan etořiko diranak ere berdin-berdiņak. ¿Zergatik ori? Asieran esandakoa gogoratu ta zaiņa antxe arkituko degu.

¡Itxumen aundia gurea ziņez! Besteen akatsak ezagutu, ta gureak ez. Ez da ařitzeko beti txatxuak izatea. ¿Ta ondorenak? ¡Ondorenak! ¡Oyek, bai, ikaragařiak! ¿Zer egin, ba?

Itxusiak besteen itxusitasuna ikusten du, berea ez.

Besteak berena ez, besteena bai.

Nork-berea ikusteko, ispilua bear da.

Ispilu ori Zeruko argia da, ondo artzen dala.


Beti orrela... ¡Gizajoa!

Ez gera guztiok era berdiñean bizi! Batzuek oso eroso ta ezerean bearik gabe. Etxe onean bizitzen dira, ondo jantzi-ta ibiltzen dira, jana ere ona izaten dute, gauza onak eta ondo maneatuak, bat nai ez badute beste bat ekari erazi, gogotsuagoak izateko berarizko gauzak nastutzen dizkietela, ta ontan bezela gañerakotan ere, bat utzi ta bestea artu... nai duten ura beti izaten dutela.

Beste batzuek beriz beti nekepean; etxean bearen-bearen ura bakarrik izaten dute, ta ura Jaungoikoak daki nola; jantziak merkeen-merkeenak eta bein autsi ezkerro (ta oso eraz ondatzen zaizkie) ezin antolatu, ta beñiak erosteko txanponik ez; gosseak askotan edo beti, gauza ariñ eta indar txiki-koak jaten dituztelako, ta ugari ere ez... barena argal-otzak, eta larua soiñekoen zuloetatik agiri dala. ¿Zergatik izango da ori?

Gauzak urutitikan ikusten diranean ez dira ondo ezagutzen: orégatikan erukirik ez. Eta askotan,

ez urutitik ez eta gertutik ere ez dira ikusten, eta oregatik alkarren ondoan, auzoan bertan, gertatzen dira gauza negargariak. Batzuek gauza guztiak ugaritasunean; besteak beriz guztietan urri. Etxe barunbetan gertatzen dana ikusiko bagendu, ¡bestelako biotza izango luteke aberatsak beartsuentzat! Sartu gabe ere, zenbait aldiz nai baño geyago ikusten da. Irakuri, irakuri...



Migel Joxé etxe aberats batekoa zan. Bere gurasoak ondasunetan ondo zeuden, eta kristau onak ziran: bañan egun batean ikusi zutena ikusi arte etzan ayen biotza samurtu.

Jai-egun batean, Meza nagusitik aita-semek irten-da, eguerdi bitarte eguzkitan ibili bear zutela esanaz, bide-beñian abiatu ziran. Bide baztañean bei batzuek ikusi zituzten, eta ayen ondoan

mutiltxo bat, Migel Joxeren kidekoa gutxi-gorabera, amar bat urtekoa. Oin-utsetan zegoala ikusi zuan onek, eta gañera, orpoan lañua pitzatu-ta bi oiñetan zedukala. Soiñekoa ere zar-zaña, toki askotan zulatua. Alkandora berez zuria zan, bañan oria zirudian, eta lepo aldean, aldatu gabez, guttia zimurtua ta zoldaz betea. Migel Joxeren aita eñukitu zan, eta mutiltxoari onela galdetu zion:

—¿Zer ari aiz emen, mutiltxo?

—¿Bei-zai, Jauna.

—¿Otzak egongo aiz, ba, maitea?

—Bai Jauna, bai: otzak eta goseak, Jauna.

—¿Noiz etoñi aiz onera?

—Goizean, Jauna.

—Ta Meza ¿zer garaietan entzun dek?

—Mezik entzun eztet, Jauna. Bialdu ez nauteta-ta, Jauna.

—¿Ta Meza entzun gabe al ago?

—Bai Jauna; etxekoak ezer esan gabe ¿nola joan bear nuan, ba, Jauna?

—Ta bazkaldu ¿emen egin bear al dek?

—Jan det, Jauna. Talo ta urdai puska bat etoñi naizenean eman dirate, ta bereala jan ditut, Jauna.

—Goizean ori jan badek ¿beriz ere zerbait jango ukek, ba?

—¿Jan? Bai Jauna, bai; izan ezkerro, pozik Jauna.

—Izena ¿nola dek?

—Martolo, Jauna.

—Ta ¿nongoa aiz?

—Eztakit, Jauna.

—¿Nongoa aizen ez dakikela?

—Ez Jauna. Umezurtzen etxetikan ekañi nindutela esaten dirate, Jauna.

—¿Gurasoak zein dituken ere ez dek jakingo, ba.

—Ain gutxi, Jauna...

Gyago galdetzeko biotzik etzuan izan. Baren osoa samurtu zitzayon, eta **Agur** ere esan gabe, bere semetxoarekin añera joan zan. Oni ere begiak busti zitzaizkan, eta lañitasuna ito zuanean, aitari ala esan zion:

—Aitatxo, mutiltxo ori ikusi-ta, gauza bat gogoratu zait.

—¿Zer, ba, maitea?

—¿Zer? Nik soiñeko asko ditut, eta ofek bat ere ez. Nik jana ugari ta ona izaten det, eta ori, gizarajoa, goseak egoten da.

Ni ikastetxera joaten naiz eta asko ikasten det, eta ofek eztu ezer ere jakingo... ¿Badaki, ba, zer gogoratu zaiten? Nik nere gauzen erdiak pozik emango nizekake, ta Martolo ori nerekin ikastetxera eramango nuke. ¿Naiko al du berofek?

—Bai, enetxoa, bai; pozik alaere. Ori bera gogoratu zaidak neri ere, ta bereala esan bear zioagu.

Etxerontz bira egin zuten, eta Martolo lengo tokian zegoan.

Migel Joxeren aitak esan zionean erabaki

Arkumerik ez degu

Besteai zerbait irakatsi bear diētenak, beren egitekoari ondo begiratu bear diote; bestela, kalte aundiak etorikō zaizkie, bai berai, eta bai ikasitakoa egiten dutenai. Ta ori ¿zergatik?

Ikasten dutenak, irakatsi bear dietenen mendekoak dira. Bere alakoak ez izatea baliteke; bañan ikasten asitzen diran une berean, irakasten dietenen mendekoak nolerebait egiten dira, ta aien esanak abentzat indar aundia izaten dute. Ala bear ere. Ikasi nai duanak, irakasten zayon ura ez daki, ta jakiteko, besteren batek irakatsi bear dio. Sinisten ez badio, ba, ¿nola ikasi? Orá mendekotasuna.

Guraso ta nagusi-etxeakoandreaki, batez ere, Jau-goikoaren ordezkoi bezela begiratzen zaye-alakoak dira ere-ta beren ume ta mendekocntzat indar aundiko agintaritza izaten dute. Oregatikan auek ardura aundiaz gai onetan ibili bear luteke. Mutiltxo bati gertatuak argitasun aundia emango digu.

Amabi urte zituan gure **Potxolok**. Bere amak ala esaten zion eta alakoa zan ere. Auzoko erian Andre Marietan jai aundiak izaten ziran, eta aideen etxeetara urteoro joaten ziran. Urte artan, aita berra etxe batean egon zan; bañan iru edo lau etxee-

tara joan bear izaten zuten, aide urkoak ziralako, ta ezin. Lanak egin gabe zeduzkaten. Eguraldi txar-ak beren asmo guztiak ufatu zizkien. Gariak sartzen utzi ez, arbiak ereiten ere ez, belar-ak ere oso atzeratuak, guztiak ofela. Ofegatikan mutil koskor au etxe batera bialdu zuten, osaba-izebana. Aldi oyetan oi bezela, eguerdiko joan bear zuan, bazkariz.

Amak soiñeko beña atera zion, alkandora txuri-txuria ta burni beroaz gogortua, oiñetako on eta dirdaitsuak, alkandoraren lepoan apaingafi polit bat, txamafako saixelerako sudur-zapi bat ertza goñi-urdiñekoa, muturtxoa agirian gelditzen zala. txapela beñi-beña... oso bikaña jafi zuan. Arpegia mardul-mardula ta gaitzgabetasuna erakusten zuala, ta txanpon batzuek jostatzeke edo zerbait eros- teke, mutiltxoa panpantxo zegoan.

Etxetikan irtetean, ala esan zion amak: Maittea, osaba-izebanean aldi auetan bazkari edefa izaten dek. Batez ere arkumea. Ura bezelakorik iñon ere ikusiko ez dek; gizen-koipetsua, ta oso ondo maneatusa. Ofegatikan, eltzekari ta ofelako gauzak ateratzen dizketekenean ez jan; egunero jaten dizkiagu-ta; bañan arkumea ateratzen ditenean ondo eraso, ase arte.

Joan zan, ba, gure mutila, ta amak esandakoa zuzen-zuzen egin zuan; baña damutu zitzayon, eta etzayo bere egunetan aztuko.

Bazkaltzen asi ziranean, salda edefa atera zuten, aldi oietan oi bezela, ta etzuala nai esan

zuan. Salda edera zan, okel bikañakoa, ta gañera indafa emateko nastutzen zaizkan zaboferi batzuekin, oiño puska aundi bat, urdai-azpiko beste bat, txistofa ta abar, eta ofegatikan etxekoandrea afitu zan; baña saldazaleak ez diran umeak maiz ikusten dira, ta ofegatikan etzion ardura aundirik eman.

Ofen ondoan eltzekari koipetsu bat atera zuten, oso ondo egosia ta gutxitan bezela moldatua. Batzuentzat gai ori egazteak bañon obea izaten da, ta auek erazago utziko dituzte eltzekaria baño. Batez ere umeak. Ala ere, mutilak ori ere nai etzuala esan zuan.

Bazkari edera zuten, eta ofegatik beste gauza batzuek ere bazeuden, berez onak eta oso ondo ipiñiak: bei-mingaña, legatza beñ-beña, oilasko gazteak eta samurak, goiz artan afapatutako amofayak, eta beste zerbait ere bai. Mutilarri izebak artzeko, ta artzeko, aldiero esaten zionean. Onak beti ezetz esaten zion.

Ikusirikan maiean zeuden guztiak mutilak jaten etzuala bildurtu ziran, miñez egongo ote zan gogoratu-ta. Sukaldekoak zer esanik ez dago. Beren ustean gauzak ondo jafi-ta zeuden; baña mutilak jan etzuala zabaltzen bazan, besteen esameseen bildurak estutzen zituan, beren izen onak asko galduko zualako: eriko etxerik onenetako bat baizan, ba...

Zer egin etzekitela, azkenean izebak esan zion: Baña motel, ezzer jan gabe ofela gelditu

bear al dek? Lotsagaña izango ukek. Geyago ez diagu, ba. Ire gogoko gauzen bat nai badek, esan zak eta egin eraziko diagu. Sukaldekoak ere pozik egingo ditek. Lotsagañi gelditzea baño, edo zer gauza nayago

Mutiltxoak ere zer egin etzekian: nonbait lotsatu-ta zegoan, eta esan bear zuanak lots aundiagoa eman bear zion oraindik. Azkenean, beste irfenbiderik ikusten etzualako, gauzak garbi-garbi esatea erabaki zuan, eta izebari guztien aurrean ala esan zion: Arkume edeña emen izaten dala, ta arkume asko jateko amak esan dit, eta oregatik, ura atera arte jan gabe nengoan...

Edeña egin dek, ba, motel; aurten arkumerikan ez diagu. Bikain-bikañak zeudeken, bai; baña lengo egunean eiztari batzuek etofi ituken, ayen zakurak gure bildotx oiekin jostatzen asi ituken, eta izutu zizkitek, eta guztiak amilka gainberaz zulo batera erori, ta il ere bai.

Mutilak ori entzun zuanean etsi zuan, eta zerbait jango zuala esan zuan.

¿Zerbait? ¡Gosea lagun txaña da! Besteak utzitako zaboferi guztiak, ikusi bezin laster garbitu zituan. Ofela pañagañi geratu zan mutila, ta bere ama zer esanik ez dago. Ta guztia ¿nondik etofi zan? Zaña, amaren esan txaña.

Mutiltxo oni gertatu zitzayona, ta beste gauza askoz txaragoak, seme-alaba askoi gertatzen zaizkie. Gurasoak berak bide txarretan ipintzen dituzte.

Ez txatxua izan — esaten diete; — besteak aundiak esaten badituzte, zuk aundiagoak, geza zerala uste izan ez dezaten. Besteak txorakerietan ibiltzen badira, bai zu ere: besteak ala ibili ezkerro ¿zergatik ez zu? Besteak bilerara, enparantzara gabaz, eromerira joaten badira, zuk ez dezu gutxiago izan bear. Soiñua dala, berarizko suak gabaz egiten dirala, beste edozer gauza dala... zoazte, zoazte, bestela gu zofotzak gerala esango dute-ta...

Apaiz jaunak, edo lagun on batek, ofela ez ibiltzeko esaten badiete, ta bide zuzena erakusten badiete, gurasoak auei indaía eman beaíean, kendu egiten diete. Seme-alabak gogo txiki, lo-gura aundi, edo beste aitzakiren bat ateratzen badute, txoliñak dirala esan-da bialtzen dituzte.

Bai semeak, eta bai alabak (azkeneko auek batez ere) ofela ibiltzen utzitzea, ta askoz geyago berak bide oyetan jartzea, gurasoai ezin barkatu zaye. Ta au ain txaña bada ¿gurasoak gauza itxusiagotarako bultz egitea zer izango da? Au edo ura egin, edo egin-erazi, — esaten diete — ofela lotu-ta geldituko da.....

¿Lotu-ta geldituko dala? Berak bai, gurasoak, diot; eta beñere ez askatzeko ere bildur naiz, ez emen eta ez gero...¿Egunen batean ikasiko dute orain egiten dituzten gauzak ekartzen dizkieten ondorenak!

Ta ori guztia ¿zergatik? ¿Zertarako? Entzun ayen itzak.



¡Auek gauza arigariak!

Kristau izateko, sinistea gauza beara da. Besteren batek esan gabe ezin jakin ditugun gauzak badaude, ta esaten dizkiguna zintzo ta egiatia bada, bildurikan gabe sinisten dizkagu ¿Ez al ditugu sinistuko Ama Elizak esaten dizkigunak?

Jesukristok ipiñitako Alkartasuna da, bikain eta edeña; ta onek, Aren izenean, jakin bear degun guztia irakasten digu. Oregatikan, itxu-itxuan sinistu bear degu Ama Elizak irakasten diguna, edo berak ontzat emana daukana. Baña ¿zer gertatzen da? Gauza batzuek ikusten dira, ta oregatik sinisten ditugu; beste batzuek ordea ez dira ikusten, ta oregatikan riagi egoten gera sinisteko. Nagitasun ori erabat utzi bear degu.

Gure sinismenari indarra emateko, kristau onai sari eder bat emateko, sinisten ez dutenai argitasuna emateko, gogorturikan daudelako afokeriz burua makurtu nai ez dutenai arpegian emateko, ta Berak ederki dakienagatik, Jaungoikoak iñoiz edo beste gauza ikusgarriak egiten ditu; ta ontara nator.

*Auetako bat **Zaragozan** gertatua da, 1427 gañen urtean, **Alonso Arhuello** txit agurgaria Gotzai jauna zala. Ikusi nola azaltzen duan eliz-nagusi artako apaiz bikain batek, **Dormer** jakintsu jaunak.*

Emakume bat era negargarian bizi zan. Senařak gořoto aundia artu zion, asko jotzen zuan eta gauza guztietan bizimodu txara ematen zion.

Uri artan gizon gaizto bat bazan, **Mahomařa**, bere burua sendalari egiten zuana, ta aztikerien bidez uritar ayek gezurtaturik eta txoratu-ta bezela zeduzkana, (Euskaleřian ořelakoai **emplaste-roak** esaten zaye: bařan ez dira gaiztoak izaten.) Emakume eřukigari ura gizon arengana joan zan, eta bere senařa ohea jartzeko zer edo zer eman-go ote zion esan zion. (¡Zital alaena! ¿Zer uste zuan, ba, gizon ark emango ziola?)

Bayetz erantzun zion deabru ark, sendagai bat oso egokia emango ziola esan zion; bařan ortarako **Hostia** bat bear zuala, Jesukristo Bera, ori gabe sendagai ura ezin egin zualako.

¡Ikaratu bear zuan emakumeak! Alaere, zarpail zatar ark ekañiko ziola esan zion. ¡Bai ekañi ere! ¿Ta zer uste dezute egin zuala? Goiz batean eliz-nagusira joan zan, ¡utsegiñak aitortu (¿Aitorpen edeña egingo zuan? ¡Ez nuke neretzat nai!) eta besteakin batean eñenkadan jañi, eta era negargañi ta ikaragañi ortan Jaun-aundia artu zuan. Baztar batera joan zan, eta oraindikan mingañean zedukan **Hostia**, Jesukristo Ber-Bera, ortarako berariz eramandako ontzitxo batean sartu zuan, eta gizon ari eraman zion. ¡Etzekian gajoak zetorkiona! Ontzitxoa idikitzean... ¡gauza añigañi ta ikaragaña! **Hostiaren** ordezt Aurtxo bat, ezin esan alako polita, dirdira zoragañiak ateratzen zituana arkitu zuten.

Izuturikan biak, bere etxera eramateko esan zion gizon ark, eta iñork ere ikusi gabe, ontzia ta guztia eñetzeko. Ala egin zuan emakumeak, bañan alpeñik; ontzia eñe zan, bañan Aurtxoa len bezela antxe geratu zan, eta eñañu edeñak ateratzen zituan.

Zein baño zein ikaratuago, dardaraz asi ziran, eta oso damaturikan eliz-nagusira joanziran; emakumea, bere oben eta gaiztakeria aitortzera; ta gizasemea, gertatu zitzayena esan-da, Batayoa eskatzera kristau izateko. **Mahomaña** zala esan degu-ta.

Gotzai jaunari ori esan ziotenean, onek elizgizon jakintsuenetako batzuek berezi zituan, eta

gertatua zearo-zearo begiratzeko esan zien, gero egin bear zana berak erabakitzeko.

Lan ortan guztia egia zala ikasirikan, Jesús-Auía emakumearen etxetikan elizara ekañi bear zala erabaki zuten, eliz-inguru eder bat egiñaz.

Egun artan berean egin zan.

Era ta maila guztietako Apaiz jaunak, bai Barkategietakoak eta bai beste elizetakoak, Legegizonak, Aundizkietakoak, eta bestelako gizaseme ta emakume asko Gotzai jaunarekin eliz-inguruan zijoaztela, onek Jesús-Auía uñezko aspiltxo eder batean artu-ta eliz-nagusira ardura ta afeta bikañaz ekañi zuten, guztiak begirapen aundia erakusten zutela, ta malko gozo-gozo ugariak ixurtzen zitzaizkiela.

Elizan sartu ziranean, aspiltxoa eliz-mai gañean utzi-ta, Gotzai jaunak itzaldi leun-gozo bat egin zuan, guztien biotzak samur—samur egin-da ipintzen zituala. Ezta añitzeko. Ortarako, berak zuana ematea besterikan etzuan.

Uñengo eguna arte eliz-mai gañean utzi zuten, gauaz ere joan nai zutenak joan zitezen; eta bigarren egun ortan beste gauz bat txit añigañia gertatu zan. Gotzai jauna bera Meza ematen asi zan, eta Meza erdia baño zerbait lenago, Aur Jainkozkoa ezkutatu zan, eta Bere tokian **Hostia** befiz agertu zan.


¿Polita ta añigañia da gertaldi au? Zorionekoak ikusi zutenak; baña gu ere zorionekoak, onen bidez sinismen ortan indartzen bagera. Kristauak

Jaun-aundia artzera joaten diranean alpeñik dabil-
tzala, ezer artzen ez dutela, esaten dutenak ba-
daude,...Au irakufi ta ¿zer esango luteke? Gauza
auek jakin-ta ¿ori artzera joateko biotzik iñork
izango al du, bařena zikin daukala? **Hostian** Jesu-
kristo ¿ta guk gaizki artu?

|||||

**Gauzatxo bat gogoan artu. Emakume ura len-
bizi aztiagana joan zan; gero Jaun-aundia artzera;
gero Jaungoikoa ondatu nai zuan.**

**Orain ere, aztien gana joaten ¿diranak ba-
daude...; gero Jaun-aundia artzera ere bai. ¿Nola
artuko du ori Jaungoikoak? Bildurtu.**



Alakoakin bildurik ez

Iru piper mota badaude: piper-miñak, piper-go-
zoak, eta piper gezak. Sortu ta laster iru mota-
koak berdiñak izaten dira, belar utsa. Jaten baditu-
zu, ez dituzu ezertan ere bereziko; beste edozer ba-
ratzekia bezelakoak arkituko dituzu. Bañan egunak
igarotzen diran neurian, nork bere izate beria artzen
du; ta erabat aunditzen diranean, itxuran bezela
izate osoan ere berdiñeztasun aundia artzen dute.

Piper-miñak, txiki-txiki egin-da, eltzean edo
paderan dauden eltzekaria, arai edo edozer jakiai
nastutzen badiezu, abek txinpartak ateratzeko eran
jartzen dira, mingaña ta ao-sapaia batez ere iraki-
ten bezela jartzen dituztela, ¡Zital alaenak!

**Piper-go-
zoak,** azitzen diranean loditu egiten
dira, mami edera barenean egiten zaye, ta luñezko
eretilu sakon batean, olio eman-da, ondo erego-
si ezkerro, ogi puska bati ta txopera bat ardori egun
onak emateko izugarri egokiak izaten dira. ¡Bapo!

¿**Ta Piper-gezak?** Oyek beti gezak; belar utsa.
Ustez beintzat. Gozorik ez, miñik ere ez, itxura
utsa. Alaere, oitu ezkerro, besteak bezelaxe jaten
ditugu, ta gorputzarentzat indarra izaten dute bein-
tzat. ¡Adiskide onak!

Miñak eraz kalte egiten digute; **gozoak** geyegi jateko ariskua dakarte: **gezak** osasungarienak; kalterik ez beintzat.

Pipeñak ikustean edo gogoratzean, nere gaztetasunean ezagutu nuan amona gajo baten oroipena burura etortzen zait. Irakurri, irakurri.

Guztiok berdiñak gerala maiz esaten da. Ez; ori egia ez da. Aur batzuek zañak baño maltzuñagoak dira, trebeagoak eta biziagoak; eta sasoikoak eta zañak ikusten dira, gaitzgabetasuna galdu gabe iltzen diranak. Onelako gauzak beti ikusi izan dira, ta beñiz ere toki guztietan gertatuko dira.

Irurogei ta amar bat urte izango zituan il zanean, eta gorputzaren aunditasuna ez ikusi ezkerro, aur bat zala edozeñek esango zuan. ¡Alako gauzak gertatzen zitzaizkan ere! Ark etzuan alda-ketarik izaten beñere.

Orain esan bear ditugun gauzak gertatu zitzaizkanean irurogei bat urte izango zituan, gutxi-gora-bera. Beste amañen bat gutxienaz egingo zituan oraindik bizirik. Azkenean, guztiak bezela, il zan.

Alaba etxera ezkondu-ta bizitu zan, eta urte batzuen buruan il zan, bost seme-alaba umezurtz gelditzen zirala; ta auen kako-makoak amona zoratzen zuten. Alaere, etzan beñere asañetzen, eta

oregatikan nonbait, biloba ayek, aurtasunean biu-
riak izan airen, oso zintzo ta prestuak izan ziran.



Jaungoikoak amonaren eramapena ondo artu, ta
bedeinkatu zituan!

Bilobatxoak amona nolanaiz gezurtaratzen zuten.
Batean, eskolik etzala esaten zioten, ikastetxea
zuritzen ari ziralako; ta ikastetxea beti beltz-beltza
egoten zan, amonaren aurtasuna ezkeru zuritu ga-
bea, ta au il zanean ere, orela geratu zan.

Bestean jai zutela, ikastetxean ur-aundiak
kalte aundia egin zutelako, bañenean sartu-ta; ta

ikastetxera igotzeko aldapa aundi samara zegoan, eñiko goiko kaskoan ikastetxea geratzen zala.

Gaur, Aita Santuaren eguna zala, ta etzutela joan bear; eta ori ilean lau edo bost alditan esango zioten.

Biar, Irakaslari jauna (Maixu jauna) miñez zegoala, buruko min aundia zuala; ta jaun ark maiz esaten zuan, eta eñi osoak bazekian, etzuala beñere buruko miñik izaten.

Orain, besteak bañon afeago jañi bear zutela, ta ortako liburu beñiak erosi bear zituztela. Gezur utsa; amonak ematen zizkien txanponak, goxoak erosteko izaten zituzten.

Gero, Apaiz jaunak elizara joateko esan zuela, ufengo urtean Jaun-aundia artu bear zutelako. Gezur galanta ori ere: piper asko egiten zituztelako, besteak adiña ikasten ez, eta Apaiz jaunak erabaki zuan, ayetako bi zañenak berak baño txikiagoekin jartzea.

Oñelako asko ta asko egiten zizkaten biloba hiuñi ayek amona gajoari. Bañan etzan añitzeko: bera ere alakoxekoa zan. Orain esango dizudan ontan garbi ezagutuko dezu.

Etxe batekoak, gosaria egiteko esnea egunero erosten zioten, eta neskamea zintzo-zintzo etortzen zan, garai jakiñean, esne bila. Egun batzuetan esne edeña ematen zion, eta gosaltzean, etxe-koandreak neskameari esaten zion: ¡Auxen da esnea! Lodi-edeña, koipe utsa. Onen gañak, aragi zeña batek adiña indaña badu; egunero onelakoa

ekariko bazendu, poza izango nuke... Beste batzuetan beñiz, esne kaskaña, ura bezelakoa, indar aztarnarik ere etzuana ematen zion, eta etxekoandrea, erdi asafe erdi naigabeturik egoten zan. Neskameak ori bera esaten zuan; etxekoandrea ta neskamea biak on-onak ziran, eta alkar ondo artzen zuten.

Amona on utsa zala bazekian, eta esneari ura emango etziola ziur zegoan. Neskamea beñiz, oso zintzo ta elizkoya, egunero Meza entzun eta Jaun-aundia artzen zuana. Oregatikan etxekoandrea erdi erotu-ta jartzen zan, ori ezin asmatuz, eta zeri aitzakia eman etzekiala. ¿Nola da au? esaten zuan bere artean. ¿Zer gertatzen da emen?

Egun batean neskameari esan zion: Amonari galde egin bear diozu, gozo-gozo ta naigaberik eman gabe, zer egiten ote dion esneari, batzuetan ain ona ta edeña, besteetan beñiz ain kaskaña izateko. Ardura aundiaz ¿e? Ez dedila asafetu.

Joan zan, ba, neskamea, ta etxekoandreak esan bezela galdetu zion. Aritu-ta amona, bereala erantzun zion: Bai, neska, bai; naiko naigabea izaten diñat neronek ere. ¿Bai al dakin zer gertatzen zaiten? Bi bei dizkiñagu orain esnedunak, eta ilunabañean lañera gau osorako ateratzen dizkiñagu. Batak esne lodi-zakaña diñ, eta gain zikiña ateratzen zayon; besteak beñiz oso bikaña. Goizetan esne mekoa bestea baño goizago etortzen denanean, bereala jetzi ta zuentzat jasotzen diñat, memetxoa ta ona, aztu gabe; baña zenbait aldiz oso

¿Nolakoak dira erleak?

Etxe batzuetan auñerapen, irabazi ta lasatasuna ikusten ditugu. Lan eta nekea aundia izan aren guztia bere garayean egiten da; beñak ornitzeko ainbat beti izaten da; ta geroko ere, beti zerbait gelditzen da. Beste batzuetan beriz lanak geyenean atzeratu-ta darabiltzkite; bear duten guztian urì egoten dira; ta auñerako zerbait geratu beañean, beti zorpean. ¿Zer-dala-ta izango ote da ori?

Biyen izakerari begiratu, ta argia laster sortuko da. Lenengo oyek langile porokatuak dira, guztia eraz eta bere garayetan egiten sayatzen dira, ta irabazten dutena kutxan sartu, ta andik beañrik gabe ez atera. Bigañengoak beriz ez bata ta ez bestea, ta azkenekoa gutxiago. Lenengoak, zorak nolakoak diran ez dakite, ez eta oyek dakarten lotsa ta ezin bizia ere. Bigañengoak, beti lotsapean, etxetik irteteko bildurak, eta lotsa galtzen badute izen ona ere bai.

Au argi ta garbi ikusi nai duanak, erletegi bati begiralditxo bat eman bezayo; ta ori ezin badu egin, leño auek irakuri.

Eiztari bat galepeñetan zebilela, etxera joateko ustegabeen berandu egin zitzayon: oso ufutira

joan zan-da. Urango egunean ere etori asmo zuala ta, aruntz eta onuntz alpeñik ibili bearko zuala ta, egun artan ez etortzea balitekeala etxean esan zuala ta, eizarako toki edera zala ta, ostatu emateko inguru artan baseñi egokiak ba zeudela ta, gelditzea erabaki zuan. Jauregi antzeko basetxe aundi-eder batean ostatu eskatu zuan, eta bayetz bereala esan zioten. Guztia oso egoki ikusi zuan etxe artan, eta pozik geratu zan.



Senar-emazteaz gañera, bost seme-alaba baziran, zein - baño zein argi-mardul-ederagoak, yayo-yayoak guztiak.

Beren artean zer edo zer bazala, eiztariak laster ezagutu zuan. Inork ez entzuteko eran gauzak esaten sayatzen baziran ere, berak zerbait arapatzen zien. Senideak alkañimixmixka esaten zioten:

—*Biar goiko soroan ardiak euki bear ditunanela aitak esan diñ...*

—*Oa ik, nai badek...*

—*Nik ara joateko gogorik ez diñat...*

—*Zomoño oyek kolkoan sartu ditzala esan akiok...*

—*Sagasti ondoko arbi joña aurten berak egin beariko diñ...*

—*Orelako soiñu bearik lanerako ez diat nik.*

Auek, eta auen antzeko beste gauza batzuek entzun zizkien eiztariak, eta laster igafi ere bai.

Etxeko nagusiak, bere seme-alabak ikusi gabe, eiztariari keñu bat egin zion, eta orduan onek begiak idiki zituan, baita gero ikusi zuana gogoratu ere. Erle gauzetan asko zekian batek, zomoño oyek nolako onurak dakazkiten gizon oñi azaldu zion, onek eultz batzuek ekañi-ipiñi zituan, eta seme-alabak ori nai ez. Ori zan guztia.

Bere-bereala ez, baña zerbait geroago, nola edo ala, gure eiztaria erle gauzetan asi zan. Erlezalea zan oso, zomoño oyen izakera ta oiturak ederki zekizkian, eta oyek azaltzean, neska-mutil ayek jakin-min aundia artu zuten; eta goizeko argiak gabako iluntasuna ayenatzen duan bezela, Jaun ark esaten zuanak ere, arpegi muzin ayek alaitu zituan. Jañirik, ba, guztiak bere inguruan, erleak nolakoak diran eta nolako gauzak egiten dituzten, aoa zabalik eta aspertu gabe entzun zioten.

Senidetan zañena Maurizi zan, ogei'en bat urteko neskatx argia. Guztietan lenengoa zalako, senideak itzegiten beartu zuten, eta ala, lotsa kendu-ta, Jaun ari esan zion:

—**Maurizik.** -Jauna, ainbeste erle ¿alkafekin asafetu gabe nola bizitzen diran esango al digu, Jauna?

—**Eiztariak.** -Bai, neska; ¿zergatik ez? Begira: erleak talde aundietan egoten ditun, eta gauza guztiak beti era onez egiten dizkiten. -Talde bakoitzak bere ontzi edo bizitegi berezia din, eta oni **eultza** esaten zayon. -Auetako bakoitzak iru erle-mota ditun: **Eregiña, Langileak, Alpeñak.** -Talde guztiak ez ditun berdiñak izaten; aundiagoak edo txikiagaok, ontzia nolakoa diten: bañan ontzi egokia jartzen bazayen, **berogei mila** gutxienaz izaten ditun. -Eultz bakoitzean ez diten **Eregin** bat besterik izaten. **Alpeñak** gutxi, milaen bat gutxi-gorabera. Gañerako guztiak, berogei milataraño, **Langileak.**

—**Maurizik.** -Jauna, ¿Berogei mila bai? ¿Nola ainbeste, Jauna?

—**Eiztariak.** -Bai, bai, askoz geyago ere: berogei mila **gutxienaz** esan diñat-eta... Geitzen eta azeitzen afigariak ditun. Arautz asko egiten dizkiten, eta egun gutxietan erle egiten ditun. Ofegatikan zokoguztiak laster betetzen dizkiten, eta guztientzat tokirikan ez ditanelako, besteren batera joaten ditun. Joaten ditun oyek, len esan dizkiñagun **berogei milak** ditun; eta toki zafean beste ainbeste geratzen ditun. Ofá, ba; guztira **larogei** mila gutxienaz. Eta ontzia aundia izan ezkerro, geiago ta geiago.

—**Martxelinok.** -¡Ené! esan zuan Martxelinok, begiak itxi gabe entzuten zegoan amasei urteko mutil ernayak. ¿Ori nola izan diteke?

—**Eiztariak.**-¿Nola? Oso eñaz. Iru erle-motak ba-ditukela esan diaugu. **Eregiñak** añautzak egiten dizkik; besterikan ez. Umeak jayotzen ditukenean, **langileak**, beren iñudeak balitukek bezela, zaitzen eta bazkatzen dizkitek. Lan ori guztia egun gutxien bañu egiten ditek. ¿Zenbatean jakin nai al dek?

Añautza jayo ezkerro, erleak bere buruaren jabe egin bitarte, egun batzuek besterik bear ez dizkik, onela:

Eregin izan bear dikenak	18 egun.
Langileak	21 »
Alpeñak	24 »

—**Martxelinok.**-¿Ta ain gazteak dirala lan egin dezateke, launa?

—**Eiztariak.**-Bai; ez ditek aundiagoak egin bear-ta: bizia ere labur-laburtxoa ditek... *sei astekoa bakañik..*

—**Martxelinok.**-¿Sei astekoa bakañik? ¡Ené!

—**Eiztariak.**-Bai, bai. Udazkenean jayotzen ditukenak, udabeñia arte irauten ditek. Neguan geldirik egoten dituk-eta. **Eregiñak** lau edo bost urte ikusten dizkik; baña gañerakoak sei aste geyenean.

—**Martxelinok.**-Bañan ezin sinistu det nik ori. Ainbeste mila erlek ¿nondik irten bear dute, Jauna?

—**Eiztariak.**-¿Oñek añitzen al au? Ontzi bakoitzean bat bakañak añautzak jartzen dizkikela jakitean ¿zer esango ukek?

—**Martxelinok.**-¿Batek besterik ez? ¿Ta ainbeste erlekume, Jauna?

—**Eiztariak.**-Bai, bai; lan ori Eregiñak bakañak egiten dik... Añautz asko egiten dizkik ordea.

—**Martxelinok.**-Nai ta nai ez. Ainbeste erle beñi ateratzeko, egin bearko ditu. Guztiak ortan ari-tzen zirala uste nuan nik, Jauna.

—**Eiztariak.**-Ez, ez: Eregiñak bakañak egiten dizkik.

—**Martxelinok.**-¿Zenbat añautz egiten ditu, ba, egunean, Jauna?

—**Eiztariak.**-Jana ta eguraldia nolakoak dizkiken... Añautz-giro ere bear dik... Gelak zenbat dituken ere ikusi egin bear... Egun batzuetan geyago, besteetan gutxiago, zenbait egunetan alerik ere ez... Bañan egun eder batean iru edo lau miletaraño bai...

—**Martxelinok.**-¿Iru edo lau mila? ¡Alajaña! Eregin ori ezta makala izango... Añautz oyek Donostian salgai jañi-ta, txanpon batzuek aterako genituzke, Jauna...

—**Eiztariak.**-Asko dituk, bai; bañan ala dek.

—**Martxelinok.**-¿Asko? Bai noski. ¿Ta beste berogei milak? ¿zer egiten dute? ¿Ez al du berorék lenago esan **Alpeñak** gutxi, ta geyenak **Langileak** zirala, Jauna?

—**Eiztariak.**-Bai; ta alakoak dituk. Entzun; gauza polit bat ikasiko dek.—Erle bat Eregin jartzen ditekenean, añautzak egiten laster asitzen dek. Eultzetan gela txiki asko izaten dituk, erenkadetan,

argizaiz txit ondo egiñak, erle bakoitzarentzat berea. Eregiñak, ba, oyetako bakoitzean ařautz bana jartzen dik. Ořen lana ori dek...

—**Martxelinok.**-Jauna, ta ori ĩgutxi al da? Ez luke betarik izango ere beste lanetan aritzeko, ainbeste ařautz egun batean egin bear baditu... Jauna.

—**Eiztariak.**-Ez diat ori esan nai; besteen lanari begiratzen ziot. Ikusiko dek.

—**Eregiñak.**-jařitako ařautzak, **Langileak** zaitzen dizkitek. Mami gozo bat egiten ditek, eta ortarako loreetako auts bat, eztia ta ura ekaři, ta ondo ondo nasi egiten dizkitek. Ořela, erlekumeak jayo orduko, **Langileak** jana moldatzen zietek, eta ayek jan besterik ez ditek. Irugařen egunean jayotzen asitzen dituk, eta zortzigařenerako asko azitzen dituk. Gero beren aldaketak egun batzuetan egiten dizkitek, eta 18, 21 edo 24-gařen egunerako (ontaz len esandakoa gogoratu) izan bear diteken guztia egiten dituk.

—**Martxelinok.**-Erle beři auek ere ĩberen gelak bearko dituzte, ba, Jauna?

—**Eiztariak.**-Zer esanik etzegok. Bestela ĩnola egon bear ditek? Bakoitzak berea, lenago esan diat.

—**Martxelinok.**-Bai, bai, orain konturatzen naiz. Aldi batzuetan erotu-ta bezela ibiltzen dira, ots aundia ateratzen dutela, ta ori izango da alkařekin izaten duten naspila, guztientzat tokirik ez izan-da, Jauna.

—**Eiztariak.**-Ez, mutil. Ik esaten dekan ori beste gauza dek; gero azalduko diat.


Oraingo au onela dek. Talde bat asko geitzen dekenean, erdiak gutxi-gora-bera, zar-gazteak nastu-ta, joaten dituk, **Ereğiñak** laguntzen zietekela. Beste tokiren batean bizitegi beři bat egiten ditek, eta artan bereala lanean asitzen dituk.

Guztiak zoratu-ta bezela zeuden gauza aři abek entzuten; baňan etxekoandreari beste gauza bat gogoratu zitzayon; eta zutik jařirikan, Eiztari jaunari esan zion: Jauna, ume auek beren gogoko gauzen bat dutenean, ez diote beste ezeri begiratzen. Onezkero, berorék aoa bustitzeko beařa izango du noski. Pitin batean egon bedi...

Etxekoandrea zerbaiten bila joan zan; eta bitarte artan, gauzak zein baňo zein argiago esan nayeon řneska-mutil ayek esan zituztenak! Eiztariaren itzaldia etzan alpeřikakoa izan...



Gauzai onura aundia kentzeko, zuzenbidea.
Etxean sartzen dana ez galtzeko, zuzenbidea.
Guztiak elkarrekin ondo egateko, zuzenbidea.
Irabaziak eta prestutasuna iristeko, zuzenbidea.
Emengo ta geroko zorientasuna
izateko, zuzenbidea.



Etzuan berak ala uste...

Gaitzak etori arte, ariskua dagoanik ere gogoratu ez: gertatu ezkerro argitasuna etortzen da, ta gauzak obeto ikusten dira. Orduan damutzen zaigu ura egin izana, baña berandu izaten da, ta antolabiderik gabe geratzen gera. Jan-edan gauzetan, kalte eraz egingo digutenak nola nai artzen ditugu. Itxaso edo ibayetan ardurik gabe sartu ta ibiltzen gera. Zuaitz eta telatuetara edozer gauzagatikan igo, ta lufean bageunde bezela ibili ere bai. Eiztariak iskiñoa artu, eraman, utzi, erabili, zernai egiten dute, makil bat balitz bezela. Sua itzali gabe ere, zabarkeriz noiz nai utzitzen degu... Abek eta auen antzeko beste asko, gertatu ditekenari begiratu gabe egiten ditugu, ta okerikan izan ez degulako, nola nai ibiltzen gera. Gero, zoritxar' en bat gertatzen danean, esaten degu: ¡Nork esan bear zuan! Askotan egin izan degu, ta beñere okerik ez, eta orain, usterik gutxienean, ala gertatu. ¡Ori gauza!

Zintzoa ta langilea zan **Petratxo**; bañan oitura txar bat bazuan, eta onek ondatu ta eraman zuan

Bein batean esku-lanean ari zan, eta askotan oi bezela, bear etzituan ofatzak ao mutuñean jañi zituan, ezpañaz estutu-ta. Leyo ondoan argi obea izango zuala gogoratu-ta, antxe jañi zan, eta bere lanean itxu-itxuan ari zan. Leyoa zabal-zabalik idiki zuan, eta bere lanean poz-pozik zegoan, zentzu guztiak artan ipiñirik. Alako batean, txori batzuek burundara aundian leyo-tikan sartu ziran. ¿Nola ordea?

Zapelatzak txoriren bat añapatu nayeñan oni eraso ta bere atzetikan asitzen daneñan ¿txoritxoa nola jartzen dan ikusi al dezu? Erotu-ta bezela, itxu-itxuan noranai jotzen du, non sartzen dan e-do nora dijoan gogoratu gabe. Ark añapatu ezke-ro galdua dala ezagutzen du (Jaungoikoak sumo ori eman-da), ta beste añiskurik ikusten eztu. Etxeko atetik sartuko zaizu, zokoren bat al badu, bila-tuko du, ta sartzen bada, antxe geldituko da giza-joa elbañitu-ta bezela, dardaraz, zer egin eztatia-la, ta orduan añapatu nai bezu, sagar-ondoren azpitikan sagar-ale bat bezela txori ura artuko dezu.

Era ortan sartu ziran txori ayek **Petratxoren** añetik gelan, tximista baño biziago ta txiu-txau-ka beren ikara erakusten zutela. Neska bere lanean oso itxuturik zegoan, eta txori oyek erañortan bat batean bere añetik igarotzean izutu zan, as-nasak atzera jo zuan, eta neskak aoan zituan ofa-tzak añastaka bezela berekin batean eramán zitu-an. Batzuek eztañian gelditu zitzaizkan, eta izu-

gañizko oñazeak egiten zizkaten. ¡Neska aren la-
ritasun eta nekeak! Karaxi aundiak ateratzen zitu-
an, eta auzo osoa antxe bildu zan. Bañan iñork
ere ezin lagundu, ezertan ere. Beste batzuek be-
ñiz iretsi zituan, eta urdaileraño sartu zitzaizkan,
eta ori askoz txaragoa izan zan.

Sendatzailea bereala ekañi zuten, bañan ezer
ezin egin. Eztañikoa txar, ta urdailakoa askoz
txaragoa zan. Ikara nonbait aundia izan zan, eta
oratzak bañen-bañeneraño sartu zitzaizkan eztañi-
an. Artan asko sayatu zan Sendatzaile jauna, ba-
ñan alpeñikan; onurik ez. Besterako, aldameneko
eriko Sendatzailea ere ekañi erazi zuan; bañan or-
tan ere alpeñik. Gaur egunean gauz oyek eta zai-
lagoak ere egiten dira; bañan orduan oraindikan
asmatu gabeak ziran tresna oyek, eta jaun ayen
alegiñak ezertarako ez. Azkenean, etxekoai etsia
eman bear izan zieten, eta ala gertatu zan. Nes-
kari oiñazeak negar egin erazitzen zioten, eta ka-
raxiak bañuago sartzen zizkaten oratzak, eta ore-
la, miñaren-miñez il zan.

Oso ona zan neska, ta guztiak asko maite
zuten: oregatiñan naigabe aundia artu zuten, eta
ari gertatua gogoan josi-ta betiko gelditu zitzayen.
Il arte al zuten guztian lagundu zioten; eta il on-
doan aitatzen zutenean, aren oroipenaz eta ari
gertatua beñiz gertatu etzedin, oratzak ezpañe-
tan ez eukitzeko asmoa beñitzen zuten.

¡Amaika aldiz eukiko zituan **Petratxok** oñ-
tzak aoan, oñelako ariskua zanik gogoratu ere ga-

¡Oyek zomoro trebeak!

Gure etxekoandrea, ituriko ura bezin garbia ta aizea adiñako argia, bere alaba zañen Maurizikin joan zan, eta laster etori ere bai.

Batak gauza batzuek eta besteak gañerakoak, eluñ bezelako mai-zapi zuri-zuri bat mai gañean zabaldurikan, Maurizik Andre Marieta-ko egin-da zeduzkan piper-opilak aspiltxo batean, eta alkar joaz **kris-kris-kris** egiten zuten edontzi batzuek beste batean ekañ-ta, bonbila bat ardo-aundi erdian jañirikan, guztia mai gañean utzi zuten.

Etxekoandreak, piper-opilak Eiztari jaunari eskeñi zizkan. Senañak, bitartean, bonbilari zipotza ateratzeko tresna artu zuan, eta Maurizik, aitak lan ori egin-da, edontzi bat bete ta Eiztariari eman zion. Gero etxekoandreak, lenbizl senañari ta aren ondoan seme-alaba guztiai piper-opil puska bana, ta zufut bana ere, guztiai eman zien. Guztiak, edatean, **klink** egin zuten... ¡bapo!, ta erle gauzetan beñiz asi ziran.

Amak agindu-ta, Martxelinok Eiztari jaunari galdetu zion.

—**Martxelinok.**-Erleak toki befira joatea ¿maiz egiten al dute, Jauna?



—**Eiztariak.**-Maiz, ez. Baldin eguraldi onak lagundu-ta, afautz eta erlekumeak okeñik izaten ez baiditek; eultz inguruetan lore asko ta onak ba zeudek; guzti-guztia egoki etorzen badek... orduan taldeak asko geitzen dituk, eultz artan guztientzat tokirikan izaten ez dek, eta nai ta nai ez toki befira bilatu bear izaten ditek. Gañerakoan, bertan egoten dituk.

—**Martxelinok.**-Ori da gauza ¿e? Jauna.

—**Eiztariak.**-Bai, polita dek; bañan oraindikan ez diat guztia esan. Ontzi artan geyegi zeudekelako ezin egon ditukela ezagutzen ditekenean, andikan irteten dituk, gora jotzen ditek, inguruan zufunbi-ñoan ibiltzen dituk, eta azkenean, batzuek bat-ba-

tean norapait jotzen ditek. Orduan gañerako guztiak jaraitzen zietek, eta guztiak batera beste toki beñi bat artzek ditek.

—**Martxelinok.**—Lan txarria izango da, ba, ori. Ains beste lagun dirala ¿non sartu bear dute, Jauna?

—**Eiztariak.**—Eztek ona izaten, ez. Oregatikan kontuz ibiltzen dituk. Egun egoki bat aukeratzen ditek, geyenean udaberriko garbi-eder bat, eguerdi inguruan lan ori egiten ditek, amañetatik aratsaldeko iruak bitarte irten-da, otz-beroari ere asko begiratzen ziotekela. Oñela gaizki ibiltzeko arisku txikiago izaten ditek.—Gañera, bada-ezpadan, ezti pitin bat eramaten ditek, iru edo lau egunean jateko bearko liteken adiñakoa.

—**Maurizik.**—Baña, Jauna, gauza bat gogoratzen zait, esan zion orduan Maurizik. Berorrek lenago esan digu, eultz bakoitzak nai ta nai ez bere Eregiña bear duala; ta orain esaten digu irteten diran erleakin Eregiña ere joaten dala. ¿Gabe egon bearko dute, ba, eultz zañean geratzen diranak, Jauna?

—**Eiztariak.**—Ez, ez; ori ere gogoan izaten ditenean. Joateko asmoa artzen ditenean, irten bear diñen **Eregiñak**, egun banatan, Eregin umeak jayotzeko arautz batzuek, gela jakiñetan, jartzen dizkin. Oñela joan bear ditenenak joan orduko, edo zerbait geroago beintzat, bertan gelditzeko **Eregin** gaztea baditen: Auek emezortzi egunean egiten baiditun, ba...

—**Maurizik.**—Ondo dago, Jauna; eskañik asko.

Orain beste bat, Jauna. ¿Zenbat egun egiten ditu **Eregiñak** afautzak jartzen, Jauna?

—**Eiztariak.**-¿Egunak? Askotxo, neska, askotxo. Iru, lau edo bost urtean lan ortan aritzen den.

—**Maurizik.**-Baztar guztiak afautzaz beteko ditu, ba, Jauna. .

—**Eiztariak.**-Bai, besterikan ezpalegoken bai. Len esan dizkiñagun urte ufi, eguraldi txar, eta gañerako eragozpenak ¿aztu al zaizkin? Oyek erleai kalte aundiak egiten zizkieten, eta asko ondutzen ditun

—**Maurizik.**-Beraz ¿afautzak egin gabe askotan egongo da, Jauna?

—**Eiztariak.**-Jakiña zegon. Eta egin aŕen, askotan erlerik ez; afautzak ondatu egiten ditun-da. Egunero milaka egingo balizkiken, guztiok jango giñuzkenen.

—**Maurizik.**-¿Ta zergatik ez dute beste erleak afautzik egiten? ¡Aundia da gero..! Eme guztiak egiten zituztela uste nuan nik, Jauna...

—**Eiztariak.**-Ez, ba; **Eregiñak** bakaŕak; iñortxok ere geyago ez. Beren izakera ori den, Jaungoikoak jaŕia, ta ori izango den ere. Gauza oyek ez ditun beñere aldatzen.

—**Maurizik.**-¿Zer du, ba, **Eregiñak**, besteak ez bezelakoa izateko? ¿Jatoŕiz edo, al dator alakoa, Jauna?

—**Eiztariak.**-Ez, ortan besteak bezelakoa den. Beste gauza bat, bai, oso aŕigaŕia bazegon...

—**Maurizik.**-¿Zer, ba? Esan beza, esan; Jauna.

—**Eiztariak.**-Eultzetan gela txiki asko ditunela, ta oyetan guztietan **Eregiñak** afautz bana jartzen diñala esan diñagu. ¿Ez den ala?

—**Maurizik.**-Bai, Jauna. Gogoan ondo daukat, Jauna.

—**Eiztariak.**-Begira, ba. Bi edo iru ez, gañerako gela guztiak orelakoak ditun; baña bi edo iru oyek besteak bañon aundiagoak ditun. Erlekumeak jayotzen ditunenean, gela txikietan egon-ta ondo ezin azi izaten ditun. Tokirik ez izan ezkerro, bear adiña ezin luzatu ta zabaldu; ta gogor-bizkoak azitzen baditun ere, kaskar-azikaitzak izaten ditun, eta afautzik jartzen ez. Baña gela aundiago-takoak lasayago ta erosoago egoten ditun, eta gorputz aundiagoa egiten zayen.

Gañera, gela aundietako erlekumeai **Langileak** jaten obeto ematen zieten, eta gorputz edeñagoa egiten zayenela jakiña zegon. **Eregin-gelak** ditunela **Langileak** ezagutzen ditun, eta **Eregin** bikain bat izan dedin, oyen alde askoz geyago sayatzen ditun.

—**Maurizik.**-Eta eultz bakoitzean **Eregin** bat besterik bear ez bada ¿zertako bi, iru edo lau gela aundiak? **Eregin** geyegi jayoko dira..... Jauna.

—**Eiztariak.**-Orek ere bere zera badin. Afautz bakara jartzen baditen, ura ondatu ezkerro guztia galdu-ta geratzen zayen. Oregatikan, bada-ezpadan, bi edo iru geyago jartzen dizkiten. Gero, guztiak ondo jayotzen baditun, **Eregin** txiki oyetako zafenak, bere gelatikan lenengo aldiz irteten dena-

nean, aizpa gazteagoak beren kabietan iltzen dizkin, eta bera bakarra **Eregin** gelditzen den.

—**Maurizik.**-Eta **Eregiñak** ¿gauza oyek nola ikasten ditu? Ori egin bear duala ¿nork esaten dio, Jauna?

—**Eiztariak.**-Oi..... ¿Gezurretan ařapatuko naunela uste al den? Nik ere beste ainbeste galdetuko diñat. Ta lenago esan dizkiñagun gauz ařigariak ¿beste erleak nola jakiten dizkiten? Ořá, ba. ¿Zer esatea nai den? Jaungoikoak irakatsi-ta jakiten dizkiten.

Ezaguera diñagunoi, gauzak ezagutzeko buruko argitasuna ematen zigun, eta aukera ere bai; ořela, egiten dizkiñagun gauzen jabe izateko, zeatze edo saria geroko irabazten diñagula. Ezaguerik ez ditena ordea, bestelako argitasuna izaten ditena, bařendikan zetorkien griña edo indar bat, **sumo** deritzayona; eta onek agintzen zietenena, aukerik gabe egin bear izaten ditena, oyen jabe egiten ez ditunela.

Ori den, ba, erleak ere, beste abere, egazti, zomořo ta abar bezela egiten ditena. *Zer, nola, zergatik, zertarako...* ezertxo ere jakingo ez ditena; baña gauz oiek guztiak ořela egiten bařenak beartzen ditun, eta ala egiten dizkiten. Ori den Jaungoikoak oien bařenean jařitako **sumoa**. Ořegatikan, egiten ditena guztia beti berdin-berdin egiten ditena, eta ori ezten beñere aldatzen.

Gauz abek entzuten etxeko guztiak pozik zeuden; bañan ařatseko lanak egin gabe zeduzkaten, eta eroso etzeudenak ere baziran. Beyak eta

txeñiak batez ere, oruz eta maruz gose aundia erakusten zuten. Ofegatikan, etxeko nagusiak Eiztari jaunari esan zion: Jauna, barkatu bearko dit: guztiok zeruan bezela gaude beroñek esaten dizkigun gauzak entzuten; bañan bekoen otsak beroñek ere entzuten ditu, ta ezin dira ala egon. Gauz oyek egin bearko ditugu, ta gero oieratu. Biyar ere lan egin bear degu-ta...

—**Maurizik.**-¡Aitatxo..! esan zuan bereala Maurizik: ¿onela gelditu bear al degu, beste gauza batzuek ikasi gabe? Ez nuan uste nik zomofo oyek ornelako gauza polit eta arigariak egiten zituztenik... Jaun oni oraindik gauza batzuek galdetu bear nizkan, orain gogoratu zaizkidanak, Jauna...

—**Benitok.**-Nik ere banituan, ba, beste batzuek, esan zuan Benitok.

—**Prudentxik.**-Bai nik ere, ta oso politak, esan zuan Prudentxik.

—**Bitorik.**-Ezin izan diran batzuek arapatu dizkatela uste det nik, deadar egin zuan Bitorik.

—**Aitak.**-Ondo dago, esan zien Aitak. Baldin ornelako gogoia badezute, gauza bat egin genezake.

Ikusten detanez, Jaun au oso erlezalea da, ta erle gauzetan ezta bereala aspertuko. Gañera, gurgana zaletu dala ere dirudi, gu beraugana bezela. Biar aratsean gurekin geldituko balitz, gauz oiek guztiak eta beste batzuek ere esango lizkiguke; baña bere etxekoak lañi egongo lirake, zer edo zer gertatu ote zitzayon bildurak, eta galepeñak ere usteltzen asiko lirake: bero aundiak daude-ta.

Biyar afatsaldean, ba, zaldi goñiak gure Benito Jaun onen etxera arin eramango du, onek bere etxekoai guztia esango die, galepeñak eraman ere bai, ta ori egin ezkeru, iluntzerako beriz etxean egon liteke...

Eiztari jaunak, iri-pañe gozo batez, bayezkoa bezela eman zuan; eta guztiak, txaloka, Aitari zorionak eman zizkaten ori gogoratu zitzayolako, baita Jaun ari eskeñak ere, gelditzeko asmoa artu zualako.

Bereala Benitori begiratu zioten, aren arpegiak zer esaten ote zuan ikusteko; ta onek iri-pañez esan zuan: Eztu oregatik gure zaldi goñiak biyar afatsaldean otz aundirik izango...

Guztiak algara eder bat egin zuten, eta txikiak txalokak jo ere Benitoren asmoari egin zizkaten.

Guztiak zutitu ziran, **Zirt-zart** lan guztiak bereala egin, **Agur-saila** (Erosarioa) esan Eiztari jaunarekin, eta alkañi gau on bat opa ezkeru, guztiak oyeratu ziran.

¿Zenbat aldiz ikusi zituzten neska-mutil ayek gau artako ametsetan, erleak, eultzak, galepeñak, zaldi goñia, gañean Benito, Aitaren arpegi gozoa, Jaun arena alai-alai, ta batzañetxo artan ikasitako gauzak? ¡Gogotik artzen diran gauzak ez dira nola nai aztutzen!



Bañengo sumoak bakañik beartu-ta, erleak Jaungoikoaren naia ederki egiten dute.

Guk ezaguera ta sinismena izan aŕen, Berak agintzen diguna egiten ez degu.

Iltzen geranean ¿zer esango digu Jaungoikoak? ¿Eta geroko ondorenak?

Jakintsuen esanak

Eztabaida, zezio, auzi, asare guztietan, batzuek alde batera, besteak beriz bestera jartzzen dira. Aitatze utsa naikoa da, ori ala dala ezagutzeko. Alde batekoak, bera egia dutela esango dute, ta besteak oker daudela; ta auei galdetzen badiegu, guztiak atzekoz-aure esango digute; au da, ayek oker daudela, ta berak egia dutela. Au ezin dala izan edozeñek ezagutzen du: batzuek **eta** besteak, ez; batzuek **edo** besteak, bai. Ta gauz auek ¿nondik datoz?

Eztabaidetan iru gauza gertatu ditezke: **lenengo**, egia dutelako ustean itxutu ta egotea; **bigarrena**, oso ziur ez daudela ere, bein esan dutena, setaz aureia atera nai izatea; **irugarrena**, egia beren alde ez dagoala ezagutu aŕen, besteak menderatu nai izatea. **Lenengo** aldikoa gure buruaganako zalekeriak egiten du; **bigarrenen**koa, setak: **irugarrenen**koa, biotz txararak. ¿Naigabe ta kalte aundiak sortzen dirala? Batzuei ajolik ez: nai dutena atera ezkerro... Ona gertaldi oietako bat.

Auzi bat erabakitzeko, **Salomón** Ezege jakintsuagana bi emakume joan ziran. Alkafekin bizi ziran, eta biak aur bana zuten, adin berdiñakoak eta alkafen antzekoak. ¿Eta zer gertatu zan? Batak bere umetxoa gabaz azpian ustegabeen arapatu ta ito zuan, eta gero jaiki ta bizi-lagunari aua trukatu zion, au esnatu baño lenago. Gero au konturatu zan, eta ortikan zetozen zalaparta ta asafea. Biak aur bizia nai zuten, eta ori erabakitzeko **Salomón** jakintsua gana, argitasun bila joan ziran. Bere aufera sartu ziranean, aur biziaren egizko amak ala esan zion:

Jauna, emakume au ta biok etxe batean bizi giñan, eta biok egun gutxien bañu aur-egin genduan. Gurekin etzan beste inor ere bizi. Gau batean, aua ustegabeen azpian arapatu, ta ito zuan. Eta ¿zer egin zuala uste du? Gabaz poliki-poliki neregana etofi, neri nere semetxoa eraman, eta nere ondoan berea, gorputz, utzi, ni esnatu gabe. Goizean esnatu naizenean, nereea zala uste nuan; baña geroago, ondo argitu duanean, nere semea etzala ezagutu det.

—Ez den ala, esan zion beste emakumeak; gorputz zegonena irea den, eta bizirik zegonena, nereea.

—Gezua den ik, lengoak erantzun zion. Nere semea bizi den, eta ildakoa irea den.

Onela Ezegearen auean aritu ziran, alkari gogor egiñaz barkatu gabe. Orduan Ezegeak esan zien:

—Begira; biak egia dezutela diozute, ta ori ezin da. Gertatua iñork ikusi ez du, ta zuen iritziak berdiñezak dira. Erdizka egingo degu, ta kito.

Ori esan-da, ezpata bat eskatu zuan; eta ekañi ziotenean, mendekoai esan zien: *Aur bizia bi puska egin, eta biai bana emayezue.*

Egizko amak ori entzutean ezin eramán zuan. Bañen osoa samurtu zitzayon, eta Éregeari esan zion: Jauna; ez alakorik egin. Ori bizirik eman bezayo, ta ez il.

—Besteak beñiz ala esaten zion: ez dedila iñorena izan, ez irea, ez eta nereea ere, erdizka baizik.

Ortan Éregeak egia garbi ezagutu zuan, eta esan zuan: Ez aña il; onena da-ta. (Bi puska egitea nai etzuanarena). Aña oni emayozue.

Aña il zuanak, bizirik zegoana norena zan bazekian; bañan alaere, besteak eramán etzezan, berea ña zegoala, bi puska egitea nai zuan. ¡Odolzale alaena! ¡Biotz gogoña!

Ezin esango degu eztabaidetan beti ori gertatzen dala. Beste askotan biotz obekoak izango dira egia beren alde nai dutenak; bañan au beintzat onelakoa izan zan, eta goyan esan deguna garbi azaltzen du.

|||||

Biotz onak, iñorentzat gaitzik nai ez.

Biotz gogoñak, besteen ajolik ez.

Lenengoak, bañen bikaña: bigañenak, ari bat.



¿Erleak gaiztoak?

Ikusi dezagun

Erleaz azkeneko aldian itzegin genduanean, urango gabeen gauza politikak esateko gelditu giñan. Oregatikan, egun artakoa jakiteko gogo aundia izango dezula uste det, eta ni ere ori azaltzeko zaletu-ta nago. Au irakurtzean, basetxe artakoai gertatu zitzayena ber-bera zuri ere gertatuko zaizula uste det. Bañan ez dezagun astia galdu: asi gaitezen bereala.

Beste egunetan jaikitzeke, seme-alabak nagi ibiltzen baziran ere, goiz artan argitu baño lenago jaiki nayeen asi ziran, eta argitu orduko guztiak sukaldean zeuden, egindako ametsak alkari esaten. Udan goiz-goiz argitzen duala. ¿e?

Eiztari jauna goiz irten zan, eta gañerakoak ere bai, nor bere lanera. Afatsaldean Eiztari jauna garai onean etori zan. Benitok zaldi gofia gertu zedukan, eta tresna beñiaz apaindurik, galepe-ñak artu ta joan zan. Ofela ikustean, askok bidean zerbait galdetzen zioten, ezagunak batez ere; bañan iñori erantzun gabe auñera joaten zan, zaldia laureanka zeramala. Onek izerdi edeñak atera bear izan zituan, bai; baña Benito ilunabañerako etxean zegoan beñiz.



Bazkak eta gañerakoa garai-garaiz egin zuten, afal-auñean. Guztiak gela nagusian **Agur-saila** (Eñosarioa) esan ere bai, etxeakoak eta Eiztari jaun-
na alkañekin. Oni afari obetxoa eman zioten, eta utsun ori gazteai luzetxoa egin zitzayen; berak berena arin-arin garbitu baizuten, ba... Gañera, gauza beñi-politak jakiteko gogo aundiagoa zuten, afaltzeko baño. Jaun arengana joateko otsegin zietenean, guztiak batera ta lasterka joan ziran.

—*Gabon*, Jauna, esan zioten guztiak batera, mutilak txapela erantzi-ta. ¿*Ondo ibili al da, Jauna?* ¿*Ondo afaldu du, Jauna?* ¿*On degiola, Jauna.*—¿*Asko nekatu al da eizan, Jauna?* ¿*Erle gauza politak esango al dizkigu, Jauna?*

—Bai maiteak, erantzun zien: ni ondotxo nago, ta gauza polit asko esateko asmotan. Zuek aspertzen ez bazerate beintzat...

—¿Gu aspertu, Jauna? Eztago bildurik... erantzun zioten guztiak batera. Bart ametsetan eta gaur egun osoan beste gauzik eztegu buruan izan, Jauna.

Guztiak batera itzegin nai zuten; bañan amak begirapenez ibiltzeko esan zien, eta Prudentxi asi zedila agindu zien.

—**Prudentxik.**-Jauna, esan zion emezortzi urteko neskatx onek, erleak zomoño gaiztoak dirala aditu izan det nik, eta beroñek bart esan ziguna entzun ezkerro, egia dala ikusten det, Jauna. *Eregiñak* bere aizpatxoak oñela iltzea, abek ezertxo ere egin gabe, eztet nik ondo arapatzen, nai duten guztia esan dezatela. Ori odolzalea ta doiloña izatea da, Jauna.

—**Eiztariak**—Ez, neska. Nik atzo esandakoa, gauza txarra ez den: bear-bearra bai.

Alkartasun batean bi buru izan ezkerro, gauz onik ez. Batzuek bataren eta besteak bestearen alde egoten ditun, eta zuzmur, ezin-ikusi, goñoto, zoñoztasunak eta abar laster asitzen ditun. Gero leyak, burukak, bi sailetan jartzeak, nai ta naiez-

koak izaten ditun; eta ori ala izan ezkerro ¿nola pakean bizi? Pakerikan gabe ¿nola lana egin? Pakea izateko ¿zein **Eregiñak** etxetikan joan bear den, bestea Eregin geratzen denala? Ta joaten denanaren aldekoak, geratzen denana ¿maiteko al ditin? ¿Nola? Joandakoa bai ¿baña bestea? ¡Bai zera! ¿Ta pakea?

Prudentxik—Aizpak izan ezkerro ¿ez al zuten alkañekin pakean egon bear, launa?

Eiztariak—Ez, ez lituken egongo: beren legea alako den, eta guztiak, aukerik gabe, ori egiten ditin. Lege au ditin:

Eregiñik gabeko eultzik ez.

Eregin bat baño geyago ere ez.

Oregatikan, ustegabeen **Eregin** bat baño geyago azitzen baden, berak alkañekin buñuka egiten ditin, besteak il-ta bat bakaña gelditu arte. Bestela, Langileak, bat ez, beste guztiak iltzen dizkitin.

Prudentxik—Aundia da ori, Jauna. Emakumeak epelak gerala esaten dute. Obe da: ofela alkar iltzea ikaragaña da, Jauna.

Eiztariak—Bai, ala den; beña ere bai. Bi edo iru sailetan eultz berean jañi ezkerro, laster buñukan asiko ituzken, eta askoz geyago ilko ituzken. Bañan efaz ikaratzen aizela ikusten diñat, eta ora-indikan aundiagoak esan bear dizkiñagu.

Prudentxik—¿Aundiagoak oraindik, Jauna?

Eiztariak—Bai, nere iritziz beintzat. Eulzetako erle **Alpeñak** lan egiten ez ditin. **Langileak**, zartu

ezkero ere ez; miñez jartzen baditun, ez ta ere. ¿Zer uste den, ba, besteak egiten diteneda ori ikusten ditenedan? Etxetikan botatzen dizkiten. Esango baliten bezela: lanik ez egin ezkero ¿zer-tako dizkiñagu? ¡Alde ortikan!

—**Prudentxik**—¡Ené! ¡Ori biotz gogoía! ¿Zar ga-joak eta miñez daudenak ofela bota, Jauna?

—**Eiztariak**— Bai; baña gauza polit bat gertatzen den. Miñez edo zarzaroan gelditzen ditenedan, geyenedan berak joaten ditun; eta bakafikan berak ori egiten ez ditenedan, besteak egiten ditun. Orduan bakafik botatzen dizkiten.

—**Prudentxik**—Beraz ¿sumoak ori aginduko die, ta nai ta ez egin egin bear, Jauna?

—**Eiztariak**—Nonbait. ¡Eta berentzat lege zoíotza izan bear din: *Eregiña* bera arapatzen din-eta.

—**Prudentxik**—¿*Eregiña* ere bai, Jauna?

—**Eiztariak**—Bai, bai. *Eregiña* zartzen denanean, zimurtu ta agortu egiten den; eta arautz gutxi egiten dizkiñala *Langileak* ikusten ditenedan, etxetik bialdu ta beste *Eregin* bat artzen ditun.

Prudentxik.—Ez dute *Eregiña* asko maiteko, Jauna.

—**Eiztariak.**—¿Ezetz? Ez gutxi alare. Bera beti etxean egoten den, eta bear diñen guztia besteak ekartzen zioten. Ofía, ba... An-emen ibiliko ditun, soro-lafe-baratz-basoan, eguraldi on eta txafetan, lore bila ezti-gaya artzeko, gero esango diñagun bezela. Etxean ere lan guztiak, ezti, ezko, gelak, erlekumeentzat jana, guzti-guztia *Langileak* berak egiten dizkiten, eta *Eregiñak* ikutu ere ez. Itz

batean, etxekoandre-neskameak bezelakoak ditun. Eta ori ez egun batzuetan bakarrik. *Eregiñak* lau edo bost urte egiten dizkin; besteak beriz, geyenaz bost edo sei aste. ¿Zenbat eta zenbat talde, bost edo sei astekoak, ikusiko dizkin, ba, *Eregiñak*? Eta guztiak *Eregiñaren* lanak zearo egiten dizkiten. Orain esan zan, ba: ¿Maite ditene edo ez?

Gañera, bere aurrean beti begirapenez egoten ditun, arpegia beti bere aldera ipintzen ziotenela, bizkañaldeaz beñere jañi gabe.

—**Prudentzik.**-Oker nengoanni, beraz, Jauna. Berroñena aitortzen det. Ta orain barkatu beste gauza bat oraindik galdetzea. ¿*Eregiña* ez tala beñere etxetik irteten esan al du? ¿Nola da ori, Jauna?

—**Eiztariak.**-Bai, ala den-eta. *Eregin* egiten ditenean, ibiltaldi luzetxo bat egiten din, zenbait aldiz urutira joan-ta; gero bere eultzan sartzen den, eta ez den geyego beñere irteten, zartzaroan besteak botatzen ezpaditen beintzat.

—**Prudentzik.**-¿Oyek gauzak! Baña maitetasuna ezin aztu zait, Jauna.

¿Egia al da **Langileak** beren **Eregiña** ainbeste maite dutela? Nik ez nuan ala uste; bañan orain ikusten detanez zerbait badago, Jauna.

—**Eiztariak.**-Ez den, ba, oraindikan guztia ikusi. Erle gauzetan aritzen ditun gizon trebe-jakintsuak ikasi ditene gauzik arigarienetako bat (arigariena ez bada), orixe den: *Langileak* beren *Eregiñari* ziotene maitetasuna.

—**Prudentzik.**-¿Ainbesterañokoa al da, ba, Jauna?

—**Eiztariak**—¿Ote dan? Gaitzen batez *Eregiña* iltzea gerta liken. *Eregiña* galtzea ere bai, batez ere esandako ibiltaldia egin-da etxera zetorrenean, bere eultzan sartu bearean beste batean oker sartzen denala. Baña, nolana izan dedila, *Eregiñik* gabe geratzen baditun, ori sumatu bezin laster lan guztiak erabat utzitzen dizkiten, ilun-goibel jartzen ditun, eta beste *Eregin* bat laster ematen ezpazayen, etxetikan joaten ditun, edo lan egin gabe ezin egon ditunelako, iltzen ditun. *Langileak* beren *Eregiña* maite ditun edo ez, orain esan zan.

—¡Oyoooooooooi! ¡Oyek gauzak, e? ¡Naigabez il! (guztiak batera esan zuten), Jauna.

—**Eiztariak**—¿Naigabez iltzea baño, zer geyago eskatu liken? esan zion Eiztari jaunak Prudentxiri.

Begira. Jaungoikoak erleai lanerako gogo aundia eman zioten, eta oregatik lanik ez egitea ezin eraman ditun: alperkeriak nazka ematen zioten-ta. Baña lanean zintzo aritzen dena gogotik maite ditun, eta *Eregiña* oraindik geyago. Orain, ba; izanik *Eregiña* beren etxekoandrea, ta gañera, langileetan langileena, ura iltzean naigabe aundia artzea ¿aritzeko izango al den? Bařengo *sumoa* oientzat lege den; *sumo* ori Jaungoikoak ematen zieten; eta nai ta nai ez ona izan bear ditun.

Ez gero esan erleak gaiztoak ditunela. Bai batean eta bai bestean Jaungoikoak ematen zieten egiten ditun, eta ori beti ona izango den.

Benitok.—Jauna, ori guztia ala izango da, esan zuan Benitok, amalau bat urteko mutil traketsak;

baña guretzat beintzat bildurgariak dira. Lengo egunean auzoko Piliperi listor aundi batek ozka egin zion, eta masaila asko azi zitzayon, begia, ta guzti arapatzen ziola. Ezti gozoa ematen dutela... ari eman ziona etzan nonbait ain gozoa, Jauna...

Eiztariak.—Aizak, Benito; erleak eta listorak ¿berdiñak al dituk? Listorak erleak bañon askoz zofoztzagoak ditukela jakin bear dek, eta ni erleaz ari nauk.

Benitok.—Erleak ere naspil ederean ikusi izan ditut nik, Jauna; ta ayengana alderatu ezkerro... Jauna...

Eiztariak.—Eultz inguruan ariskurik etzegokela esango ez nitek nik. Ara alderatzen ditukenak asmo ona zeramatekenik usteko ez ditek erle gajoak ¿eta zer egin bear ditek? Zakur batzuek, edo zezenak, edo txerriak, edo katuak, edo beste edozer gisako abereak alkarekin bufukan ari ditukela, ¿beren artean sartuko al itzake i? Ez dek, ba, oregatikan esango oiek gaiztoak ditukela... Orá, ba; erleak ere, aldi onak bezela txarrik ere izaten dizkitek, eta orduan zer esanik etzegok.

Benitok.—Eta aldi txarrik ¿noiz izaten dituzte Jauna?

Eiztariak.—¿Noiz? Eregiñik gabe edozer gisa geratzen ditukenean; ori gabe ezin bizi ditukelako. Ego-aizea dekanean ere bai; oiek ondatzen dizkikelako. Ekaitza zetorekenean beste ainbeste; gauza oiek aldeauéz ezagutzen dizkitek-eta. Aldi oietan erotu-ta bezela egoten dituk, eta eztek ari-

tzeko. Gure artean ere, eroak egun politak izaten dizkitek; bañan izugarri txarak ere bai. Ori ¿zer dala ta? Ori erantzuteko ainbat etzakiat; bañan ala gertatzen dekala ezin ukatu. Erleak beste ainbeste egitea ¿aritzeko izango al dek? Gaiñerakotan ezer egiten ez ditek; eta batez ere eultzatikan urutitxo ibili bear baditek, betizu ta bildurtiak izaten dituk. Eroak ikusi uken atzo nere masailean bat, eta esku gañean beste bat, eta berak bezela ni ere lasa ta patxaran egon, ez ozkarik, ez eta ezertxo ere egin gabe.

Benitok.—Bai; bañan ori ala izan ta ere, ozka beti ozka; ta istiluak, artzen dituanentzat. Ori ezin ukatu da, Jauna.

Eiztariak.—Motel, ¿zer nai dek, ba? ¿lri mukiak kentzera ere erleak etortzea edo..? ¿Lo aola, zorriak kendu-ta, orazatzera? Indargabeak dituk; beren etsayai gogor egiteko, miztoa besterikan ez ditek; gure Jaungoikoak iskilo-tresna ori bakañik eman zietek. ¿Zertarako izango ditek, ba?

Benitok.—Egia da, Jauna, egia da. Nere burua-
rentzat izan bear nukena, erleentzat zorotza izan naiz; baña beroñena ezagutzen eta aitortzen det. ¡Oyek gauzak! ¡Ené!

Ortan zeudela, etxeko nagusiak Eiztari jaunari esan zion: Jauna erleak gauza arigariak egiten zituztela entzun izan genduan; bañan ainbesterañokoak ziranik ezta gogoratu ere, Jauna. Etzaizkigu nolana aztuko. Trebe-langileak zirala bai; asko dakitela ere bai; ekañi aundiak ematen

dituztela baita ere; ofegatikan artu genituan: bañan orain askoz geyago ikasi degu.

Seme-alabak nai etzutela ta, erletegia kentzeko bezela geunden; bañan orain ez genduke ezergatik ere kenduko. Kentzen ez utzitzen ere, berak gogoñenak izango lirakela uste det.

Eskeñak, ba, Jauna; bañen-bañendikan eskeñak egin digun on eder eta aundiagatik.

Eiztariak.—Ori ezer ezta, gizona. Erlezalea naiz oso, ta erle gauzetan pozik aritzen naiz. Asko esan dizuedala uste dezute, bañan oraindikan ez gutxi esan beaña badago; ta oiek entzunaz, geroago ta erlezaleagoak egingo zeratela ziur nago. Gazteen auek loak garaitzen ez baditu...

Bitorik.—¿Loak garaitu? ¡Bai zera! esan zuan Bitorik, amar edo amaika urteko neska bizi-liraiñak. Txerria il genduan egunean, odolki ta txistofak egiten ari ziranai laguntzen emen egon nintzan, iya gaberdi arte, lo egin bear nuanik ere gogoratu gabe, Jauna.

Benitok —Ni beñiz, esan zuan Benitok, onen-zaroko Meza arte besteakin trukean aritu nintzan, gero elizan ordu betean egon ere bai, eta oieratu orduko goizeko ordu biak baziran; baña logalerik ez, Jauna.

—**Amak.**-Añetaz entzun, ba, esan zien amak, eta Jaun onek esaten dituan guztiak gogoan artu ¿e?

—**Guztiak.**-Bai, bai, amatxo. ¡Au poza! ¡Ufa!

—**Batek.**-¡Gora amatxo!

—Guztiak. ¡¡Goráaaa!!

—Zaírenak.-¡¡Gora Eiztari jauna!!

—Guztiak. ¡¡Goràaaaa!!

|||||

Sumoak erleak ;beartzen ditu gauza éraz eta zailak, gozoak eta mikatzak, egiten.

Baírenak eta Jaungoikoak gu beste ainbeste.

Erleak bai batzuek eta bai besteak egiten dituzte.

Guk érazak pozik, baña zailak eta mikatzak ez degu egin nai izaten.



Egun txar bat

Gizonak griña txarai indara artzen utzitzen badie, auek etxekoandreak eta ura moñoia bezelakoak izaten dira. Griña oyek beti goseak egoten dira, ta berak nai duten guztia gizonak eman bear izaten die. Mendekotasun izugarria da ori, ta oñen bidez gizonak bere aukera galtzen du, berak eraso^{ta} zapaltzen ez baditu.

Zer edo zer entzuten bada, berentzat atsegintzua, besteak ez dira konturatuko, bañan oñelako griña duanak, bereala gogoan artzen du. Begien aurrean jartzen zayenak beren griñari poza ematen badio, aientzat gauza beara izango da, nai ta nai ez iritxi beara. Etsaya begiaz baliatu zan gure lenengo ama, **Eva**, gezurtaratzeko, ta beste askoi ere begiak ondamenerako bidea eman, eta ematen, diete.

Ez dira griña guztiak berdiñak. Oregatikan giz-emakumeak ikusten dira beren bizikeran oso berdiñezak; nor-berari bere griñak gogokoa dutena eskatzen diolako.

Pertxelek griña-burua sabelean zedukan, eta bere ondamenerako bidea begiak eman zioten. Iku-si nola.

Izugari tripontzi zan. Ematen zioten guztia bereala jaten zuan, eta askotan ematen etziotena ere bai, afapatu al bazuan. Ofelakoak gertatzen zitzaizkan ere.

Egun batean, elizkizuna luzetxoa zalako, Apaiz jaunak eliz-mutilai gosari on bat bere etxean eman zien. Lagun bati ogi puskatxo bat luñara erori zitzayon, eta ura artzeko makurtu zanean, aren katiñutik **Pertxelek** esne zurut bat artu nai izan zuan, ark ikusi gabe: bero-beroa zegoan ordea, ta mingaña ere egin zitzayon. Egun txarrik eramanean bear izan zituan, eta maiz paña egiten zioten lagunak; baña besterikan gabe gaitz ura joan zan, eta mutila pozik gelditu zan. ¿Ori egiña damutuko zitzayon? ¡Jajai..! Irakuñi, irakuñi.

Apaiz jaunak eliz-gelan zer edo zer bear zuala ta, aren bila bere etxera bialdu zuan. Apaizaren aña usategian zegoan, eta neskamea iturira joana. Mutila sukaldean sartu zan, eta leioan eretilu luze-zabal bat ikusi zuan, mami urdiñez betea. ¡Auxen da nerea! bere artean esan zuan; eta iñor etoñi baño lenago, ez det esango jan zuala, iretsi baizik.

Iñortxo ere konturatu etzedin, artu bear zuana artu-ta bereala elizara joan zan. Meza laguntzen asi zan, bañan ezin egon zan. ¿Nola egon bear zuan? Makur-makur egin da, urdaila ta esteak bi eskuaz estutzen asi zan... Gero negañez. Azkenean luña jo ere bai... Eliz-gelan sarturik, bere burua luñara bota zuan, iraulka ta kañaxika gelditu gabe.

Ořela asi zanean, batzuek esaten zuten: Umeen gauzak... gereziak, aranak, edo alako gauz'en bat jango zuan, gero ura edan, eta es-teetako miña. Joango zayo, bai. . Bañan oiñazeak bazirauten, zefiak edo zakufak bezela iraulka ze-bilen, izugarizko kařaxiak ateratzen zituan, eta eřukigaři jaři zan. Orduan bildurtu ziran, eta gal-dezka asi zitzaizkan: ¿Zer jan dek, motel? ¿Noiz ezkerro sumatu dituk oiñaze oiek? Miñik aundiena ¿non dek?

Ume ura ořela ezin euki zala, etxera eramán bearko zutela, edo Sendatzaife jauna ekaři bearko zutela esaten asi ziran. Orduan mutila izutu zan, eta egin zuana aitortzen ez bazuan askoz okeřa-go izango zala gogoraturik, Apaiz jaunaren etxe-an egin zuana garbi ta zearo aitortu zuan.

Bazkal ondorako mami gozoa izango zala guztiai gogoratu zitzayen, eta ořelako gauz onak kalte ori egitea ezin sinistu zuten. Ořegatikan, Apaiz jaunaren etxera emakume bat joan zan, eta aren ařebari zerbait galdetu zion. Usategian ze-goan oraindik au, eta sukaldean sartu zanean, eře-tilua utsik bereala ikusi zuan, eta deadar egin zuan: ¡Jauna, Jauna! ¡Mutil ori galdu da, mutil ori galdu da!

—¿Zer, ba? ¿Galdu dala? ¿Zergatik? Ala esan zion emakume ark.

—¿Zer? ¿Zer? ¿Oraindik galdetzen dirazu ori? Mami ura pozoi utsa zan-ta...

—¿Pozoya? Sukaldeko leyoan pozoya? Baz-

kal ondorako mami gozoren bat izango zala gutioi gogoratu zaigu...

—¡Bai, bai! ¡Mami gozoa! ¡Ené, bada!

—¿Zertarako zenduan, ba, pozoi ori?

—¿Zertarako bearko nuan? Sagu zital oiek usategia ondatzen digute: asko dira-ta. Gañera, oso aundiak. Neskatxa ta biok mami ori egin degu sagu oyek iltzeko, ta aratsa arte leyoan utzi degu; ta nonbait mutila etoñi da, ta jan egin du. Oiñaze aundiak dituala... ¿Izango ez ditu, ba? Pozoi bizi-bizia zan-da...

—Sendatzaile jauna ekañi zuten, onek zearo bilatu zuan, eta gauz asko galdetu ezkerro esan zuan: Aterako det, aterako det. Beranduago otsegin izan balirate, galdua izango zan; bañan oraindik beta badago. Edari sendo-sendo bat ekañi erazi zuan, berak zurutaka eman zion, gorakoak bereala etoñi zitzaizkan, eta inguru osoa txefitegi bat bezela utzi zuan gure **Pertxelek**, bañean ezertxo ere gelditzen etzala. Oiñazeak kendu zitzaizkanean atsedean ederean sartu zan, bereala lo-zumoa etoñi zitzayon, eta luzarotxoan ofela egon zan. Esnatu zanean, Sendatzaile jaunak salda on bat emateko agindu zuan, onen ondoan lozoñoan geratu zan, eta etzuan geyago bear izan. ¡Etzuan, gizajoak, beregandikan zama txikia bota! ¿Aztuko zitzayon? Eztet uste...

—Apaiz jaunak, lenago ere, kontu zoñotzak artu izan zizkan; eta ikusirikan orain aldi edeña mutilari bilduñ emateko, leun-leun asi, ta gero go-

ederki erakusten duana, ta gure lagun maite batek
egiña. Onátx.

Italiako Uri bateko bizilariak (*Gubbio'tar*)
istilu aundiak bolada batean ikusi zituzten, eta
guztiak oso ikaraturik egon ziran. Otso aundi-izu-
gañi bat basotikan jetxitzen zan, eta kalte ikaraga-
ñiak egiten zituan. Egazte-abereak ezezik, giz-
emakumeak ere ondatzen eta jaten zituan.



Asis'tar Prantzisko egun batean Uri artan sar-
tu zan, eta gertatzen zitzayena esan zioten. *Guru-
tze Santuaren* egin-da, otsoaren lezerontz berea-
la abiatu zan. Erabat ikaraturikan zeuden, eta

etzioten ara joaten utzi nai; bañan ikusirikan alaz guztiz ere bazijoala, lagun asko [arekin joan zan. Jaungoikoaren adiskide aundia zala, ta gauz ari-gaŕiak egiten zituala bazekiten, eta oregatik bildurik gabe jaŕaitu zioten; ez ordea gerturaño.

Leze ondora iritxi zanean, otsoa bere zokotikan irten zan, eta tximista bezela Prantziskogana abiatu zan, aoa zabalik eta begiak su-txinpartak ziruditela, eraso ta iretsi nayeana bezela. ¡Ayek otzikarak Prantziskorekin joan ziranenak! Onek beŕiz, ezer ezpalitz bezela, patxadan-patxadan, *Gurutze santuaren* egin-da, otsoari onela itzezin zion: *Ator, nere senide otsoa, ator. Iñori gaitzik ez egin, ez neri, ez eta nerekin datozenai ere. Jesukristoren izenean agintzen diat.*

Otsoa ziplo geratu zan, elbañiak joa bezela; ta gero poliki-poliki, makur-makur egin-da, Prantziskoren oiñetaraño etofi, ta antxe etzan-da gelditu zan.

Orduan Prantziskok esan zion: *Ik gaiztakeri aundiak egin dituk; abereak ezezik, kristauak ere ondatu dituk, eta ori ondo etzegok; iltzea merezi dek, eta guztiak goŕotoa ditek. Goseak beartu au, ezagutzen diat; bañan ez dek ondo egin. Zerbait bear dekala aitortzen diat, bañan eŕiak bazkatuko au, ta ik eztiok iñori ezer egin bear. ¿Ortan al ago? Ire itza bear diat.*

Otsoak, bayezkoa emateko, burua makurtu zuan, geldi-geldirik egonaz; eta an zeudenak, ikusten zutena ezin sinisturik, alkaŕi begiratzen

zioten, eta Jaungoikoari eskerak ematen. Ori ikustean, Prantziskok beriz esan zion:

—*¡Nere senide otsoa! Ire asmoa egizkoa dekala jakiteko, nik zerbait geyago bear diat. Ziñ-egin bear dek, neri eskua emanaz.*

Orduan Prantziskok eskua eman zion, eta otsoak, besoa goratuaz, beste ainbeste egin zuan, al zuan eran bere asmoa agertuaz.

Oraindik geyago egin zuan. Prantziskok bereala esan zion:

—*¡Senide otsoa! Jesukristoren izenean agintzen diat nerekin etortzeko, ezeren bildurikan gabe. Jaungoikoaren izenean itz eman bear dek, pake onetan bizi nai dekala adieraziz.*

Bildotx bat balitz bezela, Prantziskori jaraitu zion. Ori ikusten zutenak zoratu-ta bezela zeuden, alakorik beñere ikusi etzutelako, ta gertatu zitekenik ere gogoratu etzizayelako. Oregatikan, beñi ori Uri osoan bereala zabaldu zan, eta enparantzara lagun asko ta asko etofi ziran, otzikarak emandako dardarak bultz egin-ta bezela.

Enparantza oñela bete zanean, Prantziskok itzaldi gozo-gozo bat egin zien, gertatzen ziranak Jaungoikoak egiñak zirala esanaz; otsoaren asmoak onak zirala, bañan Uriak otsoa bazkatu bear zuala ere bai; gañera, Jaungoikoak gauz oiek etortzea baimentzen zuala, gu Beretzat esker txar-ekoak giñalako. Oyek eta beste gauza mamitsu ta osansugarñiak esan zizkien. Azkenean, esan zien otsoak itza eman ziola, ta andik auñera etzi-

rala len gertatzen ziranak gertatuko, berak otsoa bazkatzeko itza ematen bazuten.

Guztiak poz-pozik bayetz esan zioten. ¿Nola ez? Lenago izaten zituzten istilu ta ikarak gogoratu-ta, ori ta geyago egingo zuten. Eta alako gauza afigaŕiak ikusi-ta, askoz geyago. Jaungoikoaren indaŕez ori guztia gertatzen zala ikusten baizuten, ba. Orduan Prantziskok otsoari esan zion:

—*Senide otsoa! Lenago basoan bezela, orain emen, guztien aŕean, itza ematea naidiat, ziur-ziur jakiteko, bai nik eta bai Uri ontako guztiak, iñori ezer egiteko asmorik ote dekanedo ez. Nik ire izenean ala esan diak, eta ez nitek gezurti itxura ere izan nai.*

Otsoak anka goratu zuan, eta Prantziskok eldu egin zion, ark al zuan eran bere asmoa erakusten zuala. Ta guztiak, pozak zorutzen bezela, Jaungoikoari eskeŕak eman zizkaten, eta Prantziskori ere bai.

Otsoa oraindik bi urtean bizituzan, eta etzion iñori ezertxo ere egiten. Uri artakoak ere beren itzen jabe ezin ziran, eta otsoak etxe guztietan arkitzen zuan bai bazka, ta bai maitetasuna. Egunean - egunean etortzen zan; zakurak etzioten saunka egiten; umeak berarekin jostatzen ibiltzen ziran; etxe guztietan bere lezean bezela sartzen zan, eta guztietan jaten ematen zioten; arengana asko zaletu ziran, eta maitetasun aundia artu zioten. Azkenean, gizarajoa zaŕeriz il zan, eta guztiak naigabe aundia artu zuten.

Erleak aberastutzen gaituzte

Saldu-erosian aritzen diranak, etxeak edo luñak maistaraí utzitzen dizkietenak, abere edo egazteak ipiñi nai dituztenak, lantegiren bat egin edo beste edozer gisa bere ondasunaz laneginnai dutenak, aldeañez eta ondo, gauzak zero-zero zenbatu-ta, artzen dana ta utzitzen dana ikusi bear izaten dute, irabazi beañean galtzea gertatu ez dedin.

Eiztari jaunak, erleak alde ortatikan ere kaltegañiak ez dirala adierazteko, gauza batzuek baseñi artakoai esan nai zizkien; eta etxeko guztiak beren begiak aren ezpañetan zeduzkatela ikusi-ta, onela usi zan.

Abere, egazte, zomoño, izaki alerik ere ez dago, erleen aldean gutxiago eskatzen ta auek adiña ematen duanik. Zer-zerbait esango dizuet, eta bereala ikusiko dezute.

Gutxi edo geyago, guztiak zerbait ematen digute. Batzuek besteak baño geyago, egia da; baña guztiak zerbait. Bañan eskatu ere, neñi berdiñean ez izan añen, zer edo zer guztiak eskatzen dute. Gauzak, diran bezela esan bear aira.

Danik emañena bada ere oietakoren bat, erleen aldean urí ta zekena izango da. ¿Zerga-

tik: Abek ezer eskatu ez, eta beste guztiak baño geyago ematen dutelako.

Erleak ¿zer eskatzen digute? Ezertxo ere ez. Bear duten guztia berak bilatzen dute; egin bear duten guztirako berak moldatzen dira. Jana ta guztia berak biltzen dute, ta ñori lanik eman gabe, ñori kalterik egin gabe, baso-zelayetan, soro lañetan dabiltzala, uzta-aziendak ikutu gabe. Zaitu beañik ez dute, lagundu beañik ere ez; beren gorra-berak ederki ta ñork baño obeto dakizkitema. Beren lan guztiak garai eta era onean egiten dituzte, ñori ezertxo ere eskatu gabe. Okuilurik bear ez dute, azpiak aldatzen ibili beañik ere ez, usai txañik gutxiago, sendatzaile ta sendagairik gogoratu ere ez. Ez jaio-beñitan, ez eta geroago ere, beñere lanik ematen ez. Bero aundietan bezela, orma-jeletan eta izotzetan, bear duten babesa bilatu ta arkitzen dute... Itz batean, oiek jartzeko ta zaitzeko txanponik ere bear ez.

¿Ta eman? ¡Ikusi bear da! Erleen emantzak gutxik dakizkitemo. Nik zer-zerbait badakit, eta zuek ere pitintxo au jakin ezazuten, dakitena nolerebait azalduko dizuet.

Guztiak dakiten bat, jakiñen-jakiñena, ezta da. Oregatikan len-lenbizi oni begiratuko diogu.

ERLEAK, BA, EZTIA EGITEN DUTE

Prudentxik—¿Oi? ¿Erleak ezta egin? Oyek

eztia bilatzeko usmo aundia izaten zutela, ta eztia izaten dan tokia iñork bañon obeto ikasten zutela uste nuan nik. Baña ¿berak eztia egin?

Eiztariak—Oná emen bat, ori etzekiana. Bai, Prudentxi, bai; berak egiten dituen.

Prudentxik—¿Zomoño txiki-itxusi oiek eztia egin? ¿Ain gozoa? ¿Nola egiten dute, ba, Jauna? ¡Alajaña!

Eiztariak—¿Nola? **Langileak** (iru motakoak ditunela, **Eregiña**, **Langileak** eta **Alpeñak**, ez aztu) etxetik irteten ditun eta loreetara joaten ditun. Aien bañenean sartu-ta, an zegonen auts, mami, ezti-gaia artu ta iresten dituen. Lepo-azpian urdaila bezelako zoñotxo bat badituen, eta ezti-gai oiek artan sartzen dizkiten. Azkenean, eultzan bera-
rizko zulo batzuek izaten dizkiten, eta ayetan eztia utzitzen dituen.—Gañera, ezti-gai oiek añapatzeko, aoan ezten zoñotz bat badituen, lore bañenean sartzeko egokia; ta gero, zoñotxo ortan eztia egin ezkerro, zulo oietan sartzeko aotikan ateratzen dituen.

Prudentxik—Ta eztia ¿zertako izaten dute, Jauna?

Eiztariak—¿Eztia? Berak jateko, ta umeai emateko.

Neguan ez den lorerik izaten, eta eguraldiak ere, zenbait aldiz izugarri txarrik izaten ditun, erleak etxetik ezin irten ditunela. Orduan lanik egiten ez ditunelako, gutxi jan-da egoten ditun; bañan ezer jan gabe ezin egon, eta zerbait jan bear izaten dituen, ilko ez baditun, eta ezti zerbait jaten

diten.—Umeak ere zer edo zer bear izaten ditent; eta lenago esan diñagun bezela, ezti, lore-auts eta uraz egindako mami bat, jaio ta bereala ematen zieten.

Prudentxik—Loreak nolakoak diran, eta nolako ezti-gaya duten jakitea ere... ¿Ez dira, ba, lore guztiak berdiñak izango, Jauna?

Eiztariak—Ez; berdiñak ez ditun. Berak ederki ezagutzen dizkiten ordea. Baita ori bañon afiga-fiago dan beste gauza bat ere egiten ditun.

Erleak ezti-gai bila irteten ditunenean, ez ditun joan-aldi batean lore mota askotan ibiliko, batean baizik; edo zuriak, edo gofiak, edo oriak, eta abar. Ta ori ¿zergatik? Gaiak berdiñak izaten ez ditunelako, ta nastu ez ditezen. Aldi batean, ba, lore zurietan ibiliko ditun, baña zurietan bakarik: ufen-goan gorietan, baña gorietan bakarik; eta abar.

Prudentxik—Ta guk ezta ¿zertarako izaten degu, Jauna?

Eiztariak—¿Zertarako? Gauz askotako. Sendagai batzuek egiteko asko bear izaten den. Gañera, eztañiko miña kentzeko oso egokia denala zioten, eta iñork agindu gabe ortarako artzen diaugu. Eztañia leuntzeko ere bai: batzuetan latz eta gafatza egoten den-eta. Sukaldean aritzen ditunenak ere, otordu bikañak eta batez ere mai-azkenak egiteko askotan artzen ditun. Eñietako jai aundietan, era askotako opil gozoak egiteko ere bai. Onenzaro gabean eta Egueñi egunetan beste ainbeste: egun oiek aundiak bai dira, ba; ta etxe guztietan zer

edo zer egiten da. Umeak aratsaldean ogi legor
utsa ez jateko, ogi-zeña igurtzi besterik egiten
ez bada ere, ta beste gauz askotarako ere bai.

Prudentxik—Ta lenago esan duan berarizko zulo
oiek, ezta oietan utzitzekoak, ¿lurēan edo non
egiten dituzte, Jauna?

Eiztariak—¿Zuloak non? Aberasketan.

Prudentxik—¿Aberasketan? Eta ori ¿zer da, Jauna?

Eiztariak—¿Aberaskak zer ditun ez al dakin? ¿Non
bizi aiz, ba? Aberaskak argizaizko zeña batzuek
ditun. Bi aldeetan erle-gela asko dizkiten; eta ba-
tzuek berariz utsik utzirikan, eztaiz betetzen diz-
kiten.

Prudentxik—Beraz ¿eultz beñietan aberaska be-
ñiak jañi bearko zaizkiete, Jauna?

Eiztariak—¿Jañi? Ez neska, ez: erleak berak egi-
ten dizkiten.

Prudentxik—¿Berak egin? Ta argizaia ¿nondik ar-
tzen dute, ba, Jauna?

Eiztariak—¿Argizaia nondik artu? ¡Au neska!
¿Non bizi aiz? ¿Ori ere ez al dakin? ¿Erleak berak
egiten ditunela ez al dakin, ba? Entzun.

ERLEAK ARGIZAIA EGITEN DUTE.

Eiztariak—Begira. Atzeko aldean zulotxo ba-
tzuek badizkiten, eta oietatik argizai-ari zabaltxo
bat botatzen dituen. Irten beñitan zuria, baña gero
oria izaten den. Orá argizaia. Gero aoan artu,
ondo oratu, ta taloa bezelako zeña batzuek egiten
dizkiten. Oietan zulo asko ere badizkiten, lenago

esan diñagun bezela, ta orá ogi bat. Erle gauzetan aritzen ditunenak ala esaten zioten.

Prudentxik—¿Ta ori ere loreetatik ateratzen al dute, Jauna?

Eiztariak—Bai, ta ez. Argizaia, jan gozoaren araberakoa izaten den. Gauza gozoak jan-da, argizai asko egiten dituen; bañan oréelako gutxi jan ezker, argizaian ufi ibiliko ditun. Orégatik loreetatik nolako gaiak ateratzen eta nolako gauzak jaten dizkiten ikusi egin bear. Eta ontan ere gauza polit bat gertatzen den. Erleak argizai asko egitea eultz-jabeak nai diteneanean, ur gozatua ontzi zabal batzuetan eultz inguruan ipintzen zieten.

Prudentxik—Eta berentzat ¿jan gozoak gogokoak al dira, Jauna?

Eiztariak—Izugari gozo-zaleak ditun. Erle gauzak ikasten aritzen ditunenak, ontan nolakoak ditun ezagutu naiean oná nola moldatu dituken.

Gozagarikoskor bat toki agirian ipiñiizan zieten, zer egiten ote dituen jakiteko. Ta ¿zer gertatu den? Erleak bereala etofi, ta jaten asi. ¡Jakiña! Bañan ikusirikan, asko sayatu aŕen apuŕik ere ezin kendu ziotenela, gogoŕa zenelako, ituŕi, istil, osin, edo oien antzeko tokiren batera joan, anakak busti, gozagari koskor aren gañean gelditu ta egon, eta ezetasun orŕen bidez gozagaria beratzen denanean, puskatxo bat kendu ta eraman egiten zieten.

Beste gauza bat ere, ori bezin aŕigaria, ikusi izan zieten. Lagun askoentzat lan-tokirik ez baze-

gon, gozagari puska txikia unelako, ¿zer egin zitenela uste den? Erle asko erenkada luzean egon, txandaren zai, ta lenbizi etorritakoak lan ori egin eta andikan joan arte, besteak zintzo-zintzo ta geldirikan antxe egon itunela ikusi ziten.

Prudentxik.—¿Bai gauza arigariak! Bañan orainxe beste gauza bat gogoratzen zait, Jauna. Eultzetan ainbeste erle izan ezkerro, argizaia eukitze-ko tokirik ere eztute izango, Jauna...

Eiztariak.—¿Tokirik ez? Argizaiak, tokia kendu bearean, eman egiten zieten-da.

Prudentxik.—¿Alakoak esan ere! Berori txulioan ari da, ni bene-benetan ordea, Jauna...

Eiztariak.—¿Txulioan? Egi-egitan ari naun, neska. Ikusiko den.

Aberaskak argizaizkoak ditun. Ol txiki batzuen antzekoak, edo ogi-zerak bezelakoak. Alkaren ondoan tente-tente jartzen dizkiten, bi aberaskaen artean, erenkadetan, berak ibiltzeko toki txiki bat besterik utzitzen ez ditunela. Aberaska oiek, buztina bezelako biska batez, mutur batetik bakarrik ormetan lotutzen dizkiten, bi aldeetako arpegiak agirian geratzen ditunela, ta erleak jaiotzeko gelak, baita ezta eukitzekoak ere, aberaska oyetan egiten dizkiten.—Gañera, aberaskak gelak bi aldeetara zeuzkaten, erleak eta gelak erosoago egoteko, ta ayek erazago ibiltzeko ere.

Au ondo ulertzeko, len esan diñaguna ez aztu. Da au. Mutur batetik bakarrik biskaz ormetan erantsi-ta egoten ditunela esan diñagu: beragati-

kan, bi aldeak agirian gelditzen ditun, eta bi aldeetan zulotxoak eta gelak egiten dizkiten. Gañera, aberaskaen artean berak ibiltzeko bidetxo bat utzitzen diton, eta ori guztia érenkadetan ipiñi ezkeron, bai aberaskak eta bai bideak, bestela ezin egingo lituzkenak egiten dizkiten. Baita ere: iñork usteko ez liken tokian, lanerako ugaria izaten diton eta txit eroso bizitzen ditun, alkañi nekerik eman gabe. ¿Zer esango den orain?

Prudentxik.— Barkatu, Jauna; bañan aberaska oiek nola egoten diran ezin bururatu zait, Jauna.

Eiztariak.—¿Zer esango diñat nik, ba, ori ulertzeko? Egon, egon.

(Bi ukondoak mai-gañean, eta burua bi eskuen artean ipiñirik, gizon ura era ortan astirotxoan egon zan, gañerako guztiak itz bat ere aterra gabe. Bat-batean txalo bat egin zuan, eta nes-kari pozez esan zion:)

Oraintxe gogoratu zaidan. Kurpilak gurdia-ri ¿traba egiten al zioten? Ez; astunak izan añen, asko laguntzen zioten. ¿Ez al den ala?—Egalak egazteai ¿nekerik ematen al zieten? Ezta ere. Oyek gabe egan ezin ibiliko ituken. ¿Ez al den au aitortuko?—Geyago oraindikan, eta argiago. Etxeetan txefia iltzen diteneanean ¿txefikiak non utzitzen dizkiten? ¿Lufean ala? ¿Edo mai-gañean? Kutxan sartu-ta? ¿Non edo nola? ¿Batzuek bes-teen gañean, ondatzen eta usteltzen ditunela? Odolkiak, txistofak, lukainkak, birrikak eta abar, sayets-ezur, urdai-azpiko puskek eta gañerako

txeñikiak, ik gero ain pozik jaten ditunenak, era txañean euki-ta ¿nola iraungo lituken?

Sukal-goyera begira zan, eta antxe aga batzuek ikusiko ditun; iru, lau, sei, zortzi... ¿Zertarako jañi dizkiten an? Agak ez ditun ortarako. Gaztain-ondoak ustutzeko, bai; baña gero ganbaran, okuiluan, edo beste baztar'en batean ufengo urtea arte egoten ditun. Sukaldean traba besterik egingo ez ditun... Tokia kendu... ¿ez al den ala? Ori bera esan zan toki artan bertan egoten ditun olaz... ¿Zertako olak an? Itxura txaña dute...

Txulioan ari naunela esango den... Bañan orain egitan esango diñat. Odolkiak, txistoñak, lukainkak eta abar, ¿aga oiek gabe nola egongo ituzken? ¿Nola iraungo ituken usteldu gabe? Zakuñak, katuak (eta sukaldea bean egon ezkerotxeñiak ere bai) ¿zer egingo litenean? ¿Txeñikiak zaitu? ¡Sudur onak dizkiten!

¿Eta udabeñiko gazta samurtxo ayek? ¡Olai eskeñak! Gañerakoan, zakur eta katuen urdailean laster sartuko ituzken: oletan beñiz ezeren eta iñoren bilduñik gabe ederki egoten ditun. Oiek gabe berarizko tokiren bat bearko unen, giltzapean, eta beti añiskuan. ¿Zer esango den orain, tokia kendu edo eman egiten ditun?

Oñá, ba, aberaskaen lana. Aberaskak ori bera egiten ditun. Oyek gabe, ¿erleak beren umeak non jañiko ituzken? Ta ezta ¿non eukiko itunen? Aberaskak tokia kendu, edo eman, egiten al ditun? Esan zan, esan zan orain.

Prudentxik — Jauna, eskeñak eñuz ematen dizkat ainbeste gauza irakasten dizkiralako. Buruan ezin sartu zitzatan, gauza batek tokia kendu beañean eman egiten duala; bañan orain ederki ulertzen det. ¡Aga oiei eskeñak! Gañerakoan ¿nola ibili be- arko genduke? Bi txerñi aundi iltzen ditugu urteoro, ta apaingarñi edeñak jañi bear izaten ditugu sukalk-goyan. Gutxienaz-gutxienaz ogei bat odolki bai, ta oiek bereala jaten diralako gutxi izaten dira. Baña ¿txistoroñak, eta lukainkak, eta birrikak? Berogeñi lukainka, ta beste ainbeste txistor bai beintzat. Birrikak gutxiago izaten dira. Bañan oiek eta gañerako txerñikiak ¿non jañiko genituzke aga oiek ez izan ezkerok? ¿Ta udabeñian aitatxok eta Benitoñok ekartzen dituzten gazta beñiak? Oi aundi oiek bete-ta egoten dira...

Erleak egiten dutena oraintxe ezagutzen det; oñela ez azaldu ezkerok ez nintzan konturatuko. Ezta... Beroroñek buru ona du berdiñ-antzak asma- tzeko... Oñela begien aũean jañi-ta bezela ikus- tendira gauzak. Eskeñak, ba, beñiz eta beñiz.

Eiztariak—Ez, eñaz ez den; bañan orain badakiz- kin. ¿Geyago ikasi nai al den? Entzun, ba.

Biska itsaskor ori berak egiten ditene, osto ta lore-goñingo batzuetatik gaia atera-ta. Eultz or- metan itsasi-ta, bañengo aldetikan eukitzen ditene; eta bear diteneñean, andik artu besterik ez ditene.

Ta gelditu ¿nola? Gauzak alkañi erantsitzeko indar aundikoa den, eta loturñkan bezela geratzen ditun. Ez aizeak, ez bustiak, ez eta beste ezerk

ere biska ori askatzen ez din, eta zifitu, tarte, itute edo zulo'ren bat eultzan egiten bazayen, biska pitin bat jañi, ta ederki itxirik gelditzen zayoten.

Beste gauza ariñari bat ere gertatzen den eultzetan, eta da bañenean bero-bero egotea. ¿Nola ori? Alde guztietatik biska oñen bidez itxiak erabat egoten ditun, eta bañenean epeltasun edeña. Oregatikan, neguko egun latz eta gañatzetan, jela-izotz biziak izaten ditun ikaragañizko egun aye-tan, eultz bañenean *amabost maña* baño geyago-ko beroa (15.º) beti izaten ditun. = Gañera, gai ori ustel-eza den, eta eultza-bañena igurtzi ezkerro, beti garbi, sendo ta usteldu gabe egoten den.

Prudentxik—¿Oyek zomoñoak, e? Ta nork esango luke gauz oiek guztiak erleak berak egiñak dirala? ¿Bikañak bai dira, ba..!

Argizaia beintzat jezta nolanaiko gauza! Elizan edozer gauza egin bear danean, argiak bear izaten dira. Elizkizunetan asko piztutzen dituzte. Jaun-aundia agirian jartzeko zer esanik ez dago. Mezarako, Jaun-aundia emateko, Elizakoak eramateko ta abar, bear-beaña. Ta beti argizaia.

¿Ta etxeetan? **Kandelera** egunean bedeinkatzeko elizara eramatea, jetzaio gure amari berea-la aztuko, ez..! Gero, ekaitza badatoñela igañitzen duanean, bai zurunbilo sendoa sortzen dalako, edo enbata, tximista, trumoi-otsa, aize sendoa ta euri-jasak asitzen diralako, edo izugañizko odei beltzak guztia ilun jartzen dutelako, edo beste edozer gisa, añiskuren bat sumatzen duanean,

Kandelera egunean bedeinkatutako bat irazeki, ta **Agur-saila** (Erosarioa) esan eratzitzen digu, guztiak belaunikaturikan.

¿Ta aita edo anayak orduan etxean ez badaude? Zenbait aldiz ala gertatzen da, ta uruti gañera, ardietara edo egurketara joanak, edo bestela... Antxe ikusiko luke gure amatxo, argia piztuta, nolako otoitzak egiten dizkan gure Jaungoikoari. ¡Entzutekoak dira egiaz! Gure artean okefik gabe ikusi arte eztu lasatasunik izango. Ta ofen ondoan, argia kutxan sartu ta bertan eukiko du, ufengo aldiren batean beartu arte.

Beste aldi askotan ere bai. Etxea bedeinkatu bear bada (ori ere urteoro ta egun jakiñean gutxi-gora-bera) argi ura piztu bear da. Etxera edo auzora Elizakoak ekañi bear badituzte, Jaun-Aundiari laguntzeko ere bai. Bat edo bat auzoan iltzen bada, beste ainbeste; iletak elizan egitean, berdin; eliz-inguruetan orobat; Aste Santuan zer esanik ez dago. Itz batean, kristauen oituretan, argizairik gabe utsun aundiak izango genituzke.

¿Utsuna esan det? Geyago ere, utsunak baño: obena ere bai batzuetan. Ama Elizak bere gauz askotarako argizaia oso zoñotz agindua dauka-ta, Jauna.

Eiztariak—Neska, eztigun erleen alde itzaldi txarfa egin... Zaletu aiz ¿e? Entzun azkenekoa. Besteak aundiak izan baditun, au ez den txikiagoa izango: ta oso polita, gañera.

Goiko Amerika'n (*Estados Unidos'etan*) sa-

gasti-jabeak eta baratz-dunak eultz-jabeai ordain edeña ematen zioten, garai jakiñetan beren eultzak ayen baratz eta sagastietara eramaten baidizkiten.

Prudentxik—¿Ori ere bai? Besteren batek esan izan balu, ez nuan sinistuko: baña berofek alako gauzak esan dizkigu, ta alako gizon prestua da, sinistu bearko degu. Kalte egiten duanari ordain ona ematea... ¡Ez degu oraindik alakorik entzun... Jauna?

Eiztariak—¿Kaltea? ¡Bai zera! Erleak toki oietan ibili-ta, zuaitzak askoz geyago ematen ditenda.


Prudentxik—¿Oi? Ta ori ¿nola da, Jauna?

Eiztariak—¿Nola? Loreak mimikoan pikor-azia izaten ditena, eta azi ori auts bat izaten den. Autso ori ondo zabaltzen baden, pikor asko sortzen ditun, eta zuaitz-jabeak uzta ugari-edena biltzen din; baña gutxi zabaltzen baden, pikorik izango ez den, edo gutxi sortuko ditun, eta orduan uztarikan ez.

Orain, ba; negu-azken aldera, edo udabeñian, erleak ezti-gai bila ibiltzen ditunenean, lore mimikoetan sartzen ditun, eta loreak zanbuluka bezela ibiltzen ditun. Ofela autsa zabaltzen den, eta pikor edo ale asko sortzen ditun; eta ala ibiliko ez balitukena, autsa sakabanatu gabe geratuko unen eta zuaitzak onurik emango ez liken.

Prudentxik—Jauna, orain ederki ulertzen det. Baña ¿zenbat daki berofek? Ta ¿zenbat gauza daude, ta ain politak, guk ez dakizkigunak, Jauna?

Èiztariak—Oía, ba. Gauz abek etzekizkiñenak, ergelkeri ta kaikukeri aundiak esango dizkiten; ik ordea, ez. Emendik auñera gauz asko jakingo dizkin; besteai irakasteko gogoa izango den; erleak maiteko ditun, eta besteak maiterazi ere bai; eta iñork ire aúfean auek edo beren joan-etofiak goiberatzen badizkiten, ez-jakin aro oiei gogor egiteko zer edo zer jakingo den.



Beñitxuak indaía aolan: onurik ez. Langileak buru, esku, oiñetan indaía: beti irabazten.

Egia ezagutu arte, lenengoak goratzen ditugu: ezagutu ezkeru, bigaíenak.

Erleen izakera ez dakitenak, goírotoa artzen diete: dakitenak, maitetasuna.

Erleak asko ematen digute. Maite ditzagun, ba.



¡Ayek, bai, euskaldun bikañak!

Besteak egiten dutena guk ere egiteko griña aundia izaten degu. Ori aurai oso ondo ezagutzen zaye, gaitzgabeak diralako; bañan aur ez diranak ere beste ainbeste egiten dute. Era guztietako giz-emakumeak oñelakoak dira; obeto, oñelakoak gera.


Nekazarien aurak sorora pozik joaten dira, ta gero beren artean jostatzen ari dirala, bi lagun idiztarian bezela jartzen dira, besoz lepotik alkari eldu-ta, beste bat aurean akuiluarekin jartzen da, ta atzean beste bat goldeari eltzen diola, ta aitak edo anai zaragoak egiten duten guztia egiten dutela. Neska txikiak, amak etxeko lanak egiten dituanean, edo josten ari dala, edo beste edozer gauzetan ari dala, ark bezela gauzak egin nai izaten du. Neska-mutiltxoen griña ikusten da, ba.

Aurak gauz oietan bezela, aurak ez diranak ere beste ainbeste egiten dute; ta ez lanetan bakarrik, baita beste gauzetan ere. Oregatikan, zuzen dabiltzanak **on-bidea** ematen dutela esaten da; ta oker dabiltzanak **gaitz-bidea**. **On-bideak** egiten duana orain ikusiko dezu; ta berdintxo **gaitz-bideaz** esan bearako genduke, ta ala esaten degu. Irakuri.

Nere «*Lore usaidun - mamitsuak*» egiteko egunetan, egun batean albistari bat artu nuan. Jaungoikoak ekaña zala ziur nago. ¿Zergatik? Urutikoa zan, eta aspaldian oso gutxitan ikusten nuana. Bere izena «*La lectura popular*» da, ta Orihuela'n ateratzen dute. Gauza polit bat artan ikusi nuan, gure izakera asko goratzen zuana, ta azaltzea bereala erabaki nuan. (Oñilaren 15-koa zan.) Zuk ere pozik irakuriko dezula uste det. Ementxe daukazu.

Artagan Mendi izena duan itxas-ontzia (**Sota-Aznar**'en Etxekoa) José Doitsuaren egunean **St. John**'go kaian zegoan (*New Brunswick-Canada*) gelditu-ta. Uri onek befogeitamar bat mila lagun ditu.

Itxas-ontziko Agintari buruari gauza eder bat gogoratu zitzayon. Garizuman zeuden; Pazko-koa egiteko egun egokia; geldirik egon ezkerro, lan txikiagoa, beañena bakañik, ta jai eguna zalako obe oraindik; bere mendeko guztiak euskaldunak, ori urteoro egiten zutenak; oien etxekoak berari Aita bati bezela begiratzen zioten, eta gauz oietan batez ere zabartuko etzala ziur zeuden; egun ura galdu ezkerro, beste bat ain egokia nekez arapatuko zutela uste zuan, eta ortan ere etzijoan oker... Gauz abek guztiak gogoan erabili-ta, bere bañenak zerbait egiten beartzen zuan (bera ere eliz-aldekoa) ta azkenean, egun ura ortarako berezi zezatekela esatea erabaki zuan.



Bere asmo ori guztiai batera esan zien. Elizan egon izan balira bezela, aren itzaldia aietaz entzun zuten, eta guztiak batera ere, bayezkoa bereala eman zioten. ¿Nola ez, ba?

Zintzo-zintzo, guztiak batean elizara joan ziran.

Luis Doitsuaren Alkartasunako gazteak eliz-

kizun eder batean zeuden, eta Jaun-artzeko Meza Gotzai jauna ematen ari zan.

Itxas-gizon gazte-mardul-sendo -bizkor sail aundi ura, oñela jantzi-ta, ikustean, Gotzai jauna añitu zan. Euskaldunak zirala ta Jaun-aundia artzera joan zirala ikasi zuanean, pozak biotza urtu egin zion, eta su aundi-gozoz, an zeudenai itzaldi samur-eder bat egin zien, euskaldunen sin'iste ona, ta berak ikasi bear zutena azaldu-goratuaz.

Itzaldi bero-pozgañi ura entzutean, askok negar egin zuten, biotza samurtu-ta. «*Artagan Mendikoak*» ere, *inglès-izkeran* zekitenak batez ere, malko eder eta ugariak bota zituzten. (*Inglès-izkeran* zekitenak diot, angoen izkera Inglaterakoa dalako, ta euskaldun askok, toki oietan ibili bear izaten duten geyenak beintzat, **inglesez** trebe samar jartzen diralako.) Beren guraso ta etxeetakok ori ikusi izan balute, jaien poza, e?

Pozak zoratzen zegoan Gotzai jauna alako edertasuna ikusi ezkerro, ta ezin egonik bezela, itxas-gizonak itxas-ontzira joan ziranean, Gotzai jauna berengana laster joan zan, guztiai zorionak ematen. Guztiakin itzegin zuan, eta buru egiten zuanak izkera artan ederki zekialako, oni sekulako goratasun eta zorionak esan zizkan, onek bere mendekoai aren izenean esateko.

Etzan ortan gelditu. Kai artatik irten eta itxasoan uruti zeudenean, itxas-ortziko Agintari-buruari Gotzai jaunak, ari gabeko tresnaz, itzegin zion. (Tresna auek oraindik izenik euskeraz ez du-

te. Gauza asmatu beñiak dira, ta **Euskaltzaindiak** izen beña asmatu arte, guk izenik ezin ipiñi; in-
darik ez degu-ta.)

Ez ori bakañik. Euskaldun aiek egin zutena ikustean, Uri artakoak asko añitu ta samurtu zirala Gotzai jaunak itxas-ontziko Agintari jaunari esan zion; eta artean kristau etziran batzuek, (ogeita-mar baño geyago), gure Erlijio maitean sartu zirala.

Euskaldunok gure akatsak baditugu, ta biotz aundikoak izateko garbi-garbi aitortu bear ditugu. Ori ukatzea añokeri txaña da, kalte aundia egiten diguna. ¿Iñor bai al dago iñon ere, ezertan kalitx'en bat izango ez duanik? Ezta oraindikan alakorik jayo (kristauok dakizkigunak berezi ezker) Oregatikan, dirdai aundiagoa dute gure siniste on eta oitura bikañak, gu argalak izan añen, gureak bezelakoak lurbira osoan besterikan nekez arkituko dalako.

¡Au da egizko euskaldunak izatea! ¡Gora, ba, gure sinismen on eta oitura edeñak!

|||||

¿Ardiak soroan sartu? Nekez. Bat igaro ezke-
ro, ordea, aren atzetikan guztiak.

Naiz onerako. ta naiz txañerako, aũean dijoa-
nak bidea idikitzen du: besteak gero jañaitu.

Bernardo Doitsuak dio: Itzak samurtzen dute;
egiñak añastaka berenganatu.

«Artagan Mendiko» euskaldunen on-bidea, edeña.

¿Nor? ¿non? ¿zergatik?

Ni... ni... ni... ta beti ni. ¿Ta besteak? Utsa... ezer ez... gu baño gutxiagoak beintzat. Oná emen aundinaikeria. Bat edo bat gu baño gorago ikusten badegu, itzala egiten digu ta ezin eraman. Oñek indaía artu ez dezan, al dan guztian goiberatzen ibiltzen gera. Baldin egiten dituan gauzak akats'en bat badute, eztegu saski bañenean ezkutatuko; inguru guztietan zabaldu bai. Alakorikan ez badu, andik edo emendik aterako diogu guk, eta guztiai erakutsi. Batzuek ala dala usteko dute, sinistuko digute; baña geyenak ez, eta pañagañi geratuko gera, belañia ikusten zaigula. Gurea bañon ohea dan tokian jartzen bada, ura nola kenduko diogun sayatuko gera; ta ezin badegu, gure bañena kiskaldu-ta egongo da. Au guztia ¿zergatik?



Apaltasuna doai oso edeña da. Ez dio iñori kalterik egiten; bai ordea on aundia, duanari. Etxeko atea motxa bada, andik igarotzean burua nai ta ez makurtu bear degu. Baldin burua goiegi badaramagu, neufitik gora pitin bañ besterik ez bada ere, edozer gauza gertatzeko añisku aundia degu. Gutxienaz kaskañeko eder bat artuko degu, ta batzuetan gaitz aundia, iltzeraño ere. Geyegi

makurtzeak beñiz, ez digu kalterik egingo; guztiz bestera, burua beerago ta añiskua txikiago.

Au bera beste gauzetan ere gertatzen da. Gizon apalak bere burua beeratzen du, ta besteak goi ikusteak ez dio miñik ematen; eta gero bera goratzen dutenean, aomen eta izen aundia iristen du, bila etzebilela, ta uste etzuala ere. Apala ez danak beñiz, bere buruarentzat guztia txikia deizkio, ta igotzen da; baña gero beerapena nai ta ez etortzen zayo, ta orduan min aundia artzen du. ¡Alako kaskañekoak batzuetan!

Ezta au nik asmatutako gauza; Jesukristok berak irakatsia baizik. Eztayetara joateko esaten badizute, dio Berak, ez lenengo tokian jañi; zu baño maila aundiagoko besteren bat etortzekoa izatea baliteke, ta etxeko nagusia etortzen danean, toki ura besteari emateko esango dizu, ta orduan atzerago gelditu bearko dezu, lotsa-lotsa egin-da. Azkeneko tokian jañi zaitez, eta nagusia etortzen danean auñerago joateko esango dizu, ta an dau-denak aomen aundia emango dizute.

Au beti egingo balitz, ez lirake gizonak ibiliko askotan ibiltzen diran eran. Ni naizela, zu zerala, neri dagokidala, zuri ez dagokizula, ni lenago naizela, zuk nere atzean jañi bear dezula, au asañetu dala, ark ezin eraman duala... Ortik etortzen dira sekulako naspilak eta ezin ikusiak, gofotoak eta matrakak, eta umekeri oyengatik pakea ta alkañen ganako maitetasuna galtzen da, gero nekez iristen dala.

Aziera onak ere ontan asko laguntzen du. Kristau-legeaz egiten ez dana, aziera onak eskatzen dualako egitea baliteke, ta askotan ala izaten da.

Geren arteko ibilerak zuzen-bide jakiñak ditu, ta aziera onakoak izateko, oiei nai ta naiez begiratu bear zaye.

Lenbizi ta gauza guztiaz gain, Apaiz jaunai begirapen aundia guztiak ekañi bear diete, edozer gisakoak izan ditezela; eta oiek baño geyago diranai, askoz geyago. Auek Gotzai jaunak eta abar dira. Guztiak Jaungoikoaren ordezkokoak dira, ta oregatikan ori zor zaye.

Gero, gizasemeak emakumeai begirapena ekañi bear diete, ta tokirik erosoena eta onena utzi. Aziera onak ala eskatzen du, ta kito.

Zar guztiai, naiz gizaseme ta naiz emakumeai, ori bera egin bear zaye. Zartzaroa gauza agurgarñi ta begiragarñia da, ta toki guztietan ala egiten da. Ta ez ori bakarik. Ontan, edo zañean añaen, emakumeak beren toki bikaña galtzen dute, ta gizasemeak bezela, zañak arduraz artu bear dituzte, ta al guztian lagundu, begirapen aundia ekartzen dietela.

Ortik añaera ¿zer esango dizut nik? Gizasemeak beren artean, eta alaber emakumeak alkarrekin, ¿nork nori begirapen ori ekañi bear diote? ¿Nork eta noren mendean bezela egon bear du? ¿Nor goyan eta nor bean? Ontan nork bere iritzia izango du. Nik gauza bat esango dizut, oso poli-

ta. Irakurgai batean ikusi nuala urte asko da; bañan etzait beñere aztutzen. Zuk ere beste ainbeste egin dezakezu. Nik ori opa dizut, eta ortan ezer galduko ez dezula uste det.

Bigarren Felipe gogoangaria izen eta aomen aundikoa zan. Orain bezela, orduan ere aundinai-keriagatik zezio aundiak izaten ziran, eta etzuten beñere erabakitzen. Bide estu-meartetan topo-egitean tokirik erosoena nork nori utzi bear zion... espaloian egokitu-ta, zeñek baztatu bear duan bestea bere bidean joateko... etxeetako mailetan pirlaen aldea zeñi dagokion... elizan alki gutxi badaude, nori utzi bear zaizkan... eta abar. Auek, eta auen antzeko beste gauza batzuek izaten ziran zezio-gayak, beñere erabakitzen etzituztenak.

Eregeak asko zekiala ta aomen aundikoa zala gogoratu-ta, ari galdetu nai zioten; bañan ortarako ausardi aunditxoa bear zan, eta iñork ere bitzik ez. Azkenean, jaun bat oso zintzoa ta urteetan ondo sartua joaten beartu zuten; eta onek, barkazioa aldeauréz eskatu-ta, ala esan zion:

—Erege jauna; zezio aundi ta zofotzak gure artean askotan izaten ditugu, pakea galtzen degula. Topo alditan eta egokitu ezkerro, naiz espaloian eta naiz mailetan, eta noiz nai eta non nai, tokirik onena nork nori utzi bear dion ez dakigu, ta jakin nai genduke. Berori au galdetzea ausardi aundiko gauza dala ezagutzen degu, ta oregatikan, gogoratu arien, orain arte atzera jo egin degu. Baña naspila aundiak izaten ditugu, oso gaizki gabil-

Gutxi bezelakoa

Izen au «David» guztiok entzun degu, ta ez bein bakarrik; bañan oren kondaira eder, eta noiz-nola azaltzen asi zan ez dakitenak, asko izango dirala bildur naiz.

Aspaldiko kondairetan maiz aitatzen da; Erege bikaña, zuzena, bulardetsua, koldarkeria ezagutzen etzuana izan zala esaten digute; eliz-itzal dietan ispiñu begiragarria bezela jartzen digute; eroraldi aundia, bai, izan zuala, baña laster damutu zitzayola ta bide zuzenari era arigarrian jaraitu zio-la ere bai. Ori guztia badakigu, ta beste gauza batzuek ere jakitea baliteke; baña nola agertu zan, eta bere aomena nola asi zan, askok ez dakitela ziur nago.

Batez ere, Jaungoikoak gizon bikañak nola arkitzen dituan (edo oraindik obeto, nola egiten dituan) ikusteko, kondaira polita da.

Jaungoikoaren laguntzaren indara aldi ta gauza askotan ikusten degu. Ortarako begiak idikitzea naikoa da. Baña gauza batzuek badaude, bes-teen artean era distiatzailean nabari diranak, eta gizonari nai ta ez burua makurtu erazitzen diotanak. Oyetako bat orain esan bear deguna da. Irakuri.

Filisteoak eta Israeldarak alkar menderatu nayan, bufuka aundi bat egiteko gertu zeuden. Alde bakoitzakoak mendi bana zedukaten, biyen artean ibaia zegoan, baña mendi batean esaten ziranak besteakoak eiaz entzuten zituzten.

Filisteotako gizon aundi bat, aunditasunean bezela indarretan ere besteak ez bezelakoa, auratu zan eta Israeldarai esan zien: *Zuetako bat atera ezazute, ta biok bufukan egingo degu. Baldin ni baño geyagokoa bada ta iltzen banau, gureak zuen mendekoak izango dira; eta nik ura garaitzen eta iltzen badet, zuek guztiak gure mendekoak izango zerate.*

Gizon aundi ta azkar au **Goliath** zan. Ori zan bere izena. ¿Nondik atera bear zuten Israeldar

ak ofelako gizon puska? Besteak ez bezelakoa zanta. Ofegatikan, gauz ori entzutean, guztiak eta beren Efege **Saul** ikaratu ziran. ¿Nola ez? Beroge

gei egunean, eten gabe, goiz-afatsaldean, ori bera esaten aritu zan-ta.

Ortan zeudenean **David** ara iritxi zan. Eme-zortzi urteko artzaitxo bat zan. **Goliath**'en itz oyek entzun zituanean, gizon ura iltzen zuanari zer emango ote zioten galdetu zuan.

Bere anai zafena an zegoan, eta bereala esan zion: *¿Zertan etofi aiz i onara, ardiak mendian utzi-ta? Ire afokeria ta biotz txafia ezagutzen dizkiat nik, bai...*

—¿Zertan utsegin diat nik, ba? erantzun zion

David'ek. *¿Zergatik eztiat esan bear gogoratzen zaidakena?*

Saul'en gana eramani, **David'ek** esan zion: *Ez bildurtu, Jauna; ni ioango naiz, eta bufukan egingo det, Jauna.*

—*Mutil gaztea aiz i, ta gizon ori, gaztetasunean asi-ta, gudari sendo-bizkofa. Ez dek ezer egingo.*

—Jauna, erantzun zion mutilak, artaldea zaitzen nengoala artzak edo beste baso-piztiak ari' ren bat eramaten ziratenean, aiengana joan eta atzaparetatik aria kentzen nien. Orduan neri erasotzen ziraten, eta nik, matrailezutatik eldu ta iltzen nituan. Gizon aundi ori ere, ayek bezela ilko det. Ayen atzaparetatik Jaungoikoak atera ninduan, eta onen eskuetatik ere, Berak aterako nau, Jauna.

—Oa, ba; ta Jaungoikoak lagun dakikela. Ala esan zion **Saul'ek**.

Mutilak artzai-makila artu zuan, e'ekan bost ari garbi-garbiak ere bai, auek zofoan sartu zituan, eta Filisteoren biderontz abiatu zan.

Mofoi batekin zetofen au, eta **David'i** esan zion:

—*¿Zakur al nauk ni, ba? Makila dakark eta... Ator, ator; ire gorputza egaztiak eta piztiak jan bear ditek.*

—Burnia dakark ik, **David'ek** erantzun zion; baña ni gudarien Jaunaren izenean netofek, ik gaur gaitzetsi dituken Israeldafen Jaungoikoaren ize-

Irakatsi bearean, ikasi

Lanegin-da gauzak iritxi bear dituanak, auek nolakoak diran lanegin bear ez dutenak banon obeto ezagutzen dituzdute. Oregatik geyago maite ditu, ta zerbait galtzen badu min aundiagoa artzen du, ta besteak gauz'en bat nola nai ondartzen dutela ikustean biotza lertzen zayo.

Lanik gabe gauzak artu dituanak ori ezagutzen ez du, ta ondatu ere askoz erazago egiten ditu; ori egin aren ezer gabe geratuko ez dala badaki-ta.

Aberats jaio danak ortan ezer ez daki, bere neke ta izerdiz irabazi ez ditu-ta. Aurtasunean, eta gero ere bai, bear edo nai zituan gauzak bereala ematen zizkaten, eta esan zarak diona gertatzen da «Eraz artu, eraz ondatu».

Beartsuak beriz, txanponai sendo eltzen diete; oiek galdu|ezkero gabe geratuko dirala badakite-ta.

Min aundiagoa oraindik ematen du beste gauza batek. Aberatsak aberenganako zaletasuna artu, ta kristauak pozik artuko lutekena, aiei eman: baita mendekoak ori egiten beartu ere. Baña Jaungoikoak zenbait aldiz begiak idikitzen dizkiete. Entzun nola.

Argia zan maistera: nagusia bañon argiagoa. Aldi ontan beintzat ori erakutsi zuan. Aberatsa zan au, eta itxaso bazterako efi batera bere etxe-koakin uda osorako joan zan. Zakur eder bat bazuan, eta etxea bezela, zakura ere maistaren zaintzan utzi zuan. Zakura oso gaizki oitua zedukan eta aragia besterik jaten etzuan: ofegatikan, nagusiak eguneko zerbait, eta ez gutxi, utzi zion, arentzat aragia ekartzeko. Bi pezeta. ¡Ez gutxiago!

¡Araio pola! esan zuan maisterak: ¿zakurak aragia besterik jaten ez duala? ¡Ikasi bearke du..! ¿Egunean ainbeste ofela ondatu? Ez nik... Aragirik jan gabe egoten gera gu... Gañera, lanegin gabe poliki irabaziko det. Txanpon oiek neretzat gelditu-ta ¿kezkarikan etoriko al zait? ¡Ez..! Nik eztiot zakurari kalterik egiten, eta geroko obe... Orain ez dakiena ikasiko du... Gero merkeago biziko da... Zakurak baño zerbait geyago gerala gu, uste det... Ez Jaungoikoaren, ez eta beste inoren afean ere, ez detala utsegiten uste det... ¡Aberats zatar auek egiten dituztenak..!

Au guztia gogoan erabili-ta, zakura sarobean sartu zuan, eta ezertxo ere jan gabe egun osoan euki zuan.

Ufengo egunean, atea idiki ta ogi puska bat bota zion; baña zakurak ogiari usaia artu, ta ikutu gabe utzi zuan. Maisterak, ori ikustean, ogia lufatik artu zuan eta muñegin zion, esanaz: ¿Ez al dek ogia nai? Kristauen jana ¿zakurak nai ez? Ne-

re seme-alabak pozik jaten ditekena ¿ik nai ez?



Ondu zegok... Jango dek, bai... Atea giltzatu-ta, zakurá beste egun osoan antxe utzi zuan, baru utsean.

Bigaramon goizean, gauza beroak jan-da obeto oituko zala gogoraturik, arbi egosiak eman zizkan; bañan orduan ere, usaia artu ta ikutu gabe utzi zituan.

Nagusiaren etxean bestela oitu-ta zegoan. ¡Jakiña! Maisterek entzun izan zuan, zakurak zerbait an gabe utzitzen zuanean beste zerbait ematen

ziotela, ta zakuñak uste zuan nonbait orduan ere ala egingo ziotela.

¿Seta, e?, esan zion maistafak. Ortan ez nauk eramango... Burua beeratuko dek, bai... Ni ez nauk goseak ilko. Ta i jan gabe egoteak, neri otzik eman ere ez... Ago... Lan txikiagoa izango diat... Ta merkeago ibiliko gaituk, gañera... Agur, agur, biar arte. Ori esan-da, ufengo eguna arte antxe egon bear izan zuan zakur gizarajoak, aoa idiki gabe.

Alaere, gabaz zakuña ilko ote zitzayon bildurtzen asi zan maistaña. Afatsalde artan sayets-ezurañak ederki nabari zitzaizkan, eta buru-isatsak ere indargabeturikan zeduzkan, zinzilika bezela, auleri aundia erakusten zutela. Gañera, gau osoan etzan ixildu. Oru ta mañu, geroago ta apalagoak, antxe egon zan, eta goizerako goseak ila izango zala bildur zan.

Jaiki bezin laster, gure maistaña sarobera joan zan, eta zakuña erukigafi arkitu zuan: luñean etzanda, zutik egoteko gauza etzala, goseak erkitua, begiak erdi itxiak, oso miñiztua. Ala ere, ate otsa sumatu bezin laster, katazka aundia egin-da, nola edo ala, zutitu zan.

Bizirik ikusi zuanean poztu zan, eta zerbait jaten eman nai zion; baña gauza beroak izateko goizegi zan; sua oraindik piztu gabea. ¿Zer egin, ba? Saski batean tipula zar batzuek bazeuden, aurreko egunean baratzatik ekañiak, eta aietako bat bota zion. ¿Jango ote du? esaten zuan bere artean

Kristauak eta abereak berdiñak egitea, Jaungoikoari irakastea bezela da.

Kristauak pozik artuko lutekena abereai ematea, Jaungoikoari naigabea ematea da.

Emen egiten ditugunak, Jaungoikoak azkeneko egunean erabakiko ditu.

¿Guztientzat adiskide....?

Erle gauzetan ain pozik ikusi ditugun neska-mutil ayek, baseriko anai-arebak, ¿erle gauzetan aspertu al ziran?

Bat edo bati ori bururatzea baliteke: azkeneko alditan ezer esan ez degu ta. Bañan etziran aspertu, ez: irakuri.

Zarenatik asi ta gazteenaraño, senide guztiak pozak zoratzen zeuden, ainbeste gauza beri ta ain ikusgarriak entzun-da; baña gurasoak oiera joateko esan zieten, berandu egingo zalako. Orduan guztiak begirapen aundiz guraso ta Eiztari jaunari eskuan muñegin zieten, eta nor bere gelara joan ziran.

Guztiak arpegi iluntxoan eraman zuten. Maurizi ta bere aizpak negarez asi ziran; eta anaiak, ñork ere negarez ikusi etzitzan, bereala alde egin zuten. ¡Ainbesteraño zaletu ziran beren biotzak jaun arengana!

Umeak joan ondoan, egun aietako arazoagatik

zenbat eman bear zien, nagusi-etxekoandreari Eiztariak galdetu zien. Biak batera, ori jañen eta añen! beriz ez aitatzeke erantzun zioten. ¡Naiko naigabea degu guk, Jauna, berori zor zayon eran gauzak ezin egitea! esan zioten. Basetxekoak gera, Jauna, ta gure ezjakintasun eta moldakaiztasuna barkatu bearke ditu, Jauna. Gogo ona bai; baña besterik ez degu guk, Jauna.

Guk berori zor diogu, ez berorek guri. Erle gauzetan asko irakatsi digu, ta orain asko irabazteko bidean jañi gaitu: baña batez ere, gure seme-alabak gatik geyena zor diogu. Lengo bizikera ta oraikoa ¡ez dira berdiñak! ¡Oraiko pakea zerua da, ta berorek erleen bidez pake ori ekari digu!

Eztaki berorek nola bizi giñan. Seme-alabak erleak nai etzituztela, guk beriz zerbait irabazi nai... ¡Samintasun ederak ikusi ditugu! ta aundienak ikusteko geunden; baña berorek zoriontasuna ekari digu. Gauz abek beti gogoan izango ditugu, ta ondo ordainduko ez dizkagula badakigu. Ez aiatu, ba, jañen! arazorik.

Gauz oiek bañen-bañendikan esanak zirala Eiztariak ezagutu zuan, eta leiatu gabe, berak ere biotz-biotzatik eskerak eman zizkien, eta ori aztu-ta geratuko etzala esan zien. Ta ortan oieratu ziran.

Ufengo egunean ¿zer gertatu zan?

Ufengo goizean etxe artan nabari zan alaitasuna ta poza nolakoak ziran adierazitzea, gauza zaila da. ¿Nola ez?

Eiztariak goiz jaiki ta eizara joan bear zuala esan zien, eta etxera beriz etorri gabe bere etxera joango zala. Berdin iru egun eizan egin zituan, eta inguru aietako galepeñak, bera ta beste eiztari batzuek askotxo ibili-ta, batzuek il, gañerakoak izutu-ta joanak zirala zirudiala. Oregatikan, alpeñik ibiltzea zala, ta Agur bezela esan zien. Baña ¿zer gertatu zan? Ume aien negañak Jaungoikoak ikusi ta ¿zerbait iritxi al zuten?

Esnatu ziranean, enbatak leioak atera bear zituala zirudian, eta euri-zapañak izugañizko otsa ateratzen zuten, baztar guztiak bete bear zituztelako ustea ematen zutela. Ori sumatu zutenean, guztiak asko poztu ziran, eta txaloka asi ziran. Onelako eguraldia dala ez den joango, etzegon bilduñik, esaten zuan Bitorik, txoratu-ta bezela. Gañerako senideak ere, ofelako gauzak esaten zituzten gutxi-gora-bera; ta Eiztari jaunak ez joateko asmoa artu zuala jakin zutenean, erleak ateratzen duten zufunbiloa bezelako naspila etxe artan sortu zan.

Azkenean, amak otsegin-da, guztiak gelanagusian bildu ziran goizeko otoitzak egiteko, eta Eiztari jauna ere an zegoan. Jesusen Biotzaren Irudi eder baten afean belaunikaturikan, guztiak Bitoriri erantzuten zioten. Gazteenak beti gauz oiek egiten zituan, aurtasunean oitura onak ikasteko. (Au etxe guztietan egingo balitz ¡bestelako kristauak, eta bestelako oiturak ikusiko genituzke!)

Ori egin-da, guztiak sakabanatu ziran, eta

an-emen, nork bere lanari azkar ekiten zion, airtak agindu bezela. Batek ganbaratik belaña ekañi, besteak beiak jetzi, onek azpiak aldatu, ark artoa jalki, alaba zañenak oeak antolatu, ta abar. Guztiak beren eginkizunetan aritu ziran, sua egitea ta gosaria moldatzea amarentzat gelditzen ziralala.

Eiztaria ere an zebilēn, leio batetik bestera, oñela ibili-ta lenago atertu bear balu bezela; ta guztiak sukaldean bildu ziranean, berari ere gosaltzeko otsegin zioten. Artu bear zutena artu ezkerro, Martxelinok ala galdetu zion:

Martxelinok—Jauna; beroñek lengo egunean esan ziguna, nik gaur ikusi detala uste det, Jauna.

Eiztariak—¿Zer ikusi dek, ba?

Martxelinok—Gaur otza dago, Jauna, udan egon añen; ta nonbait erleak, ori sumatu-ta, eultzako atea biskaz itxi dute, zulotxo bat, txiki-txikia, bakarik utzi-ta. Etzaie nornai etxean sartuko... Erleak berak nekez ibiliko dira, aunditxoak izan ezkerro beintzat, Jauna...

Eiztariak—Ez, motel, oker ago: ori beren etsayak ez sartzeko egiten ditek. Kalte izugafia egiten zitek-eta...

Martxelinok—¿Etsayak ere bai al dituzte, Jauna? Alako gauz onak egiten dituztela, ta iñori kalterik egin gabe ¿ta etsayak?

Eiztariak—Bai... etsai asko dizkitek. Orain ikasiko dituk.

Erleak etsai asko dizkitek. Batzuek aundiak dituk; besteak beñiz, txikiak. Etsai aundiren batek

erasotzeko bildurak zeudekenean, arapatu al ditoken guztia eultz atean ipintzen ditek, saera galerazitzeko. Beste gauza batzuek ere ortarako egiten dizkitek: edo argizai ta biskaz atea itxi, sartu etzizaizketeken; edo eultzari bañendikan beste atetxo bat egiten ziotek, aldian erle bat bakara sartzeko erakoa; edo beste zerbait.

Gauz abek guztiak azaltzen dizkitek ira-kurgaiak etxean badizkiat, eta tartetan etsai oien irudi batzuek ere. Oñelako gauzak ikusi-ta, guztia obeto ulertuko zenduteke; bañan oiek gabe gauzak azaltzen sayatu bearko diat. Emen ez izan ezkerro...

Prudentxik.—Jauna, Sendatzaile jauna zaldigañean auzotik oraintxe irten da ¿bai? eta oiek sendagayak ekartzera erira joan bearko dute nai ta ez: ¿berofen etxetik gauz oiek ekartzeko esatea nai al du? Jauna, esan zion Prudentxik.

Eiztariak.—Neska, bustiko aiz: ez den euri mirizka, izugarizko euri-jasak ditun. Adarka ari den, eta erabat arapatu gaitun. Gañera, gauz oiek ekartzea, sendagayak bezin beara ez den.

Prudentxik.—Ez dit ajolik, Jauna: eskalaproi edefak baditugu, ta euritako lodi-aundi bat ere bai. ¿Esango al diot, Jauna?

Aitak.—Ez, ik ez; esan zuan aitak. Benito zijoa-nela. Oñelako eguraldian i etxetikan irtetea ondo etzegon.

Joan zan, ba, Benito auzora, mandatu ori egiten, eta guztiak nor bere lanera ere bai, gero

Pilartxori eskerak: gañerakoan...

Ardiak askotan artzaiagandik igesi ibillzen dira: asitzean, beren griña txarai jasaituta, gero artzaiari bildura artzen diotelako. Au beñiz ayen atzetikan joaten da, txistu egiten die, ariak edo makila bota ere bai; ta alaere aŕetarik ematen ez diotelá ikusten badu, laster-bidetik joan-da aŕean jartzen zaye, ta orduan ardiak, nai ta ez, artzaia topoz-topo bere aŕean ikusten du. Berak etzuan ori naiko, bañan artzaiak ez dio aterabiderik utzitzen, eta artaldera eramaten du.

Batzuetan, ori gertatzen da igesi joan ta laster; baña beste askotan, ardia aŕisku aundian arkitzen dala, erdi galdua bezela; arkaitz edo toki labañen batean, amilka lezerontz dijoala; edo otsoak aŕapatzeko zorian; edo miñ'en batek joa dagoala; ta abar.

Ardi oietakoren bat ¿ikusí nai al dezu? Ikustean, adar aundietako zikiro zafa dala usteko dezu; bañan eŕenkada auek irakuŕi ezkerro, bildotx elbaŕitua bezela agertuko da. Irakuŕi, ba.

Beltzetakoa zan gizarajoa. Besteakin izketan asitzen zanean jaren kaikukeriak, entzun bear ziran! ¿Zer diot nik kaikukeriak? Astakeriak, piztikeriak, eta esan al dan guztia esan dteke. Baña Jaungoikoak azken ona eman zion. ¡Bilobatxoari eskeñak!

Neska ikastetxetikan etortzean, bere ama ta Sendatzaile jauna etxeko atean zeuden, izketan.

Gaizki dago, esan zuan onek; bildur naiz. Sukakak utzitzen ez badu, joango zaigula uste det. Urteak ere, asko ditu ta... Elizakoak beintzat egin ditzala, ustegabeen okeñena gertatu ez dedin. Biurri samaña izan da, ta gauz abetako otz-otza. Ez zabartu, ba. Beti kezka ori izango genduke, ta ori lagun txaña da.

Sendatzaile jauna joan zanean, Pilartxoren ama negañez geratu zan, eta neskarekin otoitz batzuek egin zituan. Oien ondoan neskak Aitonari ikustalditxo bat eman zion, onela:

—Egun on, Aitona: ¿zer dio, Jauna?

—Ondo; ¿ta i, bilobatxo maitea?

—Ni ederki, Jauna; ez ordea berori, ala esaten badu ere, Jauna...

—¿Zergatik dion ori, ba, maitea?

—Oi... ¿Zergatik esango det, ba, Jauna? Ama negañez dago ta, Jauna...

—¿Ama negañez? ¿Zer din, ba, amak?

—¿Zer duan? Berori Elizakoak egin gabe iltzeko bilduña. Ori egin gabe iltzea ikaragaña izango litzakela esan du, ta berori Zerura zuzen era-

man dezan, Andre Mariari ama ta biok iru *Agui Mari* esan dizkagu, Jauna.

—¿Ni ain laster iltzea nai al den, ba?

—¿Nik iltzea nai? ¡Ez orixe! Nik nai-ta ez litzake beñere ilko: bañan iltzeko añisku aundian dagoala Sendatzaile jaunak esan du, ta elizakoak len bai len egiteko, Jauna.

—¿Ta ain gaizki negon, enetxoa?

—Ala egon bear du, Jauna: laster iltzea balitekela esan du beinik bein, ta amatxori ez zabartzeko esan dio, Jauna.

—Ez naun asko maite: gauz ikaragañi auek neri esatean ori erakusten den...

—Oi... Zerura joatea ¿gauza ikaragaña, Jauna?

—Zerura joatea, ez: bai ordea, iltzea. Gañera, Zerura joatea zaila den, batez ere...

—¿Zaila? ¿Zergatik? Lengo egunean Apaiz jaunak eliz-pean esan zigunez, Zeruko Amari laguntza eskatu ezkerro Elizakoak egin gabe ezta iñor iltzen; eta guk, amatxo, ta biok, beroñentzat ori eskatu diogu, Jauna.

Aitona ezer esan gabe pitin batean egon zan, eta biotzean zuana begiak erakusten zuten. Zerbait arindu zanean, neskari esan zion: Oa, enetxoa; Apaiz bat etoñi erazi dezala amatxori esan akion.

Neska pozik amagana joan zan, eta Aitonaren mandatua eman zion. Onek guztia galdetu zion neskari, zer edo nola esan zion Aitonak, be-

Pilartxoren Aitona bat izan zan. ¿Zenbat izango dira, ordea, bestelakoak? ¿Besteak esan gabez, ezer egin gabe iltzen diranak?

Iakindatzaile negargaria. (1)

Besteak ezin egin dutena egiteak burua keaz betetzen digu, ta orelako gauz'en bat egitean losentxak esaten badizkigute, edo txaloak jotzen badizkigute, zoratu-ta bezela jartzen gaituzte. Ospatasun au iristeagatik, burura etortzen zaigun guztia egiten degu, ezeri ta iñori begiratu gabe, ez eta etori ditezkenai ere.

Onelakoa izateak askotan kalte aundiak egiten ditu. Besteai miña ematen zaie ta nekez eramaten dute ondo; arrenkuratzen dira; gorotoa eraz artzen da ta nekez kendu; asarrebideak sortzen dira, ta beste gauz asko ere bai. Pakerik ez beintzat.

Gure buruari begiratuaz, orela ibiltzen diranai gauz astuntxoren bat gertatzen zaienean, Jaungoikoaren eskua ortan ikusten dala guztiak esaten dute, ta orelako gauzak maiz gertatzen dira.

Orelakoen ondonaia ¿non da? ¿Alkarenganako maitetasuna noizko izango dute? ¿Jaungoikoari poza emango al diote? Ikusi dezagun.

(1) Iakindatzailea-remedador, mofador (Azk-Duv.)

Besteaz pafegiteak biotz kaskar-doiofa era-kusten du: ta auei gaitz'en bat etortzen bazaie, besteak ezin erukitu izaten dira, ala nai izan ta ere.

Erian mutil bat izugafi traketsa bazan, eta biotz gogofakoa. *Doiiofa* esaten zioten.

Eren bat (maingu bat) ikusten bazuan, aren atzean jafi, makil bat artu, ta ura bezela ibiltzen asitzen zan, besteai pafegiñerazteko. Muturen bat erira etortzen bazan, ark egiten zituan keinu guztiak laster ikasten zituan, gero bera iakinka (1) ari-tzeko. Itxuak, begi-bakafak, begi-okefak, zango-makufak edo zango-motzak, zankameak, zango-kakolak, zangaluzeak eta abar ikusten zituanean, edo bat edo bat zangu-mangu ibiltzen bazan, oean ere, ametsetan, iakinka ibiliko zala uste izateko da: aiek bezelaxe ibiltzen zan beintzat. Beti iakinka, besteen akatsak beti nabari jartzen, besteaz pafegiten.

Zentzu onako lagunak, eta batez era arentzat begirapen aundikoak ziran giz-emakumeak, ofela ez ibiltzeko maiz esaten zioten, alako batean berari ere gaitz'en bat gertatuko zitzayola ta... *Doiiofak* alare, etzion inori ardurik ematen.

Gaiztakeri oietan ibili ta ibili, gertatu zitzaiona orain ikusiko dezu.

Bi begietan okertasun aundia zuan begi-oker bat erian bazan, eta *Doiiofak*, begiak ark bezela jartzen ikasteko, beti bira-biraka erabiltzen zituan.

Egun batean amak esan zion:

—Motel, ¿begi oietan zer dek?

(1) Remedando.

—¿Nik begietan? Ezer ez. Au esatean, eriko begi-okeñak bezela begiai eragin zien.

—Bai, zerbait badekala ezin ukatu: gori-goriak dauzkak eta. Gañera, makafez beteak.

—Ez, ba... nik eztet ezer ezagutzen. Orduan ere, len bezela, begiak bira-biraka.

—¿Ezetz? Etzakiat, ba... Egunen batean ikusiko dek. Oñelako gauzak ondoren txarrik ekartzen dizkitek askotan... Iri ere alakoren bat gertatzea balitekek.

—¡Bai zera!

—¿Bai zera? Ez itzake i lenengoa izango...

Ori ortan gelditu zan. Eguna joan eta egunak etoñi, mutiltxoak begiak geroago ta txarago zeduzkala amak ikusirikan, zerbait egin bear-ko zutela senarari esan zion.

Onek ere, ezer ez esan añen, guztia ondo ikusten zuan, eta gaitz aundiren bat etortzeko bildur zan.

Gero senideak, lagunak, auzokoak, erri osoa konturatu zan. Alaere Doñoña jostailu zebilien, eta besteai paregin erazitzen.

Ala zeudela, egun batean oiñaze aundiak begietan asi zitzaizkan, eta orduntxe konturatu zan gure mutila. Bitartean ezer etzuala zion; bañan orduan nolanaiko gauza etzala ezagutu zuan; eta ezagutu ezezik, ikaratu ere bai.

Bai gurasoak ere; ta begietako miñak sendatzeko berariz ikasten aritutako Sendatzaile jakintsu batengana bereala eraman zuten. Au añitu-ta ge-

ratu zan. Begi aiek ikusi bezin laster, ofelako mi-
ñik beñere ikusi etzuala esan zien, eta Madril'en
ikasten egon zanean ere, alako min motarik ba-
zanik ere entzun etzuala.



Besteren batengana joan bearako zutela esan
zien asmatzen ote zion; edo gañerakoan, bera
bezelako besteren bat ekañi, ta biyen artean taju
ematen sayatuko zirala, batek ezagutzen ez dua-
na besteak ařapatzea aldi batzuetan gertatzen
dalako.

Ala egin zuten; eta ez bat bakara, beste iru
edo lau ere ekañi zituzten. Alpeñik ordea: iñork

ere asmatu ez. Guztiak ber-bera aitortu bear izan zuten-da.

Etziran ortan gelditu. Uruti-ufutira ere, izen aundiko Sendatzaile batengana eramán zuten; baña berdin, iñon ere onurik ez. Begi aietan gaitz ilun'en bat, iñork ere ezagutzen etzuana, baze-goala guztiak aitortzen zuten.

Azkenean, alegin guztiak egin ezkeró, etsia artu bear izan zuten, eta mutiltxoa órela gelditu zan betiko.

Urte batzuek oraindik egin zituan emen, beti oiñaze biziak menderatua. Beste gaitz batek eramán zuan, bañan il arte begietako órek eta oiñazeak iraun zuten.

|||

Agustin Doneak dion au gogoan artu:

Itxu, efen, elbariren bat ikustean, órelakoak ez gerelako Jaungoikoari esker ugariak eman.



Zor bat ordaintzen...

Eskertsu-izatea gauza bikaña da. Abere ta egazteak, ezaguerik ez izan aŕen, ori garbi erakusten digute; ta oiek egiten dutena guk ez egitea, izen gabeko itxusikeria izango litzake.

Oiei beren gogoko gauz'en bat egiten, edo ematen zayenean, nola edo ala beren eskeronaz erantzungo dute, ta etzaye nola nai aztutzen. ¿Ez al degu guk ere beste ainbeste egingo?

Geyen-geyena gurasoai zor diegu, Jaungoikoaz landara. Aurtasunean batez ere, gurazorik gabe ¿Zer gertatuko zizaigun?

Baña gogo gauzetan argitasuna emateko ez dira gurasoak egokienak izaten. Odolaren aldeko maitetasunak itxutzen ditu, ta kaltea egitea baliteke.

Oŕegatik gogo gauzetako Jainkoak bestelako Aitak ematen dizkigu. Auek Alkartasunak jaŕi zituzten eta oietakoak Aitatzak artzen dituzte.

Emengo gurasoak nolabaitekoak diranean, seme-alabak aiek aitatzen lotsatzen dira: bikañaŕak izan ezkerordea, aien gauzak esatean aoa gozotasunez betetzen zaye.

Asis'tar Prantkisko'ren bizia ta kondaira bezelakoak ¿zenbat izango dira? Oso gutxi. Biziz an garayean ots aundia atera zuan ta ondo

irabazia, ezin esan alako gauzak egiten zituala-ko ¿Ta gero? Zerua iritxi zuan, Ama Elizak al-dareetan ipiñi zuan, berak emen jaritako Alkar-tasunak seme-alaba asko dituzte, ta bestelako Alkartasunak (jakintsuenak ere bai) beren Buru-Zaindaritzat artu dute.

Izanik ni Alkartasun oietako seme bat ¿ez al aiot nere irakurgai abetan tokitxo bat eman-go? ¡Biotz kaskaña izango nuke!

Asko esan nezake; baña tokia txikia da, ta ezin. Aletxo abek irakufi.

Italia'ko Uri bat aitatzen, guztiok askotan entzun degu: **Asis**. Bertan jaio ta il, eta orain Zeruan dagoan mutil baten izena ere bai: **Prantzisko**. Orain Asis'tar Prantzisko Doitsua da.

Etxe aberats batekoa zan. Gorputz eder-liraña-koa, ta seta(character) onakoa, beti alai, beti atsegin, beti jostailu. Txanpon asko izaten zituan, eta ori izan ezkerro, lagunak ere bai; baña txanponik gabe ere, berez biotz onakoa zan, eta lagun guztiak bereganatzen zituan. Lagun guztien artean beti buru izaten zan, alai eta jostailu; bañan oben aundirik etzuan beñere egin.

Ogeitabost urte zituala, etsi zuan txit, eta orduan Jaungoikoak biotzean ikutu zion, eta andik auffera bere lagunak eta emengo atsegintasunak utzi, ta bestelako bizi-bidea artu zuan. Jaungoikoari ofela bere burua eman zionean, Onengana-ko ezin esan alako maitetasunak biotza bete

egin zion. Oregatikan, Jaungoikoari emateko, guztia txikia; ta bere buruarentzat, guztia geiegizkoa zerizkion.

Eriak eta lafeak, mendi-zelaiak, gau ta egun, ibai eta legoak, guztiak ikusi zituan, guztietan ibiltzen zan, eroen gisa ojuka ta deadarka: *Maitetasuna maite ez dute, Maitetasuna maite ez dute...* Au da; *giz-emakumeak Jaungoikoa maite ez dute*. Itz oiek gogoan artu, ta adirazten zutena buruan erabili, ta ortan bakarrik orduak eta orduak, gau osoak egiten zituan, Jaungoikoarekin alkar-izketa gozotan.

Bere buruari gogor egiten zion, eta gorputza era ikaragarrian zeatzen zuan. Jan eta jantzietan bearena bakarrik artzen zuan, eta gorputza zurdatz gogorez astintzen eta ilduratzen zuan. Egun askotan barautzen zan, eta zenbait alditan garizuma osoak ogi-ur utsaz. Etsayak etzion pakerik ematen; eta bein batean, aragiaz baliatu zan ura menderatzeko; baña Prantziskok soiñekoak kendu ta bere burua sasi latz batera bota zuan, ta antxe iraulka ibili zan, gorputz osoa erabat odoldu arte.

Orduan gauz arigari bat gertatu zan. Negu gogoa zan ura, ta neguaren biotzean gertatu zan ori. Alaere, sasi ura osto ta lafos zuri-gofi ederez bereala bete zan. ¡Gauza gogoangaria! ¿Ez al da ala? Aundiagoa, ba, esango dizut. Aezkero, sasi ark eztu arantzik izaten, eta odol tantoen antzeko orezta (orin) batzuek ostoetan ederki ikusten dira. Ta ezta ilabete batzuetako gauza. Gertatu zala

zazpireun urte igaroak dira (1223-gaŕen urtean izan zan), eta alaere sasi oŕek badirau, ta urteoro udabeŕian laŕos edeŕak ematen ditu.

Beste batean, Jaungoikoak bost zauri eder eta zoŕotz ezaŕi zizkan, egi-egizkoak, esku-oinsayetsean, ortan ere Bere antzekoa izan zedin; eta il arte bizi-biziak izan zituan, min aundia ematen ziotela, ta ibiltzeko ere, oiñetan zituanak eragozpen aundia egiten ziotela.

Ori bakari izan balitz, aundia izan aŕen, utsa izango zan. Aŕigariŕizko itzaldiak egiten zituan, eta bide txarietan ibiltzen ziranak, damutu ta bide zuzenean asi ta irauten zuten. Ezin esan alako gauzak osasunean, miñez zeudenak sendatzen zituela. Gerokoak asmatzen, asarietu-ta zeudenak beren artean adiskide jartzen, aŕiskueta zeudenak aietatik ateratzen, eta beste gauz asko egiten.

Asis'ko Gotzai eta Uriko Agintaria oso asari zeuden, eta ori ezin eramane, Agintari jaunari otsegin zion eta Gotzai jaunaren jauregira eramane erazi zuan, eta Gotzai jaunari esan zion jaiŕen! ordu artan etxean egoteko, ta antxe pakean jaiŕi ziran.

Jaungoikoak oŕelako doaiak eman ezker, ezta aŕitzeko Aita Santuak asko maitatzea, eta adiskide aundia bezela noiz nai artzea. Toki guztietan ere oso ondo artzen zuten, eta ikusten zutenean txaloka asitzen ziran. Berak orde, Jesukristori jaiŕaituaz, zerbait sumatzen zuanean igesi joaten zan, eta goratasun guztiak Berari eskaintzen zizkan. ¿Ikusi nai al dezu nola?

Egun batean, bere lagun batek (Praile batek) esan zion:

—Prantzisko ¿zergatik beeratzen duzu ainbeste zure burua? ¿Ez al degu guztiok ikusten nolako gauza arigariak egiten dituzun, naiz gorputz eta naiz gogotan? Ez esan, ba, ezer etzerala. Ori garbi ikusten da ta...

—¡Anai maitea! erantzun zion Prantziskok, auek ez dira nereak, Jaungoikoaren gauzak baik. Jaungoikoak neri eman izan dizkidan doaiak eman izan ez balizkit, ni bañon obendari aundia-gorik lurbira osoan etzan izango. Ta Jaungoikoak neri eman izan dizkidanak, gizonik zatañenari ta gaiztoenari eman izan balizka, ni bañon askoz obea izango zan.....

Beerapen ori ikusi-ta, ezta aritzeko Jaungoikoak ainbeste maitatzea, bere otzitzetan gorapen eta alkar-izketa samurak Berarekin egitea, ta gizemakume guztiak arekin joan nai izatea. Ontan ere irakuri ezazu.

Entzuten ziotenak, andik aufera Jaungoikoa maitatu besterik nai izaten etzuten, eta berarekin joaten ziran. Mutilak Prantziskoren taldean sartzen ziran, Praile izateko.

Neskatxak orobat Asis'tar Klararekin jartzen ziran, Serora-etxeetan egoteko. Emakumeetan au lenengoa izan zan Serorategian jañi zana.

Bañan ori ezin egin zutenak bazeuden, edo ezkondu-ta zeudelako, edo gurasoai lagundu bear zietelako, ta abar. ¿Zer egin, ba?

Prantziskok Jaungoikoari otoitzean argitasuna eskatu zion, eta Onek adierazi zion beste mota bat jartzeko, ta ortarako Zuzenbidea eman zion. *Irugaŕen Honorio* (Aita Santuak) bereala ontzat eman zuan, eta bere ondorengo Aita Santuak, orain arte, doai bikain-berarizkoak beti eman izan dizkate. Oni *Irugaŕen Senidetza* izena eman zion. Orain, ba:

Praile Prantziskotaŕak egiten dute *Lenengo Senidetza*.

Serora (Monja) Prantziskotaŕak... *Bigaŕen Senidetza*.

Etxean bizi diran Prantziskotaŕak... *Irugaŕen Senidetza*.

Irugaŕen au 1221-gaŕen urtean 'asmatu zuan.

Gauz oiek guztiak, eta beste asko, zein baño zein bikañagoak eta aŕigaŕiangoak egin ondoan, Jaungoikoagana joan zan, eta Ama Elizak, bigaŕen urtea igaro baño lenago, aldareetan ipiñi zuan. Bere jaia Uŕiaren 4-ean egiten du.

Prantzisko Doitsua mila, eun eta larogeitabigaŕen urtean jaio zan; eta il, mila, beŕeun eta ogeitasei gaŕenean (1182-1226).

|||||

Gazteak alaiak eta jostailuak izatea, berez txarra ezta: okertu ezkerro bai.

Jaungoikoa gatik beti gauzak egitea, gauzik edereña da. Zuzentasun bikaña.

Prantzisko Asistaŕak ori egiten zuan: Ark erabat lagundu ere bai.

Zuk beste ainbeste egiten badezu...

Ama onaren alaba zintzoa

Begiz ikusi afen ulertu ezin diran gauzak badaude. Gure joan-etofietan gora-bera aundiak eta oso berdiñezak ikusten ditugu; baña beñere aldatzen ez diran beste batzuek ere bai.

Guztiori bañen-bañendikan datorkigun gauza eder bat badago.

Guretzat indar aundia du, ta edozer gisa ta mailakoak dirala giz-emakumeak eñaz bereganatzen ditu, ta beste edozer gauza lenago utziko dute, ori baño. Ori guztia itz batean sartzen da, ta beregan beste bat badauka. Abek dira... Ama... Amaganako maitetasun eta begirapena.

Jaungoikoak gure bañenean zaletasun ori ipiñi du, lenengo musua gure amak emana degu, ta gero ere aren ezpañak eta gure masaila askotan bategin-da egon izan dira.

Zer-dala-ta eztakit; baña gure bizi osoan itz onek indar aundia duala ezin ukatu. Beste edozeñek esaten digunari begiratuko diogu edo ez, nolako gauza dan: bañan amaren esana lege zorotz batek adiña indaia du, ta amak esaten diguna egiten ez badegu, ezta beste iñorena ere. ¡Bañengo zaletasun eta berotasuna! Ta eskerak ori. Gañerakoan ¡zenbat aldiz baztertuko

giñake, ta bide txafetan sartu! Orain esango dizudanari begiratu.

Ama guztiak eztira berdiñak izaten: egia da. Ofegatikan, orain esan deguna zerbait geyago azaldu bear degu.

Ama-alabaren ezpañak eta masailak alkarri erantsiak bezela askotan egoten dirala esan degu; ta ofek esan nai du, biotzak ere era berean egoten dirala. Orain, ba; ama bear bezelakoa ez bada, berak dituan akatsak alabari erantsiko dizka, eta onek nekez kenduko ditu amak emandako kalitx oiek. Bañan ama zintzo ta ondo ibiltzen sayatzen bada, ori alabak ikasiko du, ta odolak dakañen indaña bezelakoa izango du. Onerako bezela, txafetako ere berdin-berdin. Orain irakurri.

Zintzoa ta bear bezelakoa zan Maritxu. Elizkoia, langilea, ixila, esangiña, guztiz ona. Aurtsunean bezela, gero ere amak esan bezela gauzak egiten zituan. Ondo jantzi-ta ibiltzen zan, bañan iñori gaitz-biderik eman gabe. Etxalde onakoa zan eta bazezaketen; baña bere mailakoai zegokien eran beti, ta batez ere geyegikeririk gabeko soiñekoak.

Jai-igandetan, goizean eliz-aldia egin eta gero amak esaten zizkanak. Aratsaldean beriz, elizatik irten eta ikastetxera joaten zan, gutxi zekiten neskai zerbait irakastera. Biotz onakoa zan oso, ta gutxi zekitenaz, edo ezer etzekitenaz, erukitzen zan. ¡Gajoak! esaten zuan. Txikitan ikasi

etzutelako ¿beti egon bear al dute ezer jakin gabe? Neskatz egiñak daude, ta ez elizarako, ez eta beren etxeetan bear dutenerako, ezer ez dakite... ¡gajoak!

Gauza oiek gogoratu-ta, pozik aritzen zan besteai irakasten.

Neska on aiek ere ¡ofela maite zuten! Beren Maritxurekin txoratu-ta egoten ziran.

Ikastetxetik irtendakoan, ilunabaña arte lagunetara. Oso alaia ta gozoa izaten zan auentzat. Batzuetan bidean ibiltzen ziran, egurastutzen; beste batzuetan beñiz, txistua jotzen zuten, eta dantzan aritzen zan; beste alditan, asteko kontuak alkañi esaten, elizpean egoten ziran: eñian beste enparantzarik etzan-ta. Bañan era txafean beñere ez.

Beste tokietan bezela, an ere bazeuden neska txoroak dantza lotuan aritzen ziranak: Maritxu ordea sekulari ez. Mutil añoren batek ortan asinai bazuan, erdi-erdian utzi ta bere lekura joaten zan, eta andik añera etzan beñere arekin aritzen, ez lotuan, ez eta lotu gabeen ere.

¡Alako ama zuan ere! ¡Zintzo-zuzena, gutxi bezelakoa! Onak esaten zion neskatxak lotsari eutsi bear diotela, ori galdu ezkeru zernai gertatzeko añiskua izaten dalako, ta lots eder ori dantza lotuan ondatzen dala. Maritxuk ori beti gogoan izaten zuan, eta amaren esana egiten ere bai.

Urte batean, auzoko eñi batean Andre Marietan eñiko jaiak ziralako, aideen etxera bazkariz

joan zan. Arátsaldean lengusuak eta lagunak enparantzara joan ziran, soiñu otsa bazala-ta. Maritxu ere aiekin joan zan. Txistua jo zuten lenbizi, ta Maritxu besteakin batean antxe aritu zan. Bestelako soiñulariak ere bazeuden, eta txandan jotzen zuten; eta abek txanda zutenean asi ziran, eta neska guztiak (edo geyenak; etzan Maritxu bakara zintzoa izango) dantza loturako abiatu ziran. Maritxu ez. ¿Zenbat sayatu ziran mutilak? Esatea eiaz ez da: baña guztia alpeñik. Batek gauza bat, besteak beste bat, eztabaidan luzaroan aritu ziran. Batekin onelako alkar-izketa egin zuan:

—Beste guztiak bai ¿ta zu ez? ¿Zergatik ala?

—Nik eztet besteena erabaki bear; nerea baizik.

—Besteak ere onak dirala usteko dute, ba, nere iritzian...

—Oi... Ori berak jakingo dute...

—Ni, ba, askatuan edo lotuan berdin aritzen naiz.

—Ni ez, ba. Dantza aúfena, zortzikoa, neskatxana, azari dantza, zofi dantza, biyen artekoa, zubia, ingurutxo, arin-arin, eta oñelakotan pozik aritzen naiz; lotuan ordea beñere ez.

—¿Ez al dira, ba, lotua ta lotu gabea berdiñak?

—¿Berdiñak? ¡Bai zera!.. Ni lotu gabean aritzen naiz, eta ez naiz ezertxo ere losatzen; baña lotuan ariko banintz, ez nuke iñora ere begiratze-ko biotzik izango. Guztiak nizaz gaizki esaka ari zirala usteko nuke: neska zintzo-garbiak oñela ibiltzen ez dirala ikusten bai det, ba...

Gañera, beste gauza bat ere badago. Euskalefiko dantzaz eztu inork ere txar esaten; baña lotu zikiñaz, lotsa pitin bat izan ezkerro, guztiak. Atzerikoak ere, Erdalefiritikan etortzen diranak, oso pozik ikusten dituzte gure dantzak, eta beren tokietakoen aldean oso garbiak dirala esaten dute. Oiek ikustean, deadar egiten dute: ¡Gure efietan onelako dantzak baleude, pozik ikusiko genituzke!

—¡Bai, bai! ¡Atzerikoai sinistu! Oiek losentxak esan, bai; baña gero...

Losentxak edo egiak, ala esaten omen dute beintzat. Beren gauzen alde zerbait esango baluteke, ez nuke ain efaz sinistuko; baña gure alde gauz oiek esateak asko esan nai du. Esan zaña dago: «*Atzeri, otsoefi*», ta otsoefiritikan ezta etortzea, ezta gutxi...

—Emen, ba, guztiak ontzat ematen dute; ortara jañi dira ta...

—¿Guztiak? ¿Uste al dezu? ¡Ez dira berak oso bikañak izango! ¿Zein dira? ¿Jaungoikoaren ordezkak, guri bidea erakusteko Ark jañiak? Gotzai jaunak, eta abar, ¿ofela itzegingo al dute? ¡Entzun, entzun! Oien itza Jaungoikoaren itza da, ez besteena; ta oiek ¿zer esaten dute?

—Goazen, goazen. Oiek guztiak umekeriak dira: beste guztiak ortan ari dira ta...

—Bai, nai badute... ez ordea ni... Baña ¿guztiak esan dezu? Ez orixe... Bi eratako neskatxak daude: bear bezelakoak eta nolanaikoak. Neri beti esan izan dirate bear bezelako neskek ez dirala

Nagusi - Etxekoandre bakar'ak

Egizko jauregi bat badago, guztiok ezagutzen deguna, aintzakotzat artzen ez badegu ere. Bakara da, ta izena Lurbira du. Jauregi ortan nagusia gizona da, ta gizonarekin batean, emakumea. Ortan dagoan guztia auentzat da, zuzen edo zearrez datořela.

Bertako bizilariak asko dira, era guztietakoak; bat bakara ordea, ezaguera duna (giz-emakumea). Batzuek sumoa badute (mota guztietako abere, egazte, arai, mamoro, ta abar) eta sumo orek gauza jakiñak egiten beartzen ditu. Nolerebaiteko aukera badute; egizkoa ordea ez. Besteak beriz, ezertxo ere ez: giz-emakumeak bear dituztenean, artu; gañerakoan, antxe egon. Baña guzti-guztiak zerbaiterako egokiak dira.

Jaungoikoak bere Irakurgaietan esaten digu, gu Beretzat egiñak gerala, ta gañerako gauza guztiak, guk bear ditugunetarako. Guk ez ditugu guztiak artuko; bañan azken ta gero, guretzat izango dira. Zuzen edo zearrez, ba, guztiak guretzat. Irakuri.

Jaungoikoak egin eta egiten duan guztia, guretzat egiten du. Eguzkia, ilargia, izartegi ta aize-

tokia, luña, itxasoa, ta oietan dauden gauza guztiak. Izakirik bikañenak gu gera-ta.

Eguzkia. Guretzat egiña dala ezin ukatu. Argia ematen digu, ta onek on aundiak egiten dizkigu: gauz askotarako beaña da-ta. Luña berotzen du, ta luñak ofen bidez bere bañendik gauz asko ateratzen ditu. Itxasotik luñiña etortzen da, ta au eguzkiaren lana da. Odeietañ zabaltzen da, ta urtzen danean euria sortzen da. Euriak azi, landare, zuaitz, lafe, zumeak eta abar piztu erazten ditu, ituñiai bizia ematen die, ibai eta eñekak betetzen ditu, ta alde guztietara on aundiak egiten ditu. Euririk egiten ez duanean legorte aundiak izaten dira, zaiñak, zuztañak, ostoak eta guztia igartzen dituzte, baita ituñiak ere, ondasun eta osasunerako kalte aundiak etortzen dirala. Gauz auek guretzat ez badira ¿norentzat izango dira?

Izartegia. Au ere gure onerako egiña da. Eguzkiaz orain esan deguna, izartegiaz esan ditek; bada eguzkiaren ordeñ, ilargiak eta izañak aren lana gabeañ nolerebait egiten dute. Gau ilun beltzetan ezertxo ere ikusten ez da; bañan ilargia ta izañak nabari diranean, gau itxura kentzen diete, ta ofekin batera, gañerako ikaragañitasun eta añiskuak ere. Beste izaki guztiak bateañ ondatuko balira ere, gutako baten aldeañ utsa izango litzake.

Aizea. Au langile ta ongile aundia degu. Kea urutira eramaten du, ta guk asnasa ederki artzen degu. Etxe, lantegi, ileñi, okuilu, ta ofelako tokietan izaten dirañ usai txañak eraman, zabaldu ta

urutzen ditu. Ots eta soiñuak toki batetik bestera eramaten ditu, ta orela guk entzuten ditugu. Elize-tako ezkiak, etxeetako txilintxak, gure itz eta ojuak, okuilutan egiten diran oñu-mañuak, abere-zintzariak, joale ta bulunbak, zakuñen saunkak, gizon eta abereen kañaxi ta ifintziak, eta edozer gisa etoñi ditezken ariskuak edo gauz egokiak.

Miñez daudenen geletako leioak idiki ezkerro, ango usai txaña, asnasak dakazkian zomoño zikiñak, guztia aizeak eramaten du. Gure birikak, bañengo auspoak, aizea nai ta ez bear izaten dute.—¿Ta lantegietan, gizon jakintsuak berarizko tresnetan aizea bildu-ta, egiten diran gauzak? Guk bakañak ezagutu ditzakegu: guretzat egiñak dira, ba.

¿Aizetegia? Au aitatzea alpeñik egiten dala dirudi: aizeaz esan deguna oni erantsi ta kito. Baña zerbait geyago esan diteke: esan-gai aundia dago-ta.

Baldin agiri diran toki guztietan, eta agiri ez diran askotan ere, aizea badago, aizetegia bakañik esaten diogu gure eñi ta urien gañean dagoan tokiari. Luñaren gañekoari, jakiña.

Toki ori, esan degunaz gañera, egazteentzat bakañik dagoala esan diteke; ta ortan oiek egiten diguten ona gogoratzekoa da. Euli, eltxo, zomoño, mamono mota asko izaten da. Oiek toki zikiñetan ibiltzen dira, gauza nazkagañiak jan egiten dute, pozoia ta gaitz kutsukoñak leku batetikan bestera eramaten dituzte, ta oiek guri erantsitzen

dizkigute. Egazteak, ba, egan dijoaztenean, asko ta asko ařapatzen dituzte, ta jan egiten dituzte. Berentzat ez dira kaltegarřiak izaten, eta guri ofe-la ařisku ařndiak kentzen dizkigute.—Gařera, egazteen lumak gauza askotako izaten dira; ta aragia zer esanik ez dago. Guzti guztia guretzat. ¿Ezta ala?

Beste gauza bat. Aizetegirik gabe ¿nola izan-go genituzke, non egongo lirake lařnoak, odeiak, euria, ta abar? Ori aitatzea naikoa da, burura be-reala befeun gauza etortzeko; bařan oiek azaltze-ko tokirik ez degu, ta utzi bearko degu. Len esan degunaz oroitu: au da, gizon jakintsuak gauza bi-kařnak esaten eta egiten dituztela.

Luřa. Au gure ama da, nolerebait esateko. Onek jaten ematen digu, onek jazten gaitu, sen-dagayak eman ere bai, bizitegiak berak eta oiek egiteko tresnak... ortan bear degun guztia.

Era guztietako abereak luřak bazkatzen ditu, ta bear duten guztia luřean arkitzen dute, ta berak guretzat izaten dira, naiz lanegiteko, ta naiz beste gauz askotako ere; ta azkenean, oien aragia jaten degu, edo saldu-ta asko irabazten degu.

Soro ta baratzetan era askotako jan-gaiak: azak, zerbak, lekak, babak, babeřunak, ilařak, txi-txirioak, eltzekari mota guztiak, beti berdin jan-da aspertu ez gaitezten.

Oiek maneatzeko ere, tipulak, baratxuriak, peřesila, olioak, piper min eta piper beltza, uřizi-za, ta sukalzayak jakizkiten beste osto ta auts

asko. Guztia guretzat. —Bestelako jan-gai ederak ere bai; artoa, garia... Artoaz taloa egiten da, gari-az ogia, ta abar.

Zuaitzak dakazkitenak; au da, udareak, sagra-
rak, muxikak, pikuak, gereziak, aranak, matsak,
eta abar.

Edariak baita ere. Ardoa matsaz egiten da; sagardoa sagraz, eta abar. Abek guztiak guk ja-
ten eta edaten ditugu: ¿norentzat dira, ba..?

Guretzat ez dirala diruditenak ere badaude; bañan oiek ere gure onerako dira. Belar-
ak, loreak, zuaitz-azalak, arto-zortzenak eta orela-
ko beste batzuek guk jaten ez ditugu; bai ordea
beyak, ardiak, auntzak eta abar, eta oiek esne
koipetsu-edera ematen digute.

Larre ta baztaretan ikusten ditugun loreak gu-
retzat ez dira, iduriz; bañan erleak bilatzen dituz-
te, ta ezti gozoa egin ere bai.

Lur-azpian eta lur-gañean zizariak eta oien
antzeko zomoño asko izaten da, guk oiñaz zapal-
tzen ditugunak; bañan oiñak eta txerriak arapatu-
ko dituzte, batzuek atzaparen eta besteak mutua-
ren bidez lura lardazkatzen dutela. Ta arautzak,
oiñak eta txerriki ederak ¿nork jaten ditu?

Mendietako pizti ta aberetxoak, suge, mus-
ker, surangil, sagu ta orelako batzuek ¿nork esan-
go luke guretzat dirala? Ta ala da. Oien luru, ilea,
ezurak eta abar, gure gauzetako izaten dira. ¿Nork
eztuki zirikoa (la seda) masusta-ostuetan ibiltzen

diran eta ori jaten duten, ar batzuek egiten dutela? Oiek guztiak gu jazteko izaten dira, ba.

Gutxik jakingo dutelako, gauza bat emen ipiñi bear det. Satofaren lafu iletsua ¿zertarako uste dezute bikain-bikaña dala? Begietako miña dutenai, miñik eman gabe askuria kentzeko. Abek lafua begien inguruan guztiz minbera izaten dute, ta askuria egitean, bereala lafutu edo azi egiten zaie. Satofaren lafu iletsua txit leuna da, ta begiak igurtzitzean ezte miñik ematen, eta erazago sendatzen zaizkie... ¡Ta aien askuriak...!

Beste gauz asko utzi-ta, beste zerbait aitatu bear degu. ¡Neuñigabeko ur-ontzia!

Itxaso. Itxaso ta ibaiak a'ai onak ematen dizkigute, guk ezertxo egin gabe, ta jakin gabe ere. Oraindik geyago. Itxaso-ibaiera botatzen ditugun zaboñeri ta gauza nazkagañiak, guk ezergatik ere jango ez genituzkenak, a'aiak gogotik jaten dituzte, ta auen aragia gureztat askotan onenetakoa izaten da.

Amua estaltzeko ¿zer jartzen dute a'antza-leak? Izkira, zizari, a'ak, a'ai puskak erdi ustelduak, gureztat nazkagañiak; eta oiek jaten dituzten a'aiak gureztat guztiz gozo ta osasungañiak...

Ura. Gauza bat ain bea'a; beste gauza guztietan sartzen dana; egaña kentzeko ain egokia; gauzak garbitzeko nai ta naiezkoa; udako bero aundietan berdin-gabea; gorputzako miñak kentzeko ain ona toki batzuetan; bustialdiak egin-ta gaitz asko sendatzeko; ta beste gauz askotarako artzen

Umeak ondo azitzen

Gauzak gaizki egiten dituztenak, ez dute erua berentzat nai izaten. Nola edo ala besteai erantsi.

Onengatik edo arengatik dala esango dute; au edo ura onela edo ala egiten dalako, ta bestela egin bear litzakelako. Senařak, emazteari aitzakia; onek, senařari. Gizasemeak, emakumeai; auek gizasemeai. Zarařak, gazteai; gazteak, zarařai. Aberatsak, beartsuak; beartsuak, aberatsai. Agintariak, mendekoai; bekoak, goikoai. ¿Zergatik ez norkbere buruari? Irten-biderik gelditzen etzaigunean, beste gauzik burura etortzen etzaigunean, esaten degu: **Bai, ala bearko zan...**


Gutxi edo geiago, nor-berak dakiana edo dezakena ¿zeigatikan egin ez? Ori besterik eskatzen etzaigu, ta ortako aitzakirik ezin atera. Orain esango degun maistařak zer zerbait irakatsiko digu. Ařetaz irakufi.

Ona ta zintzoa zan gizarajoa. Asko etzekian, bařan umeak ondo azitzeko ainbat bai. Ona nola sayatzen zan.

Bere seme-alabai gauza onak irakatsi naiean, uřengo egunean ondoen ibiltzen zanari, edo gauz

obea egiten zuanari, sari eder bat emango ziola aldi batean esan zien.

Umeak egun osoan alegiñean saiatu ziran; eta afaltzeko garaian, saria nork irabazi zuan erabakitzeko, zañenatik asi ta onela galdetu zien:



—¿Zer egin dek ik, Alpontxo?

—¿Nik, Jauna? Migeliko ta, Peño ta, Juan Luis ta, Mañuel ta, Patxiko ta, beste mutil asko, goiko érotara joan ¿bai? ta arátsalde osoan igerika aritu omen dira, piper egin-da. Gañera, érotako baratzan udareak ostu ta jan. Neri ere joateko, ta joateko, ta joateko esan dirate; bañan ez naiz joan, Jauna.

—Zintzoa aiz; etzegok gaizki: erantzun zion aitak. ¿Ta ik, Paulatxo?

—¿Nik, Jauna? Ikastetxera joan naiz, eta ikasi bear genduana beste neskak baño lenago ta obeto ikasi det, Jauna. Gañera, beroñentzat egin detan alkandora eder batean, beroñen izena oso poliki jartzen aritu naiz; eta Andre Emilik esan dit, egunero ofela aritzen banaiz, alkandora bikaña geratuko dala, ta beste neska guztiak baño geiago ikasiko detala, Jauna,

—Ondo zegon ori ere. esan zion aitak. ¿Eta ik, Eramuntxo?

—¿Nik, Jauna? Ikastetxetik bostetan goseak etori naiz, Jauna; ta amak eman ditan aratsaldekoa, Migel Andres'i oso-osoa eman diot. ¿Zergatik uste du? Onek eguerdian jan bear zuan puska bidean galdu duala Beñardok esan digu, urutiko basetxekoa da, ta gizarajoa bazkaldu gabe zegoan. Nola jan duan beroñek ikusi izan balu....? Ogi puska aundia zan, eta bi sagar goñi-goñi, zein baño ederagoak; baña jlaster garbitu ditu gizarajoa, Jauna!

—Biotz onakoa aiz, seme; poza artzen diat, esan zion aitak.

¿Eta ik, Maritxu, zer egin den?

—¿Nik, Jauna? Mikela Joxepa nere kaltean aritu dala Madalentxok esan dit: nik lengo egunean aien baratzen aranak ostu, ta gero aitzakia beste bati eman niola; ta ofelako gauzak laguneren artean zabaldu omen ditu. Gero, ikastetxean sartu geranean, nere lagunak guzti-guztia Andre Emili'ri esan diote, ta onek Mikela Joxepa oso

gogor artu du; baita, bazkaltzera joaten utzi gabe, ilunabaña arte antxe euki bear duala esan ere.

Guztiak pozez gelditu dira, alako gezur galantak esan ditualako; baña neri, lengo igandean Apaiz zar jaunak Meza nagusiko itzaldian esandakoa gogoratu zait, Mikela Joxepari Jaungoikoa-gatik barkatzen diotela Andre Emili'ri esan diot, eta berak ere jaén! barkatzeko. Ala egin dio, ta guztiak jostatzera joan gera.

¡Enetxo, enetxoa! esan zion aitak, zutik jaínta laztan gozo bat emanaz. Saria irea den.

Laurak gauz edeñak egin dituzute, ta oregatikan guztiai sari bana emango dizuet; bañan aundiena ta edeñena Maritxuk, eta beragatikan, sari-rik bikañena ere onentzat.

Ume aiek oso zintzoak izan ziran; eta aitari bere alde eñan zerbait esaten ziotenean, betibee-rapenez erantzuten zuan: Al dana egiten da, al dana egiten da. Oregatikan guztiak eñan izengoitiz «*Al dana*» esaten zioten. Azkeneko au^o ikasi nuala egun gutxi da oraindik.



Gure eginbearari ekiñaz, besteen gauzak goi-beratzen baño geiago egiten da.

«*Al dana*» etzan ikastetxetan asko ibiliko, bañan ala ere.....

Eztu ezer irabazten asko dezakeanak; bai ordea, ta guztia, ondo sayatzen danak.

Adiskide on bat

Adiskidea. Oná itz bat askotan esaten dana, baña gutxitan arkitzen dana. Eráz esaten da; baña nekez ikusten da.

Eráz esaten da. Besteai laguntzen bazaye, adiskideak dirala esango dute; baña zerbait ukatu ezkerro, ezer ez. ¿Lengoengatik eskerak? ¡Bai zera! —Zerbait ematen bazaie, losentxa ugariak: ematen ez bazaye, mutur luzea—¿Zerbait bearako dezu zuk? Orduan adiskiderik ez; arpegi iluna bai. ¿Zertarako? Geiago eskatu ez dezazun.

Egunero ikusten diran gauzak dira. Gaur zure alde, biar zure kalte: aizea bezela aldatzen dira. Ori utsa da alaere: ¿zergatik? Usterik gutxienean, saldu ere egingo zaituelako.

Ezbearetan bakarikan ezagutzen dira adiskide onak. Lari zaudenean laguntzen badizute, ederki dago; lagun ona da, adiskide ona. Bearean daudela laguntzen ez badiezu, ta alaere, len bezela artzen bazaitute, lagun onak, adiskide onak orduan ere. Ezaupiderik onena orixe da.

Ontan ere, pizti-abereengandik asko ikasi dezakegu. Jrakuri.

Leialtasunean zakurá bezelakorik eztago. Ofegatikan zakurárekin noranai joan diteke, egu-

naz bezela gabaz ere, bai atzerira ta bai etsayen
gana. Bere jabea ezagutzen du; ta soñekoak
datzen baditu ere, non nai bereziko du, baina ari-
kuan lagundu ere. Soñekoak bezela, soñak ere
bere usaia bai du, ba. ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ

Zakuraz gauza ariari-polit asko esateridira.
Nik orain esan bear dizudana ere, ezta nolanaikoat

Txiro (eskale) batek zakur bat bazuan; baina
beti goseak eukitzen zuan: bera ere nonbaiton
egoten zan-da. ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ

Zakuraz erukiturikan, iltzea erabaki zuan;
beste inor jabetzeak ere miñ ematen zion da, ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ
egiteko ordea biotzik etzuan, eta ari aundi batean
poan loturik, zubitik bera bota zuan. ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ

Zakurak bere burua ariku aundian ulkusi-tay
soka ortzaz puskatu zuan, eta ibai baztara igeri-
ka zetoñen. Txiroa bertara lasterka etoñi-
kilaz jo ta zakura iltzeko asmoan; baina geiegi al-
deratu zan, eta osin aundi batean ustegabe sartu
zan. Artan itoko zan; igerian etzekian datin baina
zakurak soñekotik ortzez eldu egin zion, eta lego-
fera atera zuan. ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ

Zakurak biotz ohea zuala, berak bano, eza-
gutu zuan; bere bafenean lotsatu zan; eta berak
goseak egon bear bazuan ere, zakura beti berare-
kin eukitzea, ta jaten al zuan ondoen ematea ere
erabaki zuan. Egin ere bai; eta zakura laster eder-
edeña jañi zan. ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ ᠪᠠᠢ ᠲᠤ

Oñela bizi zirala, txiro onen aide urko bat
Ameriketara il zan, eta lur-etxe batzuek utzi ziz-

kan. Besteen bidez gauzak ondo egiten ez dirala gogoratu-ta, aruntz abiatu zan; baña zakufarekin.

Itxasoan zijoaztela, txiroa miñez jafi zan, eta zakufa beti aren ondoan egoten zan, iñora gabe, ezta jateko ere.

Il zan txiroa, ta gorputza, oi lez, itxasora bota zuten; eta zakufak bere burua ere bai, aren atzetikan, iñor konturatu orduko. Soiñekoari (edo maindirari) ortzez eldu zion, baña gorputza ezin ekafi zuan, eta itxas-ontzia aufera zijoan.

Ontan zijoazten batzuek, leialtasun ori ikustean, zakufaz jabetu nai izan zuten, kosta dana kosta. Ortarako, baimenak iritxi, pitin batean itxas ontzia geldiago eraman erazi, txalupa bat askatu, urara arduraz jetxi, ta artan zakufari itxedon zioten.

Etofi zanean, lepotik eldu, lotu, txiroaren gorputza (soiñekoa guraizez ebaki-ta) utzi erazi zioten, eta guztiak itxas-ontzira igo ziran, zakufa eramenez. Au ordea pozik etzegoan, oñuz eta mañuz zerbait eskatzen zuan, gau ta egun ixildu gabe egoten zan, jan nai ezik, erotu izan balitz bezela. Azkenean, indařak aitu zitzaizkanean ixildu zan.

Guztia aztu zitzaiolako ustean askatu zuten; eta bere burua ofela ikusi zuanean, saunka ta kaxika asi zan, eta gorputza bota zuten aldetikan bere burua itxasora bota zuan, eta antxe ito zan.

¡Oñelakoa da zakufa, eskertsu ta biotz onakoa, egizko adiskidea! ¿Egingo al genduan guk ofenbeste? ¿Au al da txiroak bi bider il nai izan zuan zakufa?

Loretegia... biñera... gorotza

Basetxetako baratzak udaberian Adan eta Eva-
ren bizitegia dirudite. Ura ikusi ez degu; ba-
ña Jaungoikoak emana zala badakigu, ta berak
bear bezelakoak izan balira, artan zoriontsu izate-
ko ere bai. Oregatikan berdiñ-antz ori ipintzen det.

¡Ura gauz edera! Arosa ale asko izaten ditu,
margo bizikoak, gori-argiak, gogor-leunak, eze-eze-
ak. Eguzkiak egunaz berotzen ditu; bañan ala ere
ederki diraute. Aratseko zimel geratzen dira; bañan
urengo goizerako mardul-mardul daude: goizeko
intzak beritu ditu-ta. ¡Bai aros-ondo edera!

Baratza asko edertzen dute, ta ikusten dute-
nak liluraturikan geratzen dira. Oregatikan, andik
igarotzen diranak aiei begiratzen aspertzen ez dira.
¡Ezta aritzeko ere!

Ori baratzan daudenean: bañan andik atera-
tzen dituztenean ¿berdin egongo al dira? Ardura
aundiaz ibili-ta, nonbaitor; asko ez bada ere, zer-
bait iritxiko da. Baña nolana erabili ezkerro laster
ondatzen dira; ustelkoñak bai dira, ba. Gai au ira-
kuñi, zeroñek ikusiko dezu.

Neskatx bati bere erian izengoitiz Txinbeleta
esaten zioten. ¿Zergatik? Gaztetxoa zanean oso
zintzo ibiltzen zan. Lagunak ere alakoak zituan;

elizkoi eta onak. Jai aratsaldetan guztiak alkaré-kin pozik egoten ziran, eta iluntzerako guztiak nor bere etxera.

Beste lagun batek bein bilerara eraman zuan, eta gero kezketan egon zan; baña beriz eta beriz urfengo igandetan ere eraman zuan, eta Txinbeleta bilerarako erabat zaletu zan. Lagun onak berengana beriz etortzeko maiz esaten zioten, erokeri aietan ibili gabe, bide artan gauz onik izango etzualako, ta abar.

¡Txoliñak! esaten zuan askotan **Txinbeletak**. ¿Ni inork gezurtaratuko nauela uste al dute? Oiek ilun-goibel egotea nondik datoñen badakit nik, bai... ¡Ezin ikusi utsa! Emen besterik ez dago. Berai ezer esaten ez diete ta..... Baña ¿zer esan bear diete? Okuiluko ganbela bañon itxusiagoak dira ta..... Izketan ere ez dakite ta..... Arbiak baño gezagoak dira ta... Beti elizan eta eliz ondolan.... ¡Ondo mukeñak jartzen dira....! Ofela ibili ta ¿nork begiratu bear die?

Gauz abek guztiak erian laster banatu ziran. Guztiak aritu ta nazkaturik zeuden; eta andik auñera inork ere erian maite etzuan.

Gañera, aldaketa ain izugafia egin zualako, **Txinbeleta** izengoiti ipiñi zioten. ¡Ezta aritzeko! Eleak eta beleak banatu bai zituan, ba...

Bolada batean ofela ibili zan neska: gero ta ariñago, gero ta aroago, besteak goiberatzen, eta ezagutu gabe bere biotza gogortzen.

Auzoan ere itzbidea bazan. **Txinbeleta** gora

ta **Txinbeleta** bera; bileratik berandu etortzen zala; laguna ta bera, ta beste bi ere bai, alkarékin etortzen ziralá; gëfitik eldu-ta afo-afo etortzen ziralá..... zuzmur txafak sortu ta banatu ziran beintzat.

Usterik gutxienean gure neska ilundu zan; egun argian beintzat etzan etxetikan irteten. ¿Jaie-tan Mezara ez? Ez: lenago ere ortarako gogo aundirik etzuan izaten. ¿Lanera ere ez? Ezta ere. Etzuten lan aundirik izango ta.... ¿Ta bilerara? Ortarako gogo izugafia izaten zuan, bañan orduan...

Ots itxusia asi zan... ¿Zer gertatu zitzaion? ¿Aspertu al zan? ¿Inorekin asafetu, ala...? ¿Lagunak txarkeriren bat egin al zioten? Eztakit. Berak jakingo zuan. Bañan jamaika aldiz negar egingo zuan, bai, lagun onak utzi, elizatik gelditu, ta lagun beñiarekin bileran asi zalako....!

Oná emen baratzako lafosa mardul eta ede-fa. Jai afatsaldean bat edo bat etofi, lagun sail bat, eta afos bana artzen dute. Usai gozoa kendu naiean, sudufean erabiltzen dituzte; norberarena alkañi erakusteko eskuz-esku darabiltzkite; eskuak askotan izerdi-likitan daduzkate: batzuek artu nai eta besteak utzi nai ezika ibiltzen dira...

Batez ere ilundu ezkerro, inork ere geiago ikusi bear ez ditualako, estuka ta eskuka daramazkite... azkenerako zimel-zimel gelditzen dira, ta orduan bide baztafera, edo etxean sartzean okuilura botatzen dituzte.

Afos oiek ¿margo gofi-bizirik, ezetasunik,

mardultasunik, edertasunik, usai onik izango al dute? ¡Ez! Goiberagafi ta nazkagañiak geratzen dira, ta ez ditu iñork ere nai izaten. ¡Guztia galdu dute!

Oñá, bada. Laños oiek neskatxak dira. Etxean daudenean, edo lagun onakin eta bear bezelako tokietan jostatzen, edo ibiltzen diranean, gaitz-gabeak, prestuak, maitagañiak, aingeruen antzekoak izaten dira; baña lagun kaskarin batzuek etoñi-ta, bilera ta ofelako tokietan asitzen badira, guztia galtzen dute.

Batez ere dantza lotuan asi ezkerok jondamena! Artu-utzi, ekañi-eraman, eldu-askatu, eskuz-esku erabili..... zimurtu arte ofela ibili bear izaten dute; ta neska gajoak (txoroak esatea obe), berak nai adiña, edo nai bezela, mutiak dantzarako ateratzen ez badituzte, zimeldu ezezik, amofatu ere egiten dira.

Bilera gelditzen danean, bertan ezin egon; guztiak joaten bai dira, ba. Ilundu du (edo aspaldi ilundu zuan), etxea urutitxo, bakañik joateak beñiz gaizki ematen du, lagunakin joaten añiskua dago... Alaere, azkeneko au erabaki... Berdin, iñork ikusiko ez gaitu ta... Ez ikusi ezkerok itzbiderik ez... Gañera, algara edeñak egingo ditugu bidean...

¿Algarak, e ? Etsaiak hai; ¿baña zuk? Negar egin bearko dezula ziur nago. Egun'en batean ilargi, bide ta sasiak Jaungoikoari gauz asko esango dizkate... Batzuen (askoen) prestutasuna ta garbitasuna baztar oietan ondatu-ta agertuko dira.

Gazte oiek eta beren gurasoak betiko lezera zili-
purdika joan bearko dutela bildur izateko da...

Ez ori bakarik. Afosak, zimeldu-usteldu ez-
kero, beren inguruan dutenari ustelkeri ori itsasi
egiten diete, erantsi-ta bezela gelditzen zaie, ta
besteak kutsuz usteltzen dira. Neskatxak ere, bi-
de-zuzenatik era ortan baztatu ta lardazkaturik
bezela gelditzen diranean, ustelkeria berengan
daramate, kiratsa darie, izketa leun-gozotan pozoi
ikitsuztitsu emanaz, ofela berenganatu, ta toki
txar oietarako bidean ipintzeko.

Gañera, beren etxetan naspila jartzen dute,
gurasoen esanak egin nai izaten ez dituzte, ta bes-
tela ere, afo-afosak egiten dira.. ¿Nola ez? Bilera
ta bide oietan esaten dizkieten losentxa ta mait-
itzak (¡txatxu-ergelak!) sinisten dituzte ta... Politak
dirala, begikoak dirala, beste batzuek mukeak
dirala, betizuak dirala, atsegin-zaleak ez dirala...

¿Besteak ofela on-bide edeña artuko al dute?
¿Aizpa gazteagoak batez ere?.. ¿Auen lagunak..?
¿Auzo ta urutikoak?

...0

|||||

Afosak baratzako baztar osasungarian, zora-
gañak.

Eskuka ta ikutuka erabili ezkerro... nazkagañak.

169

165

-116

61

.61



¿Erleai kaltea? ¿Zergatik?

Besteen gauzak ondo artzen eta zintzo egiten dituztenak badaude; baña ¡bai ajola gabeak ere! Sendagaiak ekartzen auzokoak joan bear zutela esan dute, ta gure mandatua ere ekariko zutela; bañan emen ez mandaturik, ez eta onen aztarnarik ere ikusten ezta. ¿Zer ote da au?

Erleetako basetxeko gazteak ala zioten egun batean, asper-asper egin-da.

Ori ikusi-ta, batek esaten zuan: Eiztari jaunaren etxeak ¿muzin egongo al dira, berak uste bañon egun geiago onek emen egin ditualako? Beste batek: Sendagai bila joan zanak Eiztari jaunaren etxea etzuan onenean arkituko, ta aitzakia ematera etortzen lotsatuko zan. Zarenak beriz zion: ¿Eman dizkaten gauzak arduraz ekartzeagatik iristatu-ta erori ez bada bidean, eta min artu? Ori ere izan liteke..... Anaiak orduan: Bai, bai, oso bide txarak daude, euri asko egin du ta..... Erortzean mandatua zikintzea ere gerta liteke, ta legortugarbitu arte itxedotea..... Txikienak azkenean esan zien: ¿Miñez dagoan amonaz oroitzen ez al zerate? Okerago ez ba dago... Ala izan ezkerro ezta aritzeko... Guztiak lari egongo dira ta.

¡Gogo aundiak egiten dituanak! Etzan, ba,

ala. Beste batzuek ere emen aitatzea nai zuten, eta txanda utzi nai ez. Orixe zan guztia. Pilartxo, Prantzisko Donea, Maritxu, Mutil biuria, Maistara, Zakuña, Beste maiztara, asko ziran zai zeudenak, asko ziran..... Bereala asi gaitzen.

Auzokoak irudiak ekañi dituzte, esan zuan Eiztariak; eta orain guztia ondo azalduko dizuet. Guztiak aren inguruan jañi ziran, eta erleen etsaiak zein eta nolakoak diran ederki azaldu zien. Irudiak ikustean txoratu-ta bezela geratu ziran.



Lenago galdetu didakena, esan zion Martxelineri, orain ikasiko dek.

Erleen etsaiak, batzuek aundiak, besteak beñiz txikiak dituk. Oná emen:

Ameriketan artza beltz batzuek izaten dituk,

eta pizti txar asko ere bai, oso eztizaleak. Lañu lodikoak dituk: oregatikan ez diton erle ozkaen bildurik izaten, eta erleak eultza zuaitzetan egiten baditek, oietara igo ere egiten dituk.

Beste pizti mota bati bildur aundia ziotek: gau bakar batean eultza ondatu zezakek-eta. Izugarriak dituk.

Egazteetan ere badizkitek; batez ere bi, *ormatxoria* ta *enara*, (beste izenez egabera.) Azkene-ko onek erle asko ondatzen dizkik: egaztietan geien-geiena arapatzen dizkikena dek. *Ormatxoriak*, egokitu ezkerro, aldian iru bere kabira eramango dizkik; mokoan bat, eta bi anketan bana.

Beste bat ere bazegok, sagu-zararen neurikoa gutxi-gora-bera. Onek, erle **Langileak** geldi erazitzeke, **Eregiñak** egiten diken kafaxiaren antzeko otsa ateratzen dik, eta eultzetan kalte aundia egiten dik.

Beste bati *erle-ots'oa* esaten ziotek. Esandakoak aiñakoa ez dek, bañan aundi samaña bai. Onek arautz bat ondarazpian ipintzen dik: gero lau edo sei erle arapatu ta arautz oren ondoan jartzen dizkik, umea jaiotzen dekenean, jana bertan izateko. Oñela erle asko ondatzen dik.

Beste etsai mota bat **listorak** dituk, eta ez nolanaikoa. Indarrez erleak menderatu ta eultza ondatzen ditek: baita zenbait aldiz ere, arautzak egin eta erleen geletan ipintzen dizkitek.

Aundiak ditukela esan dizkiagun etsayak auen dituk. Beste batzuek ere badituk, gorputz

txikiagokoak, bañan ez ofegatikan etsai obeak: txikiago ta okefagoak askotan izaten dituk-eta.

Pipiak kalte aundia egiten zietek. Batzuek gauaz eultzetan sartzen dituk, erleak alegiñean gogor egin afen, eta auen geletan afautzak jartzten dizkitek; eta gero, umeak jaiotzen ditukenean, toki osoa auentzat gelditzen dek; erleak joan bear izaten ditek-eta.

Gañera, argizaia biguña dek, eta aberaska bafenean efaz sartzen dituk. Artan este bat egiten ditek, zearzulo luzetxoa, eta bertan ederki egoten dituk. Zenbait aldiz aberaskak ufatu ere egiten dizkitek, eta erleak joan bear izaten ditek.

Zoriak ere erleentzat etsai izugafi txafak dituk.

Erleak ateratzeko afautzak, aldaketa batzuek nai ta ez egin bear izaten dizkitek, eta auetako batean zeudekenean lafuaren azpian zofi mota batek afautzak jartzen zizkiek, banan banan, eta zorikumeak jaiotzen ditukenean, erlekume aien koipea jaten ditek.

Beste zofi batzuek beren umeak lufean jartzten dizkitek, auek afastaka loreetara joaten dituk, eta erleak ezti-gai bila loreetan sartzen ditukenean, zorikumeak eldu egiten zietek. Ofela, erleak berak eultzara etsai oiek eramaten dizkitek. Gero erleak afautzak egiten dizkitekenean, zofi oiek afautzak ondatu ta eztia jaten ditek.

Etsai guztiak esateko lan aundia izango gendukek: ofegatik emen geldituko gaituk. Bañan

añak, txinguñiak, armearmak eta oien antzeko beste zomoro asko erleen etsayak ditukela ez aztu.

—**Martxelinok**—Jauna, etsai oietako batzuek gabaz ere ibiliko balira, beroñek esan duan bezela, erle alerik ere ez luteke bizirik utziko...

—**Eiztariak**—Bai, bañan erleak ere ibiltzen dituk.

—**Martxelinok**—¿Ez al dute, ba, lo egiten, Jauna?

—**Eiztariak**—Ori iñork etzekik; gabaz ere lan egiten ditekela bakarik zakiagu. Gau batean bi edo iru aberaska egiten igarri izan zietek beintzat.

—**Martxelinok**.—Beraz ¿gabaz ere ikusiko dute, Jauna?

—**Eiztariak**—Noski. ¿Zertarako izango dizkitek, ba, bost begiak?

—**Martxelinok**—¿Bost begi? ¿Zer esan naidu beroñek ortan, Jauna?

—**Eiztariak**—¿Zer esan naiko diat? Bost begi izan ezkerro zerbait ikusiko ditekela.

—**Martxelinok**—¿Ta bost begi dituztela benetan esaten al du, Jauna?

—**Eiztariak**—¿Nola esango diat, ba? Ala dek eta... Etxeko gauzak ikusteko iru, ta irteten ditukenean, beste biak bear izaten dizkitek: urutira begiratzeko nonbait.....

Zoratu-ta bezela zeuden guztiak, baña batzarfe oni azken eman bear izan zioten. Eguraldi ederfa jarri zuan, eta Eiztariak bere etxera joan bear zuan. Goiz artan joan asmo zuan, eta euriari sen-

¿Lan txikia egin, eta gauzak merke erosi? ¿Non edo noiz?

Gauzai ez begiratu, gorde ez ¿ta bear danean izan?

Erleai begiratu... ¿ta jaraitu!

Eria ta izkuntza

Zuaitza nolakoa dan ezagutzeko, etzaio itxurari begiratu bear; ematen duanari baik. Baldin eman onak badakazki, ona izango da: ezperen, txarā.

Gizon jakintsu-argi-trebeak toki guztietan izan eta izango dira; bañan Euskaleñian adiña ta adiñakoak nekez. Ezta au gauz asko esateko toki egokia; bañan ale batzuek, besterik ez bada ere, aitatu nai ditut.

¿Eta euskera? Ori izkuntza leun-gozoa! Bai maitagaña! Askok maitatu, ba. Bere izkuntza maite ez duan euskalduna, euskalduna ezta.

Eman auek dakazkian eria, ba, ¿nolakoa izango da? Izen batzuek irakufi.

Juan Sebastián Elkano (*Getariaña*.) Itxasgizon jakintsu. **Cristobal Colon**'ek itxasoz beste aldekoa arkitu zuanean, Elkano jaunak beste iñork baño lenago Lurbira osoari inguru-aldi bat eman

zion, lan ortan iru urte egiten zituala. (1526-gaŕen urtean il zan).

Antonio Okendo (*Donostiaŕa*). Izen eta aomen aundikoa, ta bere seme Migel. Biak itxas-gizonak, eta biak ere goieneko mailatakoak.

Kosme Damian Txuruka (*Motrikoara*). Askok diotenez, azkeneko gizaldi auetan **Txuruka** au bezelako itxas-gizonik izan ezta. Trafalgar'ko itxas-burukan il zan (1805-gaŕen urtean).

Juan Migel Orkolaga, Apaiz jauna, (*Ernaniaŕa*.) Eguraldigauzetan asko zekian. Berak aterariko tresna batzuek ere bazituan. Itxas-ekaitzak alde-aureraz ezagutzen zituan. Lantegia **Igeldo'n** zedukan, eta arantzaleai ariskuak urutizkiñaz esaten zien, eta orduan etziran auek arantzara joaten. Il zan 1914-gaŕen urtean.

Ezagutu ditugun jakintsuetan au bakaŕa aitatzen det, guztiok asko zor diogulako. Batzuek (arantzaleak) bizia ere: bestela itxasoan galduko ziran-ta.

Inazio Doitsua (*Loyolara*). Onen kondaira ezagutzen ez duan euskaldunik ez dago. Guztiok biotzez maite degu, baita berak jaritako Jesus'en Lagundia ere. Zerura 1556-gaŕen urtean joan zan.

Bizkaia'n sartzean, izen bikain asko bidera irteten zaizkigu, *Bizkaiko Jaunak* eta abar; baña guztiak ipintzeko leku aundia bearko genduke.

Ořegatikan, izenak utzi-ta, oien kutxa aitatu-ko degu: **Gernika**.

Andra Mariaren elizak, Batzar-etxe ta Aritz gogoangariak, euskaldunoi garbi-garbi itzegiten digute. Gure asabak antxe biltzen ziran, eta Euskaleriko **Lege zarak** galtzen utziko etzutelako itza ematean, *Bizkaiko Jaunak* zin-egiten zuten. Ořegatik Euskaldunok, burua erantzi-ta, Iparagiře'ren Zortziko au begirapenez esaten degu:

Gernikako arbola
Da bedeinkatua:
Euskaldunean artean
Guztiz maitatua.

Eman ta zabal zazu
Munduan frutua.
Adoratzen zaitugu
Arbola santua.

Arabatarretan, oná batzuek:

Frantzisko Alaba Duxardin. Gudari bikaña, goieneko Mailetakoa. Españako Eřegearen ordez Prantzian egon zan, eta Eugenio Doitsuaren gorputza andik Toledora ekartzea berak iritxi zuan.

Fray Francisco Bitoria (*Domingotarretakoa*). *Burgos, Santiago, Paris, Valladolid eta Salamanca*'ko Ikastetxetan ikasi ta irakatsi zuan. Erlijio gauzetan, garai artako Españako gizonik jakintsuena zala esaten zuten, eta «*El Sócrates alavés*» esaten zioten. (1546-gařen urtean il zan).

Diego Alaba Eskibel. *Astorga*'ko Gotzai izan zan. *Trento*'ko Eliz-Batzarėan jakinduri aundia erakutsi zuan bere itzaldietan. Gero *Avila* ta *Córdoba*'ko Gotzai egin zuten, eta azkeneko ontan il zan. (1562-gařen urtean).

Fray Melchor Amigo, (*Prantziskotafa*) txit jakintsua. Goieneko mailetara igo zan. Irakaslari ta iztun bikaña, irakurgai edeñak egin zituan; eta oso jakintsua zalako, Euskaleñiko Bakartegitan zeuden agerkaiak bilatu-ta biltzeko jañi zuten. (1747-gañen urtean il zan.)

Napañoaz ¿zer esango degu? Senide oiek beti bizkor-argi-trebeak izan dira, ta batez ere guda ta Erlijio gauzetan bero-beroak, besteak ez bezelakoak.

Xabier'tar Prantzisko Doitsu, Jesus'en Lagundikoa, ta Permin Doitsu, Gotzaia, aitatu gaube ¿nola gelditu? Gañerako gizon bikañak utzi bearko ditugu, ta gertaldi eder batean beren aunditasun guztiak sartu. Oná emen.

Mohamed el Nazar, Érege beltz eta sinisgabeak, Españako beko aldean indar aundia artu zuan. Au bialtzeko, gudari-talde aundia bear zan; berak ere aundia zuan-ta. Érege batzuek batu ziran, bat Napañoakoa, talde eder bat egiñaz. Érege beltzagana joan ziran; eta onek bere jauregia lezoi, zulo ta katez inguraturik bazedukan ere, kristauak artan sartu, ta Érege beltza ta bere mendeko ta gudari guztiak ondatu zituzten. ¿Bero-bizkor, azkar-bulardetsuenak zein? Napañak.

¡Gauza edeña! **Sancho el Fuerte**, Éregea, ta bere gudariak, guztiak napañak, kateak autsi ta aúfenekoak sartu ziran. Oregatikan Napañoako eskutarma burni-katez inguraturik dago.—Gañe-

ra, Érege beltzari kendutako kate aiek Iruñako Eliz-Nagusian (*Catedral*) daude, ta toki guztietan Kondairaren bidez Napañai aomen aundia ematen zaie.

Au **Navas de Tolosa**'n gertatua da: baña *Tolosa* au ezta *Euskaleri*koa (ez *Guipuzko*akoa, ez eta *Prantzi*akoa ere) *Jaén*'goa baizik (*Andalucía*) (izan zan 1212-gaŕen urtean.)

*Ora, ba: Euskaleri*ko gizon gogoangari batzuek, laburtxo bederik, aitatu ditugu. Geyago ez esana barkatu. Tokirik ez dago-ta.

Zuaitz onak, eman onak, berez.

Zuaitz txarak, eman txaraz, berez.

Eman zimurak, goiberagañiak txit.

Alakoa ez izateko, euskerari eutsi.

¿Ta izkuntza? ¡Au, bai, bikaña! ¡Gutxi bezelakoa! Gure itz askoi, esan nai duten ura bañendik etortzen zaie: beragatikan gauzak nolakoak diran ezagutzeko oso egokia da.

Nork-berea goratuko du: ederki dago. Guk ordea, gurea. Gutxi bezelakoa dala esan degu-ta.

Gañera, guztia ederki berezten du. Beste izkuntzetan itz batzuek iru edo lau eratan artu ditezke, beste ainbeste gauz adierazitzeko. Euskeraz ez: itz bakoitzak bere gaia.

Aberatsa da. Beste gauz askoz gañera, nolakoak nolakoari itzegiten dion agertzen du, batez ere senidetan. *Anai, aŕeba, aizpa* (*neba, aizta,*

Bizkaian), *anai-arrebak, senideak*.—Itzegiten duanak esaten dituan gauzetan bere burua sartzen duan edo ez, garbi ezagutzen da.—Zerbait esaten duanak, ortan lagun edo gauz asko sartzen diran, edo gauza bat bakarra aitatu nai duan agertzen da.

Aziera onari ere begiratzen dio. Oregatikan, begirapen aundia ekañi bear zaienai (*Apaiñ jaun, Agintari, guraso, aiton-amona, ta urte asko dituztenai*) **beroriketan** esaten zaie. Berdintsuak alkañi, naiz ezagunak izan eta naiz ez, **zuketan**. Senideak edo kidekoak, batez ere aurtasunean lagunak izan ba dira, alkañekin **iketan**. Eta ontan ere beste berezgo bat badago. Gizasemeari **ika** esaten zayo, naiz gizasemeak eta naiz emakumeak itzegiten diotela; ta emakumeari, naiz gizasemeak eta naiz emakumeak itzegiten diotela ere, **noka**. (*Ika-noka: iketan-noketan*).—Gañera, esandako begirapenekoakin itzegiten degunean, edozer gauza esan-ta, azkenean beti «*Jauna*» esaten degu, beerapena agertuaz.

¿Ta joskera? Ezjakin eta jakintsuak, guztiak ontaz añitzen dira. Gora ta bera, ezker-eskubi; zuzen-zear, atzekoz-añe. euskeraz itzegitean alde guztietara eñaz, leun, ugari, nekerik gabe jotzen da, edozer gauza azaltzeko eran; eta oñela bikaintasun edeñra oparo sortzen da.

¿Zerbait geiago? Bai, eta txit goragañia. Euskaldunen sinismen eta oitura onak euskeraren babesean diraute: oregatikan Euskaleñira etoñi izan diran sinis-txañeko guztiak, alpeñikako lana egin

dute. Euskaldunok gaiztotu gaitezke ¿zergatik ez? Sinismena galdu, ordea, oso nekez: egizko euskaldunak izan-da beintzat.

Azkenik; **birao** madarikaturik euskeraz ez dago. Euskaldunak **Dios**'ka, **Kristo**'ka, **Ostia**'ka, ta abar aritzen dira ere (geiegi zoritxañez... ¡Euskaldun maitea! Alakorik ez beñere esan...) bañan ez dira orduan euskeraz aritzen: gauz oiek euskeraz ezin esan dira-ta.

Esan detana utsa da; baña geiagotako tokirik ez dago. Barkatu.

Orain bi gauz auek gogora ekañi.

Lenengoa. Euskera goiberatzen duten euskaldunak badaude, ta euskeraz jakin afeñ, euskeraz itzegiteko lotsa izaten dute. Euskera izkuntza zataña dala esaten dute, ta gauzak ondo ezin esan dirala... (Berak zatañak, bai; ta ezjakiñak gañera.) ?Oiek euskaldunak? ¡Bai zera! Itxasoz eramaten badituzte ere, ez degu asko galduko...

Bigafena. Euskera guk biotz-biotzez maitatu bear degu. Esandakoaz gañera, gurea da-ta. Asabaengandik datorkigu, ta ziñez eutsi bear diogu. Esan zañak diona: Euskaldunak euskeraz. Egizko euskaldun ark bezela, esan dezagun:

Euskaleñian jayo.

Euskaleñian azi,

Euskaleñian ezi,

Euskaleñian bizi.

¿Ta il? Ori ez jakin. Il ere Euskaleñian nai

Abereak, batzuetan ortzaz, besteetan adaraz, orain askuria egiten, gero alkarfeekin jostatzen, onek azalak jaten, ark eguzkitik igesegitean, beintzat zuaitzak ondatzen dituzte: bañan autxikiena da.

Ume sail bat muntegi'ren batean sartzen bada, ekaitz beltz batek Garagarilean soroetan baño kalte aundiagoa egiten du. Auntzak zuaitz gazteak ondatzen dituztela esaten da, ostoak eta azal biguña jaten dutelako; bañan oiek gañerako guztia ikutu gabe utzitzen dute, ta umeak guzti-guztia ondatzen dute.


¿Ta umeak ez diranak? Zuaitz'en batek zerbaiterako kaltea egiten duala buruan jartzen bazaye, naiz soroan edo baratzen, edo beste edozer tokian izan, ¿zer egiten dute? Aizkora artu, zuaitza bota, ta kito. Gero, gauz aundia egin izan balute bezela, afokeriz besteai esan.

Orelakoren bat egitea gogoratzen bazaizu, orain esango dizudana zearo irakuñi, ta lan ortan geldiago ibiliko zerala ziur nago.

Lenengoa.—*Itzala egiten digute.*

Itzalik ezpalego, bidariai kalte aundiak etoñiko litzaizkieke, ta nekazariai ere bai. Bidariak izerditu-ta dijoaztenean, zuaizpe batean gelditzen dira, onek atsedeen eta otz-bero edeña ematen die, ta beren bideari jaraitzeko indañoak artzen dituzte. Nekazariak ere, gosaltzeko, bazkaltzeko, ta bazkal ondoan soroan lo egin bear badute, itzala gauza beaña: bestela, eguzkia buruarentzat oso gau-

za txafá dalako, kalte aundia egingo lieke, ta éraz il ere bai.



Bigařena.—*Abereai  re itzala.*

Itzalik ezpalego, abereak basoan ezin egongo lirake: batez ere udan kiskalduko lirake, ta jan gabe etxera joango lirake. Bařa zuaitzak itzal edeřa jartzen dute, itzal ortan abereak eroso egoten dira, egunaz berotu gabe ta etxera etoři gabe, ta gabaz belar bikařa jaten dutela. Gařera, zuaizpetan intzik egiten ez da, ta ango belarřak abereai kalte egiteko bilduřik ez.

Irugařena.—*Euria erakartzen dute.*

Zuaitzak galdu diran tokietan (edo eřiak on-

datu dituztenetan) legorte aundiak izaten dituzte. Euri egin bear badu, ekaitzak ekaña izaten da, ta orduan geñegi edo era txañean, adarka, eñekak beren bidetatik ateratzen dituala, kazkarabañak guztia ondatzen duala, ta abar.—Gañera, ezetasunik gabe luñak ezer ematen ez du.

Laugañena.—*Sendagaiak ematen dituzte.*

Batzuetan ostoak, besteetan ekañi-aleak; onen azalak, aren zaiñak edo zuztañak; orain udabeñiko izerdia, gero loreak..... zuaitzetatik sendagai asko ateratzen ditugu. Ortan asko dakitenak badaude ta.

Boskañena.—*Jatekoak ematen dizkigute.*

Zuaitzak ekañi mota asko izaten dituzte, ta etxeetan oiek erosi beañik ez dago. Saldu ere egiten ditugu, ta oien ordañaz beste gauzak erosi. Ta ori guztia, zuaitzari lagundu gabe, edo neke txikitxoa ematen dutela.

Jan-gai oiek, batzuek gerok jaten ditugu: sagañak, udareak, gereziak, gaztañak, muxikak, aranak, intxaufak eta abar. Abereentzat beñiz, aritzak, pagoak, gaztañak, arteak, eta oyen antzeko beste batzuek ematen dituzten aleak, ezkur edeña. Abere batzuek besterik gabe asetzen dira, ta ederki gizendu ere bai.

Seigañena.—*Zurak, olak, lan-gaiak.*

Abek ere, era ta mota askotakoak dira; gogor-zatañak, gogor-politak, biguin-itsusiak eta biguin-bikañak.

Ganbaretan sendoak bear izaten dira, abe, kapiro ta astazaldiak egiteko. Okuñuetan ere,

abe, ganbel, sare, tranpolak eta abar. Baita golde, pertika, aras eta ofelakoak ere, indar aundiko gauzak diralako, naiz ez politak izan.

Sendo-politak; solairuak, maiak, alkiak, atek, leioak, apalak, zizailuak, eta abar.

Biguin-itxusiak; indar aundirik bear ez dan, eta ikusi gabe gelditzen diran tokietarako, nolanaiko gauzetarako. Teilatu azpiko latak, lantegietan egindako tresna txiki ta auskoak saldu bear dituzten tokietara eramateko, edo arai beña urutira eramateko bear izaten diran zur-ontziak egiteko, ta abar.

Biguin-bikañak; elizetan, etxeetako tokirik bikañenetan eta abar ipintzen diran kutxak, lau-aldekoak, oak, tresna boronbilak eta bestelako apaingariak, ol biguñak ederki landu-ta egiten diranak.

Zazpigarrena.—*Sua egiteko egua. Orobat ikatza.*

Sua gauz askotako beña izaten da. Gu ta etxeak berotzeko; gure otorduetako gauzak egosteko, ta egegosteko; abereentzat bazkak beste ainbeste; gobadak egiteko ere bai; lantegietan zernai egiteko; labeak berotzeko; burnia, beruna ta abar urtutzeko; meai zikiña kentzeko, ta beste gauz askotako ere bai.

¡Amaika gauz esan ditugu, e? Beste asko ere esan genitzake, ba, zuaitzen alde: ta au gogoratzean ¿ez al da negargaria zuaitzak ondatzen ikustea?

Ez dakienak, uřezko pitxiak ondatzen ditu.
Zuaitzak pitxiak bařno geyago ematen dute.
Irakurgai au aztutzen ez utzi.
Zuaitzai beti ondo begiratu.

Nolanaiko kristauak

Kristau ona izateko, batayatu-ta egotea naira dala batzuek uste izaten dute. Ori, gauza beara; gařerakoa, nola datořen ikusi bear da. ¿Sinistu? Gauz aundiak bai; Jaungoikoa badala, ta ořelako gauz aundiak: gařerako askoengatik ajolik ez. ¿Gauz onak egin? ¿Meza entzun, obena aitortu, Jaun-aundia artu, ta abar? ¡Oiek ez egin ařen..! esango dute, ona izan diteke.—Bai, bai...

Ori Jaungoikoak eta Ama Elizak zerbait agintzen dutenean. Eta oien ordez, edozein kairuk esaten duana itxu-itxuan sinistuko dute. Lenengoak esaten dutena, zentzu onako gegiak izango dira. Bigařenak diotena beřiz txatxukeri ta gezur utsak, atsoren batek txanponak kentzeko ogi-bideak. Eta alaere, Ayena utzi, zabartuta; ta auena gogoan artu, ta itxu-itxuan egin. Auek aztikeriak, sorginkeriak, eta abar dira. ¿Ta ořela kristau onak izan?

Gai au eta uřengoa ařetaz irakuri: zerbait aterako dezu.

¿Buru-gabeko giz-emakume batzuek, lepo-
gañean daramaten eltze utsean sartu-ta dituzten
gauza batzuek jakin nai al dezu? Irakurri.

Belarri bat otza dutela bestea berotzen bazaie,
norbait aiezaz txar esaten ari dala uste izaten dute.

Gauerdi aldera oilarrik oju egiten badu, sua
itzali gabe badago bereala gatza sutara bota bear
da: bestela oker aundi'ren bat gertatzeko arisku
aundia dagoala deizkie.

Bat edo bat iltzen danean, lastaira ere egin
bear da; ez ordea non nai eta nolana. Bide-guru-
tze batean egin bear da; gorputza eramane ondoko
lenengo ilunabarrean (ez lenago, ez eta geroago
ere). Baldin lastairaren ordean burni-arizkoa baze-
dukan, gorputzaren azpian lastozkoa jarri, ta gero
au ere egin bear da.

Meza nagusiaren erdian amaikak jotzen badu-
te, bat edo bat laster ilko da.

Ildakoa jantzi-ta, guraizeak gañean zabalik
jartzen bazaizka, au; gañerakoan, ura gertatuko
dala ziur.

Guraizeak noiz nai lurrara erortzean, muturra
sartu-ta tente geratzen badira, zori ona izango
dute.

Gorputza ileñira eramatean euri egiten badu,
taju ona: Ildako onak. euria bear.

Baldin goizean etxetik irtetean gorputz'en bat
elizara edo ileñira badaramatela ikustea gertatzen
bazaie, egun artan gauz onik izango ez dutela ziur.

Amairua zenbaki txarra; edozer gisa artzen dala, gauz onik ez.

Astearte edo *ostiraletan* egiten diran gauzak, maiz oker gertatuko dira.

Gauz abek sinisten dituztenak ¿kristauak al dira? ¿Buruan muñak edo zera-zaia al dute? ¿Entzuten diran gauzak!

Eri bateko ilefi inguruan, gauza beltz aundi bat ilundu ezkerro ibiltzen zala zabaldu zan, baita keinu batzuek egiten zituala ere, ta ildako'ren baten gogoa izan bear zuala, ta abar.

Guztiak izaturik zeuden, eta aruntz joateko biotzik inork ere etzuan. Egun askoan ofela egon ezkerro, guztia agertu zan.

¿Zer zan, ba? ¿Zer izan bear zuan! Inguru aietan baratz edefak bazeuden, eta aietako baratzekiak ostutzen zituztenak inor ere ara joatea nai ez. Ortarako gezur ori zabaldu zuten, guztiak ikaratu ziran, eta berak baratz aietatik nai zuten guztia eramaten zuten, naiz etxerako ta naiz saltzeko ere.

Kondaira au ez dit inork ere erakutsi: neronek ikusia da.

.
Buru-gabeko giz-emakume oien ergelkeriak ikusi ezkerro, aztikerien bidez kristau txatxu askoi txanponak ateratzen dizkieten atso zarpail oiezaz zerbait esan dezagun. «*Aztiak*» esaten diete.

Zerbait galtzen zaienean (gauzak, abereak, etxekoren bat), aztiengandik ura ikastera joaten

dira. Auek mami gabeko gauza batzuek erantzuten dizkiete; gauza jakiñik beñere ez. Onela:

Toki onean dago, etoriko da...

Urutira eraman dute, bañan okerik eztu...

Maite etzaituen batek artua da...

Bildurik ez izan, ezta galduko...

Damutu zayo, lotsatzen da, etoriko da...

Ori esan beaŕean ¿zergatik ez dute garbi esaten non dan, edo zer gertatu dan? Bai aztiak, eta bai onengana joan danak, biak geiago irabaziko luteke: onek bere gauza bereganatuko lukelako, ta aztiak esku-erakutsi ohea, aundiagoa, artuko lukelako. Bañan ¿eztago bildurik! Kaiku-zarpail-lotsagabe oiek ¿nondik jakin bear dute?

Gai onetan **Nabucodonosor** Eŕegeak gauza polit bat egin zuan. Amets ikaragaŕi bat egin zuan. Oso izuturik, bere Baŕutiko azti guztiai otsegin zien, eta amets ark esan nai zuana asmatzen bazioten sari edeŕak emango zizkiela esan zien; bañan asmatzen ez bazioten, zeatu ta ilko zituala.

Aztiak erantzun zioten *lenbizi ametsa esateko*, ta orduan azalduko ziotela. (Oŕela nik ere asmatuko nituzte).

Eŕegeak erantzun zien: Ez; burua nastu zait, ez tet gogoan. Gañera, *ametsa bera esan bear dirazute*, *zuen azalpenak egia duala nik ezagutu dezadan*. Orduan aztiak nastu-ta geratu ziran (Eŕegea baño geiago nonbait), eta ori iñork ere asmatuko etziola esan zioten. Oŕegatikan azti guztiak il erazi zituan.

¿Nork asmatu zion Éregeari bere ametsa ta azalpena? **Daniel Igarlariak.** Onek Jaungoikoaren izenean, eta Aren argiaz, guzti-guztia azaldu zion, eta asmatu ere bai. Eta Éregea beeratu zan, Daniel'en Jaungoikoa egizko Jaungoikoa ta Érege guztien Jauna zala aitortu zuan, Daniel asko goratu zuan, doai eta esku-erakutsi edeñak eman zizkan, eta bere mendeko guztien buru ta agintari ipiñi zuan.—Eta etzan ori izan Danielek losentxak eta itz gozoak Éregeari esan zizkalako. Amets ark Éregeari Jaungoikoaren zigoñada ikaragaña adirazten zion, Éregetza ta Agintaritza kentzen zizkala; ta Danielek guztia garbi-garbi esan zion.

Azti-zale kaiku ta kristau txañak ¿zer esango dute au irakurtzean?

|||||

Ama Elizak irakasten duana sinistu.

Ergelkeri ta aztikerietan ez ibili.

Atso zatar-zarpail oiei ez begiratu.

Txanponak ateratzeko era utsa dala jakizu.

Oñelakoak kristau txañak dirala ez aztu.



¡Etzion ziri txara sartu!

Aztiak esaten dieten atso zarpail batzuek zenbait efi ta urietan izaten dira. Bertako ta auzoetako bizilari asko oiengana joaten dira (zoritxarez geiegi) zerbait jakin asmoz, beren zintzotasuna ta kristautasuna oiñen azpian jartzzen dituztela. Ta gauzak nolakoak izan bear duten ¿ikasten al dute? Irakurgai au ikusi: gero, galdetu beaíean zeroiek esango dirazu.

Aztiak gezurti uts-utsak dirala ezagutzeko ta adierazteko, oná neskatx batek egin zuana.

Azti batengana joan zan, eta onela esan zion. Nik *monja* joateko asmoa nuan, txiki-txikia nintzan ezkerro. Nere gurasoak etzuten nai, eta ofek samintasun aundian orain artu euki nau: bañan era ortan ezin bizi nintzan, eta zearo erabakitzeke asmoa artu nuan.

Ortarako, izen aundiko Apaiz jaun jakintsu ta on batengana joan nintzan, eta guztia zearo esan nion. Berak ere beste gauza batzuek galdetu zizkiran, eta guztia buruan astirotxo erabili ezkerro, onela erantzun ziran: Neska, lasa egon zaitezke: asmo ori utzi, ta gurasoen esana egin. Jaungo-

koak zure asmoa ikusi du, ta eziñean zaudela ikusirik, etxean gelditzea eztu gaizki artuko. Gauz oiek burutik kendu, ba, ta lasa egon: Jaungoikoaren deirik emen eztago, zure iduripen utsa baizik.

Añezkero, ori guztia alde batera utzi det, eta orain beste gauz bat gogora etortzen zait, eta ezin kendu det. Gure auzoan nere kideko mutil bat bazan; niganako maitetasun aundia beti erakutsi izan du; ta biok ezkondu ber genduala esaten zuan. Nonbait orain ere ortan dago; bada itxasoz joan zan, eta bere etxekoak beti esaten dirate, eskutizetan neretzat eskumuñak jartzen dituala.

Nik orain arte ez diet ařetarik eman, beste-lako asmoak nitualako; baña Bakartegira joan bear ez badet, zerbait asmo artu beariko det, eta on-tantxe daude nere istiluak.

Batzuek mutila ona dala esaten dute, asko irabazten duala, ta laster aberats-aberatsa izango dala. Beste batzuek beřiz bestela itzegiten dute; irabazi bai, asko egiten duala; baña jokurako griña aundia duala, ta irabazten duan guztia bereztat bear duala, ta noiz nai ezer gabe egoten dala ere bai. Zer egin eztakit, zaletu edo ez, eta laritasun au kentzen ote dirazun zuregana nator...

(Auferago joan baño lenago esan bear dizut, au guztia ipui bat zala; obeto oraindik, **gezur utsa, neskatxak bere burutik aterea, aztia gezurtaratzeko**. Ta ederki gertatu zitzaion. Neskak etzuan orduan, ez lenago ta ez geroago izan ere, ezkontzeko asmorik: ¡il naiago! ¡ortarako zegoan!

Bakartegi batean sartu zan, eta antxe dago, oso pozik. Beragatikan, mutilaren gorabera guztiak, ipuiak: **jalako mutilik etzegoan-da!** Neskatxak ikusi nai zuan, berak jakiteko ta besteai esateko ere, aztiak gezurti utsak dirala, ta ezer ere asma-tzen ez dutela; ta guztia oso ondo gertatu zitza-yon. Goazen orain auffera.)

Aztiak *kartak* mai gañean ipiñi zituan... be-rezi... bildu... nastu... bat erditik atera... besteen ondoan zuzen jañi . gero oker... azkenean lo be-zela gelditu zan. Laster zutik jañi ta gela erdian bi-ra-biraka ibili zan... leiora joan eta goruntz begi-ratu... burua makurtu... luñatik zerbait artu itxura egin... azkenean neskatxari aurkez-aurke begira-tu. ¡Noizpait irten zan! Onela esan zion: Zuen alkar-bideak egizkoak eta onak dira. Mutil ona da, apain eta edefa; ta oso aberatsa, gañera. Zu bes-terikan gogoan ez duala bost urte dira, ta ezkon-tzeko itza laster eskatuko dizu. Zureganako mai-tetasun ori aspaldikoa da, ta mutil oñekin zorione-koa izango zera. Bera ezin etoñi da, ta zu ara joa-tea nai du; baña bost urte igaro baño lenago, as-ko aberastu ta etoñiko zerate, ta eñitar guztiak añitu-ta geratuko dira. Ez bildurtu, ba; guztia on-do gertatuko zaizu. Nik *kartaen* bidez, eta beste-la ere, garbi-garbi ikasten det.

Aztiaren etxetik irten bezin laster, neskatxak algara eder bat egin zuan. ¿Nola ez? ¡Etzion ziri txaña sartu! Gañera, aztiaren aufferan oso lañi egon zan. Gezuñetan nabilela ezagutzen badu, zion

bere artean, bera paragarri uzteko, galdua naiz,
itoko nau. Oregatikan, bere burua afiskurik gabe
ikusi zuanean jalgara gozoa!



Agur egiteko, leiora irten zan aztia: bañan
jetzuan uste ikusi zuana ikusi bearko zuanik!
Neska algaraz ikustean guztia ezagutu zuan; eta


oso amofaturik bereala etxean sartu zan, neskari keiñu bizi batzuek egin-da.

Gero neskatxak guzti-guztia esan zuan, eta bai erian eta bai inguruetan laster banatu zan. Oña, esaten zuan, azti zikin oien jakinduria. Trebeak dirala ta asko dakitela esaten dute ergel batzuek... Nik beintzat pañagari utzi det, eta lan aundirik gabe... Oiengana itxu itxuan joaten diranak, nik egin detanaren antzeko gauz'en bat egingo baluteke (ez ordea nola nai, kako guztiak ondo añapatu-ta baizik), ez luteke azti zarpail oiek askok uste duten indaia ta argitasuna izango, ez...

Egia, egia, esaten zuten guztiak: gezurti utsak dira. ¿Nondik atera bear dute atso oiek besteak ez dakitena? ¿Ta neskaren lana? ¡Ezta makala neska!

Bai, diot nik; onek lan edera egin zuan: bañan alaere, aztiegana joaten diranak asko dira... Gaur eguneko kristau askok... Izena besterik ez...

(Aztiaren izena, neskatxarena, eria, guzti-guztia badakit, emen ez esan añen. Bizi dirala uste det: il diralako beñirik izan ez det beintzat.)



Gogokoa degunean edozer gauza jaten degu, txara dala jakin añen.

Jan ustelak bañena ondatzen du.

Ezagutzen danean berandu izatea baliteke...

¿Gogo gauzetan ezta berdin izango?

Erdalzale paragarriak

Euskaldunak euskeraz» esaten da, ta ala egin bear litzake beti. Orduan guztiak begirape-naz artuko genduteke, ta ori egin gabez paragarri-keri asko ikusten ditugu. Atzeritarakin ari gerala, nai ta ez erderaz itzegin bear: degu, ta ortarako ikasten ere sayatu egin bear: bañan al danean, gu-re artean euskeraz.

Erdalzaleak gogoan artu bear luteke au: Jos-tunak, txistulariak, añantzaleak, argiñak, arotzak eta abar, ¿ogi-bide oiek gogokoak dituztelako bakarrik, langile bikain eta trebeak izango dirala uste al de-zute? Beren gisa asitzen badira, edo berak bezela-ko ezjakin batzuekin ¿asko ikasiko al dute? Orá, ba; izkuntz bat ikastea askoz zailagoa da, ta ez diteke nolanaiz izketan asi izkuntz berri batean, ika-si gabe. Ortarako leño auek irakurri.

Santo Tomaseko feriyak, Etxe askotan komeriyak.

Bai, ala da. Urteko alogera Donostira eraman beñak baseñi askotan komeriyak ateratzen ditu. Gero eguraldi txañak, Donostitikan zerbait eraman beñak eta abar, lana ematen dute.

Alaere, baseñitarak ezezik, beste lagun asko ere egun ortan Donostian biltzen da. Eguerdian,

batzuek basetxe jabearen etxean bazkaltzen dute; bañan asko ere ostatuetara joaten dira, bazkariz. (Orain *Hotelera* esan bearko degu: izen befi asko artzen ari gera ta.) Oietako batean *indiano* bat sartu zan, amabi bat urteko semetxo batekin; eta mai utsik etzegoala ikusirikan, aundi samar batean befogei urtetik gorako bi neskazar bazeudela oartu zan. Aiengana joan zan, eta euskaldun itxiak baziruditen ere, erderaz asi zan, eta otordu osoan ofela aritu ziran. *Indianoak* gauza batzuek erdera garbian esaten zituan; baña beste batzuek itolorta galantak ere! Neskazarak befiz ibiak igelak!, zein baño zein kaikuagoak. Oraintxe ikusiko dezu. Lengusuak omen ziran.

Indianoak—Buenos días, señoras.

Neskazar zafenak—Buenas días, señor, iualmente.

Indianoak—Perdonen mi atrebencia. Este salón es chico, y mesas bien no se caben. Esta de W. es grandecito. Si permitirían W., el niño y los dos comeríamos con W.....

Neskazarak—Sí señor, sí, sientan W. aquí...

Indianoak—Con promiso de W. y muy agradecido.

Neskazarak—Por San Saastian ¿e?

Indianoak—Sí, a enseñar feria al pequeño, y comprar unas maratijas...

Neskazarak—Sí, pequeños mucho agradezen.

Indianoak—Tiempo lindo ¿no?

Neskazarak—Sí señor, sí: *sargoris* ya an es-

tau unos días; pero aora sol bueno a puesto... Auntoavía muchos lobos están en camiños viejos, sí, pero en fiñ...

Indianoak—¿Lobos también? Eso es macabro.

Neskazañak—Lobos grandes, sí señor; sapatos loqués en seguida susios ponen. Hasta secar lobos...

Indianoak—Toma, niño; arroz con almejas.

Neskazañak—Sí, sí, añautz y arbejas muy buena es... El pápa tamién ya comerá; verás...

Indianoak—Muchas gracias, señora, voy tomar yo tamién.

Neskazañak—¿Este niño solo tiene usté?

Indianoak—No señora; tengo cuatro gazapitos.

Neskazañak—Hermoso pamilia. En Colegiaus andarán agora..?

Indianoak—Sí señora, de todo aprenden un poco. Pero en música están a mucha altura.

Neskazañak—Sí, sí, ya creo: este tamién muy alto ya está.

Indianoak—Este algo cuando oye, en seguida agarra para cantar. Sabe mucha música: ahora va empezar aprendiendo solfa, Banda pa tocar.

Neskazañak—Pa jóvenes istrumentos fuertes malo es, pues: *plemones* fácil estropean; y después tísico ponen, y pa morir... *Atabala* o así si cogen, ya es más mejor.

Indianoak—No hay cuidado; los chicos son *rebustos*, y tocan istrumentos *eleantes*. El mayor

toca uno como corneta grande, me parece que le llaman *benardino*. El otro, nombre raro tiene: es como una pipa pa fumar, y le dicen *sanfasón* me parece.

Neskazañak—Ah, sí; en nuestro pueblo también ya tienen en Bandas: *sansoplón* debe ser.

¡Ola! Bien alegres vivirán ustedes...

Indianoak—No sabe V. bien. Porque también han prendido instrumentos de *or-pesta*, pa salón. Uno toca *bigulíñ*, el otro *mandurria*, y este pequeño ya sopla un poco en la *trampa* también.

¡Pero la niña! ¡Es un maravilla! ¡Cómo toca pianos! ¡Con diez y seis Atriles!

Neskazañak—¿Con diesiseis *atriles*? ¡Ola! y todos juntos tiene que mirar? Chica listo será...

Indianoak—Es un primor. Por eso no reparo yo en gastos. Ahora le he comprado un piano hermoso en *dosientos duros*. Ya vé usted.

Neskazañak—¿Un piano solo con dosientos duros? ¡Ya será bueno..!

Indianoak—Es lindo, ¿cómo no? ¡Hay que ver! Es un *manífico* piano de cola.

Neskazañak—¿Oí? ¿Pianos cola también ya tienen pues? ¡Por sierto! En Américas y así cosas nuevos aprienden ustedes... Aquí *limbo* vivimos... Cola pa tocar será pues... Y cola tocando ¿buen son ya saca?

Indianoak—Sí señora; muy *elocuente*. Así es que mi casa parece *Oservatorio del Ebro*.

Por cierto, veo con satisfacción que este gon-

bersación le agrada a usted. Pero estoy un poco *intrincado* pensando que le molestará a su linda prima, porque no dice nada. ¿No es así, señorita? Usted no es filarmónica ¿verdá?

Neskazañak—Mujer ¿qué ases ahí, callau, callau? Dilo algo, suelta el voz, este señor tan simpático y...

Indianoak—No se enoje, señorita; es un escrupulito mío no más.

Gazteenak.—*Pilarmonika* en nuestro pueblo *Infernuko auspoa* le disen, pues... y con *pilarmonika* juventú torcido solo anda.

Neskazañak—Deja usted, deja usted: este siempre caserío ha vivido, ilustración nada no tiene... Usted y los dos seguiremos *gonbersación* más *correto*.

Vida más duro tendría usted en las Américas...

Indianoak—Claro; allí hay que trabajar... El que quiera hacer plata...

Neskazañak—Sí; en montes con ganau y así; hambre tamien ya tendrían ustedes a veses...

Indianoak—De todo ocurre; pero ya se defiende. Leche, queso y potaje ya suele haber...

Neskazañak—Sí, pero potaje bien no harían tampoco...

Indianoak—Sí; es facil: allí se come mucho *porotos*.

Neskazañak—¿*Por otros* que se come? Eso hambre no quitará pues... No conpormaría yo con eso...

Indianoak—*Porotos* dicen allí como aquí *judías*...

Neskazañak—Judías mal gente serán pues... Así amos oido siempre loqués...

Indianoak—No señora, no. Allí agua teníamos bueno; y las judías con un porroncito de agua hacen un cuerpo *esquisito*. Usté se extraña, porque aquí no se emplea ese vocablo. *Judías* de allí son como *baberrunas* de aquí.

Neskazañak—Ah... sí, sí... Pero siempre igual, cansarían tamien...

Indianoak—Tambien garbanzos llevábamos a las panpas.

Neskazañak—Sí, pero esos difisil son...

Indianoak—No; de los *gauchos* se vale uno mucho allí.

Neskazañak—¿Pa los barbansos *ganchos*? No valen: bien cosidos si están, romper se harían en seguida. Con *ganchos* si enpieza usté...

Indianoak—Un *gaucho* nos enseñó a preparar el garbanzo. Cuando se empiezan a cocear, luego hace un ruido *pil-pil-pil*... pero eso no vale. Rato largo después, cuando empieza *herviendo* con energía hacen *pol-pol-pol*... y ya está. ¿Es así?

Neskazañak—Sí señor, entonses cosido está; antes no... Ya veo la bearra mucho que enseña...

Y estando en montes ¿*ilesia* lejos tendrían, a misa pa ir y así? Misa dejar igual harían ustedes...

Indianoak—Eso depende de cada uno. Al-

gunos no van nunca, son muy cerriles; pero otros sí... Un amigo mío solía contar que pasó en las Américas treinta años, y solamente en tres *domingas* le escapó misa... Ya vé usted... Hay distancias grandes; pero a caballo se avanza mucho. Las panpas son muy llanos. ¡Hay unas panoramas!

Neskazañak—Toros moros, usted cuando joven trabajar hizo, y agora vida descansau tiene.

Indianoak—No crea usted; ahora también hago algo... yo no puedo estar sin trabajar. Tengo algunos animalitos; conejos, gallinas, palomas, algunos cerditos... Por cierto, semana pasado una lechona dió a luz ocho *críos* hermosos.

Neskazañak—Sí señor, sí; algo ya dejan; pero trabajo mucho dan también. ¡Ené..! Y luego gallinas y así igual robar hacen...

Indianoak—Efectivamente; eso ya sucede. A mí me faltaban gallinas del corral con frecuencia, y una noche me puse centiñela, con escopeta. Sentí un ruidito... ahora... *Yo la ví la mutur a la pututx; y ¿qué hice? La descerrajé un tiro, y la desmoralicé la cabeza.*—Otras veces son personas, y así hay que andar.—Otro día tuve un *pisodio* lindo. Mi señora divulgó unos trapos de *gobada* pa secar al sol. Avierto a V. que en barrio hay una vaca más malo que el diablo, en una casa que llaman el palacio. A poco rato vino todo *sustado* un rapazuelo del vecino, gritando: *El palacio de la vaca ha comido la trapa; el orri lau*

puskas a eguiñau... ¿Sí? dije yo; ya lo veremos. *Sali armado, y la deposité en la parte del lomo de viciversa un tiro eficaz, con sal y viñagre que no olvidará en varios semanas: estoy seuro.*

Neskazañak—Bien hecho; vacas sueltos ¿pa qué dejan? Eso tamien ya estará mejor *ministrau* en las Américas, sí...

Y agora ganaus y pincas tan lejos ¿cómo arregla usté? Aquellos en Américas y V. aquí...

Indianoak—¡No señora! Cuando me vine a España todo vender hice, y el capital puse en ganancias...

Neskazañak—¿Y ande parece a usté más seuro pa réditos? Yo algunas onzas tamien pa poner ya tengo y...

Indianoak—Según... Yo principal en *Deuda perfecta* del Estado tengo... Un poco tamien en *Perro-carriies*, porque acciones muy elevaus tienen siempre... algo en *Fábricas eléctricos*, que ahora mucho andan... y así, repartido...

Neskazañak—¿Y encima de pincas, con *idipótecas*, y así?

Indianoak—Fincas buenas si son... también.

Neskazañak—Gracias, señor, gracias; muchas cosas ay aprendido hoy con usté. Que tengan ustedes buen salú... salú...

Indianoak—Gracias a Dios ya estamos regular. *Achaquis* ya tenemos, sí; años tambien ya van adelante, y... Yo un poco del estómago ando; pero tomando por la tarde *cabronato* ya me deja

paz. Mi señora está peor. Desde que *agarró vi-
güela* no arregla. Amos andado España y *Des-
trajero* con *dotores* más *famaus*; han *implica-
do rayos violentas*, *gorrientes elétricos*, han mi-
rau con *radioescuchas*, tomó *aguas ternaes*, en
fin, *terapética* entero ha probau; pero igual igual.
Al fin, *ingerió Piperacina* y regular ha puesto.

Neskazañak—Sí, yo también *piperra fiña* bue-
no que es ya ay oído. En fin, ya alegre señora re-
gular que tiene usted... Más si no se puede... Años
también ya van .. ¡Ené!.. Niños mal no tendrán, no...
Por sierto, no hay como *jumentú*...

Indianoak—Así es. Estos son de otro clase.
El mayor tengo en un *Clínica*.. Frontón se cayó
otro día, y desde rodilla arriba todo el *mulo fac-
turau* tiene. Cabeza igual romperán estos algún
día. El otro tiene movido la *cédula cerebral*. Iba
corriendo con otros muchachos *a la recíproca*,
mirando a la grupa para evitar una *sospresa*; se
estropezó con *postre* de telégrafos, y quedó *tum-
bau*, de *cubito supino*. Gracias que llevemos en
seguida al *platicante*; que sinó...

Neskazañak - Por sierto, cosas qué bien es-
plica usted... *Gonbersación* de usted oyendo, encan-
tau estoy yo loqués... Claro; en las Américas y
así andando, mucho aprienden ustedes...

Indianoak—Hace falta, señora. Teniendo pla-
ta, le hacen a uno Alcalde, o en reclamaciones a
Superioridad ponen en el *Cómite*, o si vienen per-
sonajes al pueblo hay que dirigir palabra, porque

allí no saben explicar... y el pueblo queda mal.. A nosotros no nos cuesta nada eso. *Amos* corrido el mundo... *amos* andado en muchos ciudades... pertenecemos a *Suciedades y Patronatos* de la capital y Provincia, prensa *ilustrado* un poco también ya leemos, y *la clima* de las Américas también ayuda pa *adquirir* ciencia, y esta da lucimiento. Ya vé usted... Precisamente, ahora tengo que tratar un asunto con *iginiero*, porque ay *imentau* un aparatito.

Neskazarak—¿*Imentar* también? Ya decía yo usted mucho que sabe... ¿Pa qué ha *imentau* usted esa *parapito*? ¿Alguna *sistema* nuevo, estrellas chiquitos pa ver, o así?

Indianoak—¡No señora; eso no produce plata! Ay que ser más práctico. Yo ay *imentau* un aparatito para que el ganado no pierda los cencerros al pasar los setos. En el campo se ven en suelo muchos *bulumbas* y *collares*, y eso es *verdadero desgracia nacional*. ¿No conoce usted algún *iginiero*.

Neskazarak—No señor. Ya siento pues... Pero este chico, mesa que sirve, muy listo es; ese ya sabrá, sí... Mirusté, mirusté, con *repostrería* ya viene: ya preguntaremos... (*Neskameari*) Aizunaska ¿Donostiko gauzak jakingo dituzu zuk, e?

Neskameak—Bai andrea, bai; *al corriente*...

Indianoak ¿*Ijinieroren* bat ezagutuko dezu?

Neskameak—¡Ya lo creo! *Talentu* aundikoa, ta txit *eloquentea*. Etxekoandrearen *primoa* da. *Con frecuencia* dago emen.

Indianoak—¿Izena esango al dirazu?

Neskameak—*Lonbria* eztakit; eta *apelidoa* ere ain gutxi: bañan *Enpatxoa* non duan bai. Begira. *Kale* oni segi ¿bai? ta *Mulebarean* dago. Andik *coger drecha izkierdo ta enseguida Plaza merduras* ikusiko du. Antxe *buelta* eman, eta *reto-reto* kalea artu, ta aren *ixkiñean Rompe-ollas* agiri da. Azkeneko etxeari *Dira amar* esaten diote, ta antxe. Galdetu *Soro-luze* zein dan, eta *lumero ontzean, primeroko bizitzan*.

Neskazarak—¿Ya oyusté qué bien? *Soro-luze, lumera ontzian, primaverako* bizitzan.

Indianoak ¿Etxean egongo al da orain? *Teléfonoz* galdetu, alpeñik ez joateko...

Neskameak—Bai, gaur *inposible*. *Timbreak* eztu *funzionatzen... ¡Qué casualidad!*

Aldameneko maiean gizon bat bazegoan, bere emazte ta alaba batekin, bazkaltzen. ¡Eztet uste bazkari ark on aundirik egingo zionik! *Indianoa* zan bera ere; baña bi aldetara, bai euskeraz eta bai erderaz, garai egokietan ederki aritzen zana. Alere, arentzat euskera maitena; etxean beti euskeraz aritzen ziran, eta maierako neska euskalzale bat egokitu zitzaien, txukun eta garbi itzegiten zuana.

Indiano ta *Neskazara*'ren alkarizketa osoa entzun zuan, eta emazte-alabari esan zien: Goazen, goazen emendik; oñelako zatarkeriak entzunda, neri gorakoak badatozkit-eta.-Neska (*beren maierako neskameari esan zion*) ¿Zenbat zor degu?

Neskame euskalzaleak. Jauna, iru lagun, zortziña lauerleko, ogeitalau, Jauna.

Euskaldun jatorrak —Tori *berogeitamañeko* txartela. Zor deguna etxekoandreari eman, eta gañerakoa zuretzat. Baña zuretzat bakarik ¿e? Neska prestua ta euskalzale zintzoa zeralako, ori pozik ematen dizut. Euskera ondatzen duan ori, ez txanponik eman gero... (Ori ta mai ortan jan dutenak, basoan obeto egongo lirake emen baño. Kaikukeri oiek iñork entzungo ez lituzke beintzat: esan zuan ixilik) Au esan-da, ziplo joan ziran.

Neskazañak —(*Neska erdalzaleari*) Chica, irr, irr, decirr etxekoandrea pa benirr; cuenta ya amos de hacer y...

Y usté, *cabellero*, muchos gracias por compañía y *gonbersación*. Mucho ay aprendido yo oy. *Usté que pasa bien, y asta otro vez*. Si biene usté *al menudo*, aquí encontraremos. La prima y los dos con el dintero andamos, y mañana pasau también ya amos de benir.

Indianoak.—Adios, señora. Muy agradecido, y quedo a la recíproca.

Guk.—Alde ortikan. ¡Kaiku alaenak! ¿Orelakoak pañagañiak dirala? ¡Ederki egiten zaye!

|||||

Nork-bere zoko ta tresnak ezagutzen ditu; maite ere bai.

Neuri jakiñekoak, egokiak izaten dira. Lan ederra, onuratsua, ateratzen dute.

Auzokoak ekañi-ta, berdintasunik ez, ezagutu ere ez. Ondamena, amorua bai.

Euskaldunak... ¿euskeraz?..¿erderaz? ¡Ikasi, ba!

Pozaren pozez...

Kondairak irakurtzen ditugunean, areta aundiaz aritzen gera. Gauza bakoitzak beste bat jakiteko gogoia ekartzen digu, ta ura jakiteagatik lanari sendo ekiten diogu.

Gudatan gertatuak, erietan gaitz kutsukoak izan diranean, eta abar, guztia jakin nai izaten degu. ¿Toki aiek ezagutzen baditugu? ¡Zer esanik ez dago! Bañan oiek guztiak baño gogotsuago, gure asabaen gauzak azaltzen diranean, gurasoenak batez ere.

Jaungoikoa gure Aita da, ta luñean duan Ordezkoa (Aita Santua) baita ere. Aita au berogei ta emeretzi urtean Italiako Eregeak giltzapean bezela euki du (bitarte ortan bost Aita Santu izan dira: Pío IX, León XIII, Pío X, Benedicto XV, ta Pío XI, orain deguna), ta orain bere buruaren jabe geratu da. (11-II-1929).

Biyen izenean argibide bat egin zuten, Eregeak eta Aita Santuak alkari ematen zioten itza

ezartzeko, ta Lurbira osoko kristauak txalo poz-
gariak atera zituzten. Ori azaldu bear dizut. Ore-
la edozeñek adiña jakingo dezu, ta askok baño ge-
yago ere bai; ta gauza egokia da gure Aitari da-
gozkan gauzak jakitea. Goazen, ba.

Gauzak ondo ulertzeko, zaña bilatzea onena:
obeto, beara. Jesukristo Zerura igo zanean, Be-
rak ipiñitako Ordezkoa, Apostoluen Buru egiten
zuana, *Pedro*, Eliz-Buru geratu zan. Apostoluak
eta kristau guztiak aintzakotzat artu zuten, eta
Andre Mariak ere bai, eta il arte guztien Buru izan
zan. Lan ori iñoren baimenik gabe egiten zuan:
Jesukristok emana zuan-ta.

Agintariak, batzuetan etzioten eragozpenik
jartzen, besteetan gogof-egiten zioten, eta iñoiz
giltzapean jañi ere bai; bañan etzan kuzkurtu. Be-
rak erantzuten zien etziela Agintariai indarrik ken-
tzen, Jesukristok Bere Ordezko gogo gauzatan ja-
ñi zualako, ta Elizako Buru: oregatikan, iltzen ba-
zuten ere, Jaungoikoak agintzen ziona egingo
zuala.

Agintariak *Pedro* il zuten (orain *San Pedro*)
ta Jaungoikoak beste bat ipiñi zuan (kristauen bi-
dez); onen ondoan beste bat, eta ofela gaur arte,
amaikagaien Pío Aita Santu arte. (Pío XI). Beti
beren lanari ekiten diote, Agintariak nai badute
edo ez badute.

Ori ala da. Ta ala izan bear du. Aita Santua
iñoren mendean ezin egon da. Ala balego, nagu-

siago aren aginduak egin bearke lituzke; ta berak nai zuana aren gogokoa ez bazan, lotu-ta bezela egongo litzake. Artzaia ardiaren mendean egongo litzake, ta ori ezin da izan.

Aita Santuak eta Agintariak irureun urtean eztabaidan ibili ziran; Agintariak indara eskuan zuten, Aita Santuak egia. Gañera, Agintariak beltzetakoak ziran, eta gauz onik ez. Baña *Constantino* Elegea kristau egin zanean, Aita Santuaren Agintaritza gogo gauzetarako aitortu zuan, eta andik aufera gauzak bestela gertatu ziran.

Constantinok Elizari laguntzen zion, eta berak bezela eromatarak ere ezagutu zuten, Aita Santua ezin egon zala inongo Agintarien mendean, gogo gauzatan Elege ta Buru izan bear zualako. Oregatik *Constantinopla* bere bizitegitzat artu zuan, Uri ontan bere Jargoia jañi-ta. «*Constantino bikañak, Jaungoikoak argi eman-da, ezin esan alako indar sendo-kenduezgaria barenean ezaguturik, Erroma laja zuan, guztien Jaun eta Zeruratzaile dan Jesukristoren Ordezkoarentzat Uri au utzirik.*» (*L' Osservatore Romano*). Etzuan Erroma erabat utzi; baña bera andik irtetean, au Aita Santuarentzat gelditu zan, eta Elegeak ondasun eta eskubide aundiak eman zizkan.

Eromatarak au ikustean, eta beren onerako zala ezaguturik, Aita Santuaren baimena gauza guztietan nai izaten zuten, pozik zeudela adieraziz.

Constantino il zanean, bere seme **Constante**

Sortaldeko Érege geratu zan; baña Jargoya **Rávena** ta **Milan**'en ipiñi zuan, Éfoman bi Agintari (Éregea ta Aita Santua) egotea egokia etzala esanaz bezala.

Aita Santuen etsaiak berak aitortu izan dute ori. Prantziko Érege lenengo Napoleonek (Napoleón I) esaten zuan: «*Aita Santua iñoren mendean ez egotea egoki da, gogo gauzetan guztien Agintari izateko.*»

Aita Santua Bañutia izaten (luñak eta eñiak, bereak) noiz asi zan ezin da garbi esan. **Constantinok** beretzat Éroma utzi zuanean ondasun aundiak eman zizkala esan degu.—Gero, eñietako bizilariak berak beren Agintaritzat artzen zuten, eta ori egitean, beste gañerakoa ere aren eskuetan utzitzen zuten.—Geroago, Bañuti aundiak zituan Éregin antzeko batek (**Princesa Matildek**) **Toscana** bere eñi ta ondasunakin Aita Santuari utzi zion, eta andik añera Aita Santuarentzat geratu ziran.—Beste tokietako Érege ta kristau aberatsak ere esku-erakutsi asko ta aundiak Aita Santuai ematen zizkieten, eta ofela «*Aita Santuaren Bañutia*» sortu zan (**Estados Pontificios**).

Gauzak urte askotan ofela egon ezkerro, Italiako Érege **Victor Manuel bigaerenak** (oraiko ango Éregearen aitonak) Bañuti oiek Aita Santuari kendu zizkan. ¿Nola? Italia gaizki zegoan orduan. Buru jakiñik etzuan, eta atzeñitafak jabetuko zizkiala bildur zan. Oregatik auek guztiak bota bear zituztela esaten zuten. Iru sail aundi zeuden, eta

bakoitzak bere Agintaria bazuan. Iruak Aita Santuaz ondo itzegiten zuten; bañan itz utsak, gezurak. **Victor Manuel bigarrenak**, ba, **Napoleón irugarrenarekin** eta **Masoyakin** bategin-da, Eñomako Agintaritza beretzat bakarik artu zuan.

Mila zortzireun eta irurogeitamar garreneko *Agosaren* (1) ogeiean (20-IX-1870), irurogeitamar mila gizon Aita Santuaren Bañutira joan ziran ta argitu baño lenago, berogei ta amabi sutunpaen bidez (2) burni puska asko ta aundiak bañenera botatzen asi ziran. Aita Santuak, bere etsaiari gogoregitea nai zuala bere gudariari esan zien, ezer egin etzuala inork esan etzezan; baña laster gelditzeko. Gizon aiek etziran bere-bereala geldituko; bañan Aita Santuak ala agindu zualako gelditu ziran, eta pakea eskatu zuten. **Victor Manuel**-en aldekoak etziran ala ere gelditu, Aita Santuaren Bañutian sartu ziran, eta onen aldeko gudariak ondatu ta il zituzten: Aita Santuaren aginduz gelditu ziran-da.

Berogei ta emeretzi urtean gauzak ofela egon dira. Pio IX-garrena **Vaticanon** sartu zan eta an il zan; eta gerozko beste lau Aita Santuak ere bai. Aita Santu egiteko Batzarrea **Vaticanon** egiten da; ta goieneko maila ortara iritxi ezkerro, antxe gelditzen zan Aita Santu egiten zuten ura, an il eta an lurperatu ere.

Gauz abek **Mussolinik** (Italiko Agintari bu-

(1) Agosar=Septiembre.

(2) Sutinpa=cañon.

ruak) antolatu nai zituan, eta oná egin zuana.

Mila, bederatzireun eta ogeita irugañen urtean Aita Santuari asmo ori *ixilik* erakutsi zion, bere ordezeko baten bidez, mailik goienetakoa au ere, eta Aita Santuak ontzat eman zuan ori: baña **Mussolinik** ori bere izen utsean egin zuan, eta gauzak oso ixilik egon ziran.

1926-gañeneko Ilbeltzaren lenengo egunean **Mussolinik** ortako **Barone** jauna ipiñi zuan. Onek **Mussoliniren** asmoa agertu zuan, Aita Santuak zer nai lukean jakin nai lukela esanaz, ori begiratu-ta gañerakoa egiteko. **Pacelli** jaunak Aita Santuaren izenean guztia azaldu zion, eta gauza oiek erabakitzeke bidea moldatzen alkañekin aritu ziran. ¡Zorioneko eguna!

Gauza aundia zan, eta lan zaila. Eun eta amar (110) batzañe beren artean egin zituzten, eta **Pacelli** Jaunak Aita Santuarekin eun ta ogeitabederatzi aldiz (129) itzegin zuan, aldi bakoitzean iru edo lau orduko alkar-izketak egiñaz, ta batzuetan **Gasparri** Kardenal jauna berakin zuala.

Lan oiek auñera zijoaztela, **Victor Manuel III gañenak** (Eñegeak) **Mussolini** jauna berariz berezi zuan, bere izenean guztia egiteke, 1928-ko Azaroaren 22-an, eta Aita Santuak ere alaber **Gasparri** Kardenal jauna ortarako jañi zuan, gauzak indar osoa izan zezaten.

Azkenean, **1929-ko Otsailaren 11-ean** = *Andre Mari Lourdeskoaren* egunean = (11-II-1929), eguerdiko amabi-amabitan, argibidea irakuñi ta az-

pian beren izenak ezafi zituzten, erabaki-ta gelditzen zanari indar osoa emateko.

«**San Juan de Letran-go**» jauregiko «**Aita Santuen**» Gela nagusian egin zuten au. ¡Noizpait!



Bi gauz erabaki zituzten, edo bi eratako gauzak. *Lenengoa*, Aita Santuaren egizko ta erabateko askatasuna, orain arteko egoera uñatu ta beñia ipiñiaz. *Bigañena*, Lenengoan egiñak ondo iraun dezan egin bear diran beste gauz asko.—*Lenengoaren* izena «**El Tratado**» da (erderaz), eta ogeitazazpi zati ditu (27). *Bigañenarena* «**El Concordato**», ta beñogeitabost zatitan dago (45).—Aita Santuak gogo ori erakutsi zuan, eta biak alkañengandik berezi gabe egon bear zutela; ta ala egin zan.

Egun ortan, erabaki aundi ori egin zanean, an zeudenak auek dira: (Obeto ulertzeko, itz batzuek erderaz ipiñiko ditut).

Aita Santuaren aldetik:

Kardenal Gasparri jauna. (a)

Mr. Borgongini Duca. (b)

Mr. Pizzardo. (c)

Prantzisko Pacelli jauna. (d)

Italiako Éregearen Aldetik:

Mussolini jauná. (e)

Rocco jauna. (f)

Giunta jauna. (g)

Auek azkeneko egunean an zeudenak dira; baña guztia ondo moldatzeko lana egin zutenak, beste auek:

Aita Santuaren izenean, *Pacelli jauna*, *Kardenal Gasparri jauna*, ta *Aita Santua bera*.

Érege jaunaren izenean, *Barone jauna*, *Mussolini jauna*, ta *Éregea bera*.

Azkeneko berogei ta emeretzi urtetan Aita Santua Eróman bizi zan, «**El Vaticano**» izena duan jauregi aundi batean; bañan andikan irten gabe, Éregearen maistaía balitz bezela, ez bizibide, ez eta ondasunik ere gelditzen etzizaizkala. Aita San-

(a) Secretario de Estado.

(b) Secretario de Asuntos Eclesiásticos Extraordinarios.

(c) Secretario de Asuntos Eclesiásticos Ordinarios.

(d) Abogado Consistorial. (Lanik audiencia onek egin zuan).

(e) Presidente del Consejo de Ministros, y Ministro de Negocios Extranjeros.

(f) Ministro de Justicia.

(g) Subsecretario de la Presidencia.

tuak bear zuana elizetan biltzen zan, eta asko zutenak ere bestela ematen zioten.

Orain bere etxean bizi da. *Vaticano'n*, bai, lengo tokian; baña Nagusi ta Jabe, Eskubideak eta Bañutia badituala, noiz nai eta nora nai irten ditekela, luñak eta etxeak bereak dirala. Auek asko ez dira, ezta aundia Bañutia; bañan Aita Santuak etzuan gauz abetan asko nai, askatasuna baizik, Eskubideak, eta bere buruaren jabe izatea; ta ori eman zayo. Bere Bañutian Agintari da, alde guztietara, Éregeak berenetan bezela; ta Érege guztiakin berarizko alkarbideak baditu. Baita eskutizetako txarteltxoak ere, (sellos de correo). Aita Santuaren irudia daramate, ta bere agintaritzako tresnak.

Orain guztia bi itzetan, eskubeteen bezela. Zerbait erderaz entzuten dezunean ondo ulertzeko, erderazko itz batzuek emen ipiñiko dizkitzut, goian bezela. Asmo ona daramat. Barkatu.

1870-gaen urtea arte, Aita Santuaren Bañutiarri «*Los Estados Pontificios*» esaten zitzayon.

Garai artan Italiako Érege *Victor Manuel bigaenak* (oraiko ango Éregearen aitonak) kendu zizkan ezkerre, «*El Vaticano*». (Au muñogain bat da, izen ori duana, ta or dago Aita Santuaren jauregia. Izena ortik datorkio).

Emendik auñera, Aita Santuaren Bañutiarri «*Ciudad del Vaticano*» izena jañi diote.

Alkañekiko *Erabaki* oni «*La Cuestión roma-*

¿Txararak bai? Onak geyago...

Gauza bat goiberatu nai danean, akatsak maigañean ipintzen dira, ta bikaintasunak maiazpian, txara ikusi dedin eta ona ez. ¿Zergatik ez atzekoz-aure?

Basetxetakoak beeratzeko, Jai-igandeetan Mezik motxenera etortzen dirala batzuek esaten dute; sagardotegian sartu ta nagi-betaz egoten dirala, ta etxera berandu joaten dirala. Beste batzuetan, Mezetara joan ez, eta lan aundirik egiten ez dutela esanaz, egun osoan gelditu gabe lanean aritzen dirala: au egura txikitzen, ori janariak ekartzen, bestea baratzako lan zirtziletan (berak esaten dutenez), ura tresnak beritzen, emakumeak josten, eta abar. Aratsaldean, goizean Mezarako betarik arapatu ez badute ere, lasterkari, aizkoralari ta abar daudenean, dutena ta ez dutena onen alde edo aren kalte egiten ikusten dirala. Gero aratsean ez dakitela etxera noiz joan bear dan...

Ni basetxetakoan alde nago. Orain esan ditugunak egiak dirala ezin ukatu, ta oñelakoak kentzen sayatzeko esango nieke; baña beste gauz askotan izugafi zintzo ta prestuak dira. Irakuri.

Alkafi laguntzea gauzik bikañenetako bat da. Ori ondonaiaak dakar, eta au Jesukristorentzat gauzik begikoena izan zan.

Basetxetan, batek golde, gurdi, uztafi, tresnaren bat bear badu, aldamenekoak emango diote, ta auek beartzen diranean, nork emango dion badaki.—Jan-edan gauzetan basetxe batekoak ufi badabiltza, auzoan eskatu ta bereala izango dute; ta gero ordaña esker onaz zintzo ekañiko dute. *Zuk gaur neri, nik biar zuri, alkari laguntzeko gaude.*

Afotz edo kaletañak basetxekoren bat goiberatzen edo txuliatzen asitzen badira, guztiak onen alde bereala itzegingo dute, ta... ¡ará gero!

Bat edo bat auzoan miñez gelditzen bada, etxe artakoai alegiñean laguntzen sayatzen dira. Sendatzaile ta sendagaien bila joateko prest egoten dira; Apaiz jauna bear badute ere bai; Sendatzaileak zer edo zer emateko esan badu berak ez dutena, laster ekañiko dute; maindirak eta abar garbitzeko zer esanik ez dago... Iltzen bada, batzuek etxez-etxe mandatua egiten; besteak Sendatzaile, Epaille, Apaiz jauna gana, gorputza lurperatzeko agiriaren bila; onek eliz-gauzak; ark abereai begiratzea; auek jasotzaile; ayek txanda egiteko; alkaren leian bezela, bear dan guztia beren gain artzen dutela. Gorputza eramatean beñiz, etxe bakoitzatikan bat gutxienaz antxe joango da, gorputzari laguntzen, eta bidean otoitzak egiten bere gogoaren alde.

Elizakoak eraman bear diranean gauz ederbikañak ikusten dira. ¡Ura begirapena! ¡Bai ařeta aundia!

Elizakoak daramazkian Apaiza topoz-topo arkitzen badute, beyak, astoa, txerriak, dakazkiten abereak gelditu erazi, baztartu, bada-ezpadan eutsi, ta bereala belaunikatzen dira. Ori guztia giza-semeak txapela erantzi-ta, emakumeak beriz sudur-zapiaz, edo bestela, burua estalirikan.

Soro, laře, baratz, etxe baztařetan daudenak oartu ditezen, eliz-mutilak txilintxa jotzen du, ta etxekoandre edo etxekoalaba bereala kutxara joango dira, *Kandelera* egunean bedeinkatu erazizuten kandela leiora aterako dute, piztu-ta. Al dutenak, dijoan etxeraño lagunduko diote, al badute argiaz, gañerakoan argirik gabe; ta ezin joan diranak, belaunikaturik otoitz'en bat egingo dute gaxo dagoanaren alde, ta lanean geldituko dira.

Eriaren etxera iristean, giz-emakume batzuek sotoan egongo dira, guztiak argi bana eskuan dutela, ta ango garbitasun eta begirapena ere ikusgañiak dira. Alde batera sagardo-upela, auts eta armearma sareak kendu beñiak; bestera ganbelak, belaraz beteak; biyen tartean luřa, garbi garbia. Abere guztiak zerbait jaten, Jaungoikoa etxean dagoan bitartean maruak eta kuřinkak egin ez ditza ten. Etxeko atean egon oi dan zakuřa, aundia ta ikaragañia, mutil mardul-indartsu batek dauka, lepotik eldu ta, okuřu baztařean, saunkarik egin ez dezan.

Aita Santuaren itzaldia

¡Urutitik entzun!

Giltzapean dagoanak, edo lotu-ta, nai duana ezin egin du. Gauz asko burura etoriko zaizka; bañan askatu arte, asmo utsak. Orelakoak ezer egiten ez dutela inork esango balu ¿zer erantzungo lioke edozeñek?

Berogei ta emeretzi urtean Aita Santuak orela egon dira. Askok esaten zuten gauza batzuetan, batez ere berietan, Aita Santuak ezer egiten etzutela. Ta berak ¿zer egiten zuten? Begirapenik gabeko beritxukeriak esan. Orá oien lana. Mingain luzea, biotz ustela, buru ariña...

Bi urte besterik ezta askatu-ta geratu zirala, ta beste gauz askoen artean, begien aurrean bat edera ipiñi nai dizut. Au da urutira itzegiteko tresnak bere Barutian ipintzea, Marconi jaunak atereak. Oien bidez Lurbira osoko kristauai itzegin die. ¡Ori gauz edera! Ori da, ba, gaur zuri esatera natorkizuna. Goazen, ba.


Mila, bederatzireun eta ogeitamaika gañen urteko Otsailaren amabian (12-II-1931) Aita Santua tresna oietako gelara jetxi zan, eta Lurbira osoko

baztar guztietan bere itza entzun zuten. Egin be-
fia zan, eta egun artan gela idiki zuten.

Gauzak ondo ulertzeko, itz auek gogoan ar-
tu. Itzak (edo otsak) toki guztietara bialtzeko tres-
nari, erderaz *Micrófono* esaten zayo. Micrófonok
bialtzen dituanak artzeko, ta urut-uruti egon aŕen,
ederki entzuteko tresnari, *Radioescucha*. Onek
artzen duana bere inguruan banatzeko, uruti sa-
maŕeraño, askok entzuteko eran, beste tresna bat,
Altavoz esaten zayona, badago. Azkenik, oiek
guztiak, eta gai ortan aitatzen eta egiten diranak
aditzera emateko *Radiotelefonía* esaten da.

Marconi jauna tresnetako gelan zegoan.
(Gauz oiek guztiak atera dituan gizon jakintsua
Marconi jauna da). *Marconi* jaunak Aita Santua-
ri guztia erakutsi ta azaldu zion, eta micrófonoren
aŕean jaŕirik, Aita Santuak orduntxe itzegingo
zuala esan zuan. Entzuten zeudenen biotzak ¿nola
jaŕiko ziran?

Aita Santua alki batean eseri egin zan; au-
ŕean, mai batean micrófono bat bazegoan (*irudia-
ri begiratu*); ta itzaldi laburtxo bat egin zuan, Lu-
ŕako baztar guztietan ederki entzuten ziotela. Al-
bistariak gero jartzen zutenenez, Radioescucha as-
ko, toki guztietan sakabanaturik, bazeuden, eta
kristau askok, pozaren pozez txaloka aritu ziran.
Aita Santuak esan zuana bi itzetan esango dizut.
Gaiak aiatu; besterik ez.



Lurbira osoari.—Lenengo zatitxo onetan dio, Jesukristok Apostoluai esan ziela Bere dotriña lurako baztar guztietan banatzeko, ta izanik bera Aita Santuetan lenengoa *Marconi* jaunak atera duan tresna au erabiltzen duana, Jaungoikoaren itz auek «*Zeruak, nik diodana entzun. Luña, nere aoko itzak aditu*» (Cant. Moys. Deuter. XXXII-I)

Giz-emakume guztiak aditu, Lurbirako bizilari guztiak belariaz artu, aberatsak eta beartsuak batera (Ps. XLVIII-1) Ugarteak entzun, eta urutiko eriak ahetaz aditu (Is. XLIX-1) lendabizi esan nai dituala.

Jaungoikoari. Bigarrenean dio: Nere lenengo itza, au izan bedi: *Gorak Jaungoikoari Zeruan, eta pakea lufean asmo onetako gizonai.* Jaungoikoari gorak, gizonai beren itza Lufako baztar guztietan entzuteko era, gure egunetan eman die-lako. Ta lufean pakea, Berak ekañi zuana, bai ger-tu ta bai uruti zeuden guztiai.

Bere artaldekoai. Guztiai laguntzea, ta ba-tez ere bide zuzenean dabilzanai (sinismen onak eskatzen duanak egiten sayatzen diranai) Aposto-luak agintzen diola esaten du, ta berak ori egin nai duala.

Eliz-Agintariai. Maila guztietako Eliz-Aginta-riai esaten die, Jaungoikoaren deiari jaraitu deza-yotela, ta nor-bere tokian bear bezela ibiliaz, be-ren mendekoak zaindu ditzatela, Zeruko jan ona emanaz; Ura etortzen danean sari ugaria artu de-zaten. Eta bitartean, Jaungoikoak nai duan ura ondo egiteko, Berak moldatu ditzala opa diela.

Praile-Monjai. Agur zuei ere, esaten die, ne-re seme-alaba kutunenak. Doairik aundienak bila-tzen dituzuela, Jaungoikoaren Aginduai ezezik, Bere deiari ere, zuen egun guztietan jaraitzeko as-moa artu dezute. Garbitasunean, beartasunean eta besteen mendean beti egonaz, otoitzetan, jakin-

duri ta argiaz orniturikan, itzaldiak egiñaz, eta gogo gauzetarako gañerako lanaen bidez, Ama Eliza usai gozoz betetzen dezute. Gordairu edera goa daramazutelako, ardura aundiagoaz zaitzen sayatu.

Mixiolariai. Sinisgabekoen artean, otoitz eta lanaren bidez Jesukristoren Artaldea zabaltzen dezuten oiei, Agur. Afisku ta eramankizunetan, naigabe ta beafetan, besteentzat ispilu zerate. ¡Jesukristoren Goretsia! Neke aundiaz geroko kristauak ateratzeko azia botatzen dezute. ¡Zorionak Kristoren gudari bulardetsuai! Orko Apaiz jaunai, eta beste laguntzaile guztiai ere, Agur egiteko agintzen dizuet.

Kristau guztiai. Eromako ta Lurbira osoko kristau guztiai, batez ere Gotzai eta Apaiz jaunai laguntzen diezutenai, Agur. Zuek Jaungoikoaren eña zerate, ta bere Artaldeko ardiak. Oregatik besteentzat ispilu izan bear dezute, gauza guztietan ondo ibiliaz, guztia Jaungoikoaren goratasunerako izan dedin.

Sinisgabe ta sinistxarakoai. Zuei ere begiratzten dizuet, eta zuen alde Jaungoikoari eskatu ere bai. Eguneroko Mezan zuei argia ematea eskatzen diot, ardi onaen artean egoteko, ta artalde-artzai bakara izateko.

Agintariai. Zuei esaten dizuegu, agintariak, zuzentasun eta ondonaiari begiratzeko, gauz onak egiteko ta ez ufatzeko, Jaungoikoagandik bakarik agintaritza etortzen dala, ta Berari kontu estua eman bear diozutela gogoraturik.

Mendekoai. Zuei esaten dizuegu, agintarien esanak egitean Jaungoikoari begiratzeko, ez gizonai. Agintariai gogof-egitea Jaungoikoari gogor egitea da, ta ori egiten duanak bere buruari ondarena ematen dio.

Aberatsai. Zuek Jaungoikoaren mendekoak zerate, ta Aren ondasunak zuen eskuetan daude, bañan ez dira zuenak, an edo emen jartzeko edo eukitzeko baizik. Jesukristok beartsuai begiratzeko esan zuan, eta zuei geyago eskatuko dizue, aiei baño, geyago eman zizuelako. Jaungoikoaren esan au ez aztu: ¡Zoritxañekoak aberatsak!

Beartsuai. Zuek Jesukristoren beartasunari begiratu, ta emengoak bañon eñazago iritxi ditzaitezuten geroko ondasunak irabazten sayatu; ta emengoak ere, al badezute, iristeko alegiñak egin, ez ordea bide txañez, baizik zuzentasunari begiratuaz.

Langile ta nagusiai. Ezin ikusi ta eztabaidetan ez ibili, alkañen etsayak bezela, adiskidetasun onean baizik. Batzuek ondasunak eta jakinduria, besteak beñiz indaña ta trebetasuna emanaz, guttien onari begiratu, ta bakoitzari dagokiona ematen zayola.

Atsekabetuai. Azkeneko tokian aitatzen zaituet, baña nere biotzean lenengoan zaudete, zuek atsekabetuak, neke-oñaze ta eritasunetan zaudetenak, baldin Jaungoikoaren eta gure etsayak emanak badira batez ere.

Gure otoitzak, eta al degun neñian gure la-

guntza ere, eskeintzen dizkitzuegu, eta Jesukristoren izenean esaten dizuegu; *Lanegiten dezuten, eta nekepean zaudeten guztiak, Nigana etoñi, ta nik indartuko zaituet.* (Math. XI-28).

Bakafikan geratzen zait Emen eta Lurbira osoan bizi zeratenai bedeinkapena ematea, ta au egiten det Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Ala izan bedi.

¡Bai berdiñezak!

S*enideak batzuetan oso antzekoak izaten dira, arpegian bezela oituretan ere. Batzuetan arpegian bai, bañan ez oituretan. Beste batzuetan oituretan bai, eta arpegian ez. Azkenik, alditan ere gertatzen de, alkañen antzik ez izatea, ez arpegian ez eta oituretan ere.*

Orain esan bear dizkitzudanak azkeneko aue-takoak ziran. Alkañen antzik ezertan ere etzuten, eta beren kondairak ori garbi erakutsiko digute. Asi gaitezen.

Patxi ta Engrazi senideak ziran, bañan odollez bakafik. Oituretan oso berdiñezak ziran, eta senidetasuna iñon ere agiri etzan. ¡Bai berdiñezak! ¡Zenbat gauzetan ikusten zan ori.


Jai aratsalde batean, amak Engraziri goxoak

erosteko txanpon batzuek eman zizkan. Lagunetara joan zan, eta Eramunatxok oiñetakorik etzualako amak etortzen utzi etziola besteak esan ziotenean, bere artean esan zuan: ¡Zer! Eramunatxok oiñetakorik ez, eta ni goxoak erosten? Ez orixe... Bertatik etxera joan zan ori guztia amatxori esan zion, onek Engraziren oiñetako on batzuek Eramunatxorentzat eman zizkan, eta eraman zizkanean bai Eramunatxok eta bai bere amak laztanmusu bana eman zizkaten, malko gozoak iruen begiak ixuriaz. Ofelako gauzak noiz nai egiten zituan.

Beste gauza bat. Aberatsak ziralako, soiñekoak eta guztia on-onak izaten zituan; baña lagunetara joaten zanean beti beartsuenakin gogotiago. Beti aratsaldeko ona izaten zuan, eta beste batzuek etzutela ikustean, berea aiei ematen zien, bera ezer gabe geratzen zala.

Lagun batzuek bestelako bideetan ibiltzen ziran eta berenganatu nai zuten, auzo-auzoan bizi ziralako ta guztia ikusten zutelako; baña berak ori bide txarra zala ezagutzen zuan, eta lagun onakin nayago. Ofela neska ona izan zan.

¿Ta Patxi? Maiz sasi-eskola, beti Mezara joan nai ezika, Apaiz jaunaz gaizki esaka, iñoren esanak egin nai ez... eta aunditu zanean biraolari amofatua, ta lizunkeri-loikeriak beti aotik jario... Gauza guztietan gaiztoa, baña batez ere lapuferian. Gurasoak kontuak artzen zizkaten, bañan alpeñik. Azkenean onek ondatu zuan.



Bein batean, baratz batean udare edařak iku-
si zituan. Sartu zan, eta ase arte jan ezkeru, kol-
koan ere asko artu zituan. Irteteko toki bila zebi-

Íela, txabolako zakufa konturatu zan, eta lau tran-koz, oruz etofí zan. Patxik ere laster iges egin nai zion; baña zakufak zangotik eldu egin zion, eta mutila lufara bota zuan. Arpegia, lepoa, eskuak, guztia odoldurik utzi zion, eta etxeko mofoia etofí izan ezpalitz, laster itoko zuan.

Etzan nonbait lenengo aldia, ta mofoiak bere artean esan zuan: *Gaur, ba, guztiak batean artu bear dituk...* Ederak eman zizkan, eta beste mofoia etofí zanean, biyen artean Epailariagana lotsagaí eraman zuten. ¿Eta an? Ark ere guztia bazekian, eta al zuan zigofadik aundiena eman zion, luzarotxoan giltzapean eukiaz.

Baña beste gauza bat ori bañon askoz txafagoa gertatu zitzayon. Zauriai begiratu gabez, edo gañerakoan zakufak amofu-pozoi zerbait izango zuan... mutila era txafean il zan beintzat.

Au guztia ¿nondik zetorkion? Berez biufia zala esan degu; bañan etzan guztia ori. Lagunak ere txafenak izaten zituan. Auzoan onak bazituan, baña berak ufutiko lagunak naiago. ¡Bai, ba! Ofela bere txarkeriak inork jakiteko bildur txikiago... Alaere, aita bestelakoa izan balu...

Aita ere beltzetakoa zan, eta lagunak burua efaz betetzen zioten. Ofegatik ergelkeri asko (¿edo astakeriak?) esaten zituan: *Ilustrazioa* bear zuala gizonak esaten zuan; *progresoak* gizona goratzen zuala; *adelanto modernoak* jaten ematen zutela, *Dotriñak* eta ofelako gauzak baño geyago... ¿Zer geyago nai zuan mutilak? Aitak ofelako

gauzak esaten zituanean poztutzen eta arotzen zan. Gañera, Jainkorik gabeko ikastetxe batera bialtzen zuan, eta toki artan gauz onik ikasiko etzuala jakiña dago.

Eriko gizon batek, erukiturikan, egun batean aitari ala esan zion: Aizu, adiskide; ¿zergatik ez dezu mutila beste ikastetxeren batera bialtzen?

—¿Zergatik? Erezatzen eta Dotriñarekin astia galdu besterik egiten ez dute ta... erantzun zion.

—¿Nork esan dizu ori? esan zion beñiz adiskideak. Erljioari begiratzen zayon Ikastetxetan ¿oni bakañik begiratzen zayola uste al dezu? Gizon jakintsuak, guztietan jakintsuenak, Ikastetxe auetan ikasi izan dute Lurbira osoan zabaldu dituzten gauz arigañiak.—Erljioari begiratzen diotenak beren eginbideak obeto egiten dituzte, lanari zintzo ekiten, eta ikasle obeak izaten dituzte. Ikasleak ere, Jaungoikoari kontua eman bear diotela gogoratu-ta, ikasten geyago sayatuko dira.—Irakaslariak bear bezelakoak ez izan ezkerro, beren itzak, liburuak, gaitz-bideak, bear ez bezelako askatasunak, guztia txarà emango diete umeai. Zuaitz txaràk ekañi onik ezin izan...—Gero, aur aiek azitzen diranean ¿nolakoak izango dira? Irabazten duten guztiak ondatu... Berena ezezik, besteena ere arapatu al badute, berentzat eramateko bildur gutxi... Laguntza nai dutenean iñork ere eman nai ez... ¡Edozeñek ipintzen ditu bere ondasunak oien eskuetan!—Oien dotriñak dio: «*Zakurà il ezkerro pozotrik ez... Jaungoikorik ez*

dago... Gerokorik ere ez... Jan ta edan zagun, berdin emendik ez degu besterik atera bear...

Jañi, jañi zerbait oien eskuetan, adiskide...

*Zure seme Patxiren azkenak naigabea eman du, bai zuri, ta bai guztiai ere; bañan oñek antolabiderik ez du. Ume txikiagoak ere badituzu, ta auezaz oroitu. Gañera emengoak ez gerala badakizu, ta kaikuleari batzuek esaten dizkitzutenean, zu eriotzako orduaz oroitu, ta ordurako gauzak garaiz moldatu. *Bestela, gero gerokoak, ¿e?..**



Ardo onak ontzi txarean asko galtzen du, ondartzen da.

Ardo txartxoak ontzi onean eta lagunduaz, irabazten du.

Onak ontzi onean ¿zer? Txarak txarean ¿zer? Ez aztu...

MIXIOLARIAK - "CHINA,"

B*eartsuen estutasunak berak bakarik dakizkite: oregatik eruki txikia artzen zaye. Neguan goseak eta otzak egoten dira: udan goseak eta egariak: beti goibel eta samintsu.*

Oe gogora, estalki txara, leiotan zirituak, gañetik itutiak, etorkizun iluna. Surik ez, egurik ez, ikatzik ez, jan-gairik ere ez... Azalean ola, baren-go berogarik gabe ¿nola bizi?

Sinisgabeko tokietan Mixiolariak ori bera gertatzen zaye. Eraman bear dutena berak bakarrik dakite. Emengo beartsuak estu ta larri, ango Mixiolariak askotan estuago ta larriago. Ikusi aren, ondo ezagutu ezin: ez ikusi ezkerro, ezer ez.

—¿Zerbait jakin nai al dezu zuk? Ni ez naiz an egon; baña zerbait badakit. ¿Nola? Toki aietan Kaputxinook Baruti aundiak ditugu, gure Aitak eta ~~Baruti~~ Anaiak lan aundia egiten dute, ta etxeakoak, ala ez diranak baño zerbait geyago jakiten dute. ¡Emengoak baidira ba! Beste tokietakoak utzi-ta, China nolakoa dan esango dizut, arako ta ango goraberrak aitatuaz.

Lufean zoriontasunik ez dago; baña nola edo ala moldatzen gera: gerokoa beñiz non izango degun eta nola iristen dan badakigu. Iristen ez duanak iñori aitzakirik ezin eman. Bañan oien itxurik ere ez dutenak badaude: ez onerako, oso beartsu bizi bear dutelako; ez eta geroko ere, bidea erakusten etzayelako. Negargari jayo, azi ta bizitzen dira. ¡Ta il ere bai!

Oiei Zerurako bidea irakastea da Mixiolarien lana: bañan ortako aiengana joan bear da, ta aiekin bizi bear da; toki oiek oso ufuti daude, ta joan ezkerro nekez etoñi; bizikera latza egin bear da, ta gorputza arenkuratzen da... ¡Berak bakarrik dakite lan ofek eskatzen duana! ¿Zer diot! Jaungoikoak ere badaki, ta etzaye damutuko.

Goazen, ba, **China**'ra. Ango ta bideko gau-

zatan izen bat edo beste oker ipiñiko degu jalako izenak dira!; baña zerbait aterako degu. Berak, beren izkera mordoiloan, ondo esango dituzte.


China oso uruti dago. Lenbizi **Barcelona**'ra joan bear da. Gureak beintzat ortik joaten dira.

Barcelona'tik **Shanghai**'ra *berogei egunean*, itxasoz joaten dira (40).

Shangai'tik **Shensi**'ra, burnibidez, beste *ogei* bear dituzte (20). Ibaiaz ere joan diteke, baña zailtxo. (1)

Shensi'n beste *amabost* edo *ogei egun* egin bear dituzte. Gero esango degu zertan. (15 edo 20).

Shensi'tik **Kan-su**'ra beste *amabost edo ogei* (15 edo 20). Azkeneko au oiñez, mandoz, gurdiz, al duten eran egiten dute, mendiz joan bear dutelako.



Toki aietan maiz guda (guerra) izaten da, ta orduan beste bide bat artu bear izaten dute. onela:

Shanghai'tik **Pekin**'a itxasoz joaten dira (*iru edo lau egunean*); eta emendik **Pingliang**'a (**Kan-su**'ko uri nagusira) *bost mila ta bostegun kilómetro* badaude (5.500 ks. cs.), ta oiek tañanta (2) zar batzuetan egiten dituzte.

Goazen beriz **Shensi**'ra, andik mendiz nola joan bear duten azaltzen.



(1) Burnibide onek gurdiak oso txarrik ditu. Estalkirik ez dute; txikiak dira; bidariak eta tresnak, bidezofioak eta abar, guztiak toki berean; egunean ordu gutxietan ibiltzen da...

(2) tañanta=automóvil (itz beñia.)

Mendi aietan beste *amabost edo ogei egun* (15 edo 20) egiten dituzte.

Shensi'n 15 edo 20 egun egiten dituztela esan degu. ¿Zertako? Mendi aietan lapur asko izaten omen da, ta ez sakabanaturik, sail aundietan baik. Oregatik mendi aietan ibili bear dutenak ere sail aundietan joan bear izaten dute, aundiagoak eta obe. ¿Ta egunero izango dira orelako sailak? Ezin. *Shensi*'ra joaten diranak, ba, andik *Kan-su*'ra joateko, lagunen zai egon bear izaten dute, sail aundia bildu arte. Oratx 15 edo 20 egunak.

Sail oiek Bakartegietan biltzen dira (Praile-Etxetan). Bidea erakusteko gizon batzuek artzen dituzte. Bide garbietan bakarik ibiltzen dira, ta egun argian, ordu egokietan. Bakartegitik Bakartegira joaten dira, ta oietan gelditzen dira, bai atsedena artzeko, baita biderako bear dutena ere. Bakartegiak alkañi ordaintzen diote Mixiolariari ematen dietena. Auek txanponik ezin eraman dute-ta.

Mendi aietan beste *amabost edo ogei egun* bear dituzte (15 edo 20) gutxi gora bera.

Ango bizilariak oso atzeratuak daude, ta Mixiolariak bear duten guztia emendik eraman bear izaten dute, bai eliz gauzak eta baita bestela bear dituztenak ere; ta beste erarik ez dutelako, mandoetan eraman bear izaten dituzte. Oregatik sail bakoitzak eramango ditu *irurogei* edo *irurogeitar* mando beren mandazaiakin; ta guztiak alka-

fekin joan ezkerro, lapuñen bildurik ez, edo txikia-go beintzat.

¡Ofenbeste mando! esango dezu... Ta nik erantzungo dizut: Sail oiek ¿zenbatean bein joaten dira? Bi... iru... lau urtean bein? Eta bitarte ortan ¿zer egin bear dute Mixiolari gizarajoak? Bear dituzten gauzak an izaten ez badira ¿nondik artu, edo erosi? Guztia ezin bestean egiten dutela ikusi, ba.

Era ortan ibiliaz, emendik ara joateko *lau ilā-bete luzeak* bear dituzte. ¿Ta txanponak? Alegiñean sayatu añen, bost mila pezeta gutxienaz (5.000) bakoitzagatik bear dira.

Gure Mixioko tokira iritxi gera. Bere izena *Kan-su*. Bañuti aundia da, eñi ta uri asko ditu, uri nagusia *Pingliang* da. Guztia **China**'n dago, goi aldera. ¿Zearoago jakin nai al dezu? Goazen.

Kan-su osoak *irureun ta irurogei mila kilometro* (360.000 Km².) ditu alde bakoitzara, ta *lautik bat* gutxi gora bera gure Mixiolariak beren lanetako dute; au da, *larogeita zortzi mila kilometro* (88.000 Km².) alde bakoitzara. ¿Zenbat bizilari? Gureak *sei miloi* dituzte beren Bañutian, ta guztira zerbait geyago daude (6.000.000). Ta gure Erlijiokoak ¿zenbat? ¡Gauza negargañia egiaz! *Sei mila ta bostegun*: besterik ez (6.500). (1)

Angoak *Mahomañak* dira geyenak. *Luteroa-*

(1) Zenbaki auek maiz beñitzen dira, Mixiolarien lanaren araberan. Gañera, ango ta emengo legeak berdiñezak dira, izenak ere bai...

řak (Protestanteak) *Pingliang*'en Sail bat badute. Guk (gure Mixiolariak) lenago esan ditugun *sei milak eta bostegun*. Geroago ta geiago, Jaungoikoari eskerak.

Mahomar oiek uste dute Jaungoiko zořotz bat badala, zigořada aundia emango duana. Dea-brutegia ere bai, badagoala diote. Bařa Jaungoiko gozo-onik ez, Erosle-Zeruratzailerik ez, Jesukristorik ere ez. Zořotz-gogořa bakařik.

Beren elizak (erderaz *Pagodak* esaten zaye) muřogařetan egiten dituzte, beren jaungoikoak (*gezuřezko edo iduripenezkoak*) beren mendean edo babesean euki ditzan; eta iřork etxeren bat oiek bařo gorago egiten badu, berak beren eliza gorago egiten dute, lenago esan degunagatik. ¡Oiek gauza negargařiak! ¿Ezta ala?

Ortan bezela, ezjakiřiak dira txit beste gauzatan ere. Lanbide gutxi, lantegiak ez, eta abar. **Shanghai**'tik salgai batzuek ekartzen dituzte, bařa guztia oso garesti. Bakařikan nekazaritzan aritzen dira, ta ori ere era txarēan. Emengo tresnak ez dituzte ezagutzen. Goldearen antzeko tresna bat egiten omen dute, bařa bi zur lodiekin eta oso moldakaitzak. Abereen eta piztien lařuak ere antolatu ta saltzen dituzte.

Luřa berez sendoa da, bařa euri gutxi egiten du, ta guztia ondatzen zaye. Euri egin ezkeru, urtean bi uzta ere biltzen dituzte. Geyena garia, era guztietako baratzekiak, zuaitzak ere era guz-

tietakoak, eta batez ere arzoa (1). Au da ango janik ugariena ta onena. Gañerako gauzak, sagarak, udareak, aranak eta abar, belarñ bezelakoak omen dira. Bakar bakafikan muxikak. Auek oso onak, gozoak eta indartsuak omen dira. Baratze-kietan zerba (acelga) onena ta aientzat maiteena.

Legorteak ordea guztia ondatzen omen die: aundiak eta txarñak izaten omen dira. Azkenekoa bi urtekoa izan omen da. ¡Bi urtean eurik ez! ¿Zer esango luteke gure basetxetakoak?

Legorteak gero gosete ikaragarñiak dakar. Azkeneko ortan, zerbait zutenak ezer etzutenai eman bear izaten zieten, goseak iltzen ez ikusteagatik. **Pingliango** gure Mixiolariak jana aotik kenduta beartsuai eman bear izaten zieten. Egunero ogia ta al zutena ematen omen zieten, eta egun batzuetan **mila ta bostegun** lagunai beren puska eman omen zieten gure Etxe artako Mixiolari gizarajoak (1.500). ¿Nola ez? Bolada artan goseak ilak ¿zenbat ziran jakin nai al dezu? ¡*Iru mila!* Gure Mixiolariak al zuten guztia ematen zuten, eta ofe-la aiengana zaletzen ziran, eta gure Erlijio maitean sartzen ziran.

Goseak asko aritzen du, esker onak biotza samurtzen du, Mixiolariak sinisgabeak Jaungoikoaganatzen ditu... ¡Lan bikaña egiaz!

Goseak daudenean ume txikiak saltzen dituzte, ta Mixiolariak *amabost* edo *amasei* laurleko

(1) Arroz (erderaz).

(pezeta) eman-da, erosi, batayatu, ta bide zuze-
nean azitzen dituzte. Gero, emendik joaten diran
Monjak eta ango neskatx kristau batzuek, zaitzen
dituzte ta jakin bear dutena irakasten diete.

Iñoiz aundiagoak ere (lau urtetarañoako nes-
kak) atarietan, lañean, uzten dituzte, ta piztiak e-
toñi ta jan. ¡*Bizirik!* ¡Gajoak!

Ura txaña dute. Egosi gabe artzen ba dute,
tifus'ek bereala ondatzen ditu. Gañera, oso uñi.
Pingliang'en bakarik (esateko) ibaia dago: oñega-
tik an baratzak badaude. Beste bi Uri ere beste-
ak bañon obeak badaude, *Sinfengsen* eta *Txeng-
yueng*, itunak badituztelako. ¡Ori bizikera, e?

Otz-beroa. Txaña au ere, ta oso berdiñeza.
Neguan sañitan *amazazpi* maña izotza bañon otza-
go; ta udan *berogeitamar* izotza baño beroago.
Au da, *irurogeitamazazpiko* berdiñeza (67).

Neguan, burua ta arpegia estaltzen dizkieten
txanoak daramazkite, soñekoak oso lodiak, eta
eskuzamañak, izotzagatik.

Txina'k iru etsai aundi ditu: *lenengoa*, legor-
teak eta auek dakarten gosetea: *bigañena*, gaitz
txañak, batez ere *tifus*: *irugañena*, lapuñak. Auek
iru, lau, bost mila lagunako sailetan.

Begiak goratu ta Jaungoikoari eskeñak eman.
Gure senide oiek abereak bezela bizi dira: ¿zerga-
tik oiek ala ta gu bestela? ¡Zenbat zor diogu Jaun-
goikoari!—¿Ta Mixiolariak? ¡Oiek, bai, biotz ede-
ña! An bañon obeto emen oituak, eta angoak Ze-

rurako bidean jartzeagatik aiek bezela bizi nai,
emengo guztia utzi-ta...

Aien bizikeraz asko esan liteke; baña tokirik
eztet. Gauza bat, alaere, esango dizut, asko era-
kusten duana. Emen Egueñitan etxe guztietan jai
aundiak egiten dira; ta an, gure Aita batek, Egue-
ñi egun batean (orain bi edo iru urte) etzuan uda-
re bat besterik jan. Ta goian esan degu ango uda-
reak belaña bezelakoak dirala..... !Gizarajoa! Ila-
bete batzuek igaro-ta, *tifus*'ek Jaungoikoagana
eraman zuan. ¡Ogeitamar urte bete-ta! Zure otoi-
tzetan oroitu. ¡Goyan bego!

Erenkada auetan zerbait ondo jaña ez egotea
baliteke; ez naiz an egon-ta. Bañan alegiñean sa-
yatu naiz, eta oker oiek barkatu.

01011011011011011011

**Batzuek beti ilunpean, besteak jayotzez argian.
¡Zenbat zor diogu Jaungoikoari!**

**Mixiolariak bizikera latzaz ezjakiñai irakasten.
Kristau askok gaitzbidez besteak ondatzen.**

**Erdian toki edeña. Mixiolariai laguntzea; bai
otoitzaz eta bai txanponaz. ¡Egoki!**

Ontan jañi; etzaitzu damutuko.



Gauza politak gertatzen dira...


Emakumeak oso eraz galtzen dute beñere galdu bear ez luteken gauza bat: lotsa. Jantzikera beñiak Jainkoaren doai eder ori kentzen die, kalte aundia egiten dien lapur txafada: alaere, adiskiderik aundien eta onenari bezela begiratzen diote, ta jafaitu ere bai. ¡Erokeri aundia!

Txorakeri oietan alkarri laguntzen diote, ta ez dute ezagutzen kristau zintzoak, aiezaz esaten dutena: bañan usterik gutxienean... ¡ostiko edeñak artzen dituzte! Irakurri, irakurri.

Burni-bideko gurdi-arin batean giz-emakume batzuek zijoazten. Ura gelditu zanean, tokia baze-goala ikusi-ta, neskatx bat artan sartu zan. Edeña zan neska; bañan alaere, an zeuden guztiak bereala nazkatu ziran: lepoa ezezik, kolkoa, besoak, zangoak, guztia oso lotsagañi zijoan da. Atsegiña zan, eta guztiakin izketan bereala asi zan; baña besteak erantzun uts bat egin, eta etzioten geyago aretarik ematen: itz motxak bakañik esaten zizkaten, zeramazkian gonak bezelakoak.

Bere kideko mutil apain-egoki bat bere aurrean zijoan, eta neskak oni besteai baño geyago

begiratzon zion, eta itzegin ere bai. Mutilak arpegi iluna ipintzen zion: baña neska etzan ixiltzen. Orduan mutilak, aitzakiren bat ez izan ezkerogeyago begiratu bear ziola gogoraturikan, albistari bat artu zuan eta irakurtzen asi zan.



Ori ikustean neska lotsatu zan, eta gauzak bestela gertatzen asi ziran. Gutxiago itzegiten zuan, eta esaten zuana ere, ez lenago bezin arin eta aro. Soiñekoa, lenbizi esku bataz, gero besteaz, gorde-gordezka lepo aldetik goratzen asi zan, eta oratz batez estutu zuan. Gero, otzak balego bezela, gañeko berogaia artu zuan, eta onen mauka luzeaz, besoak eskumutureraño estalirik

ipiñi zituan; eta berogaia antolatu aitzakian, gonak ere al guztian goratzen aritu zan.

Ori ikustean, guztiak poztu ziran: lotsa erabat galdu etzuala agiri zanda. Mutilak ere, irakurri itxuran egon arien, guztia sumatu zuan, eta onela itzegin zion:

—Neska, barkatu: gauza bat galdetu bear dizut. ¿Amarik bai al dezu?

—Bai; ta Aita ere bai: ta oraindik gazteak daude...

—¿Ta gurasoakin bizi zera?

—¿Norekin biziko naiz, ba?

—Ez dirudi ala... Umezurtz izango ziñala gogoratu zait, oñela jantzirik ikusi ezkerro... Gaiztoa etzerala orain ikusten degu; bañan oñelako soñekoak badarabiltzkizu, guri gogoratu zaiguna edozeñi gogoratuko zayo, ta zuzaz txar esango dute... Umezurtz izan ezkerro...

Umezurtza bere buruaren jabe. .

—Bai, ni ere lenengo aldietan asko lotsatzen nintzan (neskak au erantzutean lañitasun aundia erakusten zuan); baña lagunak txatxua ez izateko esaten ziraten, eta jostunak ere, lepo-azpi polita nuala ta, onela ta ala egin zitekela ta, besteak ere ala zeramatela ta, oñelako gauzak eten gabe esaten aritzen zitzadan, eta azkenean ipintzeko esan nion; eta badakizu zer gertatzen dan: bein oitu ezkerro ortara jartzen da...

—Beraz, gauz oietan ¿zuk nai dezuna egiten dezu?

—¿Nork, ba?

—¿Nork? Nik afebak baditut, eta zu baño zafagoak dirudianez; baño soiñekoren bat egin bear dietenean, guztia gure amak erabakitzen du, ta onen ixilean bestelakoak egingo balizkiete, uratu eraziko lituzkela ziur nago. Ofegatikan, ba, galdetu dizut umezurtz ote zihan...

Neskak etzuan itzik ere geyago atera. Burua makurtu zuan, eta begi eder-atsegintsu aietatik bi negar-malko aundi ta dirdaitsuak sortu zitzaizkan, arpegia ondo goñitu ta begiak bete betean jañi ezkerro. Lotsa-lotsa egin-da geratu zan gajoa.

Orduan guztiak esan zioten: *Oraintxe, bai, edera zaude. Begi busti ta gozo oiek damutasun eta naigabea erakusten dute, ta ofatzaz antolatu dituzun kolko-lepoak begirune zoragaria. Politia zera, ta orain Aingeru bat ematen dezu; bñan emen sartu zeranean, guztiok nazka-nazka egin-da geratu gera.*

Nor-bere eñira iritxi arte, guztiak alkañekin izketa gozoan joan ziran, eta neska pozak zoratzen.

Oni, geroz, besteak onela edo ala ibiltzen ziralagunak esaten ziotenean, edo gazteak zañak bezelakoak ez dutela izan bear, edo soiñeko au bestea baño politagoa dala, edo besteak pañegin-go ziotela, edo lagunak batek soiñekoari lepotik asko kentzen ziola, kolkoa erdi agirian geraturik, besoetan aragi utsa, zangoetan armearma sareak, gona motxak... emen esan deguna gogora ekañi ta txorakeri guztiak zapaltzen zituan. Eta amak aitatzen zituztenean, begietatik sua zeriola jartzen

esaten; bañan ergel-txatxu-ero asko dago (ezin zenbatu alak), eta bururik ez dutela dirudi: kristauak dirala, askoz gutxiago. Esnatu ditezen dioa au.

Cinematógrafo. Egizko izena erderaz auxen da; baña luzea dalako, *Cine* esaten diote. Bere aurrean gertatzen diran gauzak tresna onek arapatzen ditu, dabilzala ere, ta gero zapi batean ederki ateratzen ditu, guztiak ikusteko eran, naiz uruti gertatu. Zapi ori ormaren antzekoa da, ta askok ikusi dezateke.

Argi guztiak itzali-ta, tresnak duana bakañik irazekirik geratzen dala, tresnaren aurrean noizpait gertatu dana zapien ateratzen da, bizirik lez eta dabilela.-Lapuñak etxean sartzen diranean, edo elizan, ostutzera, nondik, nola... Etxekoren batek leiötik ikusten dituala ta keñuak egiten dituala... Lapuñak igesi lasterka joaten dirala ta lagun asko biltzen dala... Etxekoak negañez... Ori guztia begien aurrean ipintzen du, zapien, tresna oñek.

¿Ta maitekeri gauzatan? ¡Ikaragaña! Neska-mutilen ausardi ta lotsagabekeriak, oien ibilera txarrik, zikin eta nazkagañiak, ori guztia an ikusten dute, lotsa galdu, griña txarrik indaña artzen dute, ta umeak gauz oietan beren gurasoak bañon askoz geiago dakitela edozeñek ikusten du. Gauz auek lotsa kentzen dute, ta au galdu ezkerro, ezertaz ezin aritu.

Amonak bere alabari onelako gauzak esan zizkan batean, onek erantzun zion: Bai; baña txar-ak utzirik, onak bakarik artu ditezke.....

—**Amonak.**—Ta gauzak orela berezteko eza-
guera ¿non den? Gañera, ¿ez al dizkiñagu guzti-
ok griña txar-zikiñak?

—**Alabak.**—Ori ala da: lizun-loiak ordea, lo-
tsa arpegira ateratzen dute, ta oiek gogoz artuko
dituan kristaurik ez dago, ama...

—**Amonak.**—¿Ezetz? ¡Gajoa! Ura ta naiago.
Garbitasuna maite ditenenak begirun ori izango
diten; baña, *Cine* ta toki oietara joaten ditunenak,
ezta aztarnarik ere. Orek ustelkeria ezufetaraño
sartzen zieten-da.

—**Alabak.**—Ori geiegi esatea da, ama.

—**Amonak.**—¿Geiegi? ¡Bai zera...! ¿Zerga-
tik ez ditene, ba, *Cine* berean, guztia berdin artzen?
Gatza-ozpin-pipeñik ez dizkiten gauzak nai ez...

—**Alabak.**—Pozik egongo dirala uste det nik.

—**Amonak.**—¿Pozik? Ume gaitzgabeak, gura-
soak gauza txar-ak ikusten utzitzen etzietenak, bai:
baña *Cinera* maiz joaten ditunenak, itxusiak eta
gezak ditunela esango ditene, bai...

—**Alabak.**—Nik, ba, jai aratsaldetan ara bial-
zen ditut, eguraldi txara dagonean beintzat, eta
ez det uste kalte izaten dutenik...

—**Amonak.**—¿Ez? Orain ala esaten den. Ge-
ro gerokoa. Ikusiko diñagu...

Ori ortan gelditu zan; bañan umeak azi zira-

nean ama konturatu zan, eta entzun nai zioten guztiai auetxek esaten zizkien:

Āinek dakazkian kalteak...

Lenengoa: txanpon asko alpeñikan galtzea. Gutxi dirudi, bañan asko da. Eñotarako zoñuari zulotxo bat egiten bazaio, eñotara orduko erdi us-tua egongo da.

Bigañena: Geiegizko añetaz begiratu-ta, be-giak eñe ta ondatzen zaizkie.

Irugañena: Zain-meak (nervios) zer esanik ez dago. Esandakoaz gañera, dardara bizietan be-ti, gauza ikaragañiak ikusten dituztelako, ta oiek ametsetan ere burutik joaten etzaizkielako.

Laugañena: Gauza txar asko umeak ikusten eta ikasten dituztelako, beste asko ikasteko go-goa egiten zaie. Maltzuñak egiten dira, ta beñere jakin bear ez lituzteken gauzak lotsik gabe galde-tzen dituzte.


Boskañena. Gurasoak bialtzen dituztelako, edo berakin eramaten dituztelako, ikusten dutena txaña ez deizkie, ta gauza txañetan oitu egiten dira.

Seigañena. Aurtasunean maitekerietan asi-tzen dira, ta askotan, beren gurasoak ez dakiz-kiten gauza txañak aitatzen eta egiten dituzte.

Zazpigañena. Gauzak zapian ondo ikusiko badira, tresnatik datoñena ez, gañerako argi guz-tiak itzaltzen dituzte, ta argitan egingo ez liraken

gauz asko, ilunbean eñaz eta pozik egiten dituzte; ta gertu daudenak gaitz-bide aundia artu ere bai.

Zortzigarrena. Cine-zale ta Jainko-zale batera ezin izan (ayek askotan txararak jartzen baidituz-



te, ba). *Cine*'ra ta Jaun artzera... ¿naiko al du Onek? Biak nai dituanak, biak galduko ditu: ez batean eta ez bestean lasatasunik ez...

Oiek entzutean, auzoko emakume batek esan zion: Bañan ori *Cine* txararak egingo dute.

— ¡Jakiña! erantzun zion ark. Bañan ¿onak erakutsiko al dizkirazu zuk? ¿Bai al daude? Bat edo bat baliteke... baña ¿zenbat? Nik neskak Ikastetxera eramaten ditudanean, Irakaslariarekin egunero itzegiten det, eta egun batean ala esan ziran. Jai aundiren baterako beren Ikastetxera *Cine* eraman nai dutenean, gai politak eta garbiak ezin biñatuz ibiltzen omen dira, ta onenetakoren bat (edo besteak baño zikin txikiago duan'en bat) berezi añen, alaz guztiz ere puska batzuek kendu bear izaten omen dizkiete. Oñatx.

Beraz ¿*Cinea* berez txaña da?, esan zion beste batek.

Ez, berez txaña ezta: gai onak jañi ezkerro, ona izango da. Gañera, ondo erabili ezkerro, gauza beñiak ikasteko tresna txit ona da, begien bidez buruan sartzen dizkigu-ta. Baña gaur egunean *Cine* on bat nekez ikusten da, ta oñegatikan oietara joan bear eztala ziur esan diteke. Gogoan artu, ba, gauz abek.



**Lore politak izaten dira: bañenean ordea pozoi-
tsuak. ¡Añeta aundia, ba!**

**Gizonak txarponakgatik besteak ondatzen di-
tuzte. ¿Ta beren burua? ¡Jakiña!**

**¿Ama Elizaren eta kristauen etsairik aundiene-
tako bat? ¡Cinea!**

**Goiko irudiari begiratu. Bañengoak ¿zertan
daude? Atarietakoak ¿zer diote?**

Gure Jesus maitea

gure Jaun eta Jabea

Bein batean bi gazte euskaldun Andalucia'ko uri batera joan ziran, Málaga'ra. Garai txarëan iritxi ziran, bazkalondoan, eta zerbait artzeko asmoan piper-opilak eta ardo aundiak saltzen zituzten etxe batean sartu ziran.

Neskamea gauzak bila joan zanean, aruntz eta onuntz begiratzen asi ziran; eta dendako tokirik bikañenean Jesusen Biotzaren Irudia ikusi zuten. Bat batean alkari esan zioten: Motel, ez gaituk toki txarëan sartu, Jesusen Biotzaren Irudia or zegok. Alazan. Kristau onak ziran etxe artakoak, eta gure gazteak pozik egon ziran.

Egizko kristauak ez dira ezertaz lotsatzen, eta beren etxeetan, tokirik argienean, beren izakera erakusten dute. Zuk ere ori non nai egin ezazun, argitasun zerbait eman nai dizut. Aretaz irakuri.

Euskaldunak beti bristau onak izan dira: ofegatikan irakurgai auetan gure Erlijio maiteari beti begiratu diot.

Lenengo irakurgaia, Jaungoikoak gauza guztiak egin dituala esateko jafi nuan; eta azkenekoa,

Jaungoiko ori bera guztien Jaun eta Jabe dala, ta beragatikan guztiok bere Irudia Jargoi eder batean ipiñi bear degula gogoratzeko izan bedi.



Geran eta degun guztia zor diogu. Berak egin gaitu, erosi ere bai, laguntzen digu, ariskuetatik ateratzen gaitu, ta geroko Zerua eskeintzen digu.

Gure asabak izen on eta bikaña utzi digute: euskaldunari non nai ondo begiratzen zayo: euskaldunaz Lurbira osoan ondo itzegiten da. ¿Zer dala ta? Jainkozaleak beti izan diralako: Erlijioa, oitura onak, izkera ta abar, itz batean, Lege Zafra gogoan eta biotzean beti izan zituzten-da. Gure bidea ori da; ots txiki, ta bañen aundia; Jainkozale zintzo, ta egizko kristau. Ontarako *Jesusen*

Biotzaren Irudia Jargoian jartzeak asko lagunduko digu. ¿Nola? Bera gure Jaun eta Jabe egiten badegu, Berak agintzen duana bakarik egingo dugu, ta debekutzen duana utzi.

Gure etxean ipiñi bear degu, ba; ta ez nolainai, etxeko lekuri egokien eta bikaiñenean baizik. ¡Gauza edeña!

Jesus gure etxeko Nagusi izan ezkerro, gure etxeetan gauza txarrik ezin barkatu. Ezta biraorik entzun bear, loikeririk ere ez, ez eta besteak goiberatzerik.

Itzetan bezela, egiñetan ere *Jesús*'ek agindu bear du, oitura guztiak onak izan bear dute. Etxe oietan ez dira albistari txarrik ikusi bear, ez edergariz jantziak, ez eta oiek gabekoak ere; emakumeen begirunea uratzen eta ondatzen duten soñeko arin-zipolariak, gutxiago. Gabaz berandu edo era txarlean etxeratzen diran (edo etxeratzen dituzten) giz-emakumeak, zer esanik ez dago. Etxean matrakan eta kalamatrikan, edo etxekoen barutian bilera edo jostatzekeo leku nazkagarriak jartzen utzi, ezta gogoratu ere.

Itz batean; Jaungoikoari emanak dauden etxeak Jaungoikoarenak izan bear dute, ta egokiak ez diran gauzak oietan egin ez ditzaten, *Jesús*'en irudiak etxekoai itzal eta bildura eman bear die. Asmo ortan jartzen da.

Au bera beste gisa esan diteke: *Jesús*'en *Irudia* etxeko tokirik bikaiñenean, eta *Jesús* Bera gure biotzaren erdi-erdian.

Ori egiten badegu, *Jesús ona* gure Efi, Uri ta Efidietan egongo da: Agintariak beren etxean eta Erikoan Irudi ori ipiñiko dute, ta Berak bidez esango du. «*Lanegiten dezuten, eta nekepean zaudeten guztiak, Nigana etofi, ta Nik indartuko zaituet.*» (Math. XI-28).



Nagusi-ongilearen irudia aurrean eukitzea, guztiak ondo ikusten dute.

Nagusi-ongilerik onena Jesus da. Bere Irudia agirian ederki dago.

Irudi utsak zuzentzen gaituala dirudi. Nagusiak berak, askoz geyago.

Jaungoikoaren aurrean beti gaude. Irudia ikus-teak ori gogora ekartzen digu. Orela nai ta ez ondo ibili bear.



UTSEGIÑAK

Oso gutxi daude, ta eñaz ezagutzu ditezkenak. Alare, oná emen batzuek.

Oria	Erenkada	Dago	Irakuri
153	14	<i>Madalen</i>	Pantxika
266	22	<i>ñork</i>	iñork
323	13	<i>txaraz</i>	txafak
341	4	<i>genduteke</i>	ginduteke
358	27	<i>askok</i>	asko
385	17	<i>irurogeitamazazpiko</i>	irurogeitazazpiko



Arki-bidea

Orialdeak.

Agur Jaunak	1
Jainkoak guztia egin du	5
Nola erantzun diogu	7
Jesusen jaiotza	10
Egizko maitetasuna	13
Jesus ona ta umetxoak	16
Gure izakera	20
Aziera ona	23
Bat ona, bestea ohea.	26
Losentxariak	30
¿Egazteak ere bai?	35
¿Aizpa berdiñak? ¡Bai zera !	38
Euskaldunen aziera	41
Zeruko Aita ta etxekoa ere bai	45
Onegia zan.	48
Aita txatxua	54
Lege zoñotza ta mingain bikaña	59
¡Ura eiztaria!	62
Atsoaren sendagaya	65
Aundinaikeria	72
Ezin ikusi aundia	76
¡Oyek sinismenak!	80
Oni ondo begiratu	83
Biotz on bat.	87
¿Sinisgabeak ez? Mandoak bai	91

Jaungoikoaren saria	94
Guztiak irakaslari	98
Txorien kabiak.	101
Odolzalekeria, bai.	107
Jaiegunak Jaungoikoarentzat	111
Guztiak balekite...	117
Askotan ikusten degu...	121
Berandutxo, berandutxo...	126
Etorkizuna... ¿nork daki?	131
Etzuan berak ori uste.....	134
Zer ikusi, ura ikasi	139
¿Burua makurtu? Ezta..	145
Eztu iñork ere jakingo	151
Mutiltxo on-bizkoña	159
Besteena ezagutu: gurea ez	163
Beti ofela... ¡Gizajoa!	167
Arkumerik ez degu	172
Auek gauza arigariak.	178
Alakoakin bildurik ez.	183
¿Nolakoak dira erleak?	189
Etzuan beran ala uste	197
¡Oyek zomoño trebeak!	201
Jakintsuen esanak.	209
¿Erleak gaiztoak? Ikusi dezagun	212
Egun txar bat	223
Gubbiotañak dardaraz	227
Erleak aberastutzen gaituzte	233
¡Ayek, bai, euskaldun bikañak!	247
¿Nor? ¿Non? ¿zergatik?	252

Gutxi bezelakoa	257
Irakatsi beaŕean, ikasi	261
¿Guztientzat adiskide..?	266
Pilartxori eskeŕak: gañerakoan...	272
Yakindatzaile negargaŕia	276
Zor bat ordaintzen	281
Ama onaren alaba zintzoa	287
Nagusi-Etxekoandre bakaŕak	293
Umeak ondo azitzen	300
Adiskide on bat	304
Loretegia... bilera... gorotza...	308
¿Erleai kaltea? ¿Zergatik?	313
Eŕia ta izkuntza	319
Gauz onuratsuak zuaitzak	326
Nolanaiko kristauak	331
¡Etzion ziri txafa sartu!	336
Erdalzale paŕagaŕiak	341
Pozaren pozez.	353
¿Txafaŕak bai? Onak geyago...	363
Aita Santuaren itzaldia ¡Uŕutitik entzun!	367
¡Bai berdiñezak!	373
Mixiolariak—«China»	378
Gauza politak gertatzen dira	387
Ustelak eta nazkagaŕiak.	391
Gure Jesus maitea, gure Jaun eta Jabea.	397
Utsegiñak	401
Arki-bidea	402

